



ERRETIRATZEAREN HEROIAK

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA ETA
SARA HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN

(koord.)

ERRETIRATZEAREN HEROIAK ETA POLITIKO-MILITARRAREN DESEGITEA

FELIPE JUARISTIREN HITZAURREA

Euskarazko itzulpena: ARITZ GORROTXATEGI, 2022

EGILEAK

JUAN AVILÉS FARRÉ
SANTIAGO DE PABLO
XAVIER CASALS I MESEGUER
GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA
SARA HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN

MARÍA JIMÉNEZ RAMOS
RONCESVALLES LABIANO JUANGARCÍA
LUCÍA GASTÓN LORENTE
LUIS MIGUEL SORDO ESTELLA
GEMA VARONA MARTÍNEZ

The logo for 'tecnos' features the word in a lowercase, italicized, sans-serif font. A stylized graphic element, resembling a vertical line with a horizontal bar at the top and a curved hook at the bottom, is positioned to the left of the 'o'.



Azalaren diseinua:
Miguel Uriarte

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren,
Mario Onaindia Fundazioaren eta Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren
laguntza izan du lan honen edizioak.

Liburuan zehar azaldutako iritziak egileen erantzukizun eskusiboak dira, eta ez diete
argitalpena babesten duten erakundeen politikiei eragiten.

Azaleko argazkia. ETApM VII Batzarraren azken prentsaurrekoa, 1982ko irailaren 30a.
Iturria: EFE/lafototeca.com



Eskubide guztiak erreserbatuta. Legeak lan honen edukia babestuko du, eta kartzela zigorrak eta/edo isunak ezarriko ditu, baita kalteengatik dagozkion kalte-ordainak ere, baimenik gabe oso-osoan edo zati batean literaturako, arteko edo zientziako lanen bat kopia, plagiatu, banatu edo jendaurrean zabaltzen duenari; edota, edozein motatako euskarrian edo jendaurrean edozein motatako bide erabilia zabaldurik, lan horren transformazio, interpretazio edo antzeppen artistikoaren inguruan gauza bera egiten duenari.

© JUAN AVILÉS FARRÉ, SANTIAGO DE PABLO, XAVIER CASALS I MESEGUER,
GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA, SARA HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN,
MARÍA JIMÉNEZ RAMOS, RONCESVALLES LABIANO JUANGARCÍA, LUCÍA GASTÓN LORENTE,
LUIS MIGUEL SORDO ESTELLA y GEMA VARONA MARTÍNEZ, 2022

© Euskarazko itzulpena: Aritz Gorrotxategi, 2022

© del prólogo, FELIPE JUARISTI, 2022

© FUNDACIÓN CENTRO PARA LA MEMORIA DE LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO, 2022

© EDITORIAL TECNOS (GRUPO ANAYA, S. A.), 2022

Juan Ignacio Luca de Tena, 15 - 28027 Madrid



ISBN: 978-84-309-8635-4
Legezko Gordailua: M-22.159-2022

Printed in Spain



ETA politiko-militarraren biktimen omenez

Heroi klasikoaren lekua beste protagonista batzuek hartu dute azken hamarkadetan, nire ustez garrantzitsuagoak direnak, estilo berri bateko heroiak, garaipena, konkista, garaizta ordezkatzen ez dutenak, baizik eta uko egitea, eraistea, desmuntatzea. Negoziazioaren aditu horietaz arduratzeko arrazoi guztiak ditugu, gure kontinenteak haien beharra baitu bizitzen jarraitu nahi badu.

Clausewitzek, pentsamendu estrategikoaren klasikoak, erakutsi du erretiratzea dela eragiketarik zailena. Horrek politikan ere balio du. Posiblearen artearen *non plus ultra* posizio jasanezin bat uztean datza. Baina heroï baten handitasuna aurrez aurre duen misioaren zailtasunaren arabera neurtzen bada, hortik ondorioztatzen da eskema heroïkoa berrikusi ez ezik alderantzikatu ere egin behar dela. Edozein kirten gai da bonba bat botatzeko. Mila aldiz zailagoa da desaktibatzea.

[...]

Kontua ez da armagabetzearen heroï handi eta txikientzat errekonozimendu publikoa eskatzea, osterantzean eurek ere ez dute eskatzen. Ez da monumentu berririk behar. Bada garaia, ordea, protagonista berri horiek seriozki hartu eta bat datozen horretan eta nabarmentzen diren horretan kontuan hartzeko. Figura argitsuak eta izaki bihozgabeak baino ezagutzen ez dituen moral politikoa ez da gai izango halako azterketarik egiteko.

Hans Magnus Enzensberger: «Erretiratzearen heroïak»,
El País, 1989-XII-26.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	ETAPM, ZEROTIK INFINITURA <i>Felipe Juaristik</i>	Pág. 13
SARRERA	<i>Gaizka Fernández Soldevillak eta Sara Hidalgo García de Orellánek</i> ..	25
	I. BIKOTE BITXIA.....	25
	II. TRANTSIZIOA ETA BERE ETSIAK	28
	IV. ZERGATIAK.....	33
	V. ATZERALDIA	40
	VI. PROIEKTUA.....	43
	VII. ESKERRAK.....	48
	ERANSKINA.....	49
I. ATALA	NOLA AMAITU ZEN HIRUGARREN BOLADA TERRORISTA EUROPAN? <i>Juan Avilés Farrék</i>	53
	SARRERA	53
	I. HIRUGARREN BOLADA TERRORISTA EUROPAN	55
	II. NOLA AMAITZEN DEN TERRORISMOA.....	59
	III. ITZALTZEN DIREN SUGARRAK: ESKUIN MUTURRA	60
	IV. GARRANTZIRIK EZERANTZ JAISTEA: EZKER MUTURRA	62
	V. HERENTZIA POLITIKO ASTUNA: IPAR IRLANDA ETA EUSKADI.....	64
	ONDORIOAK	69
II. ATALA	ASKATASUNAREN ETA SUMINAREN ARTEAN. TRANTSIZIO GARAICO EUSKADI (1975-1982) <i>Santiago de Pablok</i>	71
	I. ALDI EZTABAIDAGARRI BAT	71
	II. BORROKA ETA ITXAROPEN GARAIA	74
	III. MAPA POLITIKO BERRI BAT.....	78
	IV. AUTOGOBERNUAREN HELBURUA	85
	ERANSKINA.....	95
III. ATALA	MUGEN GARRANTZIA TRANTSIZIOAREN INDARKERIA POLITIKOAN: ERRESISTENTZIA ARMATU ANTIFRANKISTA BERRIA, SAHARAKO GERRILLA ETA VALENTZIAKO <i>BLAVERISMOA Xavier Casalsek</i>	101
	SARRERA	101
	I. GERRA ZIBILAK BERUNEZKO URTEETAN UTZITAKO ONDAREA.....	104
	1. <i>Frankismoaren aurkako erresistentzia armatu berria eta «memoria zaharraren» pisua</i>	105
	2. <i>Ultraeskuindarren indarkeria eta 1936ko lubakien defentsa</i>	109

II. MENDEBALDEKO SAHARA: «HEGOALDEKO MUGA» ERABAKIGARRIA ETA AHAZTUA	110
1. Sahara, estatu arazoa Franco eta Carrerorentzat	110
2. Gerrillaren sorrera: OALSetik Polisariora	112
3. Abandonuaren aurkako erresistentzia: Francoren azken gerra... ..	113
4. Biktima ahaztuak eta artxibo eskurazinak	115
III. VALENTZIA ETA «INTENTSITATE TXIKIKO» INDARKERIA	116
1. Blaverismoaren eklosioa	117
2. «Intentsitate txikiko» indarkeria: garrantzitsua eta bakana	120
3. Muga autonomiko erabakigarria	124
ONDORIOAK: BOST AZTERKETA-EREMU POSIBLE	125
IV. ATALA ETA POLITIKO-MILITARRA, HASIERATIK AMAIERARA <i>Gaizka Fernández Soldevillak</i>	129
I. TZULERA	129
II. ETAPM-TIK EIARA	131
III. EUSKADIKO EZKERRA TRANTSIZIOAN	134
IV. POLIMILIEK KANPAINAK	138
V. 1980KO KRISIA	141
VI. ELKARRIZKETAREN ARTEA	146
VII. DISUASIOA ETA O-23 ^a	147
VIII. SU-ETENA	150
IX. ETAPM-REN HAUSTURA	152
X. ZORTZIKOAK ETA MILIKIAK ARMETARA ITZULTZEA	155
XI. ZAZPIKOEN BIRGIZARTERATZEA	158
ONDORIOAK	160
ERANSKINA	162
V. ATALA EUSKADIKO EZKERRA ETA BERE EKARPENA EGUNGO EUSKADIN <i>Sara Hidalgo García de Orellánek</i>	171
SARRERA	171
I. EUSKADIKO EZKERRA ETA BERE HETEROGENEOTASUN IDEOLOGIKOA	172
II. BOTEREA «UKITZEN DUEN» ALDERDI MODERNO BAT. EEREN GAINBEHERAREN HASIERA	176
III. ELKARGUNERAKO BIDEA EDO NOLA BATU BI KULTURA POLITIKO DESBERDIN	178
IV. EUSKADIKOEN EUSKALZALETASUNA PSE-EEN	181
V. ITXAROPEN HANDIAK ETA HONDAMEN HANDIA. EUSKADIKOEN ARRASTOA 1993 ETA 1994KO HAUTESKUNDEETAN	184
VI. EUSKADIKOAK ETA EEREN ONDAREA KARGU ORGANIKO ETA INSTITUZIONALETAN. IBILBIDEEN MEMORIA	185
VII. MARIO ONAINDIA FUNDAZIOA, EEREN ONDAREA ZAINTZEN	189
ONDORIOAK	190
ERANSKINA	191
VI. ATALA ETAPM-KO BIKTIMAK AHAZTEA ETA GOGORA EKARTZEA <i>María Jiménez Ramosek</i>	195
SARRERA	195

I. ETAPM-REN ONDORIOZ HILDAKOAK, ZENBAKITAN	196
1. Zenbat, noiz, non eta nola jardun zuen ETAPm-k	197
2. Biktimen profilak	200
II. ETAPM-REN BIKTIMAK DIKTADURAN	202
III. ETAPM-REN HILKETAK TRANTSIZIOAN	206
1. Hilketekin amaitu zuten hiru bahiketa	206
2. Komando Bereziek bere kasa egindako hilketak	208
3. 1979, ETAPm-ren sarraskiaren urtea	211
4. 1980 Eta jazarpen-indarkeria	215
5. Martín Barrios, polimilien beltzargaren kanta	218
IV. EMANDAKO BIDEGABEKERIA	219
V. ETAPM-REN BIKTIMEN MEMORIA PUBLIKOA	224
1. ERANSKINA	226
2. ERANSKINA	228
VII. ATALA FILM BATEN TANKERAKO AMAIERA. ETAPM VII BATZARRAREN DESEGITEA DOKUMENTALEAN ETA FIKZIOZKO IKUS-ENTZUNEZKOAN <i>Roncesvalles Labiano Juangarciak eta Lucía Gastón Lorentek</i>	237
SARRERA	237
I. ARMEI AGUR. POLIMILIEK AMAIERA ZINEMA DOKUMENTALEAN	238
II. MADRIDIK BIARRITZERA. ETAPM TALDE TERRORISTARI BURUZKO DOKUMENTALETAN	241
III. «GUK EGIN GENUENA». POLIMILI BATEN MEMORIA AMERIKAN	247
IV. «AMAITU DA». ARMAK ISILARAZTEA LORTU ZUEN GIZONAREN KONTAKIZUNA	251
VIII. ATALA ETA MILITARRA. PORROT BATEN AZTERKETA <i>Luis Miguel Sordo Estellak</i>	257
SARRERA	257
I. ETAM. OKERREKO BIDEAREN AUKERA (1974-1982)	259
II. ETAM-K «BORROKA ARMATUA» UZTEARI UKO EGIN IZANA ULERTZEKO ARRAZOI BATZUK (1981-1982)	265
III. ETAM-K JARRAITUTAKO BIDE DESEGOKIAREN AZTERKETA (1976- 1982)	269
1. 1976 Eta 1981 arteko aldia	269
2. 1981 Eta 1984 arteko aldia	272
ONDORIOAK	278
ERANSKINA	281
IX. ATALA JUSTIZIA MAILAK DENBORAREN BEKTOREAN: JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA ETA EGIARAKO ESKUBIDEA ETA POLITIKO- MILITARRAREN IZENEAN EGINDAKO DELITUETAN <i>Gema Varona Martínezek</i>	283
SARRERA	283
I. ZEIN IZAN ZEN KONPONDU BEHARREKO KALETA?	286
II. ZEIN DA ORAINDIK KONPONDU GABE DAGOEN KALTEAREN GAUR EGUNGO INPAKTUA?	288

III. ZER EGIN DEZAKEGU ERREPARATZEKO?.....	291
ONDORIOAK: GAI KOMUNAK, IRAGANEKOAK ETA EGUNGOAK.....	294
OHARRAK	297
EGILEAK.....	323
BIBLIOGRAFÍA	327
SIGLAK	345

HITZAURREA

ETAPM, ZEROTIK INFINITURA

FELIPE JUARISTI

1

Hasten dira noizean behin
ordukoez hizketan,
nor zegoen LKIn, nor OICn,
non dagoen orain bata,
non bestea,
zeintzuk ziren komunistak,
zeintzuk troskistak...

Aritz Gorrotxategi. *Uda betea*, 2022.

Idatzitakoak ez du beti errealitatea islatzen, ezta irakurritakoak izan zena eta benetan gertatu zena ere. Gai honetan, beste askotan bezala, egia ez da egiazkoaren sinonimo, eta ziurtasunaren kontzeptuak ere ez ditu zalantza guztiak uxatzen. Baina, egia esan, herrialdearen azken historia ezagutu eta hartan aurrera egin ahala, nahiko bibliografia dago ETA politiko-militarrari buruz (ETApM), duela berrogei bat urte desagertu zen erakundeari buruz. Gaizka Fernández Soldevillak liburu beharrezkoak eta ausartak idatzi ditu, zentzu batean, gaiari buruz. 2013an *Héroes, heterodoxos y traidores. Historia de Euskadiko Ezkerra (1974-1994)* izeneko liburua argitaratu zuen. Galdera egokia eta batere eskolastikoa ez dena honako hau da: noiz desagertzen da benetan erakunde bat? Erabiltzen diren datek, datu ofizialek, une bat adierazten dute, eguna eta urtea adierazten dituzte, errepideetako mugarriak bezalakoak dira, datuak ematen dizkiete historialariei eta gaia aztertzen dutenei, egon badirelako, egon ziren eta egongo dira. Alderantziz gertatzen da ibaiekin, korronte naturalekin, euriak bultzatutako ur-emariekin, desnibelak baliatzen baitituzte lautadara iristeko, non lasai-lasai hedatzen diren, inguruan lohi emankor bat, uzta bat edo gehiago,

aberastasun-testamentu urtsu bat utziz, elkar ikusi, isuri eta itsasoan desagertu arte. Sublime jartzen bagara, ez dago ibairik ozeanoaz haraindi, baina iturburu ofiziala baino lehen ibairik ba ote dagoen ondoriozta daiteke. Erakunde politiko edo militarren kasuan, kontua da ez dutela hil nahi, ez dituzte beren urak ahanzturaren itsasoan isuri nahi, edo beste ibai batean, emaritsuagoa, oparagoa, onuragarriagoa.

Spinozarentzat *conatus* hitzak existentziaren oinarria esan nahi du. Horrela agertzen da bere *Etikan*: «Gauza bakoitza bere izatean irauten ahalegintzen da». Edo, beste era batera esanda: «Gauza bakoitzak bere izatean irauteko egiten duen ahaleginak ez dakar inolako denbora mugaturik, mugagabea baizik». Banakako edo taldeko izaki orok, ahalegin indibidual edo kolektibo batean, uko egiten dio desagertzeari, irautea baita ezein izakiren bizitzaren edo heriotzaren funtsezko erronka, edozein edo edozer dela ere. Aurre egiten ez duena hil edo desagertu egiten da, nola edo hala. Eta erresistentzia orok beti eskatzen du estrategia bat, sortutako arazoak planteatu eta konpontzeko modu praktikoa bat. Forma sozial edo politiko oro erresistentziaren oinarritzko zutabea oinarritzen da. Aurre egiteko modu asko daude.

Ernesto Sábatok testu eder bat idatzi zuen gaiari buruz:

Aurre egin behar dela uste dut: horixe izan da nire leloa. Baina, gaur egun, zenbat aldiz galdetu diot neure buruari nola gorpuztu hitz hori. Lehen, bizitza horren gogorra ez zenean, aurre egitea ekintza heroiko gisa ulertuko nuen, eromenera eta zorigaitzera bultzatzen gaituen tren honetan sartzeari uko egitea bezala. Eska al dakiok bertigoaren jendeari matxinatzeko? Eska al dakieke nire herrialdeko gizon eta emakumeei kapitalismo basati honetako kide izateari uko egiteko, baldin eta beren seme-alabak eta gurasoak mantendu behar badituzte? Erantzukizun hori beren gain hartzen badute, nola utziko dute bizitza hori?

Muturreko erresistentziaren epika bat dago, «Ez dira pasatuko!» gaurkotu moduko bat, borroken eta egoeren imitazio bat, non ez zegoen aurre egitea beste aukerarik. Madril, 1936-1939. Poetek erresistentziaren mitoan lagundu dute, ai, poetak! Platonek ez zituen nahi izan bere errepublika idealean, baina espainiarrean, azkenekoan batez ere, oso maitatuak ziren.

Miguel Hernándezek idatzi zuen:

Ateak zerukoak dira Madrilgo atek.
Herriak itxiak inork ezin ditu ireki.
Octavio Pazek idatzi zuen:
Ez dira pasako.
Nola betetzen duen oiher horrek aire guztia
eta harresi elektriko bihurtzen!

«*Aberria ala hil!*» «Ez dira pasatuko!» horren bertsio euskalduna da. Uste dut ez dela izan gure herrian eraso faxistaren aurrean hiri baten erresistentzia, Madril, Hernándezek edo Pazek bezala kantatu duen poetarik. Lauaxeta Gernikako txikizioaren lekuko izan zen. Lauaxeta zitalki fusilatu zuten. *Lauaxeta*,

lau haizetara. Numantzia erresistentziaren beste adibide bat da: amore ematea edo esklabo gisa hiltzea, edo amore eman gabe hiltzea. Ez zegoen beste aukerarik.

ETAPM desegin egin zen, baina ez hutsean, baizik eta bere nahiak eta ideologia biltzen zituen beste erakunde batean. Elkarrizketen, elkarkerien, akordioen, isilpeko itunen edo ia isilpekoen emaitza izan zen, non interes askok bat egin, topo egin eta talka egin baitzuten, ez denak aho betean eta esplizituki aitortuak, ezta, noski, argituak ere.

Politikaren munduan ez dago hutsunerik; erakunde batek uzten duen lekua beste batek betetzen du, eta horrela hurrenez hurren. Ezer ez da desagertzen, metamorfizatu egiten da, Ovidiok abestutako antzinako heroiak bezala. Denak irauten du, baina beste era batera; batzuetan, inork alde aurretik espero eta auresuposatzen ez duen modu batean.

2

Sioux-ekin noa, Vietcong-en aldera pasatzen naiz
mairuarekin borrokatzen naiz eta masoi egiten naiz
Judas eta Mata-Hari bezalakoak gara
ama saltzen dugu mokadu batengatik.
Gora traizioa!

Siniestro total, *Etsaiarentzat lan egin*.

José Antonio Egidok *Viaje a la nada, principio y fin de Euskadiko Ezkerra* izenburua duen liburu bat idatzi zuen. Aspaldi irakurri nuen liburua, eta bere irakurketan aurrera egin ahala murrizten joan zitzaidan interesa. «Ezker abertzalea» deritzonaren zati batek ETAPM-ren desagerpenaren, Euskadiko Ezkerren sorreraren eta hurrengo noraezaren, elkartzaren edo talkaren aurrean izan zuen sentipena, pentsamendua baino gehiago, jasotzen du. Liburuaren sarreran egileak egiten duen galdera honako hau da: «Nola da posible ETA pm-EIAREN proiektu iraultzailetik bere jatorriari horren antagonikoki aurka egiten dion alderdi bat sortu izana?».

Liburua 1993an argitaratu zen, duela ia hogeita hamar urte. Denbora horretan, mundua asko aldatu da. Lehen ziurtasun mordo bat zena zalantza-itsaso bihurtu da; orduko ilusioak egungo fedegabetasun politikoaren haztegia dira; belaunaldiak bata bestearen atzetik etorri dira, batzuk batere nabarmendu gabe; seme-alabek gurasoengandik jaso dituzten sinesmenek horitzen dihardute belardi lehor eta mortu batean. Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) desegin egin zen, eta, testu hau idazten ari naizenean, Errusia Ukrainan ari da borrokan, hura inbaditu ondoren. Batzuek uste dute dena aldaezina dela, fedea nahikoa dela, edo fedez ulertzen dena. Gorbatxoven ondotik Yeltsin ezegonkor bat etorri zen, eta honek Putin izendatu zuen oinordeko, boterean jarraitu nahi duena, infinituraino. Spinozak infinituaren eta

betierekoaren kontzeptuen arteko aldea gogoratzen zuen. Existentziaren, esentziaren eta botere substantzialaren identitatea da betierekotasuna deitzen duena. Spinozarentzat «esentzia, existentzia eta potentzia berdinak dituen izatea da betierekoa». Infinitua ez da hasiera eta amaierarik gabea dena (infinitu negatibo soila), eta bai bere burua baldintzarik gabe eragiten eta sortzen duena (infinitu positiboa). Infinitua, Spinozaren ustez, Jainkoa baino ez da, edo modernitate honetan egin ditugun edo fabrikatu dizkiguten ordezkioak: aberria, iraultza, etab.

Arthur Koestler pertsonaia bitxia izan zen. *Hutsa eta infinitua* (1940) idatzi zuen, 1936ko abuztutik 1938ko martxora Moskun egindako epaiketen aurkako alegatua. Epaituen eta ondoren exekutatuen artean Leninen hainbat burkide zeuden, Zinoviev, Kamenev, Bujarin, Radek eta Rykov, «Guardia zaharra» deiturikoaren partaideak. Orduko jende guztia harritu zuena zera izan zen, epaituek onartu egin zituztela haien aurka egindako salaketak, gezur sorta bat zirela jakinda. Koestlerren eleberrian, kamarada bat alde zuzetik kondenatua izan den pertsonaia bat konbentzitzen saiatzen da, bere akatsak onartu eta zigorra onartu behar duela esanez, komunismoaren eta gizateriaren onerako, ideia gorena, komunismoaren doktrina, edozein militanteren pentsamendu indibiduala baino handiagoa delako. Eta “ideia” horrengatik sakrifikatu eta bizia eman behar da, hala eskatzen bada. Horixe pentsatu zuten epaiketa horiez lehen unean. Errealitatea, azken dokumentuek erakusten dutenez (ikertzaileentzat hamarkadetan zehar debekatuta egon ostean), prosaikoagoa eta zehatzagoa da. Zinoviev zitalki torturatua izan zen hainbat egunez. Kamenevek ezinbestean aitortu zuen; bere seme gazteena hiltzeko mehatxua egin baitzioten. Bitxia bada ere, seme hori izan zen “purgetatik” bizirik ateratzen familiako bakarra. Aitortzen bazuen, urkamendian hil beharrean kartzelara joan zitekeela pentsatu zuen Radekek. Beriaren agente batek hil zuen espetxean. Ez zen haienganako errukirik izan. Sortzen eta garatzen lagundu zuten makineria errepresiboak errukirik gabe jokatu zuen eurekin, hil arte. Batzuetan, hobe da iragana iritsi arte itxarotea, berarekin esertzea, begietara begiratzea, ihes egin beharrean, jakinda zure atzetik ibili eta azkenean harapatuko zaituela.

Isaac Deutscherrek, *Heretiko eta arnegatuak* (1955) liburuan, atal oso bat eskaini zion Koestlerri. Heretikoen eta arnegatuen arteko distantzia funtsezkoa da. Trotskiri buruzko biografia gogoangarri baten egilea den Deutscherren arabera, heretikoak dira, Alderdiarekin hautsi arren, komunismoaren bidean mantentzeko joera dutenak, egiazkotzat jotzen baitute. Arnegatuek, ordea, hautsi egiten dute beren antzinako kredoarekin. Heretiko baten eta arnegatu baten arteko kontrastea basatiagoa da, noski, errebelde baten eta iraultzaile baten artekoa baino. Lehenengo kontraesana barnekoa da, edo barne-kontsumokoa; bigarrena azaleratu egiten da, kanpora ateratzen da, unibertsal bihurtzen da. Deutscherren liburua munduan izan diren “ortodoxo” guztientzako

gida-liburua da, José Antonio Egido barne. Historia egin ordez, kasurik onean hura asmatzen duten edo, besterik gabe, onesten duten erabilera-esku-liburua sozializatzen duten historialarien ispilua da.

Idazle gutxik jakin izan zuten, Koestlerrek bezala, konbertsioaren prozesua eta garai baten desengainuaren prozesua deskribatzen. Konbultsio eta izu garaietan ideal batekiko atxikimendu hautsezinak eskatzen dira beti. Aztora-men garaian, esan zuen San Inaziok, hobe mudantzarik ez egitea. Euskal nazionalismoaren zati batek, nolabait, maxima hori bere egin zuen, eta ez aldatzea eta betiereko kezkan bizitzea aukeratu zuen.

Matxinoak subjektu deseroso bihurtzen dira azkenean, Koestlerren arabera:

Errebelde kronikoki sumindua iraultzaile kontzientearengandik bereizten duena da lehena kausaz aldatzeko gai dela, eta bigarrena ez. Errebeldeak bat-batean bere haserrea bidegabekeria horren aurka zuzentzen du, bat-batean haren aurka; iraultzailea metodoz gorrotatzen duen gizona da, bere gorroto-ahalmen guztia objektu bakar batean bildu duena. Errebeldeak beti du ezaugarri kixoteskoren bat; iraultzailea utopiaren burokrata da. Errebeldea sutsua da; iraultzailea, fanatikoa. Robespierre, Marx, Lenin iraultzaileak ziren; Danton, Bakunin, Trotski errebeldeak. Oro har, iraultzaileek aldatzen dute historiaren ibilbide materiala, baina errebelde batzuek arrasto sotilagoa eta, hala ere, iraunkorragoa uzten dute bertan.

Hor, testu horretan, *Gizon matxinatuaren* Camus dago, hor dago disidentziaren ernamuina, hor dago dogmarekiko haustura, fede gisa, gida material eta espiritual gisa, gogamen, pertsona eta herrien gaineko hertsapen-tresna gisa sublimatutako «ideia»rekiko haustura.

Gure herrialdera itzuliz, arnegatua, baita heretikoa ere, traidorearen sinonimoak dira. Herri batzuetako hormak halako deialdiz zikindu ziren. «Imanol, traidore», «Yoyes, traidore», etab. Traidoreen zerrenda oso luzea zen, abernuaren bulegoraino ere iristen zen. Baina infernuko ateak zeharkatu dituenak bakarrik azal dezake han ezkutatzen dena, zehatz-mehatz azal dezake han erakusten diren galdara erraldoietan egosten dena. Egia hori deserosoa eta ukaezina da, ziurtasun asko zalantzan jartzen dituelako; inork gutxik entzun nahi dituelako istorio desatseginak: adibidez, ezer ez dela pentsatzen zen bezalakoa, iraultza ez dela esaten zuten bezalakoa, erailtzea, ustez bidezkoa den kausa batengatik bada ere, erailtzea dela...

Europar nahiko azkar jakin zen naziek heriotzaren teknika industrial bat garatzen zutela kontzentrazio-esparruetan. Hala ere, Vasili Grossmanek tropa sobietarrek Treblinkan aurkitu zutenari buruzko lekukotasuna eman arte, inork gutxi larritu zen. Era berean, jakin zen bazirela preso, esklabo eta lanerako eremu sobietar ezatseginak, non agintariek kondenatuak pilatzen zituzten. Gutxik sinetsi nahi izan zuten, istorio horiek baino ideia handiago eta eztabaidaezinoago bat zegoelako, eta ideia hori Gizateriari zegokion, oro har horrela hartuta. Eta batzuentzat hain handia eta hain beharrezkoa zen ideia hori komunismoarena zen, eta suposatzen zen ideia horrek bakea, harmonia eta askatasuna ekarriko zizkiola gizadiari, berdintasunaz gain.

Horregatik, heretiko, arnegatua, hezigaitza, disidentea horren gaizki ikusiak eta okerrago begiratuak izan dira beren sinesmenei biziki atxikiak dauden gizarteetan, hala nola euskal gizarteetan. Substratu ilun eta ezkutuenetan oraindik ere nagusi izandako katolizismoaren ondorio bat da, antzinako inkisizioaren ihakin bat.

Jesús Casquetek 2009an argitaratu zuen *En el nombre de Euskal Herria. La religión política del nacionalismo vasco radical*. Gogoeta hau ateratzen dut liburu horretatik:

Erljio sekularrek funtsezko lau ezaugarri partekatzen dituzte. Lehenik eta behin, politikaren berezko entitate bat sakralizatu dute, hala nola arraza, klasea edo nazioa. Kategoria horiek «fedearen, erreberentziaren, kulturearen eta debozioaren objektu» bihurtzen dira komunitate sinestuneko kide eta jarraitzaileentzat. Ageriko frogak da, fede sekular horren defentsan, sinestunek norberaren sakrifizioarako («martirioa») eta, batez ere, besteren sakrifizioarako («etsaia»ren, «desleiala»ren edo «traidorea»ren hilketa) duten jarrera. Bigarrenik, erlijio politikoen autonomia indibiduala ukatzen dute, eta «sinestuna» mugimenduaren helburuen mende baldintzarik gabe jarri behar dela aldarrikatzen dute. Hirugarrenik, talde horien azken helburua (zeintzuen emozio eragilea gorrotoa baita) arraza, etnia eta/edo ideologikoki homogeneoa den gorputz bat osatzea da; beraz, kolektibotik aldentzen den oro «betebehar moralaren eremutik» kanporatzen dute, dela inklusio-irizpideak ez betetzeagatik, dela dogmekin bat ez etortzeagatik. Horrela, arerioak «ageriko etsai bihurtzen dira, eta horiekin erabili beharreko espediente bakarra erazketa indarkeriarena da». Eta, laugarrenik eta azkenik, erlijio politikoen ezaugarri bereizgarria da «izaera politikoko *corpus* dogmatikoaren inguruko hedapen sinboliko eta erritual sofistikatu» dutela.

Politika erlijioaren guztiz kontrakoa da. Baina, Euskal Herrian, askotan ez da zentzu horretan ulertu. Clausewitz parafraseatuz, «politika beste bide batzuetatik praktikatuak erlijioa» dela diot.

3

Bere lorategia lantzen duen gizon bat, Voltairek nahi zuen bezala.
Lurrean musika egotea eskertzen duena.
Etimologia bat atseginez aurkitzen duena.
Hegoaldeko kafetegi batean xakean isilean jokatzeko ari diren bi langile.
Kolore eta forma bat aurrez pentsatzen dituen zeramikaria.
Orri hau ondo konposatzen duen tipografo bat, agian atsegin ez duena.
Emakume bat eta gizon bat kantu baten azken hiruko handiak irakurtzen.
Lo dagoen animalia bat laztantzen duena.
Egin dioten gaitz bat justifikatzen duena edo justifikatu nahi duena.
Munduan Stevenson egotea eskertzen duena.
Besteek arrazoi izatea nahiago duena.
Ez ikusiarena egiten duten pertsona horiek mundua salbatzen ari dira.

Jorge Luis Borges, *Bidezkoak*.

Hannah Arendtek eta Walter Benjaminek Parisko erbestean ezagutu zuten elkar. Arendten lehen senarra, Günther Anders, Benjaminen bigarren lehen-gusua zen; beraz, familiakoa zen, ahaidetasuna, urrunekoa izan arren, balioetsi eta kontuan hartzen zen garai batean. Arendtek «perla-arrantzale» deitzen zion Benjamin, gaitan sakontzeko, bizitzaren gauzetan murgilduz barneratzeko ohitura zuelako. Arendt Gurseko kontzentrazio-esparruan giltzapetu zuten frantziarrek, baina ihes egitea lortu zuen. Datuen maitale denarentzat, Arendt Gursen egon zenean ez zegoen ez euskaldunik ez espainiarrik tartean. Batzuk Espainiara bidali zituzten, Francoren eskuetara, beraz, edo lan-batailoietan lerro-lerro jarri, esklabo gisa, edo jazarri. Jende gutxi daki, oraindik, non dagoen Gurs. Arendtek dioenez, Lourdesen zegoela, xakean jokatzeko zuten Benjaminen aurka. Honek ez zuen muga gainditu eta Portboun hil zen. Arendtek Ameriketara iristea lortu zuen. Biek ezagutu zuten indarkeria mota jakin bat, nazismoak erabilitakoa; biek utzi dute arrasto sakona gure pentsamenduan.

1969an, hil baino urte batzuk lehenago, Arendtek *Indarkeriaz* izenburua duen tratatu labur bat idatzi zuen. Gertatuak ziren Berkeley, Paris eta Berlingo istiluak edo matxinadak. Hego Amerikako eta Afrikako gerrillak armatzen ari ziren. Dagoeneko Frantz Fanon doktrina ezartzen ari zen *Lurraren kondenatuak* (1961) lanarekin. Parisko matxinada (68ko maiatza) gure oroimenearekin bat eginda eta gure mitoei lotuta geratu da, hatzean lotzen dugun lokarria bezala, gogoratu behar dugula gogorarazteko. Arendtek liburu horretan dioenez, De Gaulle jenerala Jacques Massu militar eta torturatzailearekin bildu zen, maiatz osteko krisian gudaroste frantsesaren zorionak lortu nahian. Adibide hori jartzen du Arendtek erakusteko indarkeriak epe laburrera baino ezin duela lortu bere helburua, ez luzera; eta askotan, ez beti, espero denaren kontrako bidetik. Gerra hotza bizi zen (gerra, hala ere): ikasleen matxinada, arrazakeriaren aurkako martxak, Vietnamgo gerraren aurkako manifestazioak, non Arendten teoria bat frogatuta geratu zen, indar metaketak garaipenera eramaten ez duenarena, batuta dagoen gizarte (edo herri) baten aurka bada. «Herri batua ez da inoiz garaitua izango» oihukatzen zen Txilen, oihu egiten genuen Madril, Bilbon, nonahi. Baina herria garaitua izan zen, beharbada ez zegoelako uste bezain batua. Arendten arabera, boterea eta indarra kontzeptu desberdinak dira, boterea ez da indarrean oinarritzen; indarkeria boteretik ez dagoenean edo boterearen absentsia dagoenean sortzen da. «Denak Baten aurka», boterearen funtsa da; «Bat denen aurka», indarkeriarena. Montesquieuk honela azaldu zuen: «Tirania da gobernu mota guztietan bortitzena eta indar gutxi duena».

Arendtentzat indarkeriak justifikazio bat behar du, gida bat, helburu zehatz bat. «Indarkeria, boterea ez bezala, mutua da: diskurtsoa amaitzen den tokian hasten da», idatzi zuen *Ulermena eta politikan*. Indarkeriaren gaia hedabideen eta helburuen dialektikan txertatuta dago. Boterea helburu bat da berez, «botereak ez du justifikaziorik behar»; indarkeria bitarteko bat baino ez da, tresna bat. Are gehiago, indarkeriak boterea suntsi dezake,

baina inoiz ez sortu. Izaera instrumentala duenez, indarkeriak askapena lor dezake, baina ez askatasuna, eta Arendtentzat horixe da politikaren zentzua. Eta boterea galtzeak indarkeriaren erabilera areagotzea sustatzen du ordezeko elementu gisa. Botereak indarkeria lotzen, geldiarazten eta erregulatzen ez duenean, suntsipen-bitartekoez helburua bera irensten dute; horrek botere ororen erabateko suntsipena eragiten du, eta izu bihurtzen da orduan. Horrenbestez, Arendtek honako hau dio amaitzeko: «politikoki, ez da nahikoa esatea boterea eta indarkeria ez direla gauza bera. Boterea eta indarkeria kontrajarriak dira; bata erabat menderatzen duen lekuan, besteak huts egiten du». Liburua arretaz irakurri ondoren, indarkeria inola ere ez dela zilegi ondoriozta daiteke. Arendtek bere garairako idazten du, ez etorkizunerako. Orduetik, indarkeria gorputz askotan gorpuztu eta bereizi da, larruz aldatu da, ahal izan duen guztietan. Arendtek ez zuen irailaren 11 ezagutu, ezta data horren ondoren munduan piztu zen indarkeria ere. Ez zituen gerra modernoak ezagutu, Balkanetako, Ruandako «garbiketa etnikoa»k, Al-Qaedaen terrorismoa.

Euskadi Ta Askatasuna (ETA) frankismoarekin jaio eta demokrazian hiltzen den erakunde bat da, haren aurka gogor eta ankerki borrokatu ondoren. Frankismoa ez zen erregimen legitimo bat, militarrek bultzatutako estatu-kolpe baten emaitza baizik, Espainiako sektore atzerakoiaren adostasunarekin. Gainerako nazioek Francoren gobernua, goiz baino beranduago, onartu eta *de facto* legitimatu zuten. Franco boterean betikotu zen hil zen arte, 1975ean. ETA ere ez da inoiz erakunde legitimoa izan, nahiz eta bere historiaren une batzuetan bere burua legitimatu nahi izan, batez ere Espainiako gobernuekin negoziatu zuenean. Haien indarkeriak iraultzailea izan nahi zuten. Demokrazia arbuaiatu, bazterreratu, mespretxatu zuen; arriskuan jarri zuen, eta autoritarismoaren, hau da, faxismo postmodernoaren zaldietara bota zuen. Ez ditut frankismoa eta ETA alderatu nahi, ez baita posible bi magnitude hain ezberdin eta urrun beren jatorrietan alderatzea. ETAk ez du erregimen frankistak adina biktima eragin, nahiz haietako bakoitzak min ematen digun. Biktimen memoria bizia da ETAREN porrota gehien ikusten den lurraldea. Politika memoriaren eraikuntza bat da beti, historiaren adostasunarekin. ETAk frankismoaren aurka borrokatzen hasteak, armekin, gazte askoren begikotasuna piztu zuen, bai eta hain gazte ez zirenean ere, borroka horretan iraganeko gelditasunaren konponbidea ikusten baitzuten, edo beren erresuminaren emaria igaroko zen bidea. Matxinada eta iraultzaren irrika nahasten ziren garaiak ziren, non Aljeriako eta Kubako adibideek nolabaiteko itxaropena sorrarazten baitzieten askapen-mugimenduei. «Boterea pistola baten kanoitik sortzen da» azpimarratu zuen Mao Tse Tungek, jakinda ezinezkoa dela estatuek armategietan, gero eta gehiago, gordetzen dituzten armen aurka borrokatzea. Guevara, *Che*, bere helburua bete aurretik hil zuten. Haren porrota amets iraultzailearen porrota izan zen. ETA Txabi Etxebarriarekin hil zen, 1968an, baina ez zuen jakin, ez genuen jakin, 2011. urtera arte. Zergatik iraun zuen hainbeste urte galdera ona da

4

Belaunaldi bakoitzak, zalantzarik gabe, mundua berregitera deituta dagoela uste du. Nireak badaki, ordea, ez duela egingo. Baina bere eginkizuna are handiagoa izango da, beharbada. Mundua desegitea eragoztean datza. Historia ustel baten oinordekoa, non iraultza zapuztuak, teknika zoratuak, jainko hilak eta ideologia ahituak nahasten diren; botere kaskarrek dena suntsi dezaketenean, baina jada konbentzitzen ez dakitenean; adimena gorrotoaren eta zapalkuntzaren neskame bihurtzeraino makurtu denean, belaunaldi honek, bere baitan eta bere buruaren inguruan, berrezarri egin behar izan du, bere ezezkoetatik abiatuta, bitiztea eta hiltzea duin bihurtzen duen horren apur bat.

Albert Camus, *Nobel Sariaren Hitzaldia*, 1959.

«Ez da inoiz ETA onik egon». Gogoan dut esaldia, egun batean erakundeko kide izan ziren gizon eta emakumeen ahotan. Familiarteko bileretan esaten zuten, lagunarteko bazkarietan, urtemugetan, barre eta musika artean, umore onean. Gogoeta egiten nuen, eta neure artean esaten nuen: «Nola liteke jende on hori, orain ikusten dudana bezalakoa, ona ez zen erakunde bateko kide izatea, esaten duten bezala?». Ez nuen ulertzen. Eta ETA txarra bazen, haiek egin zutena, erakundeko kide izan ziren bitartean ere txarra izan zen. Edo, galdera beste era batera eginez: «Noiz konturatu ziren haiek erakundearen gaiztakeriaz? Jada kanpoan zeudenean?». Izan ere, barruan zeudela, ETAKoa izatea txarra zela konturatu baziren eta, hala eta guztiz ere, aurrera jarraitu bazuten, onak ez zirela izan pentsa dezakegu. Era berean, galde daiteke «ona» edo «txarra» dikotomia erakunde politikoei ezar ote dakiekeen, gizakiei ezar dakiekeen neurri berean. Oroimenarekin du zerikusia, «oroitzapenaren ahalmen espiritualarekin», Hannah Arendten ustez, eta horretan San Agustini jarraitzen dio. Gogoratzeko ahalmenik ez bagenu, bizi izandakoa gure bizitzaren hurrengo unean ahaztuko bagenu, munduan ez legoke ona eta txarraren arteko bereizketarik, ez legokeelako iraganeko denborari buruzko kontzientziarik. Baina giza loturak ere ezinezkoak lirateke, ezagutzen ditugun moduan; ezinezkoa litzateke politika, munduan egotea eta jardutea.

Militantzia urte haiek akats bat izan al ziren? Izan zen hura konpontzen saiatu zenik; damuak bultzatu zuen, bere iraganean egindakoaren kontra, bere burua berrerosteko modu bat bezala jokatzera, egindako laidoak zuzentzeko desirarekin. Era berean, nahiz eta zenbaitzuk erredentzioaren beharraz baliatu, kontzeptu kristauen artean kristauena, berriro hutsetik hasi eta, bide batez, maila sozialean gora egiteko, ez dago zertan pentsatu, oro har, gogoeta hori eta iragana auzitan jartzea egiazkoa eta benetakoa ez zenik. Hala eta guztiz ere, «borroka» zeritzon horretan betikotzen eta erakundean militatzen jarraitu

zuten askorentzat, beste sigla batzuekin bada ere, iraganari buruzko hausnarketa hori traizio-adierazpen argi eta garbia zen, ez bakarrik erakundearen iraganari, baita haren, herriaren eta are gizateriaren orainaldi eta geroari ere. Koestlerrek zera idatzi zuen bere militantziaz: «Akats eder baten handitasuna bizi dugu egia ustelaren gaineratik». Akatsak, ederrak izan arren, ordaindu egiten dira, jakina da, lehenago edo geroago; beren arrastoa uzten dute gorputzean, baita kontzientzian ere. Egia, normalean, beste nonbait egoten da, absente ez dagoenean. Ez du militatzen, ez du kuotarik ordaintzen.

«Damua ez da bertute bat, hau da, ez da arrazoitik sortzen; egindakoaz damutzen dena bi aldiz miserablea edo ezindua da», zioen Spinozak, zeinak damua ekintza tristetzat jotzen baitzuen. Spinozari diodan miresmena gorabehera, uste dut oker zegoela damuaren arrazoiei buruz. Damutzea ez da beti tristea; batzuetan, poz izugarria eragiten duen askapen modu bat izan daiteke. Spinozak ideia bat du abiapuntu, gizakiek egiten dituzten ekintza guztiak arrazoiaren eta ondorengo jakinduriaren ondorio dira. Baina gazte bat ETAn edo beste edozein erakunde politikotan sartzen bada, horrek ez du esan nahi sarrera hori pentsatua, hausnartua, arrazoitua eta guztiz azalgarria denik, filosofia politikoaren edo etikaren ikuspegitik. Bulkaden, grinena, aurreiritzien, alde aurretik sortutako ideien, bihotzeko kontuen ondorio izan daitezke, Pascalek esaten zuen legez. Beraz, ETAtik ateratzea bai izan daiteke arrazoiaren ahalegin bat erakundearen zentzugabekeria ulertzeko.

Are gehiago, erakundearen sartzeari arrazoitua izan bazen, baina haren ibilbidea arrazoizkoa ez bada, edozeinek planteatzen eta galde dezake erakundearekin jarraitzeko beharraz, baita bertatik aldentzea edo militantzia uztea komeni den aztertu ere. Ez dut uste Spinozak erabiltzen duen «damu» terminoa egokia denik gaiaren aldagai hori azaltzeko. «Damuaren» ordez «zuzenketa» terminoa erabiltzen badugu, dena argiago geratzen da. «Zuzentzea jakintsu izatea da», diote jakintsuek berek. Baina eskuzabaltasun maila horretara iritsi gabe, zuzentzea beharrezkoa da ongia egiten jarraitu nahi duenarentzat, gaizkiaren ordez, memoriaren ahalmena erabiltzen jarraitu nahi duenarentzat, non denbora itzulgarria den eta ekintzen zuzenketa sinbolikoa egin daitekeen.

ETApm-ren desagertzea, elkarrizketaren eta batzuek beste batzuekiko izan zuten pertsuasioaren fruitu, Zentro Demokratikoaren Batasuneko Gobernua-rekin (UCD) izandako negoziazio gogor baten ondorioz, ez zen izan, batzuek hala uste badute ere, ETA sortu izanaren eta, aldi berean, indarra, oldarra eta epika, baita erretorika ere, eman izanaren akatsa konpontzeko modu bat. Laburbilduz, esan nahi zuen politika ekintza parlamentarioaren eta diskurtso demokratikoaren bidez onartu behar zela, gizartearen artean jarduten duen eta interes batzuk besteei kontrajartzen dien zerbait pluraltzat hartu behar zela. Zentzu kolektiboan hartutako erabakia izan zen, ez indibidualki.

Vasili Grossmanen *Bizitza eta patua* obra handia irakurri duenak, testu osoan zehar galdera bat dagoela sumatuko du, zergatik hedatu den gaizkia ongiaren izenean. Krimenak, Grossmanek batez ere erregimen estalinista eta naziek egindakoez hitz egiten du, ez dira gaizkiaren izenean egiten, beti ongia aldarrikatuz

baizik. Ontasuna jokoan kanpo dago, bai politikan, bai erlijioan. Ongia, perbertsio bitxi baten bidez, gaizkia bera baino gaiztoago bihurtu da. Horixe da egilearen ondorioa. Gaizkiaren aurka borrokatzeko eta giza bidegabekeriak zuzentzeko irrikaz, indar horiek (ongiaren izenean dihardutenak), behin martxan jarri eta finkatu ondoren, beren errugabetasuna galdu eta gaizkia areagotzen dute, edo, askotan, beren errugabetasunaren arrazoi beragatik jotzen dute gaizkira, aipatzen duten ongiaren garbitasun orbangabeagatik. Ongiaren izenean, kristautasunaren, komunismoaren, justiziaren, anaitasunaren, nazioaren izenean, jendea akabatzen da. Ongia bera kaltegabea da, baina bere izenean egiten dira astakeriarik handienak. Grossmanek ondorioztatzen du ongiak ez duela inoiz gaizkia garaituko. «Jainkoa bera ere ez da gai lurraren gaitza arintzeko». Ontasuna garaile ateratzen da gaiztakeriaren aurrean. Rousseauk «errukia» deitzen zion. Gu, modernook, «elkartasuna» deitzearekin gogara gelditzen gara. Ez da gauza bera, baina garagarra eta garia bezain hurbil daude elkarrengandik.

Muga zeharkatu zuen ETApm-ko azken kideak ibilgailu baten maletategian egin zuen. *Zorion* zuen gerra izena.

SARRERA

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA*
Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa

SARA HIDALGO GARCÍA DE ORELLÁN**
Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco

I. BIKOTE BITXIA

Madrilgo Nuevo Horno de Santa Teresa jatetxea, izena ematen dion kaleko 8. zenbakian kokatua, Madrilgo eltzekoan espezializatu den familia-establezimendu bat da¹. Espezializatua zegoen duela 42 urte, 1980ko udazkeneneko zehaztu gabeko egun batean, Juan José Rosón Barne ministroak birentzako mahai bat gorde zuenean. Lokal txikia zenez, beiraterik gabea, bilera diskretu bat antolatzeke leku aproposa zirudien.

Rosónek ezin zuen atentzioa emateko arriskurik hartu. Artean ez zegoen ezer irmorik, eta, beraz, bai berak eta bai solaskideak ezkutatu egin behar zuten egiten ari zirena. Norbaitek denbora baino lehen jakiten bazuen, proiektua ez ezik, arriskuan egongo ziren bien ibilbide politikoak eta segurtasun pertsonala ere. Eta, hala ere, garrantzi handiko hitzordua zen. Gauza gehiegi zeuden janari hura ondo ateratzearen mende. Horien artean, ETApM-k jomugan zituen pertsona guztien bizitzak, nahiz haiek jakin ez. Adibidez, UCDn Rosónen kidea eta Diputatuen Kongresuko presidentea zen Landelino Lavillarena, komando bat atentatu bat prestatzen ari baitzen haren aurka (ikus IV. atala).

Une hartan, Barne ministroak izugarritzko presioa sentitu behar zuen. Bere garaiko gizona, nerbioak hiltzen zituen zigarro bat bestearen atzetik errez (egunean lau pakete: birika bat operatuko zioten 1981ean). Gainera, Becerreán (Lugo) jaiotako galiziarra izaki, superstiziosoa zen: bere emaztea, María Rosa Boix Serrano, «bere talismantzat» hartzen zuen. «Zorte ona ematen niola esaten zidan», kontatzen du emazteak. Horregatik, egun hartan zuen misioaren izaera delikatua gorabehera, Juan José Rosónek zera eskatu zion María Rosari,

ezagutzen ez zuenaren itxurak eginez, jatean bere ondoan jartzeko: «gonbidatu lagun bat, eta eseri ondoan»².

Halaxe egin zuen. María Rosa eta bere laguna jada mahai batean zeuden Rosón Nuevo Horno de Santa Teresan Mario Onaindiarekin sartu zenean. Bi politikariek espero ez zuten bezala, ez zen bilera diskretua izan: gainerako mahaikideek eta zerbitzariak berehala ezagutu zituzten. «Jendea oso beldurtuta zegoen», gogoan du du María Rosak.

Ez zen gutxiagorako. Onaindia, Burgosko prozesuan (1970) hiltzera zigortutako etakideen artean ospetsuena, Euskal Iraultzarako Alderdiaren (EIA, Euskal Iraultzarako Alderdia) idazkari nagusia izan zen. Ezkerreko alderdi nazionalista hark lotura estua zuen ETApM-rekin, eta azken honi 28 hilketa egotzen zaizkio (ikus VI. atala). Adibidez, 1979ko uztailan polimilien bonbek zazpi hildako eta 114 zauritu eragin zituzten Barajasko aireportuan eta Chamartín eta Atochako tren geltokietan. Madrildarrek nekez ahanzt zezaketen sarraski hura. Rosónek ere buruan izango zuen, ziur, bere helburu nagusia, Barne ministro gisa, Trantsizioko Espainia suntsitzen ari zen indarkeria terroristarekin amaitzea baitzen. Baina ez zen arazo politikoa bakarrik. Alde batetik, ministroa UCDko kide zen, eta ETako adar guztiak alderdi horren afiliatu euskaldunak eta nafarrak jazartzen, bahitzen eta hiltzen ari ziren. Bestetik, terroristek Rosón bera jarria zuten jomugan. Urte batzuk geroago kontatu zuenez, ETako komando bati «nire ibilbideetako bati buruzko txosten oso zehatza aurkitu zitzaion, Ministeriotik Kongresura»³.

Topaketa ospatzeko ekimena Juan José Rosónena izan zen, baina Mario Onaindiak bere egin zuen, *abenturazale zuhurra* zen aldetik. Ministroa berekin harremanetan jarri zenean, ez zuen beharrezkotzat jo ez bere alderdiko zuzendaritzarekin ez ETApM-koarekin kontsultatzea, baina bai Juan Mari Bandresek, Euskadiko Ezkerreko diputatu bakarrarekin, hura baitzen «Madril»go nondik norakoak hobekien ezagutzen zituena. Bandresek gonbidapenari uko egitea aholkatu zion, «denbora galtzea» baitzen. Rosónek «errepresioaz baino ez du ulertzen, hau da, atxilotzeaz». Parlamentaria konbentzituta zegoen ministro kaskarra zela, Bloke politiko-militarraren barruan (EIA eta ETApM) orokortutako iritzia: «puta-semetzat» jotzen zuten, hitzez hitz. Azken finean, Rosónek defendatu zuenez, «terrorismoaren aurrean jarrera argi eta sendoak hartu behar dira, eta argi eta garbi baztertu behar dira negoziazio, grazia keinu edo amnistia itxura guztiak». EIAk eta bere hurbileko taldeak eskatzen zutenaren justu kontrakoa zen. Egun horietan, Espainiako kartzeletan 432 preso zeuden terrorismo-delituengatik, eta horietatik 48 ETApM-koak ziren⁴.

Hala eta guztiz ere, Onaindiak ez zien jaramonik egin ez Bandresen kontseiluari, ez Rosónen aurkako aurreiritziei, ez bere alderdiak onartutako estrategiari. Bere jardura politikoan zehar beste askotan egin zuen bezala, bere kontura eta arriskuz jokatu zuen. Gertakariaren amaiera zorigaiztokoa izan zitekeen, baina nahiko ondo atera zen. Santa Teresako Nuevo Horno jate-txeko bazkaria ez zen azkena izan, askoren artean bat baizik. Rosónen hitzetan, Onaindia eta Euskadiko Ezkerreko buruzagiek

nireak baino jarrera ideologiko askoz antagonikoagoak zituzten. Haiengandik ikasi nuen elkarrizketa zintzoa denean, giza kalitateek osagai ideologikoek bezainbesteko garrantzia edo gehiago dutela. Eta nirekin EEko solaskide izan zirenekiko errespetua, gehiago oinarritzen da euren planteamenduen zorrotasun mentalean, euren izaera politiko pertsonalean baino. Arazoak ulertzeko eta konponbideak bilatzeko zuten moduan, euren ondorengo giza gorabeheretan baino. Haiekin, indarkeria desartikulatzeko borroka-proiektu serio bati amaiera eman ahal izan genion, bakoitzak solaskidearen mugak onartzeko duen gaitasun izugarriari esker, eta, funtsean, haiek eta biok sinetsita geundelako aurrerapauso hori emanda bakarrik egiten gurela aurrera Euzkadiren [sic] bakegintzan itzulerarik gabe⁵.

Bi urte geroago, 1982ko irailean, ETApM VII Batzarreko buruzagiek taldearen desegitea iragarri zuten Frantzia hegoaldean egindako prentsaurreko baten bidez: «Indarkeriazko praktika osagai negatiboa da orain Euskadik bere autogobernuaren alde duen borrokan»⁶. Azken polimili ohia, Xabier Maiza (*Zorion*) zuloen arduraduna, 1985eko abuztuan itzuli zen etxera.

Hala ere, gizarteratzeak ez zuen soilik bide bat ekarri terroristek armak utz zitzaten eta gizartera itzul zitezen; atentatu bat jasan zezaketan dozenaka pertsonaren segurtasuna ere bermatu zuen, ETApM-k haiei buruzko informazioa bildu baitzuen. Eta Espainian, oro har, eta Euskadin, bereziki, erradikalizazio bortitzaren mailak nabarmen murriztea erraztu zuen, eta horrek demokrazia parlamentarioa eta euskal autonomia sendotzen lagundu zuen. Gainera, prozesuak izuaren jarraipenaren aldeko apustua egin zuen erakundearen sektorea desmoralizatu zuen, eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei (ESIK-FCSE) beren ahaleginak hiltzen jarraitzen zutenengan zentratzeko aukera eman zien. Jakina, bere itzalak izan zituen, eta horiei eskaintzen zaizkie lan honen VI. eta IX. atalak.

Denborarekin, Bandresek aitortu zion Manuel Vázquez Montalbán idazleari erratu egin zela Barne ministroa epaitzean:

nik Rosóni, a posteriori, nota bikaina jartzen diot. Begira nondik zetorren gizon hori eta zenbat urrats positibo eman zituen gai honetan. Birgizarteratze sozialaren truke borroka armatua bertan behera uzteko itun guztia...; hori guztia Rosónekin hitzartu genuen politika bat da, PSOEek egina aurkitu duena. Rosónek bazekien nolakoa zen kontua. Politika posibilista batean inplikatu zituen historia errepresibo handiko agintariak, baita torturatzailer frogatuak ere...⁷

1986ko abuztuan politikari zentrista ohia hil zenean, Bandresek publikoki adierazi zuen Juan José Rosón «trantsizioko Barne ministrorik onena» izan zela⁸.

ETAren beste adarrak, ETA militarrek (ETAm), ez zuen inoiz ahaztu «erretiratzearen heroi» haiek Hans Magnus Enzensberger idazlearen zorioneko esamoldea erabiltzeagatik lortu zutena⁹. Rosón poliziak eskoltatuta ibili zen hil zen egunera arte. Eta orduan ere ez zen amaitu haren alargunak eta lau seme-alabek zuten arriskua, 1990era arte babestuta jarraitu behar izan baitzuten. Onaindiaren bizitza, euskal nazionalismoak traidoretzat jo zuena¹⁰, 2003ko abuztuan amaitu zen. Hiru urte zeramatzen poliziaren eskoltarekin.

II. TRANTSIZIOA ETA BERE ETSIAK

Rosónék eta Onaindiak jabetxe hartan elkar ezagutu zutenean, bost urte baino ez ziren igaro Francisco Franco diktadorea hil zenetik. Espainiako demokrazia ia uretaratu berria zegoen, eta, hala ere, ura zerion leku askotatik. 1977ko hauteskunde orokorren euforiaren ondoren agertutako arrakalak areagotu baino ez ziren egin. 1980an, monarkia parlamentario gazteak hondoratzeko aukerari aurre egin behar izan zion: herrialdea krisi ekonomiko batean murgildu zen, milioi bat langabeko zifra errekorra lortu zen, delinkuentzia eta droga-kontsumoa hazi egin ziren, Gobernu eta UCD zatituta zeuden, eta Adolfo Suárez presidentea zalantzan zegoen. Gizartearen zati handi bat ezkortasunean eta «desengainuan» murgildu zen¹¹.

Ezegonkortasun testuinguru hark Trantsizioaren etsaiak adoretu zituen: kolpismoa, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako sektore baten basakeria eta terrorismoa. Eskuin muturrak txalokatua, Ricardo Sáenz de Ynestrillas komandanteak eta Antonio Tejero teniente koronelak «Galaxia Operazioan» (1978) parte hartu zutela jakin ondoren jaso zituzten zigor arinengatik oilartuta, eta ETak eta Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistak (GRAPO) militar, polizia eta guardia zibilen aurka egindako atentatu etengabeek bultzatuta, «sable-hotsak» gero eta ozenagoak ziren kuarteletan: ofizial nostalgiko batzuk 1981eko otsailaren 23ko estatu-kolpean amaituko ziren azpilanak presatzen ari ziren.¹²


Demokratizaziorako beste oztopo bat polizia eta guardia zibil batzuek egindako gehiegikeriak eta krimenak izan ziren. 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertakariak aipatu behar dira, Polizia Armatuaren tiroen ondorioz bost langile hil baitziren¹³. Kidego horretakoak ziren 1978ko uztailean Joseba Barandiaran eta Germán Rodríguez Saiz gazteak hil zituzten agenteak, lehena Donostiako manifestazio batean, eta bigarrena Iruñeko sanferminetan. Biktima horien ondorioz deitutako protestak baretu zirenean eta normaltasuna itzultzen ari zela zirudienean, Polizia Armatuaren erreserbako konpainia batek ekintza bandalikoak egin zituen Erreterian. Konpainia horretako ofizialak «Loiolako eremura joanak ziren bere kideekin batera kopak hartzera». «Basati haiek itsuitsuan sartu ziren», dio garai hartan Gipuzkoako gobernadore zibila zenak, Antonio de Oyarzabal Marchesik, zeina probintziako egoera politiko zaila hobetzen tematuta baitzegoen:

Gogoan dut une hartako amorrua. Jende horrek, keinu batekin, bakegintzaren, lasaitasunaren alde egin ahal izan duzun guztia txikitu diezazula, bortitzak zirenak inguratuz (...). Katastrofe bat izan zen. Berehala, bakegintzarako gure ahalegin guztiak istant batean desagertu ziren, eta barrikadetara itzuli ginen berriro, kale guztiak moztuta egotera (...). Eta zauria geratu zen. Akats bat eta izugarrikeria bat izan zen¹⁴.

Oyarzabalen ikuspegitik, agenteen zati batek «ez zuen ulertzen egiten saiatzen ari ginen eta saltzen ari ginen Trantsizio mota». Zenbatu al daiteke poliziaren basakeria? Ignacio Sánchez-Cuencarentzat, «estatuaren errepresio-jarduerak»

Beste faktore erabakigarri bat ETAren adar politikoaren, HBren, eta haren oinordeko izateko hurrenez hurren sortutako erakundeen ilegalizazioa izan zen, Sinn Feinekin inoiz gertatu ez zena. Eraitza hori, su-etenen amaieraren ondoren, Espainiako bi alderdi handien adostasunez lortu zen, 2000ko Askatasunen eta Terrorismoaren aurkako Akordioan islatua, 2002ko Alderdi Politikoen Legea eraman zuena, zeinaren arabera HB hurrengo urtean legez kanpo utzi baitzen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak 2009an bermatu zuen legez kanporatzea, eta, horren ondoren, Batasuna iraunkorki baztertua geratu zen. Ondorioz, «ezker abertzalearen» adar politikoaren eta adar armatuaren artean interes-gatazka bat sortu zen. Batasunak terrorismoa gaitzesten bazuen bakarrik zen posible legezkontasunera itzultzea (hori onartzea oso zaila zen), edo ETAk armei uko egiten bazien. Horrek barne eztabaida luze bat ekarri zuen, non talde armatuko ondorengo liderrek, askotan ia esperientziarik gabekoek, ez zuten beren aurrekoek izan zuten autoritaterik izan, are gehiago ETAk

garai bateko eraginkortasun hilgarria galdu zuelako. 2010ean indarberritzen saiatu zen atentatu ikusgarri baten bidez, Madrilgo Kio dorre enblematikoetan bonba-auto bat jarri nahi izan baitzuen, baina zapuztuta geratu zen atentatua Guardia Zibilak Portugalera lehergailua jasotzera zihoan furgoneta geldiarazi zuelako. 2011ko udan, ETAk «ezker abertzalearen» zuzendaritza politikoari uko egin eta Batasunaren eskutan uzten zuela iragarri zuen; eta urrian «borroka armatuari» uko egiten ziola iragarri zuen. Donostian nazioarteko konferentzia bat egin eta hiru egunera egin zuen. Bertan, nazioarteko pertsona ospetsuek, Nazio Batuen Erakundeko (NBE) idazkari nagusi ohi Kofi Annanek eta Sinn Feineko buru Gerry Adamsek barne, ETARI jarduera armatuaren behin betiko amaiera iragartzeko eskatu zioten, eta Espainia eta Frantziako gobernuak, berriz, iragarpen horren ondoren ETAREkin elkarriketak hasi zituzten, gatazkaren ondorioak soilik aztertze⁴³.

ETAK gaitasun operatiborik ez zuen garaian egindako negoziatorako azken dei horrek, ETAKo presoei mesede egingo ziekeenak, ez zuen harrerarik izan. Erakundea 2018an desegin zen. Bere jarduera hilgarria lau hamarkadatan zehar luzatu bazen ere, ETAK ez zuen izan Ipar Irlandako erakunde terroristek lortu zuten amaiera negoziatua, Zuzenbide Estatuak garaitu baitzuen, Brigada Gorriak, GRAPO edo Armada Gorriaren Frakzioa garaituak izan ziren bezala. Hala ere, bere herentzia politikoa garrantzitsua da: EH Bilduk Sinn Feinek Ipar Irlandan duen eraginaren antzekoa du Euskadin.

ONDORIOAK

Ikusi dugunez, Europako hainbat talde terrorista ideologia desberdinetan inspiratu ziren, ibilbide desberdinak jarraitu zituzten eta amaiera desberdinak izan zituzten. Gehienek ez dute ondare politiko garrantzitsurik utzi, baina IRAK eta ETAK bai. Hala ere, horien guztien jatorrien datak antzekoak izan ziren, hirurogeiko hamarkadaren amaierakoak, hilgarritasunik handiena 1970eko hamarkadan izan zuten, eta hurrengo hamarkadan hasi ziren gainbehera, nahiz eta kasu batzuetan beste batzuetan baino askoz ere bizkorrago izan beherakada. Denbora tarte horren ondorioz, guztiak nazioarteko bolada terrorista handi baten eragiletzat jo daitezke, beste kontinente batzuetan ere agertu zena. Beraz, kasu espezifikotatik haratago, Europa osoko hirugarren bolada terroristaren amaiera ekarri zuten arrazoi orokorrez galde daiteke.

Pentsatzekoa da terrorismoaren aurkako borrokaren eraginkortasuna areagotzea, legeria eta polizia-prozedurak mehatxu berrira egokitzen ziren heinean, garrantzitsua izan zela ETA, GRAPO, Brigada Gorriak eta Armada Gorriaren Frakzioarena bezalako kasuetan. Hala ere, talde terrorista bat gainbeheran sartzen da, ez bakarrik kideen atxilotetek izan duten gorakadaren ondorioz, baita bertan behera uztearen eta, batez ere, kide berrien beherakadaren ondorioz ere. Atxilotze azkarraren perspektibak errekruta potentzialen zati bat uxa dezake, baina, seguruena, erreklutamenduaren beherakada azaltzeko bi funtsezko

faktore aipa daitezke: helburu jakin batzuk lortzeko terrorismoaren eraginkortasunean konfiantza galtzea eta helburu horiek baliozkoak izateko konbentzimendua galtzea. Alde horretatik, erabakigarria izan zen iraultza armatuaren idealak mundu hobe baterako bide gisa zuen erakargarritasuna galtzea, 1789an jaioa eta 1917tik aurrera indarberritua. 1989an Berlingo harresia erori zenetik, zaila zen ideal komunistak gazte europar bat indarkeria iraultzailera bultzatzea. Eta ideal iraultzaileez haratago, mendebaldeko gizarteetan baketze progresiboa aipatu behar da, non indarkeriazko fenomeno guztiak, estatuen arteko gerretatik hasi eta indarkeriazko delinkuentziaraino, gainbeheran dauden, Steven Pinker psikologo sozialak ondo argudiatutako liburu batean erakutsi duen bezala⁴⁴. Funtsean, terrorismoaren hirugarren bolada, berez garai bateko matxinada armatuen suzedaneoa zena, fenomeno minoritarioa izateaz gain, garapen ekonomikoak, gizarte-ongizateak eta egonkortasun demokratikoak markatutako Europako gizarteetan martxa orokorraren aurkakoa ere izan zen.

II. ATALA

ASKATASUNAREN ETA SUMINAREN ARTEAN. TRANTSIZIO GARAICO EUSKADI (1975-1982)*

SANTIAGO DE PABLO

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

I. ALDI EZTABAIDAGARRI BAT

Espainiako historiaren etapa gutxi izan dira berriki Trantsizioa bezalako errebisionismo nabarmenaren xede. Urte batzuetan prozesu orbangabe gisa aurkezteko joera izan ondoren, batzuetan huts egindako saiakera gisa ikusi izan da, Giuseppe Tomasi di Lampedusaren *Il Gattopardo* (1958) eleberriko esaldi ospetsuaren prototipo. Horren arabera, dena aldatu behar da, denak berdin jarrai dezan. Eztabaida historiografikoez haratago, errebisionismo horrek zerikusi handia du eztabaida politikoezkin. Zenbait alderdik Trantsizioa zalantzan jarri dute, eta demokratizazio faltsutzat jo dute; izan ere, frankismoaren egiturak «trantsizioaren erregimena» deritzon horretan betikotu omen dira, erregimen frankistarekin ustez duten jarraipena agerian uzteko¹. 1977ko amnistia bera ere (oposizioaren funtsezko helburuetako bat) estrategia frankista gisa interpretatzen da, bere krimenak epai ez zitezen, nahiz eta AP, «*frankismoaren oinordeko den talde bereizgarriena*» Gorteetan abstenitu².

Nabarmenki, Espainiako egungo demokraziaren berrinterpretazio negatibo hori Bigarren Errepublikaren errebisionismo goresgarri bati lotuta doa, esperientzia demokratiko horren arazo larriak ahaztuta. Gainera, Gerra Zibila eta diktadura frankista ahazteko isiltasun ituna sinatu izana leporatzen zaio Trantsizioari. Errealitatetik oso urrun gabiltza: frogatuta dago garai hartan gerrari buruz asko hitz egin, idatzi eta filmatu zela. Baina ia mundu guztia ados zegoen bi Espainien arteko norgehiagoka berri bat kosta ahala kosta saihestu beharrarekin: kontua ez zen ahaztea, iraganeko zauriak gainditzea eta adiskidetzea baizik, zailtasun eta estualdi ugari igaro arren, mendebaldeko Europako demokrazien antzeko bat sor zedin. Gaur egun Trantsizioa salatzen dutenek ahaztu egiten dute 1975ean istorioa ez zegoela idatzita, eta aktoreek erabakiak egoera konplexu batean hartu behar izan zituztela, oraindik atzera egitea posible zenean³.

Gehien eztabaidatu den gaietako bat indarkeriak prozesu horretan izan zuen eragina da, Euskadin eragin berezia izan baitzuen. Denbora askoan, Trantsizio arrakastatsu baten ideia kontraesankorra zirudien urte haietako izaera bortitzarekin. Ikasketa akademikoetan indarkeria alde batera uzten ez bazen ere (adibidez, askoz gehiago idazten zen ETari buruz euskal alderdi demokratikoei buruz baino), egia da ez zela barneratzen aldaketa politikoaren prozesuarekin zuen harremana. Horren ondorioz, Sophie Babyk «trantsizio baketsuaren mitoaz» hitz egin zuen. Hain zuzen ere, Trantsizioa ez zen baketsua izan; izan ere, zenbait egileren arabera (haien zifrak ez datoz bat), Espainian 500-700 indarkeriazko heriotza izan ziren 1975etik 1982ra bitartean⁴. Jakina, zifra horiek Trantsizio orbangabearen mito bertan behera uzten badute, are gutxiago mitifika daiteke Bigarren Errepublika, non, bost urte pasatxoan, indarkeriak 2.629 hildako eragin zituen⁵.

Trantsizioari dagokionez, ikerketa serio berrienen arabera, terrorismoaren ondorioz 498 pertsona hil ziren Espainian 1976tik 1982ra bitartean, eta Barne Ministerioak 450 zauritu erregistratu zituen data horietan. Erantsitako taulan ikus daitekeenez, hilketa kopurua nahiko txikia izan zen lehen bi urteetan (24 1976an eta 35 1977an), esponenzialki igo zen 1978-1980an (91, 128 eta 132 biktima, hurrenez hurren) eta berriro jaitsi zen Trantsizioaren amaieran (39 1981ean eta 49 1982an). Guztira, 340 hilketa eta 305 zaurituen erantzule izan zen ETA; bi kasuetan, guztizkoaren % 68. Oso ehuneko handia da, kontuan hartzen badugu ekintza gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan egiten zituela. Espainiako guztizkoan, ETAREN atzetik, distantzia handira, ezker muturreko terrorismoak (73 hildako; guztizkoaren % 15) eta ultraeskuindar eta/edo parapozitzaileak (62 biktima; guztizkoaren % 12) egindako hilketak zeuden. Nazioarteko terrorismoak eta Kataluniako eta Kanarietako nazionalismo erradikalek osatzen dute taula, zortzi eta lau hildakorekin, hurrenez hurren⁶. Trantsizioko indarkeriaren koadroa osatzeko, terrorismoaren biktimei polizia-ekintza desberdinetakoak gehitu beharko litzaizkieke (manifestazioen errepresioa, kontrolak, tiroketak eta torturak), baita beren bonbak lehertzean hildako terroristak ere, horien kopuru zehatza ezagutzen ez bada ere⁷.

Espainian terrorismoaren ondorioz hildakoak (1976-1982)

	ETA	Beste talde naziona-listak	Eskuin muturra eta parapo-liziala	Ezker muturra	Nazioartekoa	Egile ezeza-guna	Guztira
1976	17	0	4	2	0	1	24
1977	12	1	10	9	0	3	35
1978	67	3	4	13	3	1	91
1979	80	0	10	34	1	3	128
1980	95	0	28	6	1	2	132

1981	30	0	3	5	1	0	39
1982	39	0	3	4	2	1	49
Guztira	340	4	62	73	8	11	498

ITURRIA: Fernández Soldevilla eta Jiménez Ramos (2020: 32).

Zifra horietatik haratago –Juan Avilések erakutsi duen bezala, nazioartean konparazio bat ezarri–, Trantsizio baketsuaren aurreko narratiba idealizatuaren orde «trantsizio odoltsu baten mito» jartzeko arriskua dago, aurrekoa bezain faltsua⁸. Hau da, Trantsizioari ospea kendu nahi izatearen poderioz, epealdi horretako gertakari tragikoak nabarmentzeaz gain, prozesu demokratizatzailearen eragileak ere egiten ditugu horien erantzule. Hori bereziki bidegabea da, ia heriotza horiek guztiak eragin zituztenak Trantsizioa zapuztu nahi zutenak izan zirelako. Ikuspegi historiografikotik, indarkeriak aldi horretan izan zuen eragina azpimarratu behar da, baina baita, hala eta guztiz ere, zailtasun horiek gaintzea eta bere helmugara iristea lortu izana ere. Eta helmuga hori, batzuetan odolez blaitutako utopia iraultzaile baten bila ari zirenentzat izan ezik, «Erregimen demokratiko bat zen, European zeuden gainerako demokraziak bezain zekena», Idoia Estornesek gogoratzen zuenez⁹. Bere akatsekin, besteak bezala, baina Espainiak jasan berri zuen diktadura baino askoz hobea, eta gorrotoz eta barne-gerrez betetako iragan ezin luzeagoa atzean utzita.

Bai, oro har, Trantsizioak porrot egitea nahi zuten taldeak –arku politikoaren bi muturretatik– gutxiengoa baziren, Euskal Herrian presentzia askoz ere esanguratsua zuten. Horren arrazoia 1974an bereizitako ETAREN bi adarrak (ETAm eta ETApM) ziren, eta haietatik sortutako desadostasunak, hala nola KAA eta Komando Bereziak. Bi adar nagusiek berehala egituratu zituzten sare politiko eta sozial batzuk, talde politiko bana barne, «ezker abertzalea» delakoaren ordezkariak: EE eta HB. Azken talde hori gaur egun Trantsizioa gaitzesten duen korrontearen aitzindaria izan zen, une horretan bertan frankismoa betikotzen zuen fartsatzat hartu baitzuen. Horregatik tematu ziren hura hondoratzen, indarkeria erabiliz, eta indarkeria hori, apaldu beharrean, areagotu egin zen demokrazia eta autogobernua aurrera egiteko lehian ari zirenean. Antzeko abiapuntu batetik, erakunde terroristaren bi adarrek bide desberdinak hartu zituzten: ETAm terrorearen bidean tematzen zen bitartean, ETApM, ez kontraesanik gabe, 1982ko irailean amaitu zen bere desegitearekin (ikus IV. atala).

Atal honetan Euskal Herriko testuinguru historikoa aztertzen da, ETAREN adar hori desagertzeraren eraman zuen prozesua gertatu zenekoa. Geografiari dagokionez, gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoan oinarritzen da, nahiz eta Nafarroari buruzko aipamen batzuk sartzen diren. Kronologiaren ikuspegitik, 1975-1982 urteak aztertu ditugu: hau da, Franco hil zenetik ETApM desagertu zen arte eta 1982ko urriko hauteskundeetan Felipe Gonzálezek PSOEk irabazi zuen arte. Analista askok trantsizioaren amaiera dela uste dute, ezkerreko alderdi bat boterera igo baitzen, Gerra Zibiletik lehen aldiz. Garai hartako

azterketa oso bat egitea ezinezkoa denez, alde batera utziko ditugu alderdi ekonomiko, sozial eta kulturalak, eta aldaketa politikoan, alderdien egituraren eta autonomiaren abiaraztean zentratuko gara¹⁰. Indarkeria eta terrorismoa (bereziki ETarena), logikoa denez, presente daude testu osoan zehar, baina ez dago azterketa sakonik, liburu honetako beste atal batzuetan jorratzen baita (ikus IV., VI., VIII. eta IX. atalak).

II. BORROKA ETA ITXAROPEN GARAIA

1975eko azaroaren 21ean, euskal egunkariak, Espainia osokoek bezala, Francoren heriotzaren albistea, bere azken mezuaren aipuak eta Juan Carlos printzearen koroatzearen iragarpena jaso zituzten beren lehen lerroburu handietan. Editorialetan diktadorearen gorazarrea izan zen nagusi, Espainiako herriak bizi zuen «normaltasunari» txalo eginez eta etorkizunarekiko ikusminez. Mundu guztia jabetzen zen ixten ari zela «Espainiako historiaren kapitulu bat, beste orrialde berri bat irekitzeko, non espainiarrek beren itxaropena jarria duten». *El Diario Vasco* gaineratu zuen Espainiak «handitasunaren eta askatasunaren helburu beti desiratua» lortzeko unea zela, hori zertan zetzan zehaztu gabe.

Euskal erbesteko prentsak Francoren heriotza iragarri zuen, batez ere Errege berriaren jarraipena nabarmenduz. Eusko Jaurlaritzaren Parisko buletinak nabarmendu zuen diktadoreak, azken mezuan ere, «Espainiaren etsaien» aurka adi egoteko eskatu zuela, eta, ondorioz, 1936an ainguratuta jarraitzen zuela¹¹. ETaren prentsa erradikalagoa zen, eta adierazi zuen «Franco II.ak (Juan Carlos I.a) erregimen faxistari (...) kutsu liberala» baino ez ziola eman nahi; «eskuin muturraren esku zegoen txotxongilo bat» zela, «faxismoaren jarraipena» sendotu nahi zuena¹². Baina EAJ ez zen atzean geratzen. Azaroaren 20an sinatutako manifestu batek «bilakaera» aldarrikatzen zutenak kritikatzeko zituen, eta «haustura demokratikoa» planteatzen zuen. Hala ere, nazionalismo moderatuaren prentsak Europako hainbat liderrek adostutako trantsizio baten alde egindako adierazpenak errepikatzen zituen, inolako iruzkin negatiborik gehitu gabe. Alemania Federaleko Gobernuak, adibidez, adierazi zuen «baikorra» zela «Espainiako nazioak desordenarik gabeko garapen politiko eta sozialaren fase berri baterako trantsizioa egiteko modua aurkitzeari dagokionez, horrekin Europako estatu demokratikoen ondoan postu bat har zezan»¹³.

Gero egia bihurtuko zen gidoia zirudien, baina hasieran helburu horrek oso urrun zirudien. Juan Carlos I.ak Francorekin Gobernuak azken presidente izandako Carlos Arias Navarro berretsi izana erabaki kontinuitatearen, eta ia ez zuen tarterik uzten benetako demokratizazio baten itxaropenerako. Horrela ikusi zen, euskal kasuan, Arabak gozatzen jarraitzen zuen Kontzertu Ekonomikoa Bizkaiari eta Gipuzkoari itzultzeko ahalegin zapuztuarekin, kostako bi probintziak 1937an galdu baitzuten, Gerra Zibilean errepublikanoen alde egindako aukeraren zigor gisa. «Foruak goitik berrezartzeko» saiakera



moduko bat zen, Gobernuak onartua, baina ez zen zehaztu, prozesu autonomikoak gaitzitu egin baitzuen. Agian ez da kasualitatea Juan María Araluce Gipuzkoako Diputazioko presidentea, prozesu horren sustatzaileetako bat, ETAm-k erail izana 1976ko urrian¹⁴.

Askos harago zihoan autonomiarako beste bide bat, nahiz eta tokiko kargu frankistek sustatu eta foralismoz tindatua egon, berehala identifikatu zuten euskal nazionalismoarekin. 1976ko otsailean sortutako «alkateen taldea» izan zen, orduan Bergarako (Gipuzkoa) alkatea zen eta etorkizunean HBko buruzagi izango zen José Luis Elkoroaren gidaritzapean. Trantsizioan iraganari begiratzeko zegoen joera orokorraren esparruan, talde horrek 1931n Lizarrako Estatutua ekarri zuen Alkateen Mugimendua imitatzen zuen. Foru-abolizioaren mendeurrena aprobetxatuz (1876ko uztailaren 21eko Legea), alkateek erregearengana jo zuten foruak berrezartzeko eta Lizarrakoaren antzeko estatutu bat onar zezan eskatzeko. Eskaera moderatua zen, baina Arias ez zen gai inolako urratsik egiteko, eta, horregatik, udal-akordioak eten, eta bilera politikoen debekua azpimarratu zuen.

Monarkiaren lehen exekutiboaren itxikeriak askos ondorio tragikoagoak izan zituen 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko gertakarietan, Polizia Armatuak, aspaldian Arabako hiriburuan greba-mugimenduak gogorki errepimitzen zeramanak, bost langile tiroz hil, eta zauritu ugari eragin zituen. Indar polizialek, gas negar-eragileak erabiliz, Zaramagako langileen auzoko San Frantzisko elizaren barruan egiten ari ziren batzar bat hustu ondoren jazo ziren gertakariak. Diktadura bati zegozkion ordena publikoko indar batzuen ekintza basati eta guztiz neurrigabea izan zen¹⁵.

Gasteizko martxoaren 3a –maiatzak 9ko Montejurrako (Nafarroa) erromeria karlistan parte hartu zuten bi pertsonen hilketarekin batera, ultraeskuindarrek burutua– Arias Navarroren jarraipena bideraezina egin zuten mugarrietako bat izan zen; 1976ko uztailaren 1ean Adolfo Suárezek ordezkatu zuen. Franco hil ondoren gertatu zen bezala, euskal oposizioaren erantzuna negatiboa izan zen, bereziki ETaren kasuan. Adibidez, Eusko Jaurlaritzaren organoak aitortu zuen ezer gutxi zekiela hari buruz, «bere gaztetasuna eta jardunaren laburtasuna kontuan hartuta», baina «eskuin erreformistarekin» identifikatu zuen¹⁶. Izan ere, erbesteko euskal prentsan diktaduraren jarraipena azpimarratzen zuten gertakarietan oinarritzen zen informazioa: manifestazioen errepresioa, atxiloketak, torturak, etab. Baina, etxe barruan, oposizio demokratikoa nola baiteko itxaropena sumatzen hasi zen. Adibidez, 1976ko abuztuan, EAJren barne-txosten batek egiaztatu zuen erregeak bazekiela demokrazia ekarriko zuten Gorte eratzaile batzuk behar zirela, «Katalanekin eta euskaldunekin egindako akordio bat» barne¹⁷.

Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Erreforma Politikorako Legearen erreferendumaren emaitzak (1976-XII-15)



ITURRIA: <http://www.infoelectoral.mir.es> (Errola osoaren gaineko ehunekoak)

Eszeptizismoaren eta ikusminaren arteko nahasketak hurrengo hilabeteetan ere jarraitu zuen. Frankismoaren azken fusilamenduen lehen urteurrena ospatzeko, 1976ko irailaren 27an deitutako greba orokor arrakastatsuen erpresioak

errezeloa piztu zuen. Pixkanaka-pixkanaka, oposizio moderatua sinetsiz joan zen Suárez urratsak ematen ari zela hausturarik gabeko sistema demokratiko baterako trantsizioa praktikara eramateko. 1976ko azaroan, Gorte frankistek Erreforma Politikorako Legea onartu zuten, eta abenduaren 15ean egin zen erreferenduma. Kontsulta horren aurrean, oposizio talde guztiek (oraindik legezatu gabeak, nahiz eta jendaurrean agertzen hasiak ziren) abstentzioa bultzatu zuten. Euskadiko erreferendumaren emaitzek Espainiako batez bestekoa baino babes handiagoa eman zioten oposizioari, nahiz eta, oro har, Suárezen aukera erreformistaren garaipena izan zen. ETApn-ren barne-txosten batek onartzen zuen bere «denak emanda» kanpaina abstentzionistak porrot egin zuela; izan ere, Euskal Herria «bide berri bat probatzeko prest zegoen, planteatzen zaizkion arazoak konpontzeko: hautatutako ordezkari batzuei botoa ematea». Hala ere, abstentzioak Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko aldea markatu zuen, erroldaren % 46,8 eta % 55 lortu baitzituen, hurrenez hurren, eta Araban % 23,7koa izan zen, Espainiako batez bestekoaren antzekoa¹⁸.

Izan ere, behin legea onartuta, oposizio demokratikoak Suárez buru zuen prozesuaren jarraipenean inplikatzera onartu zuen. Horretarako sortu zen Oposizioaren Negoziazio Batzordea, liberalak, demokristauak, sozialdemokratak, sozialistak, komunistak eta euskal eta kataluniar nazionalistak barne hartzen zituen. Batzorde horretako kide izan ziren Julio Jauregi (EAJ) eta Joaquín Satrustegi donostiarra (monarkiko liberalak). Bere helburua Gobernuarekin demokratizazio prozesua negoziatzea zen. Horretarako, hainbat gauza eskatu zituzten: amnistia, Mugimenduaren egiturak desegitea, alderdi politikoak eta sindikatuak legezatzeta, gobernuaren eta komunikabide publikoen neutraltasuna bermatuko zuen hauteskunde-legea eta nazionalitateen arazoa konpontzea.

Eskaera horietako asko hurrengo hilabeteetan gauzatu ziren, ez bakarrik oposizioaren negoziazioengatik, baita kale presioagatik ere. 1977ko otsaileko dekretu batek alderdi politikoaren erregistroa ireki zuen; apirilean, lege batek askatasun sindikala onartu zuen, eta dekretu banak Mugimenduaren Idazkaritza Nagusia ezabatzea eta «adierazpen askatasuna» ezartzea berretsi zuten. Auzi konplexuena amnistiarena izan zen, mobilizazio askotan eskatu baitzen, hainbat «Amnistiaren aldeko aste» barne. Suárezek 1976an eman zuen lehen barkamena, oso mugatua, Gobernura iritsi eta gutxira, baina urrats partzial horrek ez zuen inor ase. Euskadin, amnistiaren aldeko borroka bereziki bizia izan zen, oraindik espetxeetan jarraitzen zuten preso politiko gehienak euskaldunak baitziren, terrorismoagatik zigortutako etakide ugari barne. 1977ko urtarrilean Negoziazio Batzordeak amnistia osoa eskatu zion Suárezi. Presidentea ez zen ausartu urrats hori ematen, nahiz eta martxoan aurreko urteko barkamena luzatzea agindu zuen, oraindik indarkeriazko heriotzen egileak alde batera utziz. Kalkuluen arabera, une horretan ETAn 39 kide baino ez ziren geratu preso, baina horiei askoz ere iheslari eta erbesteratu gehiago gehitu behar zaizkie. Egun horietan, amnistiaren aldeko manifestazioak erreprimitzen zituzten polizia-indarrek hainbat hildako eragin zituzten, eta horrek tentsioa areagotu besterik ez zuen egin. 1977ko Amnistiaren Aldeko Asteak larritasun

berezia izan zuen: Euskal Herriko eta Nafarroako zenbait herritan bost pertsona hil ziren ordena publikoko indarren eskutan, horietako lau bala zaurien ondorioz¹⁹. Handik gutxira, Gobernuak erabaki hala zuen eskatzen zuten ETako presoak atzerrira erbesteratzea. Neurria linbo juridiko batean zegoen, baina Suárezek oposizioa poztu nahi zuen eta, aldi berean, *bunker* frankista delakoari aurka ez egin²⁰.

Azkenik, oposizioak bere aldarrikapenen artean sartu zuen lurralde-ara-zoa konpontzea, baina ia ezinezkoa zen Suárez ildo horretan urratsak ematera ausartzea hauteskunde libreak egin aurretik. Gobernuak zigorraren eta saria-ren politika jarraitu zuen gai horretan. Adibidez, 1977ko urtarrilean Etxarri Aranatzen (Nafarroa) deitua zegoen euskal askatasunen aldeko udalen bilera debekatu zuen, baina Rodolfo Martín Villa Gobernazio ministroak Gasteizen egindako bilera batean azaldu zuenez, Gobernuak lehenengo hauteskundeak deitu nahi zituen eta ondoren “Euskal Herriaren etorkizun politikoa bideratzeko modua” jorratu²¹. Egun batzuk geroago, urtarrilaren 19an, Suárezek ikurrina legeztatzea erabaki zuen. Gai sinbolikoa zen, baina edozein aldaketaren aurkako sektore frankistentzat Mugimenduaren printzipioei traizio egitea zen²². Hain zuzen ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako gobernadore zibilek dimisioa eman zuten neurri horrekin ados ez zeudelako. Aldi berean, udal askok ikurrina igo zuten berehala. Une hartako tentsioaren erakusgarri, apirilaren 10erako oposizio alderdi guztiek —baita ezker ez nazionalistak ere —Gasteizen deitutako Aberri Eguna ere debekatu egin zuen Gobernuak. Deialdi horien inguruan sortu ziren tentsioek eta debekuak Gobernuaren eta oposizioaren arteko hartu-emana islatzen dute, hilabete horietan ohikoa izan zena.

Nolanahi ere, oposizio moderatuko ordezkariak uste zuten Suárezek, bere itxaropen guztiak bete ez bazituen ere, hauteskunde libreak bermatzeko beharrezko urratsak eman zituela. Ondorioz, Batzordeak 1977ko ekainaren 15erako hauteskunde orokorren deialdia onartu zuen. Hala ere, alderdi guztiak ez zeuden ados. Izan ere, hauteskunde horiek egin zirenerako, mapa politiko berri bat eratzen hasia zen Euskal Herrian, eta mapa horretako kideek oso bestelako jarrerak zituzten oraindik hasiberria zen Espainiako demokraziaren aurrean.

III. MAPA POLITIKO BERRI BAT

Lau hamarkadatan askatasunik gabe egon ondoren, inork ez zekien nolakoa izango zen euskal alderdi politikoen sistema berria²³. Espainian, Ministerioaren erregistroa formazio ugariz bete zen, eta Trantsizioko «siglen zopa» deiturikoa sortu zen; Euskadin, berriz, alderdien kopurua are handiagoa izan zen, arazo nazionalaren eragina zela eta. 1977ko otsailetik aurrera, partidu zahar eta berriek berehala eman zuten izena, legez lehenbailehen funtzionatzeko eta beste ezein ekimenek izena zapaldu ez ziezaien. Batzuetan, horrek liskar eta errekurtsio judizialak ekarri zituen sigla jakin batzuekin geratzeko. Eta hori, hasieran, talde batzuek ez zutela izena eman nahi izan —horrek sistema onartzea

esan nahi baitzuen—, edo, hala egin arren, atzera bota zituztela. Horixe gertatu zen beren izenean errepublikazalea deitura zuten alderdiekin, karlistekin eta Alderdi Komunistaren ezker aldean zeudenekin (troskistak, maoistak, etab.). Hala ere, guztiak aurkeztu ahal izan ziren hauteskundeetara, hautagaitza independenteetan kamuflatuta.

Alderdien agerpenak trantsizioaren fase berri bat ekarri zuen, edozein erregimen demokratikoren eragile nagusiak jada legez existitzen baitziren. Errepublikaren garaiko euskal sistema politikoaren eredu triangeluarraren aurrean, Trantsizioan eredu laukizuzen bat sendotzen hasi zen. Eredu horrek bi alde zituen, Espainiako eremuko alderdiekin (ezker moderatua eta zentro-eskuina) eta bi euskal nazionalistekin (gradualistak eta erradikalak). Lau sektore nagusi horiekin batera, pisu txikiagoko beste familia batzuk ere baziren: ezker iraultzailea, eskuin autoritario edo frankista, karlismoa, errepublikazaletasun historikoa (Euskadiko Izquierda Republicanak ordezkaturia), alderdi sailkaezin batzuek gain²⁴. Nabarmenki, sektore nagusiak alderdi edo koalizio gutxi batzuetan gehien kontzentratzen zirenak ziren, eta presentzia sozial txikiena zutenak, berriz, oso atomizatuta zeuden. Hori ere, neurri batean, ez zekitelako zein zen bakoitzaren babesa, eta mundu guztiak bere aukera izan nahi zuen. Denbora gutxian, hauteskundeetako emaitzek bakoitza bere lekuan jarri zuten. Ur hotzezko pitxer bat izan ziren kale asaldurarako gaitasun handiagoa zuten alderdientzat (batez ere «ezker abertzalea», baina baita beste talde apurtzaile batzuk ere), hautetsontzietan garaile aterako zirela uste baitzuten, zaharkituztat jotzen zituzten alderdi tradizionalak kanpoan utzita. Hala ere, berehala ikusiko dugunez, praktikan ez zen horrela izan. Izan ere, ibilbide luzeko alderdiak izan ziren euskal egitura politiko berriaren buru (EAJ eta PSOE), eta beste talde historiko batzuk (karlistak, errepublikanoak, falangistak, etab.) hutsal bihurtu ziren. Sektorerik berrituenak, arrazoi desberdinengatik, zentro-eskuin espainolista, frankismoaren ospe txarra gainetik kendu nahi zuena, eta ETARI lotutako ezker nazionalista erradikala izan ziren.

«Siglen zopa» horren esparruan, euskal nazionalismo moderatu edo gradualistaren kultura politiko *rara avis* bat zen, alderdi bakar batek osatzen baitzuten: EAJk. Sabino Aranak 1895ean sortua, bere historian lehen aldiz euskal alderdi politiko nagusia bihurtu zen Bigarren Errepublikaren garaian. Tradizionalismo katolikotik kristau demokraziara eboluzionatu ondoren, Gerra Zibilean Errepublikaren bandoaren alde egin zuen, eta erbestean Eusko Jaur-larritza buru zuela, barruan ere bizirik mantendu zen. 1977tik aurrera, Xabier Arzalluz edo Carlos Garaikoetxea bezalako buruzagi gazteen gidaritzapean, izugarritzko hazkundea izan zuen. Bere programa modernizatu zuen, aranis-moarekin lotura sinbolikoak hautsi gabe, konfesionaltasuna alde batera utzi eta independentziaren eta autonomiaren artean kalkulaturako anbiguotasuna aukeratu baitzuen alderdiaren jomuga gisa. Trantsizioan inplikatzeko erabakia, «ezker abertzalearen» sirena kantuei entzungor eginez, funtsezkoa izan zen prozesu horrek Euskadin porrot egin ez zezan²⁵.

EAJrekin gertatzen zen bezala, Espainiako ezker ez-iraultzailearen esparruan ere tradizio historikoarekin segida bat egon zen, nahiz eta hemen alderdi nagusiek bai lehiatu behar izan zutelara, formalki behintzat, berehala desagertu ziren talde txikiak. Horrela, 1936ra arte ezarpen handia izan zuen eta erbesteko EAJrekin batera Eusko Jaurlaritzaren muina osatu zuen PSE berriro indarrez ezarri zen. Sozialismo ofizialarentzat ez zen inolako eragozpenik izan PSOE-Historikoaren, Euskadiko Alderdi Sozialista Popularraren (Espainian Enrique Tierno Galván buru zuena eta berehala PSOErekin elkartu zena) eta Eusko Sozialistak lehia. PSE 1977ko martxoan eratu zen ofizialki, lau probintziak barne hartuz. Gipuzkoako korronteari jarraituz, José María Benegasen gidaritzapean, bere euskal nortasuna azpimarratu zuen, autonomiaren eta federalismoaren bilaketan, Nafarroaren integrazioan (Euskadin) eta ETArekin hitz egiteko beharrean islatua, indarkeriari irtenbide politikoa bilatzeko. Estrategia horri onura atera zioten hasieran, eta emaitza onak izan zituzten 1977ko hauteskundeetan. Hala ere, euskal nazionalismoaren gorakadak horrelako sozialismoa tokirik gabe uzten zuela zirudien, 1979tik aurrera babesa galtzen hasi baitzen, eta bere kezkek gai sozialera bideratu zituen, gai nazionalaren kalteetan. PSEren III. Kongresuan, 1982ko martxoan, sozialista nafarrek euskal egituratik bereizi, eta Nafarroako Alderdi Sozialista sortu zuten. Horrela, Andrea Miccichèren arabera, «1976-1977 urteetako zenbait jarrera behin betiko atzean uzten zituen PSEk, Euskadi normalizatu eta plural baten alde egin zuen», eta EAJren alternatiba gisa agertzen zen, «indarkeria eta terrorismoa aurrez aurre borrokatuz»²⁶. Apustu horri onura atera zioten, hauteskunde orokorretan behintzat, 1982ko emaitza onekin, Felipe Gonzálezi gehiengo osoa eman baitzioten.

Bestalde, Partido Comunista de Euskadi/Euskadiko Partidu Komunistak (PCE-EPK), Espainian Santiago Carrillo buru zuen alderdiaren euskal adarrak, moderazioaren eta instituzionalizazioaren alde egin zuen, Konstituzioa eta Euskal Estatutua babestuz. PSEk bezala, bere egituran Nafarroa sartu zuen, hura Euskadin integratzearen alde eginez. Gainera, ETAren aurka alderdi politiko batek deitutako lehen manifestazioa antolatzeko meritua izan zuen: Portugaleten (Bizkaia) izan zen 1977ko ekainean, José María Portell kazetariaren hilketaren ondoren. Frankismoaren aurkako oposizioan izan zuen protagonismoa ikusita, 1977an emaitza onak lortzea espero zuen, baina ez zen horrela izan. Horrek eraberritze batera eraman zuen, Roberto Lertxundiren zuzendaritzapean. Azken hau alderdia «euskalduntzen» saiatu zen, «euskokomunista» bihurtuz. Norabide aldaketak ez zituen emaitzak hobetu, eta horrek erabateko krisira eraman zuen PCE-EPK (ez baitzen gai izan PSEren eta ezker nazionalista erradikalaren artean bere nitxo propioa aurkitzeko). Orduan, Lertxundik EErekiko konbergentzia proposatu zuen, ETApn-ren behin betiko desagerearen baldintzapean, 1982ko martxoan gertatu zena, ETAren adar horrek armak utzi aurretik ere (ikus IV. atala). EEn integratzeari uko egin ziotenek, Ignacio Latierro buru zutelara, PCE-EPKren siglak mantendu zituzten, baina haien eragin politikoa oso txikia izan zen.

PSEk ez bezala, PCE-EPK-k ezker muturreko taldeekin lehiatu behar izan zuen. Talde horiek nolabaiteko presentzia izan zuten Euskal Herrian, baina, azkenean, beren sakabanaketaren, «ezker abertzalearen» indarraren eta Trantsizioko hausturaren gaineratik adostasunaren garaipenaren ondorioz, espazio propioa gabe geratu ziren. Garrantzitsuenak Langileen Erakunde Iraultzailea (maoista), Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK, maoista) eta Liga Komunista Iraultzailea (LKI, troskista) izan ziren. Beste sigla batzuk ere izan ziren: Euskadiko Lanaren Alderdia (PTE, Partido del Trabajo de Euskadi), Espainiako Alderdi Komunista (marxista-leninista), PCE (ml), Euskal Mugimendu Komunista, Espainiako Bandera Gorria-Erakunde Komunista, Bate-ratze Komunista, Ezker Komunistaren Erakundea, Euskal Komunistak edo Langileen Alderdi Sozialista. Hori gutxi balitz, 1977ko hauteskundeen aurretik ezker muturreko alderdi horiek oraindik legezta gabe zeudenez, sigla-baso horri hautetsontzietara aurkeztu ahal izateko sortu zituzten koalizioak gehitu behar zaizkio, hala nola Langileen Hauteskunde Taldea edo Langileen Batasunaren Aldeko Frontea²⁷.

Nazionalismo moderatuaren, sozialismoaren eta komunismoaren jarraipen historikoaren aurrean, frankismoaren herentziak zamatutako espainiar zentroak eta eskuinak hutsetik abiatuta berrasmatu behar izan zuten beren burua. Karlismoa izan zen salbuespena, ideologia tradizionalista hasiera batean, XIX. mendetik zetorrena, baina frankismoaren amaieratik hautsita zegoena, diktadurarekin zuen harreman konplexuagatik eta mugimenduak hartu beharreko bideagatik. Alde batetik, 1974an Espainiako egitura federal baten barruan formalki eratutako Euskadiko Alderdi Karlistak sozialismo autogestionario eta federalista baterantz biratu zuen. Carlos Hugo Borboi-Parmakoa tronurako hautagai zela, bira ideologiko bitxi horrek gogo-hoztasun ugari eragin zituen, baita karlismoaren sektore tradizionalistekin enfrentamendua ere, 1976ko Montejurrako gertakarietan agerikoa. Talde hori berehala bihurtu zen hutsal, baina are indar txikiagoa izan zuen 1975ean berreratutako Común Tradicionalistak, Carlos-Hugoren anaia zen Sixto Borboi-Parmakoaren gidaritzapean. Hutsalak izan ziren, halaber, inspirazio falangista edo neofrankista zuten taldeak, hala nola Unión Nacional Española, Falange Española de las JONS ezberdinak edo Fuerza Nueva, nahiz eta azken alderdi horrek diputatu bat izan zuen Kongresuan bigarren legegintzaldian²⁸.

Alderdi horien aurrean, zentroko arku osoa eta eskuin kontserbadorea, liberala eta demokristaua, sortu berria zen. Alderdi horietako batzuek oso gutxi iraun zuten, esate baterako, Euskal Demokrazia Kristauak (DCV), hogeita hamarreko hamarkadako buruzagi kontserbadore ohia zen José María Gil Roblesen Kristau Federazio Demokratikoa integratua. Bestalde, sektore kontserbadoreenak, baina –eskuin muturrak ez bezala– Trantsizioa onartzen zutenak, 1977ko martxoan elkartu ziren AP taldean, Manuel Fraga buru zela. APk arazo ugari izan zituen Euskal Herrian ezartzeko, frankismoarekin zuen loturagatik, nazionalismoaren gorakadagatik eta presio terroristagatik. 1979an, tradizioz foralista zen hautesleria kontserbadorea erakartzen saiatu zen hautetsontzietara,

Euskal Herriko Foru Batasuna izenarekin (Unión Foral del País Vasco) aurkeztuz. APk ez zuen hegaldia altxatzea lortu Euskadin, 1989an Alderdi Popularrak (PP) bihurtu zen arte.

Bestalde, alderdi kontserbadore irekienak 1977an batu ziren UCDe, Adolfo Suárez Gobernuko presidentea buru zela. Bertan elkartu ziren, besteak beste, Alderdi Liberala, Alderdi Demokrata Popularrak edo Alderdi Sozial Demokratik, baina, egiatan, koalizioa goitik behera sortu zen presaka, Gobernu zibilen esku-hartzearekin, urte hartako ekaineko hauteskundeetara aurkezteko. Era adierazgarrian, Gobernuaren babesak izan arren, Gipuzkoa izan zen UCDe, hauteskunde horietan hautagaitza aurkezteko lortu ez zuen Espainiako probintzia bakarra. Bere buruzagiak (Jesús María Viana, Juan Echevarría Gangoiti, Jaime Mayor Oreja, etab.) moderazio irudi bat ematen saiatu ziren, euskal autonomia babestuz, baina alderdiak modu bereziki gogorrean jasan zuen ETAre indarkeria, 1980an lau afiliatu erail baitzituzten. Horrek hauteskundeetan behera egitea ekarri zuen pixkanaka. Baina, gainera, UCDe koadroen alderdi bat zen, ia egiturarik eta afiliatorik gabekoa, eta 1982ko hauteskunde orokorretan porrot egin ostean, desegin egin zen²⁹.

Azkenik, EAJren ezker aldean zegoen eremu abertzalea izan zen berrituena. Talde batzuk nazionalismo heterodoxo deiturikoaren barruan kokatzen ziren, aranismo, marxismo iraultzailetik eta ETAre inguruko indarkeriatik urrun. Hori da Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) Historikoaren kasua. 1930ean sortu zen, ezkerreko alderdi moderatu eta errepublikano gisa, eta Trantsizioan pulstua (eta siglak) galdu zuen alderdiko sektore gazteenaren aurrean, HBn sartu baitzen. Baina nazionalismo heterodoxo bat berreraikitze ahalegin serioena Euskadiko Sozialisten Elkarte Indarra (ESEI) izan zen, 1976ko irailean sortua eta Gregorio Monreal bezalako irakasle eta intelektualek zuzendua. Autonomismoaren eta sozialismoaren alde eginez, ETAre indarkeriaren aurka agertu zen eta beste indar batzuekin akordioak lortzen saiatu zen, baina ezin izan zuen bere proiektuarekiko sintoniarik aurkitu ez PSEn ez EEn, konbergentzia edo koalizio bat errefusatu baitzuten, eta 1980ko hauteskunde autonomikoetan porrot egin ondoren desagertu egin zen³⁰.

Alderdi abertzale berri gehienak ezker nazionalista erradikalekoak ziren, eta ia guztiak ETAre bi adarretako bati lotuta zeuden (edo egon ziren), bi koaliziotan bildu arte: EE, ETApM-ri lotua, eta HB, ETAm-ri. Euskadiko Ezkerra 1977an eratu zen hauteskunde-hautagaitza gisa, EIAren inguruan, EMKrekin aliantzan eta Eusko Sozialistak eta Euskal Komunistak bezalako talde hutsalen babesarekin, eta 1977ko apirilean aurkeztu zen jendaurrean, Mario Onaindia idazkari nagusi zela. Alderdi nazionalista erradikal eta leninista zen, eta Eduardo Moreno Bergaretxe (*Pertur*) ETApM-ko liderraren ideietan du jatorria. 1976an *Perturrek* «boltxebike kutsuko alderdi» bat sortzea proposatu zuen, masa-borroka ETApM-ren ekintza armatuarekin lotzeko, azken hau alderdi berriaren menpe egongo zelarik. EE koalizioak emaitza onak lortu zituen Gorteetarako lehen hauteskundeetan, baina ondoren (soilik EIAren hauteskunde-marka gisa) ez aurrera ez atzera gelditu zen, eta HBren gorakadak kalte egin

zian (izan ere, euren lehen diputatuak, Francisco Letamendiak, HBn amaitu zuen; Juan Mari Bandres senatariak, aldiz, EEko diputatu izaten jarraitu zuen). ETApM-rekin zuen harremana gero eta zailagoa izan zen, alde batetik, EEk legezketasuna eta euskal autonomia onartu baitzituen, eta, aldi berean, ETApM-k atentatuak egiten eta hiltzen jarraitzen baitzuen. Prozesu hori ETApM desegitearekin eta EIA desagertzearekin amaitu zen, lehenbiziko EE hura 1982ko martxoan alderdi politikoki bihurtu zenean, PCE-EPK-ko sektore euskaltzaleekin bat egin ondoren (ikus IV. atala)³¹.

HB, berriz, 1978ko apirilean sortu zen, EAE-ANV, Euskal Sozialista Biltzarrea (ESB), Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia (LAIA) eta Herriko Alderdi Sozialista Iraultzaileen (HASI) arteko koalizio gisa, baina 1986an bakarrik legezatu zuten, ibilbide judizial luze baten ondoren. Lehen bi alderdiek ez zuten jatorriz ETArekin zerikusirik. EAE-ANV 1930ean jaio zen, baina Trantsizioan erabat aldatu zen, bere sektore historikotik askatu eta ezker erradikalerantz biratu baitzen. ESB 1976ko ekainean jaio zen, ideologia independentista eta sozialdemokratarekin. EAE-ANV eta ESB bakarrik aurkeztu ziren 1977ko hauteskundeetara, eta erabateko porrota izan zuten. Ondorioz, HBrekin bat egin zuten. Lau kideetako zaharrena LAIA zen. 1974ko abuztuan sortu zuen ETAre Langile Fronteko sektore batek, izaera independentista eta marxista iraultzailearekin. 1977an aurreko alderdi batek (Euskal Herriko Alderdi Sozialista, 1975ean sortua) ETAm-eko jarraitzaileekin eta Eusko Sozialistak txikiarekin bat egitearen emaitza izan zen HASI. Besteak beste, Santiago Brouardek zuzenduta, indarkeriaren erabilera babestu zuen, eta ETAm-rekin gero eta lotuago geratu zen; horren ondorioz, bide hori babesten ez zutenek abandonatu egin zuten³².

HBko lehen Mahai Nazionallean, besteak beste, Telesforo Monzon abertzale historikoa (1936an Eusko Jaurlaritzako sailburu ohia EAJren aldetik), Jokin Gorostidi etakide ohia, Jon Idigoras eta Francisco Letamendia zeuden. Koalizioak «Estatu propioa» sortzearen alde egiten zuen, Nafarroa barne, baita sozialismoaren hainbat bertsioen alde ere, marxismo-leninismora iritsi arte. Baina berehala, hura osatzen zuten alderdiak izatez edo zuzenbidez desagertu ondoren, HB ETAm-ren adar politikoki bihurtu zen, erakunde terroristak eta koalizioak aitortzen zuten bezala, eta geroago Justiziak berretsi zuen hori. 1979ko eta 1980ko hauteskundeetan emaitza onak lortu ondoren, «eserleku hutsen» politika egitea erabaki zuen, frankismoa ustez betikotzen zuen Espainiako demokraziaren salaketa azpimarratuz. Gainera, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (MLNV) izenekoak harrobi eta erresonantzia-kutxa gisa erabiliko zuen soziabilitate-sare oso bat zutik jarri zuen. ETAre beraren eta Koordinadora Abertzale Sozialistaren (KAS) agindupean, gazte erakundeak, sindikalak, feministak, kirolzaleak, ekologistak eta soziabilitate zentroak (herriko tabernak) sartzen ziren. Gainera, askotariko unibertso sinbolikoa sortu zuen, jarraitzaileen artean barneratzeko gaitasun handia zuena. Baina, armazoi sozial eta sinboliko hori garrantzitsua izan arren, are garrantzitsuagoa zen ETAm-ren ekintza bortitza, Espainiako Estatua estutasun handitan jarri nahi baitzuen

KAS alternatiba negoziatzera behartzeko. Dokumentu hori bere gain hartu zuen ETAm-k, eta Nafarroa Euskadin integratzea, ordena publikoko indarrak ateratzea, autodeterminazioa edo langile-klasearen bizi-baldintzak hobetzea eskatzen zuen (ikus VIII. atala)³³.

Hain panorama politiko atomizatuaren aurrean, 1977ko hasieran inork ez zekien zein zen aukera bakoitzaren benetako indarra. Hori dela eta, ikusmin handia zegoen ekainaren 15eko hauteskundeen emaitzak ikusteko, berrogei urtetan lehenengo hauteskunde demokratikoak izan baitziren. «Ezker abertzalean», dilema nagusia zen hauteskundeetara aurkeztu ala ez. Hasiera batean, Gobernuak alde aurretik amnistia osoa ematen ez bazuen, hori ez egitea zen bere asmoa, baina, ikusi dugunez, Suárezek ez zuen eskakizun hori onartu, eta espetxetik partzialki ateratzea baino ez zuen onartu. Egoera horretan funtsezkoa izan zen Chibertako goi-bilera, Ipar Euskal Herrian (1977ko apirila-maiatza), non arku nazionalistako talde guztiek parte hartu zuten, EAJtik hasi eta ETaren adar ezberdinetaraino. Jarrera bateratu batera iristea zen asmoa, baina berehala ikusi zen benetako amildegi bat zegoela jeltzaleek Trantsizio itundu bat onartzeko zuten erabakimenaren eta ETAm-k sustatzen zuen erabateko hausturaren artean. Elkarrizketek, azkenean, bi estrategiak bateraezinak zirela egiaztatu zuten: ETaren inguruan bildutako munduak ez aurkeztea, hauteskunderi boikota egitea eta abstentzioa eskatzea erabaki zuen. Aitzitik, ETApM-k hauteskunde-deialdia onartzea erabaki zuen, eta EIA joan zen hautetsontzietara EE koalizioaren bidez³⁴.

Euskal Herriko emaitzak errealismo kolpe handia izan ziren. Hasteko, ETAm alderdiaren kanpaina abstentzionistak erabateko porrota izan zuen, euskal hautesleen % 76,9 joan baitzen botoa ematera (Espainiako batez bestekoaren ia ehuneko bera, % 78,8). Gainera, batzuen ustez iraultzaren haize-urakanak garaituko zituen bi alderdiak izan ziren bozkatuenak: lehenengo EAJ (botoen % 29,3 eta zortzi eserleku), Bizkaian eta Gipuzkoan bozkatuena izan zena, eta ondoren PSE (% 26,5 eta zazpi diputatu). Hori gutxi balitz, hirugarren postuan, Gipuzkoan aurkeztu ezin izan zen arren, UCD zegoen (% 12,8 eta lau eserleku), eta, gainera, Arabako lehen indarra izan zen. EEk botoen % 6 baino ez zuen lortu, diputatu batekin. APk ere eserleku bat lortu zuen, eta kanpoan geratu ziren aurkeztutako beste hamazazpi hautagaitzak, PCE-EPK barne. Euskal abertzaleen botoen ehunekoia % 40 ingurukoa izan zen. Euskadiko emaitzak Espainia osokoak ez bezalakoak ziren, UCDk irabazi baitzuen, eta ondoren PSOEk, baina ez zuten haustura erradikal asmorik adierazten, kontrakoa baizik. Gainera, Nafarroan UCDk eta PSOEk –ordena horretan– banatu zituzten Kongresuko eserleku guztiak, hautagai nazionalistak kanpoan utzita.

Oro har, hauteskundeak Franco hil ondoren hasitako «protesta zikloaren» amaiera izan ziren, baina Euskadin, non ETatik hurbil zeuden sektoreek, ezker muturraren laguntzarekin, kaleetan presioa egiten jarraitzen baitzuten, ez zen antzeko normalizaziorik gertatu. Hauteskundeak egin eta hiru egunera, Javier Ybarra enpresari eta politikari frankista erail zuten, hilabete lehenago ETApM-tik banandutako Komando Bereziak bahitu zutena. 1977ko udan Amnistiaren

Aldeko Batzordeek Askatasunaren Martxa jendetsua antolatu zuten, Euskal Herri osoa zeharkatu zuena, indar polizialak desegitearen eta amnistia erabatekoaren alde. Telesforo Monzon buruzagi abertzale beteranoa mobilizazio horretan agertu zen, bere burua Gerra Zibilean hasitako euskal herriaren borrokaren sinbolo izendatuz, eta, interpretazio horren arabera, ETA zen borroka horren jarraitzailea³⁵.

Aldi berean, ETaren eta beste talde terrorista batzuen ekintzek, istiluek jarraitu zuten, baita, batzuetan, poliziaren errepresioaren ondorioz hildakoak ere, euskal Trantsizioaren paisaia berezia marratuz. Izan ere, ordena publikoko indarrak gaizki prestatuta zeuden, terrorismoak psikologikoki presionatuta eta zigorgabetasunera ohituta. Gaizka Fernández Soldevillak azaltzen duen bezala, askotan jarraitu zuten «diktaduratik jasotako inertzia zaharrekin, ezer aldatu ez balitz bezala. Zentzu horretan, gehiegikeria ugari izan ziren, eta horietako batzuk herritarren heriotzarekin amaitu ziren. Eta, komisarian, atxilotuei emandako tratu txarrak eta torturak ez ziren falta izan»³⁶. 1977ko urriaren 15ean Gorteen amnistia osoa onartu izanak ere ez zuen panorama tragiko hori aldatu; izan ere, bi hilabete geroago Francisco Aldanondo ETako azken preso kartzelatik atera zen. Erakundeko bi adarrek hiltzen jarraitzea erabaki zuten, «Suárezen Erreforma finkatzea» saihesteko, «Euskadi zapalduta zegoelako borroka hasi zutela» eta, haien arabera, oraindik ere hala zegoela argudiatuta. Abenduaren 16an, Aldanondo askatu eta astebetera, ETak Julio Martínez Irungo zinegotzia hil zuen. 21ean, BVE talde terrorista parapolizialak José Miguel Beñaran (*Argala*) ETako buruzagia erail zuen bomba batekin Ipar Euskal Herrian. 1978ko urtarrilaren 11n bi etakide eta polizia bat hil ziren tiroketa batean Iruñean. LKIk ETako bi kideei «omenaldia» egiten zien agiria argitaratu zuen. Hildako poliziak ez zuten oroitzapenik merezi izan³⁷. Hala eta guztiz ere, aldi berean demokrazia eta euskal askatasuna lortzeko urratsak ematen ari ziren.

IV. AUTOGOBERNUAREN HELBURUA

Azaldu den bezala, Trantsizioko eragile politiko guztiak, oso abiapuntu desberdinetatik, jakitun ziren «euskal arazoa» konpondu behar zela, katalana bezala. José María Portillok aztertu duen bezala, *Entre tiros e historia* izenburu esanguratsua duen liburu batean, Euskadin nagusi zen indarkeria oso presente egon zen euskal auzia konpontzeko premian. Aldi berean, etengabe begiratzen zitzaion iraganari: ez bakarrik Errepublikari eta Gerra Zibilari, baizik eta, batez ere, XIX. mendeko Foruei. Horrek ñabardura berezia eman zion euskal autonomiari, «eskubide historikoen» aitorpenean ainguratuta baitago³⁸.

1977ko ekaineko hauteskundeen aurreko hilabeteek Trantsizio prozesuaren barruan autonomiaren auzia bideratzeko balio izan zuten, demokratikoki hautatuko ziren ordezkarien zuzendaritzapean jarritz. Horixe izan zen 1977ko maiatzean EAJk, PSEk, ESEIk, EAE-ANVk, PCE-EPK-k eta Euskal Demokrazia Kristauak sinatutako konpromiso autonomikoaren edukia. Era berean,

horrek Alkateen Taldea behin betiko baztertzea ekarri zuen; izan ere, nahiz eta talde horrek herri-mobilizazioak egin, ez zuen alderdi nagusien babesa lortu.

Akordio horri jarraiki, 1977ko ekainaren 19an Euskal Legebiltzarkideen Biltzarra eratu zen, lau probintzietako diputatu eta senatariak osatua. Berehala ikusi zen Nafarroako arazoa, Errepublikaren garaiko estatutu-prozesuan giltzarria izan zena, lehen mailara pasatzen ari zela berriro. Arabako UCDko ordezkarien aldetik errezeloak egon baziren ere, inork ez zuen zalantzan jartzen probintzia hori, Gipuzkoa eta Bizkaia bezalaxe, Euskadiren parte zela. Nafarroan, aldiz, nortasun euskaltzalea eta nabarrista lehian ari ziren ea nor nagusituko. PSOEek Euskadin integratzearen alde egiten zuen oraindik, baina UCDk –bata-sun horren aurkakoa– Nafarroako parlamentarien artean gehiengoaz izateak, Euskaditik banatzearen aldera bultzatzen zuen balantza. Izan ere, zentrista nafarrak ez ziren Euskal Legebiltzarkideen Biltzarrean sartu.

Biltzarra autonomiaren aurreko organo bat lantzen hasi zen. Neurri batean Kataluniako ereduari jarraituz, nolabaiteko autogobernua berreskuratu nahi zen lehenbailehen, eta horrek, uste zenez, indarra kenduko zion ETaren indarkeriazko aukerari. Konstituzioa eta Estatutuaren aurreproiektua lantzearekin batera, organo horrek zenbait transferentzia jasoko zituen Estatutik. Kataluniarekiko alde handia zen, kasu honetan, Josep Tarradellas erbesteko Generalitateko presidentea itzuli egin zela, eta 1977ko irailean hasi zela Kataluniako autonomiaren aurreko organoko buru izaten. Aitzitik, euskal kasuan Jesús María Leizaola lehendakariak Parisen jarraitzen zuen, EAJk, PSOEek, EAE-ANVk eta Ezker Errepublikanoak osatutako Gobernu baten buru. Ia jarduerarik ez zuen arren, balio sinbolikoa zuen, euskal herriak estatus berri bat eman arte indarrean jarraituko zuen legitimitatea gordetzen baitzuen.

[...] Fronteak gerra aurreko Falangearen tradizioari jarraitu zion [...]. Orduan bezala, Frontea elementu detonatzaile bat bezala ikusten zen, eta hileta militar bakoitza, bilera aberkoi bakoitza matxinada bihurtzean, oraindik armadan existitzen zirela uste genuen indar osasuntsuak gehiago hurbiltzen zituen, 1936koaren guztiz desberdina ez zen altxamendu batera⁶³.

Hori logikoa zen, garaiko eskuin muturrak etengabe salatzen baitzuen «Anti-Espainia» deritzonaren itzulera, gerraurreko urteetako berezko diskurtsoarekin, eta, egiatan, haren erreferente ideologikoez garai hartan ainguratuta geratu ziren. Are gehiago, sektore politiko horretako alderdi nagusiak, FNk, «Uztailaren 18ko idealekiko», «Francisco Francoren lanaren eta oroitzapenarekiko»

eta «monarkia katoliko tradizional, sozial eta ordezkatzailerekin» leialtasunean oinarritu zuen bere adierazpen programatikoa⁶⁴.

Azken finean, eta azaldutakoa laburbilduz, frankismoaren aurkako oposizio armatu «berria» «zaharra» ere izan zen, iraganarekiko jarraitutasun esanguratsuak hainbat planotan (pertsonalak, sinbolikoak eta ideologikoak) proiektatu zituen eta proiektatu nahi izan zituen neurrian, eta hori ultraeskuinean ere islatu zen: lehenengoak faxismoaren eta frankismoaren aurkako borrokan bilatu bazuen legitimitatea, bigarrenak iraganeko berrezarkuntza-irrikak bultzatuta jo zuen armataro. Gure ikuspegitik, gizartearen gehiengoak gatazka fratrizida hura gaingitu nahi zuen garai batean, Gerra Zibileko eta gerraurreko banderen aldarrikapen partekatu horrek ahalbidetzen du haren porrota ulertzea. Beraz, frankismoaren aurkako erresistentzia armatuak iraganarekin dituen loturak ez dira kontu txikia. Horregatik da garrantzitsua azpimarratzea frankismoaren aurkako erresistentzia armatu zaharren eta berriaren arteko muga kronologikoak, azken horren *soixante-huitard* moldea nabarmentzean argi marraztu ohi direnak, berez lausoak izan zirela, eta 1936ko «memoria zaharren» arrastoak markatu zituela.

II. MENDEBALDEKO SAHARA: «HEGOALDEKO MUGA» ERABAKIGARRIA ETA AHAZTUA

Aztertuko dugun hurrengo gaia Saharako «hegoaldeko muga» gatazkatsua Espainiako politikan izan zuen eragin handia da. Azken hori ez dago frankismo berantiarreko eta trantsizioko kronika edo analisisetan; izan ere, normalean, haren deskolonizazioa ibilbide politikoaren albo-elementu gisa ikusten da, nahiz eta haren berezko elementua izan, atal honetan jarraian azalduko ditugun lau arrazoiengatik⁶⁵. Lehena da Sahararen presentzia eta babes espainiarra funtsezkoa izan zela Franco eta Carrerorentzat, eta biak prest zeudela Marokorekin gerra bat egiteko lurralde hori babesteko. Bigarren arrazoa da han sortu zen gerrilla, Sakia-el-Hamra eta Río de Oro Askatzeko Herri Frontea (Fronte Polisarioa), ez zela frankismo berantiarreko indarkeria politikoari buruzko azterlanetan sartu, nahiz eta diktaduraren aurkako talde armatu berriekin konkomitantzia argiak aurkeztu eta Espainiako lurretan garatu. Hirugarrenik, Saharan, penintsulako sektore immobilisten irekiera politikoaren aurrean, metropolian gertatu zen bezala, jarrera intransigenteak nagusitu ziren. Azkenik, eta ez da horregatik garrantzi gutxiagoko kontua, 1975ean «hegoaldeko muga» hori desagertu izanak biktima ahaztuak utzi zituen.

1. SAHARA, ESTATU ARAZOA FRANCO ETA CARRERORENTZAT

Espainiako inperio afrikarra txikituta geratu zen Marokoren independen-tziarekin 1956an eta Ifniko gerrak 1958an ekarri zituen herrialde horren aldeko

lurralde lagapenekin. Urte hartan inperio azken lurraldeak, Sahara eta Ekuatore Ginea, probintzia bihurtu ziren presio deskolonizatzaileak saihesteko, nahiz eta Ginea 1968an emantzipatu zen. Carrerok saihestezintzat jo zuen haren independentzia, baina –Francok bezala– onartezintzat jo zuen Sahararena⁶⁶. Leku horrek garrantzi estrategikoa hartu zuen, 1962an Ued Bu Craa-n aurkitutako fosfato-erreserbengatik (1.300 milioi tona inguru). 1969tik aurrera ustiatu ziren, garai hartako 13.500 milioi pezetako inbertsio astronomiko baten ondoren, «mundu mailako ingeniartzaren miraria zen 97 kilometroko uhal garraiatzaile batekin, kargamentua itsaso zabaleko ontzireleku erraldoi batera eramaten zuena». Fos Bucraa-k (Industriako Institutu Nazionalaren —INIren —mendeko enpresa) kudeatzen zituen fosfatoek goitik behera aldatu zuten Sahara hamarkada batean: 1963an 260 langile zituen enpresak, eta 1975ean 2.700 (954 baino ez ziren sahararrak). Horrek eragin disolbatzailea izan zuen gizarte tribalean: nomadismoaren eta artzaintzaren amaiera erraztu zuen; etnia eta tribuen arteko ezberdintasunak higatu zituen; urbanizazioa bizkortu zuen (Aaiun 9.000 biztanle izatetik 27.000 izatera igaro zen zazpi urtean, eta Villa Cisneros eta Smara hazi egin ziren), eta gizarte kontsumista eta oparoa eratu zuen. Alejandro García historialariaren ustez, aldaketa horiek «historiaurre ekonomikotik industria garaira» eraman zuten Sahara⁶⁷. *Boom* horren ondorioz, Francok eta Carrerok haren espainiartasuna irmoki defendatu zuten eremu estrategiko gisa⁶⁸, eta diarkia horretan eta haren botere-zirkuluetan nekez bideragarria zen ideia politiko bat mamitu zuten: pentsatzea fase terminalean zegoen Afrikako deskolonizazioan, bideragarria zela lurralde hura nolabaiteko autonomiarekin mantentzea, eta gero Espainiari lotutako estatu gisa. Nahiz eta bertako 250.000 km²-ek 64.000 biztanle baino ez izan, aberatsa zen, eta Marokok, Mauritaniak eta Aljeriak ere nahi zuten⁶⁹. Horregatik esan zuen Carrerok Sahara «Cuenca probintzia bezain lurralde espainiarra» zela⁷⁰.

Ondorioz, inguruko herrialdeetatik urruntzea sustatzeko, Espainiak nortasun propioa sustatu zuen han, Bernabé López historialariak adierazten duen bezala: «Saharako eliteekin lan egin zen, bizilagunekin [Maroko eta Mauritania] izan zitzaizketen proiektu komun guztietatik aldentzeko, baita haiekin etsaitzeko ere, nortasun propioa zuen aparteko lurralde baten ideia sustatuz, ingurunearekin inolako loturarik gabea»⁷¹. Francok entzungor egin zien militarren ahotsei —Agustín Muñoz Grande jeneral dibisionarioari, adibidez—, lurraldea Marokoren esku uztearen alde agertu baitziren⁷². 1966an Carrerok Marokoren aseezintasunaren aurkako hitzaldi irmoa eman zuen Aaiunen, Saharako hiriburuan: «Amerika aurkitu aurretik, espainiarrak eta sahararrak harremanetan jarri ziren lurralde hauetan, Magrebekin inoiz zerikusirik izan ez zutenak». Jarrera horrek bizefalia bat eragin zuen gobernuan, Atzerri Ministerioak NBERen deskolonizazio tesia onartu baitzuen, eta Carrerok, Francoren bermearekin, kontrakoari eutsi zion, lurraldea mantentzearen alde eginez. Testuinguru horretan, 1967 eta 1968 bitartean Jatri uld Sidi Said Yumaniren altxamenduekin Saharan lehen kimu nazionalista ustekabeak sartu zenean, matxinada geldiarazi, eta organo aholku-emaitza bat sortu zen, Yemmaa⁷³. Francok adi jarraitu zuen lurraldearen

bilakaera: 1969ko abenduan Fernando Sandoval bere Gobernadore nagusiaren idazkari nagusia hartu zuenean, hura harritu egin zen Sahararekiko zuen interesagatik⁷⁴. Diktadoreak kokagunearekiko zuen kezka ere pertsonala zen, bere ibilbidea, eta bere gudarosteara, Afrikan sortu baitziren, 1938an grafikoki aitortu zuen bezala: «Afrikarik gabe, nekez azal dezaket neure burua, ezta neure armakideena osoki ere», adierazi zuen⁷⁵. Lotura horrek harreman anibalentea sortu zion lurraldearekin⁷⁶.

2. GERRILLAREN SORRERA: OALSETIK POLISARIOA

1969ko abenduan bertan, Francok Sandoval hartu zuenean, Harakat Tahrir erakundea eratu zen Saharan, eta haren hainbat itzulpen aurkitu ditugu: Sahara Askatzeko Erakunde Aurreratua (OALS); Sakia-el-Hamra eta Río de Oro Askatzeko Abangoardia; Sahara Askatzeko abangoardia. Basiri edo Bassiri (bere izena Mohamed uld Hach Brahim uld Lebser zen) izeneko 28 urteko gazte batek sortu eta gidatu zuen. Talde horri buruzko informazioak mugatuak dira, eta apur bat dibergenteak, iturri batzuek lehen independentismoa sahararra dela uste baitute, eta beste batzuek, berriz, anbigutasun handiagoz ezaugarritzen baitute, «oraindik ez baitzen erabaki norantz makurtu behar zen sahararren autodeterminazioa: Marokora itzultzea edo independentzia»⁷⁷. Hala ere, bere dokumentazioak erakusten duenez, Basirik «ikuspegi nazionalista moderatua eta Espainiaren aldekoa» zuen, eta «Espainiarekin indarrak batzeko aukerarekin amets egiten zuen, sahararrek “ama aberria”ren akatsengatik galdu zuten lurraldea berreskuratzeko», Tarfayari (Ifniko gerraren ondoren Marokori lagatakoa) eta Mauritaniako zati bati (Frantziari lagatakoa, protektoratuaren mugak negoziatzean) erreferentzia eginez⁷⁸. Ziurrenik, OALSi buruzko ikuspegi ezberdin horien arrazoiak Basirik bere proiektuari interes desberdineko sektoreak gehitzeko orekak egin izana da, García adierazten duen bezala:

[...] Basirik Espainiako Saharan aurkitzen duena, ezagutzen ez zuena, makineria kolonial bat da, sedukzioa eta erosketa praktikak dituen, baina errepresio ahalmen izugarriarekin, sistemara egokituta bizi den nomenklatura tribal bat, bat-bateko aldaketei alergia diena, ekonomia kolonialaren loturarekin pozik dagoen biztanleriaren segmentu garrantzitsu bat eta, azkenik, bide armatua bazter utzi gabe, nazionalismo militanteari atxikitzen zaion hiriko gazteria. Basirik sentsibilitate desberdinak uztartu behar izan zituen erakunde bat martxan jarri eta bere proiektu nazionala osatzeko. Gazteei epe ertainerako aukera errepublikano bat aipatzen zien; tribuetako buruzagiei, berriz, autonomia, giza eskubideak edo espainiarrekiko berdintasuna. Idatzi zituen gutunen eta bere azken idazkiaren arabera, Saharako gobernadoreari bidali zion Memoranduma, independentzia lortzeko hamar edo hamabost urte beharko zituztela pentsatzen zuen Basirik, okupatzailearekin hitzartutako prozesu baten bidez⁷⁹.

OALS 1970eko ekainaren 17an agertu zen Aaiunen, Espainiaren presentziaren aurkako protesta bat egin zuenean. Egun horretan, Espainiarekiko atxikimendu-ekitaldi bat deitu zen Afrikako bere plazan, eta Basirik hara ere deitu

zituen bere jarraitzaileak, baina Zamlako zabalgunean (edo Jatarramblan), domeinu kolonialaren aurka modu baketsuan manifestatzeko. Agintaritzarekin negoziatzen saiatu zen, baina alferrik. Egoera tenkatu egin zen, eta Lurraldeko Poliziak lehenik eta legionario konpainia batek gero, OALSeko kontzentratuak zapaldu zituen, eta gutxienez bi heriotza (baina hamar izan daitezke iturri ez ofizialen arabera) eta hogeitauritu baino gehiago eragin zituen⁸⁰. Basiri atxilotu egin zuten, eta egun gutxiaren buruan desagertu zen. Ikusiko dugun bezala, oso litekeena da exekuzio estraofiziala izatea. Errepresio horrek adierazi zuen erregimenak ez zuela asaldura antkoloniala onartuko: Richard Nixon presidente estatubatuarra urrian Espainia bisitatu zuenean, Carrerok Saharari buruzko bere jarrera irmoak adierazi zituen: «lehenik, garapena; gero, epe luzera, autodeterminazioa»⁸¹.

Esparru horretan, 1973ko apirilean, aipatu Fronte Polisarioa eratu zen, bere burua Sahararen nazio askapenerako talde gisa aldarrikatu zuena eta Basiriren arrastoari jarraituko ziona. Hura «estremismo iraultzaile»arekin lotu zuten, baina ez dago garbi horrelakorik aitortu ote zuen⁸². Maiatzaren 19an, taldeak lehen eraso egin zuen Espainiako postu batean (Janguet Quesat), bi kide askatzeko, eta irailaren 30ean saharar kaporal bat hil zuen⁸³. Orduan, Espainiak «izenik gabeko gerra» txiki bat bizi izan zuen han (ez baitzuen inoiz ofizialki onartu), eta bere tropek presorik ez egiteko kontsignak jaso zituzten, gerrillari sahararrak era sumarioan exekutatzea⁸⁴. Bitartean, Carrerok, Sahararen iraupena bermatzeko, estatubatuarren interesen aurkako «hirugarren bide» bat zirriborratu zuen irail hartan Mauritaniara hurbiltzean. Laureano López Rodó Kanpo Arazoetako ministroak ere Andrei Gromiko Errusiako homologoarekin hitz egin zuen gaiaz, eta azken honek Sahararen independentzia babesteko konpromisoa hartu zuen⁸⁵. Espainiak, beraz, gogor jokatu zuen Sahararen kontrola bermatzeko, nahiz eta lurraldearen egoera gaiztotu.

3. ABANDONUAREN AURKAKO ERRESISTENTZIA: FRANCOREN AZKEN GERRA

1973ko abenduan, Carreroren hilketaren ondoren, ordura arteko DGSkok zuzendaria, arestian aipatu Eduardo Blanco, Saharako Sustapeneko zuzendari nagusi izendatu zuten⁸⁶, posizioen gogortzeak bere horretan jarraitzen zuela islatuz⁸⁷. 1974ko urtarrilean, Francok Nazio Batuen Erakundeak zonaldea deskolonizatzeke egindako presioak ezagutu zituenean, zorrotz mintzatu zen: «Gerrara joan behar bada, goazen»⁸⁸. Hil baino hilabete lehenago, 1975eko urrian, Hassan II.a errege alaiarekin Saharari buruz hitz egiteko agindu zion José Ramón Gavilán jeneralarari (bere Etxe Militarreko bigarren burua), ohar honekin: «Kontuz ibili, Hassan marrazoa da eta»⁸⁹. Eta Marokoko erregea urrian Martxa Berdea deiturikoa (milaka zibil marokorrek egindako Sahararen okupazioa) prestatzen ari zela, Francok bihotzekoa izan zuen «Sahara» hitza entzutean, hil horren 17an monitorizatuta jarraitzen ari zen ministroen kontseiluan⁹⁰.

Orduan ez zen itzulinguruka ibili: «Marokori gerra deklaratu diogu, nahiz eta hamar urte iraun», adierazi zion bere gobernuari⁹¹. Eta azkenean, hiltzorian zegoela, gerra deklaratu nahi izan zuen. Gobernuaren buruzagitzan Carreroren ondorengoa izan zen Carlos Arias Navarrokarekin izandako data jakinik gabeko audientzia batean adierazi omen zuen:

[...] Bat datozen zenbait iturriren arabera, [...] [Arias] aurpegia bereziki itxuraldatuta zuela atera zen audientzia horretatik. Itxuraz egun hartan kontziente zegoen jeneralak, Ariasen txostenak entzun zituen, Hassan II.a erregeak Sahararen gaineko martxa berdea geldiarazteari uko egin ziola hipzide zutenak, eta Marokori gerra deklaratzeko agindu zion. Gobernuko presidentek ez zekien oso ondo zer egin, eta Francoren jarraibideei buruzko kontsulta egin zion bere laguntzaile minenetako bati eta Goi Estatu Nagusiari. Denek aholkatu zitoten ez entzunarena egitea eta jasotako aginduak isilpean gordetzea⁹².

Gauzak horrela, 1975eko azaroaren 6an hasi zen aipatutako Martxa Berdea. Marokoko 350.000 zibil Saharara joan ziren Francoren agonia betean, eta Espainiako gobernu ezpataren eta hormaren artean jarri zuten; izan ere, bere tropek jendetzari tiro egiten bazioten, nazioarteko egoera jasanezina bihurtuko zen. Orduan, Madrilek Rabatekin negoziatu zuen lurraldearen entrega hilaren 9an, eta 10ean Marokok zibilak handik ateratzeko agindua eman zuen. 14an, Sahara bi herrialdeen artean banatzen zuen Hiruko Akordioak sinatu zituen Madrilek Rabat eta Nuakchotekin, eta han egoteari utzi zion.

Testuinguru horretan, nabarmendu behar da Carrerok, presidente gisa, garai hartan bizi izan balitz egingo zukeenari buruzko gogoeta historiografiko kontrafaktualak ardatz baten inguruan baino ez dabiltzala: prozesu demokratizazioaren aurka egingo ote zuen. Hala ere, gogoeta horiek alde batera uzten dute Saharari eustearen aldeko sutsua zela, diktadorearen bermearekin. Beraz, zaila dirudi pentsatzea orduan almirantea bizi izan balitz nekez amore emango zukeela Martxa Berdearen aurrean (batez ere, hiltzorian egon arren gerrara joateko prest zegoen Francorekin), eta, ondorioz, Sahararen deskolonizazioa oso bestelakoa izango zatekeela. Gainera, probintzia berezi hartan, penintsulako zibilen eta militarren lobby anti-abandonista bat eratu zen, «aldaketa ororekiko oso mesfidati, eta kide gehienak itsu-itsuan sinetsita zeuden Espainiak Saharan izango zuen presentzia betikotuko zuela». Ondorioz, *hareazko bunker* metaforiko bat bihurtu zen⁹³. Sektore horrek, adibidez, mesfidantzaz hartu zuen irratikate baten eta *La Realidad* izeneko egunkari elebidun baten (arabiar-espainiarra) sorrera, Saharako idazkari nagusi Luis Rodríguez de Viguri koronelaren babesean⁹⁴. Paradoxa bat gertatu zen orduan: babes militarrekin argitaratutako *La Realidad*ek, «autodeterminazioa» eta «independentzia» terminoak erabili zituen Saharari erreferentzia eginez, erregimenak penintsulan termino horiek berak ahotan hartzen zituzten «nazionalista periferikoak» jazartzen zituen bitartean⁹⁵. Bertako *bunkerraren* aurkakotasuna agerian geratu zen militar talde bat *La Realidad*eko zuzendari Pablo-Ignacio de Dalmases hiltzen saiatu zenean, 1975eko urriaren 24an egunkariak Saharari buruzko akordio hispaniar-marokoarra iragarri zuenean. Horrek tentsioa areagotu zuen

Aaiunen penintsularren eta bertakoen artean⁹⁶. Zirkulu militar batzuen numantinisismoaren ondorioz, Martxa Berdearen aurrean «buruzagi batzuek baimena eskatu zuten Rabateko Errege Jauregiraino su eta gar aurrera egiteko»⁹⁷. Eta 1976ko otsailean, Saharara uzterakoan, komandante batek lehergailuak jarri zituen Aaiungo paradorean, «Marokoko ofizialak sartzen zirenean haiek leherrazteko» eta gerra hispaniar-marokoarra pizteko, baina atzera egin zuen agintari militarren eta bere kideen presioengatik⁹⁸.

4. BIKTIMA AHAZTUAK ETA ARTXIBO ESKURAEZINAK

Gatazkak Espainiako biktima zibil ugari utzi zituen; izan ere, Fronte Polisarioak 1973 eta 1986 artean «289 atentatu terrorista egin zituen espainiar herri-tarren aurka, batez ere Saharako Fosbucraa-ko fosfato-meatzeetako langileen aurka, Saharan, eta bertako ur-bankuan arrantzatzen ari ziren Kanarietako, Galiziako, Euskal Herriko eta Andaluziako arrantzaleen aurka»⁹⁹. Horietako batzuek gorabehera tamalgarriren bat bizi izan zuten, hala nola Lucía Jiménezen aitak (ACAVITE Terrorismoaren Biktimen Kanarietako Elkarteko presidentea)¹⁰⁰, mina batek larri zaurituta utzi baitzuen:

Francisco Jiménezek argiketari gisa lan egiten zuen Fos Bucraá enpresan [...] mina batek [...] hura zihuan Land Roverra airetik bota zuenean [...] gor, erdi itsu eta metrailaz beteta geratu zen.

Gertakariak 1976ko urtarrilaren 10ean jazo ziren, zehazki Espainiak Afrikako probintzia utzi baino 49 egun lehenago. Urtebete geroago, Lan Ministerioak «lan-istripuzat» jo zuen gertatutakoa, eta Jiménezek lanerako behin betiko ezintasuna eman zion. 1999an, Terrorismoaren Biktimei buruzko Legea indarrean sartu zenean, [...] borrokan hasi zen haren onurak eskuratu ahal izateko. Hala ere, [...] bere erreklamazioak atzera bota zituzten, Barne Ministerioko arduradunek ezin izan zutelako atentatuaren aipamen ofizialik aurkitu beren artxiboetan. [...] Saharako dokumentu gehienak Administrazioaren Artxibo Nagusian [AGA] [...] daudelako, 2026ra arte sekretu gisa sailkatuta¹⁰¹.

Aldi berean, adierazi dugun bezala, Espainiaren domeinu kolonialaren pean gerrillari polisarioen exekuzio sumarioak izan ziren, eta Basiriren «desagerpena» gertatu zen. 2012an, Talde Mistoko Joan Tardà diputatuak legez besteko proposamen bat aurkeztu zuen Kongresuko Kanpo Arazoetarako Batzordean, Basiriri gertatu zitzaionari buruzko «txosten ofizial bat egitea eskatzen zuena». Aurka agertu ziren PSOE, PP (izen hori hartu zuen APk 1989an) eta CiU. Azken honen ordezkariak, Jordi Xuclàk, argudiatu zuen historialarietako dagokiela «egia historikoa bilatzea [...] eta Estatuko administrazioaren artxibo guztiak [...] irekiak izatea». Baina Ana Camacho historialariak dio «eragozpen handiak» daudela horietara iristeko¹⁰², dagoeneko aipatu duguna. Are gehiago, Tomás Barbulo kazetariaren arabera, Basiriri buruzko AGAren hiru dokumentuak «faltsuak dira», eta bertan «badira beste paper batzuk aipatzen dituzten dokumentu ofizialak, baina azken horiek ez dira agertzen»¹⁰³. Testuinguru horretan,

ezinezkoa da Basiriren balizko exekuzioa dokumentu bidez bermatzea, nahiz eta Barbulok esaten duen exekuzioa 1970eko uztailaren 29an gertatu zela, saharar gazteak El Aaiun utzi zuenean, handik 10 bat km-ra hilko zuten legionarioek eskoltatuta¹⁰⁴. Gertaera hori berretsiz gero, baliteke Basiri ez izatea «probintzia» kolonialetan «desagertutako» politikari bakarra, beste bi nazionalista ginearren heriotza ere aipatu baita: Acacio Mañé eta Enrique Nvo¹⁰⁵. Gure ikuspegitik, kasu horiek koloniak frankismoaren errepresioaren ikerketan integratzeko beharra erakusten dute, 1975era arte Espainia inperio bat izan baitzen.

Saharara itzuliz, beharrezkoa da gogoratzea Espainiak hedatu zuen politika sigi-sagatsuak ondorio larriak izan zituela han: bertakoak babesik gabe utzi zituen Marokoren eta Mauritaniaren aurrean, 1975etik dirauen lurralde-auzi bat aktibatu zuen, alboko biktimen arrasto bat utzi zuen, eta ahanzturan geratu ziren saharar gerrillarien exekuzio sumarioak eta Basiriren «desagerpena». Baina, batez ere, uste dugu frankismo berantiarreko eta Trantsizioko ikerketek gutxietsi egiten dutela «hegoaldeko muga» horren garrantzia; izan ere, indarkeria politikoaren gunerik problematikoena izan zen diktadurarentzat arlo guztietan (seguruenik ETak Euskal Herrian egindakoa baino garrantzitsua goa), eta Franco prest egon zen haren aldeko gerra bat egiteko. Hori dela eta, Trantsizioko indarkeria politikoaren azterketek Sahararen kasua barne hartu beharko luketela uste dugu, nahiz eta itxuraz lurralde-izaera xelebrea izan. Horri dagokionez, esan beharra dago Fronte Polisarioa PCerekin (ml) eta Espainiako Alderdi Komunistaren (nazioartekoa)-ildo proletarioaren fakzio erradikalizatu batekin erlazionatu zela¹⁰⁶, GRAPO eta MPAIACekin erlazionatzeaz gain (zer-bait logikoa, Aljeriako estaldura partekatzen baitzuten)¹⁰⁷.

III. VALENTZIA ETA «INTENTSITATE TXIKIKO» INDARKERIA

Aztertuko dugun azken kasua aurrekoaren oso bestelakoa da. Valentziako Erkidegoa ez da Trantsizioko indarkeria politikoari buruzko azterlanetan agertzen, ez zuelako talde antolatu armaturik munduratu. Izan ere, garai horretako aktibismo politikoaren heriotzarik ikonikoena Miquel Graurena izan zen, 1977ko urriaren 6an, Moviment Comunista del País Valenciàko (MCPV) militantea. Grau Valentziako *Diadaren* eraikin batean kartelak jartzen ari zela (urriak 9), maizterretako batek —Miguel Ángel Panadero ultraeskuindarrak —garezurra hondoratu zion adreilu bat bota zion¹⁰⁸. Hala ere, paradoxikoa da komunitate horrek indarkeria politikoaz ezagutu zuela, Borja Ribera historialariak Trantsizioan bakantzat jotzen duena; izan ere, bilakaera politikoan eragina izateaz gain («intentsitate txikikoa» izan arren), gehienbat «eskuindar-espainolista» izan zen. Era berean, azpimarratzen du «indarkeriazko ekintza larrienak zigorrik gabe geratu zirela, eta horietako batzuk, gutxienez, agintarien baimen esplizitu edo inplizituarekin egin zirela», eta «Valentziako hiria izan zela gatazkarako agertoki nagusia, baina indarkeria politikoak neurri ez arbuigarriaren egon zela egungo Valentziako Erkidegoaren zati handi batean, batez ere Valentziako eta

Alacanteko probintzietan, eta, are gutxiago, Castellonen, non eskuina baitzen nagusi»¹⁰⁹. Gure aldetik, indarkeria hori itxuraz gune anitzekoa izan zela gehitu behar dugu. Komunitate horrek talde armaturik izan ez zuenez, Trantsizioaren analisisetan ikusezina da, nahiz eta akademiko, saiogile eta kazetari valentziarrek bere garrantzia azpimarratu demokratizazioaren garaian. Horrela, Alfons Cuco historialariak, senatari sozialista izandakoak, azaldu zuenez, ezkerreko indarren garaipenaren aurkako jarrera agerian geratu zen, ez bakarrik hautetsontzietan, baita manifestazioetan eta, batez ere, «indarkeria olde batean ere —askotan terrorismoa zentzu hertsian—, eta intelektualen eta ezkerreko politikarien gainera erori zen, eta beti iluntasunean eta zigorgabetasunean geratu zen, nahiz eta pertsonalki *ad hoc* interpelazio parlamentarioak aurkeztu». Hala, salatu zuenez, «piztu eta inoiz mugatu ez den indarkeria hori Valentziako eta Espainiako trantsizio politikoaren orrialde beltz bat da»¹¹⁰. Jarraian, indarkeria hori aztertuko dugu, eta horri buruzko ekarpen berrienak gehituko ditugu¹¹¹.

1. BLAVERISMOAREN EKLOSIOA

Autonomia eskaerak babes handia izan zuen erkidegoan; izan ere, 1977ko *Diadan* (1238an Jaime I.a errege katalan-aragoiarra Valentzian sartu zela oroitarazten duena) milioi erdi pertsona bertaratu ziren, eta eskuina eta ezkerria bat etorri ziren hura «bide azkarretik» eskatzean (Konstituzioaren 151. artikulua). Baina UCD alderdia, Adolfo Suárez buru zuen gobernuko alderdia, 1978ko amaieran iritiz aldatzen hasi zen, eta 1979ko urrian Rodolfo Martín Villak, Batzorde Betearazleko buruzagi nabarmenetako batek, esplizitu egin zuen. Azken horrek txosten bat egin zuen (UCDko kideen artean «giltza eman» izenez ezaguna izango zena), autonomia gehienak «bide geldotik» bideratzeko deia egin zuena (143. artikulua). Erabaki hori hartu zen 151. artikuluko bidea aukeratu nahi zuten eskualdeetako erreferendum autonomikoak gainjartzeak ekar dezakeen kolapso administratiboaren eta balizko «desegite nazional» baten beldurratik. Horren ondorioz, UCDk atzera egin behar izan zuen Valentziako estatutu-prozesuan¹¹².

Hala ere, modu zalantzagarrian «Valentziako bataila»¹¹³ deitu izan denak, bertan Trantsizioa markatu zuen borroka politiko handiak, ez zituen aurrez aurre jarri autonomiaren «bide azkar» eta «geldoaren» defendatzaileak, eskuinteko alderdi eta sektoreak (horien zutabeak UCD eta AP ziren) eta ezkerrekoak baizik (horien oinarriak PSOE eta PCE ziren batez ere). Lehenak erregionalismo antikatalanistari lotuta zeuden (katalanismoa hedakortzat eta kolonizatzailetzat jotzen baitzuten). Bigarrenak, berriz, hizkuntza katalanaren batasuna defendatzen zuen valentzianismo bati lotuta zeuden.

Oro har, ezkerreko indarrek (eta, hasiera batean, UCDko sektore liberalak) esparru sinboliko baten alde egiten zuten, eta esparru hori katalana bezalako senyera bat instituzionalizatzearen alde zegoen; ereserki ofizial gisa *Muixeranga de Algemesí* (XVII. mendekoa zena) eta País Valencià (Valentziako Herria)

deitura proposatzen zituzten; valentziera katalanaren aldaeratzat jotzen zuten, eta hizkuntzaren batasuna defendatzen zuten, Espainiako Errege Akademiak emandako Hizkuntzatzat egiaztatua. Era berean, eskuineko indarrek zerrenda urdina edo *blava* zuen ikurra defendatzen zuten, 1909ko *Eskualde Erakusketako Ereserkiaren* ofizializazioa (zeinaren hasiera esanguratsuak «Espainiari loria berriak eskaintzea» aipatzen du), Valentziako Erresuma izendapena eta valentziera katalanarekiko ezberdintzat jotzen zuten, eta horrek aipatutako hizkuntzaren batasuna hausten zuen¹¹⁴. Valentziako ustezko hizkuntza baten defentsa sutsu hori zen Valentziak Herrialde Katalanetako kide izateari aurre egiteko argudioa, ustez nazionalismo katalan nagusia egituratu nahi zuena, Jordi Pujolen Generalitateko gobernuaren barne¹¹⁵.

Sinboloen inguruko liskar horrek *cleavage* sakon bat islatu zuen benetan, eta Vicent Flor soziologoaren ustez, gatazka bat dago «erretorikoki tradizionala, kontserbadorea eta erregionalista (espainolista) den Valentziako Herri baten eta modernoa, aurrerakoia eta (gutxi-asko) valentziarra den beste baten ikuspegiaren artean»¹¹⁶. Dualismo horrek gako geopolitiko garrantzitsu bat ere izan zuen: auzotasun geografikoaren bidez Kataluniarantz jo zezakeen eta ardatz mediterranea eta hizkuntza partekatua indar zitzakeen Valentzia bat kontrajartzen zuen, Madrilera jo zezakeen beste batekin, Mediterraneo hiriurua hurbiltzen zuena. Izan ere, azterlan batek azpimarratzen duen bezala, orduan, «penintsulako periferiaren garrantzi politiko gero eta handiagoak eta Valentziako herrialdearen pisu ekonomiko eta demografikoak lurralde-balantza politikoa botere zentralaren aurka makurraraz zezakeen erabat»¹¹⁷. Egoera horren ondorioz, Valentziako eskuinetik sustrai historiko sakonak zituen «inperialismo katalan» baten beldurra astindu zen¹¹⁸. Gauzak horrela, Valentziako kasuan deigarriena izan zen Trantsizioan zehar Kongresuan zeuden ezkerreko indarrek ez zutela beren esparru politiko-sinbolikoa inposatu, nahiz eta 1977ko ekaineko hauteskunde legegileetan aise irabazi (botoaren % 50,1 lortu zuten, eskuinak % 40,5 bereganatu zuen bitartean)¹¹⁹ eta gehiengo izan Valentziako Autonomia Erkidegoko Parlamentariaren Batzarrean (41 diputatu eta senatarietatik 25 izan ziren ezkerrekoak), eta gehiengo hori berretsi 1979ko martxoko hauteskundetan (orduan, ezkerrek botoaren 49,3% eskuratu zuen, eta eskuinak 40,9%)¹²⁰. Hori horrela izan zen eskuinak gogor borrokatu zuelako nazionalismo valentzianista eta katalanaren batasunaren defendatzailea zen ezker batek gidatutako autonomia bat eratu ez zedin. Ikerketa batek horrela ezaugarritu du asmo hori lortu nahi izan zuen UCDren estrategia (jatorrizkoaren letra etzana):

[...] Emaizta [elektoralak] ikusita, UCDko Valentziako eskualdeko zuzendaritzak herri mobilizaziorako gaitasuna zuen alderdi bat [blaveroa] sustatu zuen, ezkerrearen garaipenari aurre egiteko eta tentsio-estrategia oso bat finantzatzeko, Valentziako hiriko hautesleak eta barrutia bi muturretan polarizatzeko: katalanismoa eta antikatalanismoa, eta eurak adiskidetzegunean kokatzeko¹²¹.

Azaldutakoaren ondorioz, eskuinak ezkerrearen kontrako *patchwork* sinbolikoa defendatu zuen, eta *blaverismo* izenez ezagutzen den valentzianismo

antikatalanista sustatu zuen (*blavadun* xingola duen bandera defendatzean). Valentziera katalana ez den beste hizkuntza gisa defendatu zuen, eta, horrela, sofistikazio gutxiko Valentziako identitate bat kodetu zuen, baina garrantzi emozional handikoa¹²². Era berean, katalanismoak ustez bere egin nahi zituen herri-balio edo tradizio herrikoiak goratu zituen identitate-ikur gisa, «*no mos furtareu la paella*» [Ez diguzue paella lapurtuko] kontsigna adibide gisa hartuta.

Blaverismoaren sustraiek blaskismora jotzen zuten (Vicente Blasco Ibáñezek xx. mendearen hasieran gidatu zuen errepublikanismoa), zeinak bi premiarekin egituratu baitzuen valentzianismo antikatalanista: «Nahikoa ahula, oinarritzkoa eta primitiboa izatea kultura espainiarrarekin ez lehiatzeko, eta nahikoa indartsua izatea, hunkigarritasunez eta identifikazio-amorruz bete, diferentzia-ilusioa sortzeko eta substantziarik eza disimulatzeko»¹²³. Horrela, blaverismoak espainiartasunez eta ultrasekuinarekin muga irristakorrez jositako erregionalismoa gorpuztu zuen (eta gorpuzten du) (hortik hedabide ezkeriar eta aurrerakoiek bunker-barraketa bat aipatzea). Bere bozeramaileek ustezko inperialismo katalan bat salatu zuten, Valentzia bere interesen menpe jarri eta bere hizkuntza inposatu nahi zuena (hortik bere leloa: «No mos fareu catalans!» [Ez gaituzue katalan egingo!]), eta Valentziako herri «benetakoaren» aldeko diskurtso populista modulatu zuen, ustez interes katalanen mende dauden elite eta alderdien aurrean. Blaverismoa, horrela, valentzianismo katalanistari eusteko dike bihurtu zen, eta ospea irabazi zuen, lehenak ez baitzeuden oso ezagunak diren hainbat esparru sozialetan: failak, Babesgabeen Ama Birjinaren prozesioa edo futbolaren unibertsoa¹²⁴. Eskuinak bere diskurtsoaren berri eman zuen, eta, modu esanguratsuan, APk Konstituzioaren testuari zuzenketa bat aurkeztu zion, 145.1 artikulua eragin zuena, erkidego autonomoen federazioa debekatzen duena, Herrialde Katalanak baitzituzten gogoan¹²⁵.

Mezu horiek oihartzun handia izan zuten *Las Provincias* egunkari eraginkorrean, María Consuelo Reynak zuzendua 1972tik eta UCDrekin ondo konektatua¹²⁶. Alderdi horretako hiru buruzagik (Emilio Attard lehenengo eta Fernando Abril Martorell eta Manuel Broseta gero) alderdiko sektore katalanista baztertu eta blaverismoa bultzatu zuten¹²⁷. Attardek adierazi zuenez, «Valentziarrak biltzeko, antikatalanismoaren mamua atera behar da»¹²⁸. Blaverar inguruntetik «intentsitate txikiko» indarkeria lausoa agertu zen, baina iraunkorra, eta higidura politikorako gaitasun handia erakutsi zuen.

1977an blaverismoaren bi erakunde dinamizatzaile nabarmenenak eratu ziren: Grup d'Acció Valencianista (GAV), talka eta asaldura-propaganda talde gisa jardun zuena, eta Unió Regional Valenciana (URV) alderdia, 1979an botoaren % 0,3 baino ez zuena bereganatu. Blaverismoak ardatz-biltzaile sendo gisa jardungo zuen eragilerik ez zuenez, gizarte-sare sendo baten gainean egituratu zen (Federació Coordinadora d'Entitats Culturals del Regne de Valencia delakoaren zati batek taxutu zuena)¹²⁹, non unibertso falleroa nabarmendu zen¹³⁰. Ondorioz, erregionalismo antikatalanista horrek mugimendu ez oso artikulatu bat sortu zuen, baina oso borrokalaria eta mobilizatzeko gaitasun handikoa, epizentroa Valentzia hiriburuan eta haren periferian kokatu zuena.

UCDrekin izan zuen lotura bai ofiziala (GAVko lehen lehendakaria, Rafael Orellano, UCDren Valentziako zinegotzia izan zen), bai informala izan zen (Abril Martorellen arreba, Teresa, GAVko kidea zen)¹³¹. Lotura hori, ordea, nahiko opakua izan zen bere zirrikituetan, 1979ko urtarrilean Attardek (garai hartan UCD probintzialeko presidentea zena) eta José Ramón Pinek (bere idazkari probintziala) hitzarmen bat sinatu baitzuten GAVrekin, itxuraz UCDren zuzendaritzatik kanpo zegoena, eta horrek askatasuna ekarri zuen «katalanistak salatzeke, dauden tokian daudela [?]»¹³².

Esparru horretan, Valentziako autonomiaren norabidea Consell Preautonòmic del País Valencià-n gauzatu zen. Erakunde hori 1978ko apirilean eratu zen, Josep Lluís Albiñana sozialista buru zela, ezkerreko gehiengoarekin. 1979ko apirilko udal hauteskundeen ondoren, bere osiera aldatu egin zen, UCDk bi aldundi (Castello eta Alacant) kontrolatzen baitzituen, nahiz eta hauteskundeetan gehiengoa ez izan. Horrek Consell-aren blokeoa ekarri zuen, sozialistak erretiratu egin baitziren protesta gisa, eta abenduan titularra aldatu zen. Orduan, Albiñanaren ordeaz, UCDko Enrique Monsonís sartu zen jarduneko presidente gisa, eta UCDk nagusitasuna izan zuen Conselleko exekutiboan. 1981eko irailean, otsailaren 23ko estatu-kolpearen inpaktu oraindik berriarekin (Valentzian tankeak bide publikora atera ziren), PSOEek eta UCDk posizioak hurbildu zituzten. Lehena Consellera itzuli zen, eta Monsonís presidente finko gisa hautatu zuten¹³³. Sozialistek eta UCDkoek 1982ko uztailean onartu zen estatutu bat hitzartu zuten, eta autonomia horrek Valentziako Erkidegoa izen ofiziala hartu zuen estatutuagatik (Valentziako Herria eta Valentziako Erresuma saihestuz, hitzaurreak jaso bazituen ere); 1909ko Eskualde Erakusketakoa hartu zuen ereserkitzat; zerrenda urdindun bandera; eta ez zuen zehaztu «valentziera» hizkuntzak izendatzen zuen errealitatea. Aldi berean, PSOEek eta UCDk «bide azkarrari» uko egitea erabaki zuten, baina 1982ko abuztu hartan Estatuko Titulartasunaren Arloko Eskumenak Valentziako Erkidegoari Eskualdatzeari buruzko Lege Organikoa hitzartu zuten, Valentziako Erkidegoa erkidego historikoen eskumenetan berdindu zuena. Prozesu autonomikoaren amaierari begiratu gero, *blaverismoak* garaipen mugatu baina azpimarragarria lortu zuen¹³⁴. Horrek galdera garrantzitsu bat planteatzen du: zenbateraino eragin zuen *blaverismoaren* indarkeriak bide autonomikoaren norabide aldaketan?

2. «INTENTSITATE TXIKIKO» INDARKERIA: GARRANTZITSUA ETA BAKANA

Aztertu duten historialariek eta saiogileek pisu erabakigarria ematen diote. Jada 1979ko abenduan, aipatutako Cucó, senatari sozialista zen aldetik, bere erkidegoan «tentsioaren estrategia» bat zegoela aipatu zuen¹³⁵. Ikuspegi hori bere egin zuen Juan Luis Sancho historialariak ere 2020an, eta trantsizioan «zeregin nagusi» bat eman zion, «Erakunde demokratiko eta ezkertiar berriak jazartzeko eta eraisteko estrategia oso baten arietea» izan baitzen¹³⁶. Francesc Viadel ikertzaileak dio, halaber, indarkeria horren protagonista «herrialdeko

bizitza politikoa» izan zela, eta *blaverismoak* «Estatuaren estoldetatik zetozen baliabideak» izan zituela, bai eta «herritarren segurtasuna bermatzeko eta askatasun publikoak defendatzeko betebeharrak zutenen isiltasuna eta ekintzarik eza» ere¹³⁷. Vicent Bello saiogileak *blaverismoa* «masa-faxismotzat» ere jo zuen, eztabaidagarria dena, eta eskuinak bere diskurtsoaren onarpen sozialari lagundu ziola adierazi zuen¹³⁸. Bestalde, Flor-ek adierazi duenez, *blaverismoak* zuen «indarkeria sinboliko eta fisiko maila ezin da gutxietsi»¹³⁹. Eta azken estatutua UCDren eta sozialismoaren arteko akordio baten emaitza izan bazen ere, PSOEren posizio-aldaketan eragina izan zuen «UCDren blokeoak eta zenbait sektoretan indarkeriaren ondorioz autonomiaren auzia sortzen hasia zen nazkak baldintzatutako testuinguruak», Vega Rodríguez-Flores historialariaren arabera¹⁴⁰. Izan ere, 1979an, sozialisten Batzorde Nazionalak honako hau adierazi zuen: «kezka handiz ikusten dugu erakunde eta agintari demokratikoen aurkako indarkeria gero eta handiagoa eta ordena publikoaren ardura-dunen inhibizio sistematikoa»¹⁴¹.

Kualitatiboki, beraz, badirudi *blaverismoaren* indarkeria baldintzatzaile politiko erabakigarria izan zela prozesu autonomikoaren amaierarako. Dena den, bat datoz garrantzi kualitatiboa eta dimentsio kuantitatiboa? Babyk 111 ekintza bortitz eta hamar heriotza zenbatu zituen erkidegoan¹⁴². Eta lehegailuz egindako atentatuek biktimarik eragin ez zutenek, Valentziako intelektual katalanisten bi figura garrantzitsuenek, Manuel Sanchis Guarnerekin (1978) eta Joan Fusterrekin (1981), jasan zituztenak ezohiko gisa proiektatu ziren. Beraz, *a priori* gehiegizkoa dirudi indarkeria horrek azaldu duguna bezalako aldaketa politikoa eragin zuela argudiatzea. Hala ere, Riberak –arestian aipatu ikertzaileak – haren dimentsioa berriz ebaluatu du, eta aipatutako 111 horiek gutxienez «bider bost» biderkatu behar direla uste du¹⁴³. Era berean, 162 gertakari «larri» daudela nabarmendu du, «hilketak, bonbaz egindako atentatuak, establezimenduen erasoak eta suteak, etxeetan egindako lapurretak, ibilgailuen suteak, eraikinen metrailatzeak eta autoritateen aurkako erasoak» barne hartzen dituelako. Horietatik, 119 ultraeskuindarrei eta sektore antikatalanistei egozten dizkie, 27 ezkerrekoei eta 16 zalantzazko egilerenak izango lirateke¹⁴⁴. Eta zehaztapen hau egiten du:

[...] [Zenbaketa honetatik] kanpo, ekintza mordoa geratu da, ziur aski ehunka inguru, hasiera batean hain larriak ez direnak, hala nola: molotov koktelekin egindako erasoak, kale erasoak edo atentatu txikiak, bonba-abisu faltsuak eta beste mehatxu eta hertsapen batzuk. Larritzat sailkatutako ekintzak hartzen baditugu, ikusiko dugu ultraeskuindarrek eta antikatalanistek gailentasun eztabaida ezina izan zutela, eta lautik hiruren erantzukizuna. Teorian hain larriak ez diren ekintzak sartuko bagenitu, eragile horien protagonismoa are handiagoa izango litzateke, ia ziurtasun osoz. Horri guztiari edozein eratako erradikalek egindako lapurretak gehitu beharko litzazkioke, ehundik gora izango zirelarik seguruenik, manifestazioetan eta bestelako protesta-ekintzetan izandako talka ugarietz gain. Beraz, ez da burugabea esatea Valentziako trantsizioan zehar mila indarkeria-gertakari baino gehiago egon zitezkeela kausa politikoen¹⁴⁵.

Beraz, Riberari jarraituz, erkidegoak 500 eta mila indarkeria-ekintza artean ezagutu zituen potentzialki, eta hori ez dator bat bere heriotza-kopuruarekin, hamahiru izango bailirateke gehienez ere (zaila da zenbatzea, haien esanahi politikoa zalantzakoa baita kasu gehienetan)¹⁴⁶. Egoera horretan, ikerlari horrek dioenez, Valentzian «inpaktu handia» izan zuen indarkeria iskanbilatsuak (asaldurak erasoekin) –indarkeria terroristaren aurrean– eta lausoak (negoiazio politikoaren ordez indarra sartzen duena)¹⁴⁷, eta hori agintarien onarpenagatik posible izan zela baieztatzen du: «gure ustez, Valentziako Herriaren kasuak zalantzarako tarte txikia uzten du indarkeriazko taldeen eta agintari posfrankisten eta UCDren gobernuen artean nolabaiteko adostasuna mailaren bat egon zenaren inguruan»¹⁴⁸. Logikoa denez, zalantzan jar daiteke baieztapena, ez baitago froga erabakigarriarik, baina deigarriak dira 1979ko *Diadan* geratutakoak eta Sanchis Guarner eta Fusterren aurkako atentatuen ikerketak. Jarraian azalduko ditugu.

1979ko urriaren 9an, *Diada* valentziarra, *blaveroen* kontzentrazio bortitza izan zen hiriburuko udaletxearen aurrean, eta, bertan, udaleko bandera, Espainiako eta Consell-ak bandera autonomiko gisa aukeratu zuena jarri zituzten, zerrenda urdina ez zeramana. Horrek *blaveroen* unibertsoa haserrarazi zuen. Jardunaldiaren erritual hiriko seinalea segizioan eramatea zen, udaletxetik Jaime I.aren estatuaraino, d'Alfons el Magnànim plazan. Baina zeremonia hasi baino lehen, Conselleko bandera erre egin zuten sugarretan, udaletxearen aurrean bildutako jendetza *blavero*ko kideren batek baleztaz tiro egin zuen gezi su-eragile batek jota. Eta zinegotziak estatuarantz segizioan atera zirenean, manifestariak eraso egin zieten (zati batek udaletxean babesa bilatu behar izan zuen)¹⁴⁹, eta jendetzaren norbanako batzuek labana bat eta pistola bat erakutsi zizkioten Ricard Pérez Casado alkate sozialistari¹⁵⁰. Agintariak harrapaketak eragozteko eta argitzeko interes gutxi zutela nabarmen ikus daiteke, halaber, 1978ko maiatzaren 19an Sanchis Guarnerren etxebizitzari eraso egiteko saiakerari eta urte horretako abenduaren 9an hark jasan zuen bomba-atentatuari buruzko eginbide judizial eta polizialean. Lehenengo kasuan, eginbide judizialak artxibatu egin ziren egileak identifikatzea ezinezkoa zelako, nahiz eta salatzaileak eraikinaren aurrean bildutakoen argazkiak aurkeztu. Halaber, gazte batek turroi pakete bat bezala kamuflatutako bomba-pakete bat bere etxean eman zionean jasan zuen atentatuak ere ez zuen aurrera egin, «bultzada prozesal ezagatik»¹⁵¹. Testuinguru horretan, esan beharra dago bere kasua eraman zuen epaitegiari 1978ko maiatzaren bertan egin ziotela eraso ezezagun batzuek, eta «Guardia Zibilaren zaintzari iseka eginez, hainbat sumariotako froga garrantzitsuak lapurtu zituzten, eskuin muturreko elementu nabarmenen aurka jarraitzen zirenak»¹⁵². Fusterren kasua aztertzen badugu, ikusiko dugu 1979ko azaroaren 18an leiho batean metraila zabaldu zuen bomba bat jarri ziotela, baina ez zuten argitu nork egin zuen¹⁵³. 1981eko irailaren 11n beste atentatu bat pairatu zuen, bere etxeko leihoetan lehergailu plastiko bana jarrita, asmo hiltzaile garbiarekin, hiru minutuko aldearekin leheritu baitziren: lehenengoak Fuster bertara erakartzeko asmoa zuen, bigarrenak, berriz, hura hiltzekoa. Hala eta guztiz ere, kasuko epaileak

kalteen delitu batengatik hasi zituen eginbideak (ez ekintza terroristagatik edo giza hilketa saiakeragatik), eta hilabete baten buruan artxibatzeke agindu zuen, polizia-adituek bonbei buruz egindako txostenaren zain egon gabe, zeinaren eraikitzea «ohikoa baitzen gudarostearen unitateetan garai horretan»¹⁵⁴.

Lehergailuen aurrean agintariak erakutsi zuten kezka ustez mugatu hori ez zen salbuespenezkoa izan. 1979ko aipatu *Diada* horretan, etxean egindako poltsa leherkor bat jarri zuten valentzianismo katalanistaren artean ezaguna zen Carraixet musika taldearen furgonetaren azpian. Nahiz eta lehergailuak desegiteko artezilariek esku hartu, eta ibilgailuan emakume bat eta haren alaba egon, ez zen inolako eginbide judizialik egin¹⁵⁵. Izan ere, bonbak jarri zituen egilea (edo egileak) ez zutela inoiz atxilotuko adierazi izan da¹⁵⁶. Indarkeria iturri judizial eta polizialekin erradiografiatzeko zailtasun horri gehitu behar zaio jada ezinezkoa dela 1978ko Sanchis Guarner eta 1981eko Fusterreko atentatuen (Valentziako Trantsizioaren indarkeria-gertakari esanguratsuenak) dokumentazio guztia eskuratzea, 2015eko martxoan haren eginbideak garbitu egin zirelako¹⁵⁷.

Gure aldetik, jarraian, hipotesi gisa planteatzen dugu «intentsitate txikiko» indarkeria hori Trantsizioaren aurreko errealitate bat izan zitekeela, ultraeskuindarren eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoko elementu batzuen arteko pasabideak sortu ahal izan zirenean, nolabaiteko garrantzia izan eta denboran iraun zutenak. Hala diogu, izan ere, Valentziako ultraeskuinak eskuadrismoa praktikatu zuen, liburu-denden aurkako erasoak eginez eta Unibertsitateko oposizioa ikasleak beldurtuz (beharbada, ekintza horien berri ere izango zuen Dokumentazio Zerbitzu Nagusiak, SECED delakoak)¹⁵⁸. Era berean, 1975ean, Valentziako liburu-denda baten jabeak «behar besteko aurrerapenarekin ohartarazi zioten bomba bat jarri zutela bere lokalean», «gudaroste bereko [...] zerbitzu batetik informazioak ihes egin zuelako»¹⁵⁹. Aldi berean, urte horretan bertan, Espainiako Gizarte Mugimendua (MSE) talde neonaziak indarkeria areagotu zuen lehergai plastikoa erabiliz, eta hori militar baten semea taldean sartzearekin batera gertatu zen¹⁶⁰. Era berean, Valentziako Trantsizioan, litekeena da polizia-elementuek noizean behin kaleko asaldatzaileak erabiltzea probokazioak antolatzeke. Badirudi aukera hori José Miguel Ortí Bordàsek (1976-1977 bitarteko Barne idazkariordeak) bere oroitzapenetan azaltzen duen gertakari batetik ondorioztatzen dela, eta arraroa dela, gobernadore zibilak eta Barne idazkariordeak emandako aginduak saihesteko gaitasuna zegoelako «behetik». Ortík dioenez, oposizioak hirian deitutako manifestazio batean, 1976ko bigarren seihileko data zehaztugabe batean, Mariano Nicolás gobernadore zibilak jakinarazi zion ekitaldia «nahiko normaltasunez zihoala, Polizia Armatuaren ibilgailuen aurka molotov koktelak jaurtitzea salbuesten bazen», atxilotetarik egin gabe. Ortík, orduan, atxilotetak egiteko agindu zion, eta Nicolásek handik pixka batera jakinarazi zion egin zituela. Ortík zoriondu egin zuen, baina biharramunean Nicolásek telefonoz azaldu zion nola amaitu zen kontua:

Jakinarazi zidan, lehenik eta behin, poliziak eta «paraleloek» molotov koktelak jaurtitzeagatik atxilotutako gazteak ezagutzen zituztela; bigarrenik, esan zidan aurreko gauean

Polizia Buruzagitzaren froga-armairuan utzitako molotov koktelak [...] lapurtu egin zituztela aipatutako armairua bortxatu ondoren; eta, hirugarrenik, epaileak atxilotuak kargurik gabe aske utzi zituela, froga faltagatik¹⁶¹.

Argumentu horien ildo beretik, garrantzitsua da kontuan hartzea ultraeskuindarren eta *blaveroen* artean egon zen iragazkortasuna. Horren adibide izan zen Sanchis Guarnerri gertatutakoa, Pasqual Martín Villalba GAVko buruzagia salatu zuenean, azken honek zera esan zuelako, Sanchis Guarnerren beraren eta Fusterren aurka jarritako bonbak auto-atentatu modukoak izan zirela, «biktimarenak egiteko eta zoritxarrean eroritako beren izenak aldarrikatzeko». Orduan, Martín Villalbak «Eduard Chulià karlistari eta Joaquín Pellicer Hervàs prokuradoreari delegatu zien bere defentsa; azken hori Fuerza Nuevako [alderdi ultraeskuindarra] ikurra papar-hegalean zuela joan zen epaitegira. Villalbak, gainera, Jeronimo Cerdá notarioaren bidez eman zituen legezko botereak. Notario hori Unión Nacional-en [1979an FNk gidatu zuen koalizioa] zerrendaburu izan zen»¹⁶². Pentsa daiteke hodi komunikatzaile horiek egoteak erraztu egingo zuela *blaverismoaren* eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen elementuen artean aipatutako loturak sortzea. Juan Manuel Crespo ultraeskuindar valentziarraren (bere jarduera politikoa FBn hasi zuen) oroitzapenek lotura horiek planteatzen dituzte. Honek dioenez, bere liderrak, Blas Piñarrek, 1979ko hauteskundeetan eserleku bat lortu ondoren, garai hartan alderdira etorri zen militantzian «militarrak eta segurtasun indarretako kideak» nabarmendu zirela¹⁶³. Eta adierazten duenez, «poliziak ez ikusiarena egiten zien gure ekintzei, eta, batzuetan, *gure egoitzan planifikatzen zutela gure kontrako ekintza edo manifestazio hori lehertzeko modua*» (letra etzana gurea da)¹⁶⁴. Era berean, Crespok katalanisten aurkako erasoetan parte hartu zuela kontatzen du, eta bertako ultraeskuinean indarkeriaren gurtza bat zegoela, pistolen zirkulazioan eta, batez ere, lehergailuen fabrikazioan ikus daitekeena (azaltzen duenez, 1982ko azaroan, FN desegin ondoren, talde autonomo bateko kide izan zen, eta hilabete gutxiren buruan «dozena erdi bat lehergailu txiki leherrarazi zituen liburu-dendetan eta ezkerreko egoitzetan»)¹⁶⁵. Ezin ditugu Cresporen baieztapen horiek kontrastatu, baina *milieu* ultraeskuindar bat islatzen dute, antikatalanismoarekiko irekia, eta polizia-esferekin pasabideak dituena.

Laburbilduz, nahiz eta jakin badakigun azaldutako zantzuak baino ez ditugula (horien hauskortasunaz jabetzen gara), iradokitzen dugu Trantsizioaren «intentsitate txikiko» indarkeria *blaveroak* frankismo berantiarrean izan zituela sustraiak, eta aktibisten eta Estatuko Segurtasun Indarren elementu edo zirkulu batzuen arteko balizko lotura lausoen esparruan gertatu zela.

3. MUGA AUTONOMIKO ERABAKIGARRIA

Deskribatutako testuinguruan, kazetariak eta politikariak gure ikuspuntutik salatu zuten indarkeria *blaveroaren* aurrean agintariak itxuraz zuten

pasibotasuna, garai hartan Madrili kontrabotere politiko-ekonomikoa sortuko zion Levanteko itsasertz baten konfigurazioak izan zuen garrantziagatik azalduko litzateke. Katalunian Suárezek mehatxu hori arrakastaz saihestea lortu zuen. Han, 1977ko ekainean, hautetsontziek gehiengo zabala eman zioten ezkerriari, eta horrek Bartzelona Madrilen hiriburu politiko alternatibo bihurtzeko: sozialistek eta komunistek 23 eserleku lortu zituzten (% 46,8), bloke nazionalistak 14 (% 27,2) eta UCDe eta APk osatutakoak 10 baino ez (% 20,4). Hori saihesteko, Suárezek erraztu egin zuen Josep Tarradellas (erbestean zegoen Errepublikako Generalitateko presidentea 1954tik) Kataluniara itzultzea 1977ko urrian bertan behin-behineko Generalitateko presidente izateko, ezaguna baitzen haren pragmatismoa («estatu-gizona» izan nahi zuen, berak horrenbeste miresten zuen Charles de Gaulleren antzera) eta diseinu pankatalanistekiko zuen begikotasun eza: «Ez dut Herrialde Katalanetan sinisten [...] Ez dut Herrialde Valentziarraz hitz egin nahi. Herrialde Valentziarrek dioena ez zait interesatzen»¹⁶⁶. Ezkertiarrek eta nazionalista katalanek gidatutako Katalunia autonomikoaren mehatxua desaktibatuta, Suárezen gobernuarentzat beharrezkoa zen Valentziako hauteskunderen emaitzek sortutako egoera saihestea, eta, azkenean, bere helburua lortu zuen.

Valentziako gaiak UCDearentzat duen garrantzia Abril Martorellek berak aitortu zuen Diputatuen Kongresuan, 1982an: «Beronen jaun-andreek ulertu behar dute 1977ko ekainaren 15ean, seguruena potentzial nazionalista handiena duen Espainiako nazioko eskualdea, erkidego historiko deiturikoen ondoren behar bada, Valentzia dela zalantzarik gabe», esan zuen¹⁶⁷. Izan ere, Cucok adierazi zuen erkidego hori «laugarren nazionalitate historikoa» izan zitekeela, Kataluniaren, Euskadiren eta Galiziaren atzetik¹⁶⁸.

Agertoki horretan, aktibismo *blaveroaren* «intentsitate txikiko» indarkeria ezin da bereizi Valentziaren norabide autonomikoaren birbideratzetik; izan ere, ezkerrek ezin izan zituen bere ikuspuntuak inposatu, politikoki hegemonikoa izan arren, eta eskuineko blokeari mesede egin zion, UCDe ustekabeko maniobra-tartea eskaini baitzion, hautetsontzietan babes txikiagoa izan arren. Gure ikuspuntutik, horrek bihurtzen du berezi Valentziako kasua Espainiako trantsizioan.

ONDORIOAK: BOST AZTERKETA-EREMU POSIBLE

Gure ustez, aztertutako kasuistak adierazten du muga kronologikoak eta politikoak gai garrantzitsua direla Trantsizio indarkeria politikoaren azterketan, eta, horregatik, bost lan-eremu proposatzen ditugu horri dagokionez.

Lehenengoa Mendebaldeko Sahararen kasua demokratizazioaren ikuspegietan txertatzean datza, erregimenaren azken krisiaren konplexutasuna berrezartzeko eta «hegoaldeko mugak» hartan izan zuen garrantzia planteatzeko. Horrek proposatutako bigarren azterketa-eremura garamatza: «Hegoaldeko muga» horrek ekarri zuen mehatxu ezezagontzailea Euskal Herritik sortu

zenaren berdina edo handiagoa izan zitekeela aztertzea, eta haren problematikak gobernuen Afrikako kanpo-politika markatu zuela aztertzea. Gogora dezagun Sahara uztean, Espainiak aurre egin ziola Kanarietako artxipelagoaren balizko deskolonizazioari –haren «hegoaldeko muga» berria–, Nazio Batuen Erakundeak hura dekretatzeko aukerari. Aukera hori errealitate bat izan zen, Aljeriak Afrikako Batasunerako Erakundean (OUA) estimulatu eta MPAIAC babestu zuelako. Era horretan, 1978ko otsailean OUAko Atzerri ministroen konferentzia Tripolin (Libia) bildu zenean, tesi horrek 47 herrialderen babesua zuen, eta bi baino ez zeuden kontra. Gainera, konklabeak honela definitu zituen Kanariak: «lurralde afrikar ez-autonomoa», independizatzeko eskubidea duena, eta MPAIACi laguntzea aholkatu zuen, bere militanteen joan-etorria erraztuz eta beren lurraldeetan bulegoak irekiz¹⁶⁹. Era berean, Espainiako exekutiboari eskatu zitzaion NBEko ikerketa-batzorde bat artxipelagora joan zedila, haren balizko egoera «kolonialaren» berri izateko¹⁷⁰. Halaber, MPAIACen ekintzarik gabe ezin da azaldu 1977ko martxoaren 27ko Los Rodeos aireportuko hondamendia. Egun horretan, erakunde horrek bonba bat jarri zuen Kanaria Handiko aerodromoko terminaleko loradenda batean, eta 9 zauritu eragin zituen. Leherketaren ondoren, taldeak iragarri zuen beste lehergailu bat zegoela bertan, eta agintariak Los Rodeosera (egungo Tenerife iparraldea) desbideratu zuten trafikoa. Aldaketak zoritxarreko emaitzak izan zituen, itxitako aireportua eslelituta zuten bi hegazkinak talka egin baitzuten, eta 583 hildako izan ziren. Hegazkinen historiako hondamendi handiena izan zen. Azkenik, azpimarratu behar da 1978ko apirilaren 5ean Antonio Cubillo MPAIACeko burua Aljerren hiltzeko ahalegina izan zela Trantsizioko Espainian aitortutako estatu-terrorismo kasu bakarra (eta Conesa komisario ospetsua tartean egon zen). Bada arrazoirik, beraz, «Hegoaldeko muga» garai hartan Euskal Herrikoa bezain kartografia disruptiboa izan zela pentsatzeko. Hori dela eta, beste leku batean aipatu dugun bezala¹⁷¹, ezinbestekoa ikusten dugu MPAIAC xehetasunez aztertzea Kanarietako «afrikartasunaren» inguruan sortutako auzien esparruan, garai hartan izan zuen aparteko garrantzia neurtzeko, Trantsizioko azterlanek eskaini dioten protagonismo txikiarekin zerikusi gutxi duena.

Horrek hirugarren azterketa-eremu batera garamatza: ETAk eta MPAIACek bi mehatxu asimetrico nola sortu zituzten alderatzea. Lehenengo entitateak erakunde armatu bat eratu zuen, gizarte-babesak eragin zituena, baina ez nazioartekoak, eta bigarrenak pisu txikia izan zuen militantziari, ekintza armaturako gaitasunari eta oihartzun sozialari dagokienez; haatik, nazioarteko laguntza izugarria jaso zuen Aljeriaren eskutik (Madariagak berak, ETaren sortzaileetako batek, egiaztatu zuenez)¹⁷². Asimetria horrek Aljeriak Trantsizioko indarkeria politikoan duen eragina neurtuko lukeen hausnarketa merezi luke¹⁷³. Antzeko ikuspegia hartuta, laugarren azterketa-eremu bat Katalunian nazionalismo erradikal armaturik ez sustraitzeari buruzko hausnarketa konparatiboa litzateke. Komunitate horrek eta Euskal Herriak erakunde armatuak sortu zituzten frankismo garaian, eta haien lurralde «menderatu gabeek» babeska eskaintzen zieten aktibistei Frantzia: «Ipar Katalunia» eta Ipar Euskal Herria.

Baina ETA Euskadin mamitu zen, eta Katalunian ez zen horrelakorik gertatu. Horri buruzko azalpen bat eman dugun arren¹⁷⁴, beharrezkoa ikusten dugu gaiari modu zabal eta sistematikoan heltzea.

Amaitzeko, bosgarren lan-eremu posible gisa, beste azterketa konparatibo bat planteatzen dugu: indarkeria politikoak Nafarroako eta Valentziako autonomia erkidegoetako prozesuetan duen eginkizuna, lurralde horiek «erreinu» gisa aldarrikatzen baitituzte espainiartasunaren defendatzaileek nazionalismo periferikoen aurrean. Trantsizio garaian, Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoan sartzea planteatu zen, eta aukera hori jasotzen du Konstituzioaren Laugarren Xedapen Iragankorrek erreferendum baten bidez. Egoera horretan, nabarritentzat (probintzia Euskal Herrian integratzearen aurkakoentzat) ETAREN indarkeriak «terrorismoaren irudia indartu zuen euskal nazionalismoaren benetako aurpegi gisa», ondorio argi batekin: «Nafarroak ihes egin behar zion ETAREN sezesionismoari, ñabardurarik gabeko ikuspegi horretatik euskal nazionalismoarekin identifikatuta»¹⁷⁵. Valentziako Erkidegoan, aldiz, eskuinak —ezkerrek prozesu autonomikoa zuzendu ez zezan, esaterako —Kataluniaren ustezko borondate anexionista salatu zuen. Kasu honetan, indarkeria eremu *blaverotik* sortu zen, eta kontrako bide-orri bat bultzatu zuen: lurralde hori Kataluniatik urruntzea, eta Konstituzioak, autonomia-erkidegoen federazioa debekatzean, uxatu egin zuen aukera hori. Azaldutakoaren ondorioa da Valentziak eta Nafarroak trantsizioan errealitate asimetricoak osatzen dituztela, Enric Juliana kazetariak adierazi duen bezala:

[...] Konstituzioak onartu egin zuen Nafarroa Euskal Herrian erreferendum bidez integratu ahal izatea. Emakida garrantzitsu hori ezin da ulertu ETARik gabe. Asimetria indartsu horrek defentsa-mekanismoak sortu zituen konstituzio-testu berean. Euskal Herriko eta Nafarroako salbuespenak onartuta, espresuki debekatuta geratu zen autonomia-erkidegoen arteko federazioa¹⁷⁶.

Gogoeta horrek, ETARI buruz ezartzen duen suposizioaz haratago, bi prozesu autonomikoen arteko loturei eta paralelismoei buruz ohartarazten du¹⁷⁷. Nolanahi ere, ziur gaude Trantsizioko indarkeria politikoaren eta muga kronologiko edo politikoen arteko harremana aztertzeak azterketa-ildo iradokitzailea eskaintzen duela.

IV. ATALA

ETA POLITIKO-MILITARRA, HASIERATIK
AMAIERARA*

GAIZKA FERNÁNDEZ SOLDEVILLA
Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa

I. TZULERA

Espetxeei buruzko irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoaren lehenengo artikulua honako hau ezartzen zuen: «espetze-erakundeen (...) helburu nagusia da askatasunaz gabetzeko zigor eta zigor-neurrietara kondenatutakoen berreziketa eta birgizarteratzea, bai eta atxilotuen, presoen eta zigortuen atxikipena eta zaintza ere». Testuan ez zen argi geratzen birgizarteratze-prozesua zertan zetzan, baina, logikoa denez, delituren batengatik espetze-zigorra jaso zuten pertsonen bakarrak aplika zekiekeela ulertzen zen. Behin ere ez ziren kontuan hartzen oraindik epaitu gabe zeuden akusatuak edo oraindik auzirik ez zutenak¹.

Ez da harritzekoa birgizarteratzearen kontzeptuak, Mario Onaindiaren eta Juan José Rosón Barne ministroaren arteko ituna babestu zuten ETako kideen etorkizun hurbilari erreferentzia egiteko erabiltzen hasi zenean, zalantza dezente sortzea. Kasu horretan, zer esan nahi zuen zehazki birgizarteratzeak? Zer baldintza eta inplikazio zituen? 1982ko abenduan, Juan Mari Bandres abokatu eta diputatuaren gutun batek Frantzia «errefuxiatuta» zegoen polimili ohi bati jakinarazi zion. «Argi dago itzulera amnistia moduko bat dela aurreko guztiarekiko. Horrela ez balitz, zu ez zinateke etorriko eta ni ez nintzateke prest egongo zure itzulera kudeatzeko». Egiazki, zaspikoen gizarteratzea (eta, ondoren, beste etakide batzuen) ezkutuko amnistiatzat baino ezin da jo. Aparteko neurri horrek, jakina, kontrapartida bat zekarren berekin: ETApn-ren indarkeriaren amaiera. *Patxo* Unzueta-ren hitzetan, EIAk eta UCdren Gobernuak «bakea preso truke» adostu zuten. Eta justiziatik ihes egindakoen truke, gehi liteke².

Prozedura berez konplexua izan bazen ere, nahikoa zen interesdunaren baimen esplizitua bezalako gauza sinple bat martxan jartzeko. «Nik [ez dugu izena jarriko] nire adostasuna ematen dizut Bandresen zerrendan sartzeko», idatzi zion 1982ko irailean Bandresi berari bere zigorra Yeseriasko kartzelan

betetzen zuen emakume polimili batek. «Ohia» alde batera utzi dugu, emakume hark gertaerei aurrea hartu zielako. Oraindik egun batzuk falta ziren taldearen goi-karguek desegitea prentsaurreko batean iragartzeko.

Emakume horren oharra oso laburra izan zen, baina beste etakide batzuek azalpen gehiago eman zituzten. 1983ko urrian, Herrera de la Manchako preso batek honako hau aitortu zion EEko legebiltzarkideari: «erotu egingo naiz egoera honetan, ez du zentzurik gaur egun, ez herritarren babes txikiena ere, eta, niri dagokidanez, bada garaia Euskadin gertatzen ari denari amaiera emateko (...). Azken gertaeren ondoren (...) erabaki dut, haiek ez badute denontzako irtenbiderik bilatzen, nik neurea bilatuko dudala».

Hurrengo urteko martxoan, Bordelen bizi zen polimili ohi batek, aurrena ontzi-garbitzaile gisa eta gero psikologo gisa lan egin zuenak, Bandresi eskatzen zion «Euskadiko Ezkerra-Gobernu zentralaren negoziazioen esparruan, ahal duzun guztia egin dezazun Hegoaldeko Euskadira itzul nadin». Nabarmenki, eskaera bikoitza jasotzen zuen. 1) «bizitza normala hasteko bermeekin itzuli ahal izatea»; 2) «Euskadiko Ezkerran sarrera eskatzea». «Niretzat, helburu berera iristeko lanean jarraitzea da kontua, baina orain Euskadiren errealitatera hobeto egokitzen diren beste bitarteko batzuk erabilia». ETAPm-ko kide ohia saiatzen ari zen azaltzen zergatik behar izan zuen hainbeste denbora erabakia hartzeko: «borroka armatuarekiko dudak jarrera aldatu egin da. Eta horrek, besteak beste, hausnarketa eta denbora behar izan ditu».

Batzuetan, lehen urratsa interesatuak ematea ere ez zen ezinbestekoa, familiar bitartekari lana egin zezakeelako. «Eskertuko nizuke Iruñeko nire alaba [ez dugu izenik jarriko], gaur egun Mexikon dagoena, ohiko bizilekura eta lanera itzuli nahi duten erbesteratuen zerrendan sartzea», irakur daiteke 1982ko irailean emakume nafar batek Bandresi bidalitako gutunean.

Ordezkaritza mota horrek gaizki-ulertu pare bat eragin zuen. 1982ko udan, Yeseriasen zigorra betetzen ari zen polimili batek bi aldiz eskatu zuen egiten hasi ziren zerrendatik ezabatzeko. «Nire senarra [ez dugu izenik jarriko] sartuta egoteak ez du esan nahi nik egon behar dudunik. Irteera horien balorazio politiko desberdina egin dugu biok, eta bide desberdinak aukeratu ditugu libreki». Espetxe berean espetxeratutako beste emakume batek Bandresi eskatu zion «Madrilgo gobernuarekin kudeatzen ari zaren zerrendatik kentzeko, eta hori badaezpada ere, hartan sartu banauzu», beldur baitzen bere familia ez ote zen saiatu hori isilpean egiten.

Hala ere, salbuespen pare bat baino ez dira horiek, araua berresten dutenak. Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren funtsean gordetzen diren polimilien edo polimili ohien gutunen gehiengo osoak Rosónek eta Onaindiak irekitako bidean itxaropena, EEko diputatuaren gestioekiko konfiantza eta Euskadira itzultzeko gogoia islatzen dute, ahalik eta bizimodu normalena eta arruntena berreskuratzeko.

Testuetan ere egoera eta kasu oso desberdinak ikusten ziren. Birgizarteratzeari heltzeko eskaera gehienak ETAPm VII Batzarreko kideei zegozkien arren, Bandresek erakundeko laguntzaileen eskaerak ere jaso zituen: Bergako

kuartelaren (1980) eraso lazgarrian parte hartu zuten independentista kataluniarrek egindakoa eta taldeak Printzerrian egindako operazioetan (hala nola, Banco Herrero de Oviedoren lapurretan, non 130 milioi pezeta lapurtu zituzten)³ lagundu zuten asturiar nazionalistek egindakoa.

Hilabete batzuk baino ez ziren igaro polimiliak desegin zirela iragarri zenetik, eta orduan, birgizarteratzea ETako beste adar batzuetako terroristak ere tentatzen hasi zen. 1983ko urtarrilean ETAm taldeko kide batek prozesuan parte hartzea eskatu zuen. Hurrengo urtean, *zortziko* batek, hau da, ETAPm VIII Batzarreko kide batek, aitortu zuen oker jokatu zuela indarkeriaren jarraipenaren aldeko apustua egitean: «Gustatuko litzaidake birgizarteratze neurri berriei heltzea, etxera itzuli nahi baitut eta lan egin nire familia aurrera atera ahal izateko». Aparteko ohar batek albiste on haren garrantziaren berri ematen zuen: «garrantzitsua dela diote, negoziazioan izena ematen duen lehena delako eta gehiago etorriko direlako».

Bere artxibo pertsonalari esker, badakigu Bandresek eta bere taldeak, non Arantza Leturiondo eta Juan Infante abokatuak nabarmentzen ziren, jarduera frenetikoa egin zutela: eskaerak jasotzen zituzten, etakide ohien egoera judiziala ikertu eta aztertzen zuten, kasu bakoitzerako irtenbiderik egokiena bilatzen zuten, Barne eta Justizia ministerioekin gestioak egiten zituzten, Estatuko Fiskaltza Nagusiarekin, Espetxe Erakundeekin eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin, ihes egin baino lehen etakide ohi horiek lanean ari ziren enpresei eskatzen zieten langile horiek berriz hartzeko, birgizarteratuak laguntzen zituzten prozesu osoan zehar... Are gehiago, diputatu izateagatik eskura zituen Kongresuko idazpuru-orriak aprobetxatuz, Bandresek ziurtagiriak eman zituen, esanez bere eramailea «1983ko uztailean itzuli zela erbestetik, Euskadiko Ezkerrak Barne eta Justizia Ministerioekin adostutako birgizarteratze-planen barruan». Orrialde horien legezko balioa zalantzazkoa zen oso, baina ezein agintarik ez zuen zalantzan jarri. Folio horrek argi uzten du zenbateraino inplikatu ziren EE eta erakunde demokratikoak prozesua behar bezala gauza zedin, nahiz eta horrek legezketasun zalantzagarriko egoeren aurrean ezikusiarrena egitea eskatu. Eskuzabaltasun hura imajinaezina zatekeen hamarkada bat lehenago, indar betean zegoen ETak bere historiako sarraski handienetako bat egin zuenean.

II. ETAPM-TIK EIARA

1974ko irailaren 13an, ETaren fronte militarrek bonba bat jarri zuen Rolando kafetegian, Correo kalean (Madril), DGSren egoitzatik gertu. Leherketan 12 pertsona hil ziren eta, sumario judizialaren arabera, 73 zauritu. Atentatuaren helburua Poliziaren Kidego Gorena zen, baina hamahirugarren biktima baino ez zen erakunde horretakoa, Félix Ayuso Pinel inspektorea. 1977ko urtarrilean hil zena, jasotako zaurien ondorioz⁴.

Sarraskiaren egiletza onartzearen edo ez onartzearen dilemak azkartu egin zuen ETaren baitan aspaldi sortu zen krisia, zeinaren azken arrazoia indarkeria

terroristaren praktika («borroka armatua») eta politikarena («masa-borroka») uztartzeko zailtasuna baitzen. Aparatu militarrek ekintza errebindikatzeko beharra defendatu zuen, baina Batzorde Betearazleko gainerako kideek ukatu egin zuten. Batetik, ez zitzaien ekintza hori egiteari buruzko kontsultarik egin, eta, bestetik, Batzordea beldur zen horrelako zerbaitek taldeari publizitate txarra ekarriko ziola. Azkenean, etakideak publikoki aldendu ziren atentatutik, eta ultraeskuindarrei leporatu zieten atentatua egin izana. Bere ikuspuntua inposatu ezinik, fronte militarra ETatik banandu zen, baina aurretik dirua (20 milioi pezeta) eta armak (500 pistola, 50 fusil eta 40 metrailadore) bereganatu zituen⁵.

José Miguel Beñaran (*Argala*) buru zuela, erakunde berriak ETA militarra izena hartu zuen. Espainian «demokrazia burgesa» ezarriko zela aurreikusita, miliek «masa-borrokari» uko egiten ziotela iragarri zuten, «borroka armatuari» eskusiboki lotzeko. Ustez, horrela bermatzen zitzairen autonomia eratzeko ari ziren «ezker abertzaleko» alderdi berriei, eta horrek ETAm-ren orbitara erakarri zituen, nahiz eta urteen joanak erakutsiko zuen terroristek ez ziotela inoiz uko egin mugimenduaren buruzagitzari. Hala eta guztiz ere, une hartan indarkerian espezializatu eta doktrina sinplifikatu izanak (nazionalismoaren bertsiorik zorrotzena eta sektarioena hartu zuten) bere fruituak eman zituen: ETAm banda kohesionatua, hierarkizatua, eraginkorra eta hilgarria izango zen⁶.

Baina txikia ere bai. 1974an, etakide gehienek leial eutsi zioten Batzorde Betearazleari. Hala ere, milien zatiketarik bereizteko, ETA politiko-militarra izena jarri zioten erakundeari. Ideologiari dagokionez, bere nazionalismoa eta independentismoa marxismo dosi halako batez leunduta zeuden. Estrategiari dagokionez, ETApM-k politika eta indarkeria uztartzen jarraitu nahi zuen. Hala ere, taldeak ez zuen emaitza positiborik lortu bi planoetako batean ere. ETApM-k 1974ko abenduaren 2 eta 3rako deitu zuen greba orokorrak jarraitpen eskasa izan zuen. Aldiz, arrakastatsua izan zen hilaren 11n ezker muturrak kontrolatutako CCOO antolatua, PCEren euskal atala zen PCE-EPKren onepenik gabe⁷.

Bere potentziala eta esperientzia gorabehera, ETApM-ri ere ez zitzaion hobe joan izan «borroka armatua». Euskal Herritik urrun zeuden matxinada-guneak sustatzeko eta, horrela, bere jarduerak jasaten zuen polizia-presioa arintzeko, 1975eko maiatzean polimiliek Espainia osora zabaltzea erabaki zuten, Partit Socialista d'Alliberament Nacional-provisional (PSAN-p) eta Unión do Povo Galegorekin (UPG) egindako itun baten bidez. ETApM-k komandoak bidali zituen Madrilera, Kataluniara eta Galiziara, eta aliatuei armamentua eman zien. Atentatuak eta baterako operazioak prestatu ziren, baina gutxi batzuk baino ez ziren egin, erakundeak zerbitzu sekretuetako agente infiltratu bat baitzuen barruan, Mikel Lejarza (*Lobo*), eta horrek erraztu egin zuen haien ia erabateko desagetea. Besteak beste, Iñaki Mujika Arregi (*Ezkerra*) eta Pedro Ignacio Pérez Beotegi (*Wilson*) ETApM-ko buruzagi nagusiak atxilotu zituzten. Eduardo Moreno Bergaretxe (*Pertur*) ideologoa bakarrik geratu zen aske⁸.

1975eko irailaren 27an, diktadura frankistaren krisi terminal betean, Juan Paredes Manot (*Txiki*) eta Ángel Otaegi *polimiliak* fusilatu zituzten FRAPeko

hiru kiderekin batera. Exekuzio haiek eragin zituzten protesta masiboen ondorioz, eta euskal nazionalismo erradikalaren unibertso gero eta atomizatua-goaren artean loturak mantentzeko itxaropenarekin, KAS eratu zen, non bi banda terroristek eta bere orbitako alderdiek parte hartzen zuten. Ordutik aurrera, exekuzioaren urteurrena *Gudari Egun* berri gisa ospatu zen, eta EAJri lapurtu zioten terminoa⁹.

ETApM ekimena berreskuratzen saiatu zen «Pontxo» operazioaren bidez. 1976ko apirilaren 5ean, gorotz-uren kolektore batetik eta eurek zulatutako tunel batean barrena, 29 presok, gehienak etakideak, Segoviako espetxetik ihes egin zuten. Plana gauzatzean izandako akats batzuen ondorioz, Frantziako mugatik igarotzea arratoi-zulo bihurtu zen: lau izan ezik, ihes egindako guztiak Guardia Zibilak atxilotu zituen. Auritzen (Nafarroa), agente batek haietako bat hil zuen tiroz, Oriol Solé Sugranyes, MILEko kide ohia¹⁰.

ETApM-ren ondorengo deskalabruak erakundea eta haren azpiegitura ahultzeaz gain, boterearen barne-orekari ere eragin zioten. Moreno Bergaretxek bandaren lider ideologiko gisa zuen posizioa zalantzan jartzen hasi zen polimilien korronte sutsu eta pretoriarrena, Komando Berezetan kokatua zegoena, ustez operazio berezietan arduratzen zena. *Perturrek* eta bere konfiantzazko gizona zen Javier Garayalde (*Erreka*) neurriak proposatu zituzten euskal nazionalismo erradikala Francisco Franco diktadorea 1975eko azaroan hil zenean sortu zen egoera berrira egokitzeko. Alde batetik, erakunde sektorial «autonomoak» bultzatzea (berez, ETApM-ren transmisio-uhala) proposatu zuten, PCE eta ezker muturra kontrolatzen zutenekin lehiatzeko. Iraunkorrena LAB sindikatua izango zen. Bestalde, boltxebike kutsuko alderdi bat sortzea proposatu zuten, «ezker abertzaleko» abangoardia-buruzagi gisa aritzeko. Alderdi horrek etorkizuneko «demokrazia burgesak» emango zituen baliabide guztiak aprobetxatu behar zituen, hautetsontziak barne. Berme osoz egiteko, ezinbestekoa zen ezker «iraultzaile» ez-nazionalistarekin entente bat eratzea, hau da, ordura arte mespretxatutako «espainolistekin». Azkenik, *Perturrek* eta *Errekak* ETApM-k bere aurreko protagonismoari uko egitea eta alderdi berriaren menpe jartzea nahi zuten. Berezetako askok (Komando Berezetako kideak) traidore «likidazionistatzat» jo zuten¹¹.

Eduardo Moreno Bergaretxe 1976ko uztailean modu misteriotsuan desagertu zen arren, bi hilabete geroago ETApM-ren VII. Batzarrean bere ideiak berretsi ziren. Ondorioz, erakundeak eta bere inguruak EIA sortu zuten. Polimiliei estuki lotuta, alderdiak nazionalismo erradikala eta leninismoa batzen zituen, nahiz eta bi doktrinak posibilismo hasiberri batek zehazten zituen. ETApM-k 1976ko azarotik SECEDeko Ángel Ugarte komandantearekin zituen harremanei esker, nahiz eta legez kanpoko alderdia izan, Adolfo Suárezen Gobernuak aukera eman zion EIAri bere aurkezpen publikoa egiteko Gallartan (Bizkaia), 1977ko apirilean. Elkarrizketa haren emaitza positiboak aurrekari garrantzitsu bat eta agintarien hitzarekiko nolabaiteko konfiantza ezarri zituen. ETApM-k ez bezala, ETAm-k Ugarterekin bilera batera bakarrik joatea onartu zuen. Bilera horretan, bere ordezkariak jarrera maximalista eta intrantsigenteak azaldu

zituzten, bigarren aldi bat egotea eragotzi zutenak. Chibertako ondorengo bile-retara joan zen milien ordezkarietako baten hitz argigarrietan (ikus II. atala), «gobernu zapaltzailearen sinadura eta paperak komuneko papera dira»¹².

Iritzi berekoak ziren Komando Bereziak ere; eta *Perturren* programa VII. Batzarrean garaitzeko gai izan ez zirenez, ustekabeko kolpe bat ematen saiatu ziren ETAm-n. Taldearen zuzendaritzak zapuztu egin zuen. 1974an fronte militarrik idatzitako gidoi berari jarraituz, banandu egin ziren. Jarraian, Komando Bereziak bitan hautsi ziren. Alde batek talde-nahaspila heterogeneo batekin bat egin zuen, talde terrorista berri bat osatzeko: KAA (Komando Autonomo Kapitalistak). Beste fakzio batek Manuel Orcera de la Cruz polizia erail zuen Donostian 1977ko maiatzaren 18an. Handik bi egunera, bereziek Javier de Ybarra y Bergé enpresari eta politikaria bahitu zuten, eta haren gorpua ekainaren 22an agertu zen. Hala ere, hor amaitu zen haien ibilbidea. Taldetxo hori laster xurgatu zuen ETAm-k, eta azken hau indartuta atera zen (ikus VIII. atala)¹³.

III. EUSKADIKO EZKERRA TRANTSIZIOAN

«Ezker abertzalearen» eskakizunak «preso politikoentzako» amnistia (terrorismo delituengatik zigortutakoak barne) eta alderdi guztiak berehala legezztatzea baziren ere, ETAm-ren eta SECEDen arteko harremanek balio izan zuten indar nazionalista erradikalek gobernuaren tolerantzia jasotzeko eta ETako preso esanguratsuenak (Mario Onaindia, *Teo* Uriarte, *Ezkerra* edo *Wilson* kasu) atzerriratuak izateko, hau da kartzelatik atera eta atzerrira kanporatuak izateko. Baldintza onargarriztat jo ostean, eta nahiz eta ETAm eta bere inguruak presio handia eragin (abstentziorako deia egin zuten), ETAm-k eta EIAk 1977ko ekainaren 15eko hauteskunde orokorretan parte hartzea erabaki zuten. *Perturren* antolatutako planari jarraituz, alderdiak zerrendak osatu zituen EMKrekin (ezker muturreko alderdi ez abertzale bat) eta pertsona ospetsu eta independente batzuekin batera. Hauteskundeetan Euskadiko Ezkerraren hautagaitzek 64.039 boto lortu zituzten Euskadin (guztira, % 6,07), eta horren ondorioz, diputatu bat lortu zuten, Francisco Letamendia, eta senatari bat Gipuzkoatik, Juan Mari Bandres. Nafarroan antzeko zerrenda bat egon zen, Union Navarra de Izquierdas (UNAI), 24.489 boto-paper (% 9,47) batu zituen, baina emaitza horrekin ez zuen parlamentu-ordezkaritzarik lortu¹⁴.

ETAm-ren boikotak herritarren bozkatzeko gogoaren aurka jo zuen: Euskal Autonomia Erkidegoko abstentzio-indizea (% 22,77) Espainiako batez beste-koaren oso antzekoa izan zen (% 21,17), eta Nafarroakoa (% 17,76), txikiagoa. Taldearen buruzagitza «ezkortasun handian» hondoratu zen, bere eragiteko gaitasun eskasaren ondorioz; EEren potentziala nazionalismo erradikalaren abangoardia-buruzagiaren postua lehiatzeko gai zela zirudielako; EAJren egin-kizuna gero eta nagusiagoa zelako; protesta-mugimenduen gainbehera zetorrelako; eta Espainiako demokrazia gaztea aurrerapenak lortzen ari zelako, nahiz ETAm-k «parlamentu erabat bezatu batek estalitako diktadura militartzat» izan.

Ordezkarri mili batek 1977ko amaieran egindako bilera batean esan zuenez, «mobilizazioei dagokienez, herrian etenaldi bat ikusi dugu, eta indar erreformisten gorakada, Euskadin Suárezen Erreformaren asentamendu batera eramane gaitzakeena. Horren aurrean, ekimena hartzea eta jardutea erabaki dugu, horrelakorik gerta ez dadin»¹⁵.

ETAm-ren arazoetako bat zen bizitza politikoaren grabitate-gunea Diputatu Kongresura eta Senatura eramana zela, baina miliak eta haien aliatuak ez zeuden han. Gorteak demokrazia parlamentarioa diseinatzeko eta instituzionalizatzen aritu ziren. Ezkertiarrek eta nazionalismo periferikoek eskatuta, ETako eta beste talde terroristetako presoen gaia eztabaidatu zen. 1977ko urriaren 15ean, APren abstentzioarekin, ia parlamentu-arku osoak Amnistiaren Legea onartu zuen. Bere helburua indarkeria politikoa desaktibatzea eta «bi Espainien» arteko behin betiko adiskidetzeko lortzea zen; beraz, legezko ahanzturak terroristek egindako krimenei, Gerra Zibilekoei eta ondorengo errepresio frankistari eragin zien, Atochako abokatuen sarraski ultraeskuindarra bezalako atentatuak kanpoan geratu arren. Nahiz eta neurri oso eskuzabal horrek kide guztiak, odol-delituengatik zigortutakoak barne, etxera itzultzea ahalbidetzen zuen, ETaren bi adarrek gutxietsi egin zuten. Ministro Kontseiluak legegiproietua berretsi eta biharamunean, ETAm-k Augusto Unceta, Bizkaiko Foru Aldundiko presidentea, eta haren bi bizkartzainak hil zituen. *Patxo* Unzueta- ren hitzetan, «infernuko dinamika —atentatuak, presoak, atentatu gehiago —martxan zegoen berriro». 1980ko urrian, Amnistiaren Legeak terrorismo-delituengatik kondenatutakoek kartzelak hustu eta hiru urtera, ziegak berriro beteta egongo ziren: 432 preso, horietatik 231 ETakoak (132 ETAm-koak, 48 ETAm-koak, 44 KAA-ekoak eta zazpi beste adar batzuetakoak), 91 GRAP-okoak, 30 joera bortitzeko anarkismokoak, zazpi FRAP-ekoak eta 73 beste jatorri batzuetakoak, joera ultraeskuinekoak kasu¹⁶.

Nahiz eta aukera historiko horren aurka bat etorri (ironikoki, demokrazia parlamentarioari kontzesioak ateratzeko indarkeria tresna baliagarria zela konbentzitu zituen), «ezker abertzalearen» bi fakzioek bide dibergenteak hartu zituzten: milien buru zen sektore intrantsigentea Trantsizioaren eta Euskadirentzako autonomiaren aurka zegoen aurrez aurre, eta posibilitistenak, berriz, EIAren inguruan zebilenak, iraultza aurreko behin-behineko fase ezinbestekotzat jotzen zuen «demokrazia burgesa». Bi korronteen arteko haustura 1977ko abuztuan gauzatu zen, ETAm eta bere ingurukoek, bereziek jada bat egin zutelarik, EIA KASetik kanporatu zutenean, bere aginduei men ez egiteagatik¹⁷.

Haustura hark ez zuen une hartan alderdi zuzendaritza baikorra urduritu. Hurrengoak ere ez zion kalterik egin. 1978ko otsailean, EMK-k eta apur bat lehenago sartu zen Ezker Komunista Erakundeak (OIC-EKE) EE utzi zuten, eta azken hau EIAren hauteskunde-marka bihurtu zen. Mario Onaindiaren zuzendaritzapean, 1977ko urritik alderdiaren idazkaritza nagusia bete zuena eta nolabait *Perturren* lana jarraitu zuena, EIA pixkanaka eboluzionatzen joan zen marxismo-leninismotik sozialismora, independentismotik autonomismora eta terrorismoaren babesetik haren arbuiora. Eboluzio horren arrazoietako bat

izan zen militanteek alderdi anitzeko sistema batean politikan aritzeak zekarrera eta eskatzen zuena ezagutu zutela: EEeko ordezkari hautetsien bidez, EIAk Kongresuan, Senatuan, Euskal Legebiltzarkideen Batzarrean eta EKNn parte hartu zuen. Azken organo hori autonomiaren aurreko aldia kudeatzeaz arduratzen zen, eta Ramon Rubial lehendakari sozialista buru izan zuen lehenik, eta Carlos Garaikoetxea jeltzalea hurrena. *Euskadikoek* (EIA/EEko militanteak) Gernikako Estatutua lantzen eta haren aldeko kanpaina egiten lagundu zuten 1979ko erreferendum autonomikoan. Indar moderatuengana hurbiltzeari uko egin zion ETAm-ren inguruneak ez bezala, erakunde demokratikoetan eta ekintza bateratuetan egon ziren EIAko afiliatuek garai batean areriotzat edo etsaitzat jo zituztenak ezagutu, begiko izan eta haiekin eztabaidatu eta/edo itunak egin zituzten. Eta, ondorioz, beren aurreiritziak galduz joan ziren, beren zaletasun iraultzaileak baztertzuz, benetan existitzen zen demokraziak zer esan nahi zuen ikasi, eta eurak ere demokrata bihurtu ziren. Afrikako esaera zaharrek dioen bezala, ezin da ibaia busti gabe zeharkatu¹⁸.

1979ko urriaren 25ean 831.839 euskal herritarrek (hautetsontzietara hurbildu zirenen % 94,6k) baiezkoa eman zioten EEk babestutako Gernikako Estatutuari. 47.529 boto-paper negatibo baino ez ziren zenbatu (% 5,4). Abstentzioa % 41,14ra igo zen, eta ETAm eta bere ingurukoek prozesuaren inpugnazio gisa interpretatu zuten hori, baina 1980ko hauteskunde autonomikoetan bozkatu ez zuten herritarren antzeko zifra zen (% 40,24), non bai parte hartu zuen milien adar politikoak. Gainera, euskal plebisituaren abstentzioaren datua Kataluniako Estatutuari buruzko erreferendumean erregistratutakoaren ia berdina zen, egun horretan bertan egin zena (% 40,3), eta Galiziako 1980ko abenduko plebisitu autonomikoa baino askoz txikiagoa (% 71,73). Erkidego horietan sezesionismoak hondar-izaera zuen¹⁹.

Gernikako Estatutuak, euskal herritar nazionalisten eta ez-nazionalisten arteko elkarbizitzarako itunak, lehenengo eta bereziki EAJren arrastoa zuenak, Espainia demokratikoaren baitan Euskadi autonomo baten sorrera adierazten zuen. Lehen aldia zen Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak erakunde komunak zituztela, hala nola Legebiltzarra eta Gobernuak; izan ere, Gerra Zibilean, Jaurlearitzak Bizkaiko probintzia bakarrik kontrolatu zuen, eta eskualde-hauteskunderik ere ez zen egin. Horregatik ez da gehiegizkoa esatea 1979an Euskal Herriak iraganarekin parekorik ez zuten autogobernu-mailak lortu zituela. Hala ulertzen zuen Bandresen, eta «hiru gerra zibilen ondoren bake ituna sinatzea» zela adierazi zuen. ETAm eta bere ingurukoek, ordea, 1839ko «Bergarako Besarkada»ren errepikapena bezala interpretatu zuten estatutu-akordioa, non Isabel erreginaren aldekoek eta Don Karlos erregegaiaren aldekoek Espainiako iparraldeko Lehen Karlistaldia amaitu zuten. Ultranzionalisten ikuspuntutik, «gatazka» ez zen amaituko Euskadiren independentzia lortu arte²⁰.

Hala ere, Trantsizioa, demokrazia parlamentarioa eta Gernikako Estatutua gutxietsi arren, sektore intrantsigenteak ez zion eremu politikoa libre utzi nahi EIAri. «Ezker abertzalearen» fakzio posibilstarekin lehitzeko, ETAm eta bere ingurua buru-belarri aritu ziren Mario Onaindiaren alderdiari ETaren ondarea

kentzeko: LAB sindikatua, *Egin* egunkaria eta *Punto y Hora de Euskal Herria* astekaria bezalako komunikabideak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, kalearen kontrola, kapital sinbolikoa (ETAren sigla historikoak, taldearen memoria, martiriak...) eta abar. Era berean, ETAm-k HB bultzatu eta, ondoren, koalizioaren kontrola hartu zuen. Azken honek erraz gainditu zituen *euskadikoen* hauteskunde-emaizak. 1979ko hauteskunde orokorretan, ETAm-ren babes publikoari esker, HBk 172.110 boto lortu zituen guztira; eta EEk 80.098 boto Euskal Herrian eta 21.305 (Eusko Abertzaleak koalizioan) Nafarroan. 1980ko Euskal Autonomikoetan, HB erkidegoko bigarren indar gisa sendotu zen, 151.636 botorekin (guztizkoaren % 16,55) eta 11 eserlekurekin. Laugarren postuan, 89.953 boto-paperekin (% 9,82), EEk sei postu lortu zituen euskal ganberan (ikus II. atala)²¹.

Lehen hauteskunde autonomiko haien ondoren, nahiz eta 60 legebiltzarkideetatik 25 baino ez batu, EAJk kolore bakarreko Eusko Jaurlaritzara osatu zuen, Carlos Garaikoetxea lehendakaria buru zela. Foru-aldundien nagusitasunak, erakunde demokratikoetan egoteari uko egiten zioten HBko ordezkariak ez egoteak (udaletan izan ezik) eta nazionalistak ez ziren aukera politikoen utzikeriak boterea ia gehiengo absolutua balu bezala kudeatzea ahalbidetu zioten alderdi jeltzaleari. Horrela, Trantsizioaren ezaugarri izan ziren adostasun handiak hautsiz, EAJ bere proiektu politiko berezia gauzatzen zuen autonomia erkidego bat eraikitzen hasi zen²².

1979ko eta 1980ko hauteskunderik EEren mugak marraztu zituzten. Bere eragina handitzeko eta jeltzaleen monopolio instituzionala eragozteko, EIAk aliatuak eta boto eta ordezkari gehiago behar zituen. Dena den, panorama ez zen aldekoa: euskal ezker hainbat alderditan zatituta zegoen (PSE, EIA-EE, ESEI, PCE-EPK, HB eta ezker muturra), eta alderdi horiek elkarren artean lehiatzeaz gain, sakonki banatuta zeuden ETaren terrorismoagatik eta HBren etsaitasun gogorragatik. PSErekin eta HBrekin koalizioa egitea baztertu ondoren, EIAk «bloke hegemoniko» berri bat eratzea proposatu zuen: EE birfundatua, zabala eta plurala. Hala ere, EIArekin bat egiteko prest zegoen alderdi bakarra Roberto Lertxundiren PCE-EPK zen, Santiago Carrilloren aurkako ildo berritzaile, eurokomunista, demokratizatzaile eta euskaltzalea ordezkatzeko zuena²³.

Hala ere, batasunerako hiru oztopo zeuden: erreferentziazko bi sindikatu desberdin egotea (CCOO komunistentzat, LAB EIArentzat), EIAren programa independentista eta ETAm-rekin zituen lotura nabarmenak. Lehenengo bi elementuak modu naturalean konpondu ziren (edozein zentraletan militatzeko baimena eman zen, eta independentismoak konpromiso autonomistari bide eman zion), baina hirugarren puntua askoz ere gatazkatuagoa zen. EIAk harreman estua zuen ETAm-rekin, eta horrek haren atentatuak justifikatzen eramaten zuen. Hala ere, PCE-EPK izan zen terrorismoaren aurka gehien konprometitu zen alderdia, eta Euskadiko lehen mobilizazio bakezaleen bultzatzailea izan zen. Komunisten jarrera ez zen oharkabean pasatu biolententzat eta beren ikas-tunentzat. 1981eko apirilean, ETAn sartzeko merituen bila zebilen komando autonomo batek Lertxundi bahitu zuen. Bere harrapatzaileek ohartarazi zioten, banda kritikatzeari uzten ez bazion, hil egingo zutela. Ez zien jaramonik egin,

noski. Are gehiago, PCE-EPK-k argi utzi zion EIAri bi alderdien arteko konbergentziarako *sine qua non* baldintza bat zegoela: ETApM desegitea²⁴.

IV. POLIMILIEK KANPAINAK

Komunistek EIAko buruzagiei exijitzen zieten zen ez bakarrik ordura arte beren «lehengusu» deiturikoekin moztea, baita bere iraganarekin moztea ere. Trantsizioan zehar, Onaindiaren alderdiak eta ETApM-k hainbat modutan egin zuten elkarrekin lan, beti ere lehenak bandaren gainetik zuen nagusitasuna errespetatuz. *Perturrek* 1976an ezarri zuen bezala, polimiliek atzeguardiara egin zuten atzera, eta handik, itxuraz, EIAk eta masa-erakundeek «demokrazia burgesa»ri erazi zizkioten «herri-konkistak» defendatzen zituzten. Plan-teamendu hori bi planotan islatu zen. Bata, propaganda armatua, alderdiaren estrategia politikoa babesteko. Eta, bestetik, hainbat mugimendu sozial eta kulturalen aldeko «esku-hartze sektoriala»: langilea, herritarra, antinuklearra, «errepresioaren aurkakoa», ETAko presoen amnistiaren aldekoa, feminista, euskalduntzearen aldekoa... Sintomatikoa da polimiliek «esku-hartze eremu» heterogeneo horietan erabili zuten indarkeria bat datorrela Brigada Gorrien eta ezker muturreko beste erakunde terrorista batzuen jarduerarekin²⁵.


ETApM-ren lehen atentatu «sektoriala», 1977ko irailean Eibarren (Gipuzkoa) egindakoa, gasolindegia bateko obrak leherraraztea izan zen, zeinaren aurka auzotar talde bat protestan aritu baitzen, haren kokapena zela eta. Taldeak «herri-borrokari emandako laguntza gisa» ulertzen zuen bere «parte hartzea». Hala ere, geroago, polimiliek kexatu egin ziren, ez-tandaren eragina «kapitalizatu edo politikoki jarraipena ematen dionik» ez zegoelako, hau da, EIAk ez zuelako halakorik egin, pixkanaka bide instituzionaletan zentratzen ari zelako. Gauza bera gertatu zen beste ekintza batzuekin ere: ustezko irregulartasunengatik ANSA ur-enpresaren aurka eta nahitaezko desjabetzeengatik Bilbo-Gasteiz autobideko ordainlekuaren instalazioen aurka jarritako bonbekin, edo nekazaritza eta abeltzaintzako etxalde baten jabeak etxean jaso zuen bisita mehatxagarriarekin, zeinari terroristek beren negozioaren ingurumen-inpaktuari buruzko azterlan bat egiteko eskatu zioten²⁶.

ETApM-ren erreperitorioak ekintza desberdinak barne hartzen zituen: erai-kin ofizialak une batez hartzea, bere presoak «askatzea», panfletoak jaurtitzeko hegazkin bat lapurtzea, irrati klandestinoen emisioak, Donostiako unibertsitate publikoan oldarka sartzeko ikasleei EEren aldeko botoa eskatzeko, Moncloaren edo Iruñeko Gobernu Zibilararen aurka suziriak jaurtitzeko, armamentua eta lehergailuak lapurtzea, bomba bat jartzea Huescako Opus Deiaren santutegian... Bere ekintza deigarrietako bat 1980ko urtarrilaren 26an gertatu zen, ETApM-ko kideak Bilboko hiru zinema-aretoan sartu zirenean, «S» gisa sailkatutako filmak erakusten zituztenak (*Morir de deseo*, *Miedo al escándalo de una mujer casada* eta *Violación en el último tren de la noche*). Sabaiaren edo pantailen kontra hainbat tiro egin ondoren, terroristek pornografia kontsumitzeari uzteko eskatu zioten publikoari, bortxaketak eragiten baitzituen. Ironikoki,

muturreko nazionalismoaren zinema erotikoaren aurkako gurutzadak antzekotasun asko zituen garai hartan ultraeskuindar puritanoenak egiten zuenarekin. ETApM-ren kontraesan ugarietako bat zen. Ez da harrizkoa Luciano Rincónek «fantasiatzko terrorismotzat» jotzea²⁷.

Horrelako talde bat martxan mantentzeko diru asko behar zen, baina polimiliek uko egin zioten 1977ko urrian «iraultza zergari». ETApM-k estortsioa puntualki erabiltzen jarrai zezakeen arren, nagusiki beste bi bideren bidez finantzatu zen. Alde batetik, lapurretak. Florencio Domínguez arabera 268,3 milioi pezeta lortu zituzten lapurrekin. Bankuek segurtasun-neurri aurreratuagoak hartzen zituzten heinean, diru-iturri horren garrantziak behera egin zuen. Adibidez, Larrabasterrako (Bizkaia) aurrezki-kutxa bati egindako lapurretak 40.000 pezeta baino ez zituen ekarri, eta, horren ondorioz, zuzendaritzak gaizki egindako operaziotzat jo zuen, ez zuen aldarrikatu eta lapurrak ikastaro militar bat egitera bidali zituen. ETApM-ren beste finantzabidea enpresariak edo haien senideak bahitzea izan zen (batzuetan modu espresean, Fernando Picó ikaslearena, kasu, 1979ko martxoan). Domínguez kalkuluaren arabera, metodo horrek 680 milioi pezeta eman zizkion erakundeari. Kopuru horren zatirik handiena Jesús Serra Santamans eta Pedro Abreuren familiek 1980an eta Luis Suñerrek 1981ean ordaindutako erreskateei zor zitzaizkien²⁸.

ETAren diru sarrerak milioi pezetetan




ITURRIA: Domínguez (2018: 122-123).

Bere jarduera ez zenez ETAm-rena bezain suntsizaille eta hilgarria, ohikoa zen ETApM ETA «biguntzat» hartzea, baina datuek erakusten dute ez zela horrela. 1977 eta 1981 artean 138 atentatu eta 21 hildako eragin zituen (ikus VI. atala).

Dozenaka zauritu ere utzi zituen, hala nola Gabriel Cisneros UCDko diputatua, 1979ko uztailean bahiketa-saiakera batean zauritua izan zena. Urte horren beraren amaieran, Javier Rupérez parlamentari zentristak hogeita hamar bat egun eman zituen askatasunik gabe²⁹.

ETApm-k eragindako zaurituen kategorian, hamalau *pernizidio* nabarmentzen dira. Brigada Gorriak bezalako talde terroristek erabiltzen zuten prozedura batean inspiratua zegoen (*gambizzazioni*) termino makur hori. ETApm-k bi profil motari aplikatu zion. Alde batetik, administrazio publikoko goi-kargudunei, Adolfo Suárezen gobernuari presio egiteko. Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan nagusi zen beldurrezko girotik ihesi, Espainiako beste zonalde batera joandako enpresariei, edo lan-gatazka batean murgilduta zeuden haien konpainiei. Azkeneneko hori oso egoera arrunta zen krisi ekonomikoaren, industria-birmoldaketaren eta gero eta handiagoa zen langabeziaren ondorioz. Terroristek galdeketak egiten zizkieten bahituei informazioa lortzeko, eta, industrialarien kasuan, heriotzarekin mehatxatzen zituzten langileen eskaerak onartzen ez bazituzten. Handik ordu gutxira, biktimak askatzen zituzten, hanketan tiro bat edo batzuk egin ondoren, eta ondorio fisiko iraunkorrak eragiten zituzten³⁰.

ETApm eta ETApm VIII Asambladaren bioleztzia



ITURRIA: Domínguez Iribarren (2020) eta María Jiménez Ramosen VI. atala.

Dena den, ETApm zerbaitegatik nabarmendu bazen, kanpaina zehatz batzuegatik izan zen. Lehenengoak Michelin multinazional frantziarra izan zuen jomuga, lan-gatazka luze batean murgilduta baitzegoen. Taldea, aukera bat

antzman zuelakoan, patronalaren eta sindikatuen arteko negoziatioetan sartzen saiatu zen. Hainbat bonba jartzeaz gain, 1979ko otsailaren 5ean Georges Roucier Lasarte-Oriako lantegiko arduraduna bahitu zuen, eta egun horretan bertan hanka batean balaz zaurituta abandonatu zuten. Hilabete horren 19an komando batek Luis Abaitua Gasteizko fabrikako zuzendari teknikoa bahitu gisa hartu zuen. Bere bahitzaileek, tartean garai hartan polimilia zen Arnaldo Otegi (*El Gordo*), langileen eskariak negoziatzeko eskatu zioten Michelingo zuzendaritzari. Bestela, bahitua «exekutatu» egingo zuten. Azkenik, martxoaren 1ean askatu zuten Abaitua³¹.

ETApm-k hurrengo urtean ekin zion berriro kanpainari. 1980ko otsailaren 20an, komando bat Valladolideko lantegiko zuzendari Eloy Cenzano bahitzen saiatu zen, baina haren gidaria garaiz ohartu, eta ibilgailuak tranpa saihestu zuen. Hurrengo helburuak ez zuen horrenbesteko zortetik izan. Ekainaren 25eko 13:30ean, ETApm-ko pistoladun batek Michelinen Gasteizko bulego teknikoetako burua, Luis María Hergueta Guinea, erail zuen garondoan bi tiro jota. Poliziaren ikerketaren arabera, langile batek eta haren emazteak eman zuten biktimari buruzko informazioa. Atentatu horrekin, taldeak «langileen borrokaren osagarri» izan nahi zuen, baina ondorio zuzena nagusiek fabrika ixtea izan zen³².


Taldearen ekintza guztiak ez ziren Euskal Herrian egin. 1979ko udan, polimiliek lehenengo «Mediterraneoko kanpaina» egin zuten, Espainiako kostaldeko turismo-zentroetan bonbak jarriz. Esparru horretan, baina ETApm-ko zuzendaritzak misioa amaitutzat eman zuenean, bi leherketa izan ziren Barajasko aireportuan eta Chamartin eta Atochako tren geltokietan 1979ko uztailearen 29an: zazpi pertsona hil ziren, eta ehun zauritu baino gehiago izan ziren prentsaren arabera (ikus VI. atala). Heriotza horiek desadostasunak eragin zituzten ETApm barruan, eta, bere historian lehen aldiz, EIAk atentatuak gaitzetsi zituen. Juan Mari Bandres EEko diputatuak adierazi zuenez, «bonba batek eztanda egitea nahi ez bada, ez jartzea da onena». Gaitzespen horiek autokritika publiko bat egitera behartu zuten erakunde terrorista. Polimiliek gelditzen ziren bonbak indargabetu zituzten edo planoak eman zizkieten Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei³³.

Guztiarekin, 1980ko udan ETApm-k turismoaren aurkako bigarren kanpaina bat jarri zuen abian, Eusko Jaurlaritzari gutun bidez adierazi zion bezala, erkidegoen transferentziak bizkortzeko helburuarekin. Garaikoetxea lehendakariak berehalako gaitzespen batekin baztertu zuen «babes» hori, eta PSEk eta PCE-EPK-k protestak antolatu zituzten. Oraingoan, gainera, Juan José Rosón Barne ministroak irmo erantzun zuen, eta polizia-ekintza EIAren gainera erakarri zuen. Hainbat buruzagi atxilotu zituzten, talde terrorista kanpaina geldiaraztera behartzeko, eta azkenean lortu egiten zuten. Hala ere, gerora, turismoa Espainiako ekonomiaren sektore estrategikotzat jotzearen ideia kopiatu egin zuen azkenean ETAm-k³⁴.

V. 1980KO KRISIA

Liderrek jakin bazekiten ere «ekintza armatu bati gerta dakiokoen gauzarik larrienetako eta negatiboenetako bat oharkabean gertatzea dela», horixe gertatu zitzairen, hain zuzen ere, ETApM-ko gehienei trantsizioan. Alde batetik, bandak eta EIAk ez zuten kideko komunikabiderik, miliek eta haien inguruneak *Egin* eta *Punto y Hora de Euskal Herria* monopolizatzen zituztelako. Bestetik, ETAm hainbeste atentatu eta hilketak egiten ari zen, non, turismoaren aurkako lehen polimili kanpaina bezalako kasu puntaletan izan ezik, beste erakunde terroristen jarduera itzaltzea lortu zuen. Azkenik, milien eta HBren diskurtsoak ez bezala (ultranazionalismo baldarrez eraikiak, baina hunkigarriak eta bere oinarri soziologikoarentzat erakargarriak), ETApM-k testu harrigarriro sofistikuak landu zituen, ia ulergaitzak zirenak kideentzat eta arrotzentzat. Azken batean, ETAm-k prentsaren arreta bereganatzen jakin zuen, eta, beraz, gizartearena eta haren ordezkariena, eta, beraz, aktore garrantzitsua zen agertoki publikoan. Eta ETApM, ez³⁵.

Atentatuen kopurua.



ITURRIA: Domínguez Iribarren (2020).

Atzean geratzen ari zirela konturatuta, polimiliek bira estrategikoa eman zuten, 1980ko ekainean Luis Maria Hergueta hil zutenean. Hilabete horretan bertan, komando bat Eulogio Gómez Franqueira UCDko diputatua bahitzen saiatu zen Ourenseko bere etxean. Terroristek politikariari arropa aldatzen utzi zioten bere gelan, eta hori baliatuta, bere pistola hartu, tiro egin eta bere bahitzailetako bat zauritu zuen. Horrek bahitzaileen ihesa eragin zuen.

Abuztuan ETApM-k Mario González Blasco soldatzailea bahitu zuen. Haren gorpua Eibarko baso-bide batean aurkitu zuten, hilabete batzuk lehenago ultraeskuinak hildako Jesús María Zubikarai EEko militantearena agertu zen tokitik 50 bat metrora. Ustez, krimen horrek eragindako errepresalia bat zen. 1980ko abuztua zen oraindik, eta komando bat Kataluniara joan zen Saloun txalet bat zuten Rodolfo Martín Villa ministroaren aurka atentatua egitera. Operazioa bertan behera geratu zen prentsara egindako ustezko filtrazio batengatik, baina ez zen izango ETApM-k UCDko ministro bat jomugan jartzen zuen azken aldia. Irailean, hurrengo biktima eragin zuten: Basilio Altuna Polizia Nazionaleko kapitaina. Arabar hau Miranda de Ebron zuen lanpostua, baina Erentxunera (Araba) joana zen, bertakoa baitzuen emaztea, herriko festetara³⁶.

Oso gogorak izan arren, krimen haiek ez ziren aski izan polimiliek ETAm-ri protagonismo mediatiko eta politikoa kentzeko. «Erradikalizazio handiagoa» behar zela erabaki zen. Hala bada, 1980ko irailean, ETApM-ko Biltzar Ttipiak erabaki zuen «liskarra UCD berera eramatea» edo, taldeko buruzagi baten hitzetan, «UCD astintzea». Planteamendu horrek Italiako Brigada Gorrien «Estatuaren bihotzera eraso» estrategia gogorarazten zuen, 1978ko maiatzean Aldo Moro politikari demokristauaren hilketarekin amaitu zena. Kanpaina berri horrekin, ETApM-k «kualitatiboki» ETAm-renak «baino garrantzitsuagoak izango ziren disuasio-ekintzak egitea» espero zuen, eta UCD «planteatutako arazoei konponbidea ematera behartzea»³⁷.

Politikari zentristen aurkako atentatu zapuztuen zerrenda luzea da. Jesus María Viana UCDko diputatu arabarraren ibilgailuari bidea mozten saiatu ziren polimiliek Gasteiztik irten eta Bilborako autobidea hartu zuenean, baina egun hartan beste bide bat hartu zuen eta ez zuten identifikatu. Beste komando bati Tacho Nebreda diputatu bizkaitarra hiltzea agindu zioten. Hiru aldiz egon ziren terroristak Algortako etxetik gertu haren zain, baina ez zuten aurkitu, eta misioa bertan behera utzi zuten. Ondoren, ETApM-ko zuzendaritzak Iruñera joateko agindu zien, eta bertan Jaime Ignacio del Burgo Nafarroako UCDko buruaren, senatariaren eta Foru Aldundiko presidentearen aurka atentatua egiteko asmoa zuten, baita Nafarroako Unibertsitateko errektorea bahitzekoa ere. Hainbat arrazoiengatik, ekintza horiek ere ez ziren egin. Hala ere, beste batzuk bai gauzatu zituzten. Irailaren 29an komando batek bere etxetik eraman zuen José Ignacio Ustarán Ramírez, UCDko Arabako buruetako bat, industria-peritu gisa lan egiten zuena. Terroristek alderdiaren Gasteizko egoitzatik gertu utzi zuten gorpua. 1980ko urriaren 31n, ETApM-ko pistolariak Juan de Dios Doval hil zuten Donostian, Gipuzkoako UCDko buruzagi probintziala eta Zuzenbide Fakultateko irakaslea. Bi atentatuen artean, KAAek Jaime Arrese, alderdi bereko legebiltzarkidea, hil zuten. ETAm, ETApM eta KAA taldeek zentro-eskuinean eta eskuinean eragin zuten jazarpenak triskantza egin zuen UCDn eta APn, euskal eta nafar gizartearen sektore esanguratsu bat ordezkatzeko baitzuten (% 21,4 Euskadin, 1977ko hauteskundeetan, eta % 37,5 Nafarroan). Esparru politiko hura ez zen berrosatu laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdera arte. Gainera, eraso terroristek beldur handia eragin zuten euskaldun

ez-nazionalisten artean, eta horrek bi fenomeno ekarri zituen: bata, transterratzea, hau da, ETAK mehatxatutako askok Espainiako beste eremu batzuetara ihes egitea; eta, bestea, gaur egunera arte iritsi den isiltasunaren zurrumbiloa³⁸.

ETApm-k UCDren aurka egindako kanpainak ikusgarritasuna eman zion prentsan, baina ustekabeko amaiera izan zuen: EIAko afiliatuak eta koadroak astindu zituen, ordura arte bere «lehengusuek» egindako atentatuekin ulerkorrak baino gehiago izan zirenak. Kaltetuak (eta, hedaduraz, mehatxatutako kide zentristak) jada ez ziren uniformedun funtzionario anonimoak, baizik eta *euskadikoek* pertsonalki ezagutzen zituzten pertsonak, erakunde demokratikoetan eta Gernikako Estatutuaren alde antolatutako kanpainetan bat egin zutelako. Horri esker, lehen aldiz enpatia sentitu zuten indarkeria terroristaren ondorioak pairatzen zituztenekin. Mario Onaindiak bere oroitzapenetan onartu zuen Ustaránen hilketa «Eeko historiako egunik garrantzitsuenak» izan zela. «Sentimenduen iraultza» eragin zuen. «Eeko militanteek, borroerokin identifikatzen urrun (...), biktimarekin bat egin zuten, une batez bazen ere». EIAko zuzendaritzak aho batez onartu zuen gaitzespen-ohar bat: «Ezin da inor hil bere ideiegatik. (...) Ez da normalizazioaren eta konponbide politikoen bidea». Onaindiak *Perturren* tesiak urratu izana leporatu zien polimiliei. «ETAk (p-m) *Argalak* izandako tentazio bera», militarismoarena, «sentitzeko beldurra» zuela adierazi zuen. Bere ohartarazpenari jaramonik egin gabe, handik egun gutxira polimiliek Dios Doval erail zuten. EIAk «Aski da!» izenburuko komunikatu irmo batekin gaitzetsi zuen atentua, eta, ondorioz, UCDren aurkako kanpaina bertan behera utzi behar izan zuten batak. Bortizkeriarekin kritikak ziren ahotsak berotu egin ziren. Onaindiak adierazi zuenez, «ETAk porrot egin du»³⁹.

Denborak EIA eta ETApm-ren arteko loturak ahuldu zituen, eta, horri esker, 1980an izandako pitzadurek urte batzuk lehenago pentsaezinak ziren ondorioak izan zituzten. Urruntze haren gakoa zen joko parlamentarioaren logika eta terrorismoarena bateraezinak zirela. Alderdia bide instituzionalera egokituz joan zen, eta taldea, berriz, ETAm gainditzeko irrikaz zebilen, indar handiagoko terrorismoaren alde eginez. Gainera, gero eta gutxiago ziren batak bestearengandik lortzen zituzten onurak, eta kalteak, berriz, hazi baino ez ziren egiten. Lehenik eta behin, nahiz eta ETApm-ren babes erabakigarria izan EEren 1977ko ekaineko kanpainan, efektu hori desagertu egin zen ETAm-k bere hauteskunde-marka propioa, HB, babestu zuenean, eta indarkeriari babes esplizitua eman nahi ziotenek azken honen alde egin zuten. Bigarrenik, ETApm-ren atentatuek, EIAren «konkisten» «bermatzaile» izatetik urrun, alderdiari ospea kentzen zioten, erakundeetan egoera jasanezina bihurtzen zuten eta izuaren aurkako boto-emake aurrerakoak eta ezkerreko aliatu potentzialak (PSE, PCE-EPK eta ESEI) uxatzen zituzten. Hirugarrenik, EIA eta ETApm-ren artean zegoen loturaren ondorioz, *Diario 16* bezalako komunikabideek presio handia egin zieten Eeko hautetsiei, batez ere Bandresi. Laugarrena, polimilien aurkako polizia-jarduerak Onaindiaren alderdian ere izan zuten eragina, auzipetua izatera iritsi baitzen, baina haren epaiketa 1980ko urtarrilean eten zen *sine die*. Urte horretan bertan, arestian esan bezala, EIAko zenbait buruzagi atxilotu zituzten. Zentzu horretan, *euskadikoak* polimilien Akilesen orpoa

ziren. Seigarrenik, EIAko afiliatu eta jarraitzaileek ere pairatu zituzten terrorismo parapolizialaren erasoak: heriotza-mehatxuak, bi bahiketa, hainbat atentatu eta Jesús María Zubikarairen hilketa. Eta, azkenik, Euskadin mobilizazio bakezaleak deitzen hasi ziren, herritarren zati batek ETArekiko zuen gogohostasunaren sintoma⁴⁰.

EIA pausoa aldatuta zebilen: oin bat oraindik iraganean eta bestea etorkizunean, baina bi mundu horietako inorena erabat izan gabe eta, beraz, lehen eremuan (ETAm eta HBrekin) eta bigarrenean (formazio demokratikoekin) lehiatu ezinik. Onaindiaren alderdiak ezingo zuen aurrera egin polimiliek suposatzen zuten tratatib libratu arte. Beraz, oraindik ez zegoen hausnarketa moralik, pragmatismo hutsa baizik, EIAren zuzendaritzak bere sorrera-proiektua, *Perturren*, atzean uztea erabaki zuenean, ETApm-rekin loturarik ez zuen alderdi berri eta zabalagoa sortzeko. Hala ere, ezin zituzten beren «lehengusuak» utzi: irtenbide bat bilatu behar zieten. 1980ko azaroan, Juan Mari Bandres diputatuak jada *euskadiko* giroan zebilen ideia bat agerian jarri zuen: «Su-etena gatazka bat amaitzeko modu bat da, eta bi aldeentzat duina izan daitekeen modu bat da»⁴¹.

Baina, polimiliak ados al zeuden planteamendu horrekin? Batzuk bai. UCDren aurkako kanpainak ere desadostasunak eragin zituen ETApm-ren baitan. Adibidez, Gasteizen ziharduen komando legalak kritika gogorra egin zuen taldearen zuzendaritzaren aurka, Ustaránen hilketagatik. Zelulako kideetako batek dimisio ere eman zuen, baina ukatu egin zitzaion erakundea uzteko baimena. Zentzagarri gisa, Batzorde Betearazleak pozik ez zeuden polimiliak informazio-aparatura transferitzea erabaki zuen, eta, ondorioz, zeuzkaten lehergailuak eta armamentua (hiru pistola) itzuli behar izan zituzten⁴².

Gasteiz komandoaren zoriak erakusten zuen oraindik arriskutsua zela zenbait gai argi eta garbi planteatzea. Egia da ETApm-ko hainbat koadro eta buruzagi beterranok zalantzan jarri zutela terrorismoaren baliagarritasuna eta taldearen etorkizuna, baina askoz modu diskretuagoan egin zuten. Euren ikuspegitik, Gernikako Estatutua berretsi ondoren, eurek ere beren erara babestu baitzuten, atentatuekin, ez zuen zentzurik «borroka armatuarekin» jarraitzeak. Irtenbide autonomikoa legitimoa bazen, hortik zetozen erakundeak ere legitimoak ziren, eta, beraz, EIAren paternalismo bortitzaren garaia igarota zen: euskal herritarrak adin nagusitasunera iritsiak ziren. Beste polimili batzuentzat otsailaren 23ko estatu-kolpea erabakigarria izan zen, egun hartan Trantsizioa «ametsa» baino ez ote zen beldur izan baitziren. Euren ustez, EIAren terrorismoak demokrazia parlamentarioa ahuldu besterik ez zuen egin, kolpistei argudioak emanez. Argudio sendoak izan arren, indarkeriarekin kritikoa zen sektoreak, pragmatikoa deituko diogunak, ez zizkien bere zalantzak planteatu gainerako lankideei, EIAren bilakaerak nolabaiteko estaldura eman zien arte. Eta orduan ez zen ETApm-ren desegitea proposatu, horrek «likidazionista» gisa markatuko baitzuten, su-etena baizik. Izan ere, ez zeuden bakarrik: bandaren baitan fakzio muturreko eta pretoriar bat ere ari ziren taxutzen, gogorra deituko dioguna, erailtzen jarraitzeaz gain ETAm-HBren eredu kopiatu nahi zuena, hau da, ETApm-k EIAren kontrola hartzea, Onaindiaren norabidea

alde batera utzita. Bi korrontek jarrerak hurbiltzea lortu zuten, eta 1980ko azaroan koadroen batzar batek «disuasio-aldi» bat egitea erabaki zuen, indarposizio batetik, «egiteke» zeuden aldarrikapen politikoen «irteera negoziatua» ekarriko zuen su-eten bat aldarrikatzeko, hala nola, une hartan kartzelan zigorra betetzen ari ziren ETApM-ko 48 presoek askatasuna. EIA ados agertu zen, biktimarik egon ezean⁴³.

Ez zen halakorik izan, baina ETApM-ren lehen «disuasio-ekintza» desastre hutsa izan zen. Azaroaren 15ean, polimiliek eta nazionalista katalan erradikalek osatutako komando bat Bergako (Bartzelona) Mendi Infanteriako Batailoiaren kuartelari eraso egiten saiatu zen, armamentu militarra lapurtzeko, hala nola metrailadore astunak eta morteroak. Ez zuten lortu eta ia kide guztiak atxilotu zituzten. Hala ere, Barne ministroaren eta EIAko idazkari nagusiaren aldar-teari esker, porrot hark ez zuen arriskuan jarri haien negoziazio-prozesua⁴⁴.

VI. ELKARRIZKETAREN ARTEA

Juan José Rosónek eta Mario Onaindiak Madrilen ezagutu zuten elkar, bigarrena lehenengoaren anaiarekin harremanetan jarri ondoren, lagun komun baten bitartez, Berrizko Ganeko Etxe jatetxeko jabea. Bandresen iragarpen txarrak gorabehera, bilera hura Gobernuaren eta EIAren zuzendaritzaren arteko negoziazio luze eta konplexu batzuen hasiera izan zen, azken emaitza gisa ETApM-ko sektore baten desegitea ekarriko zutenak (ikus Sarrera)⁴⁵. Barne ministroaren esanetan, konbinazio bati esker lortu zen helburua:

eraginkortasun poliziala eta negoziazio oso diskretua, zuzena, esku hartu nahi zuten zenbait indar politiko, pertsona eta erakunde alde batera utzita, parte hartzeko bidezko nahia zutenak... Honako hauek ari naiz: PSOE, EAJ, Eusko Jaurlaritza, une jakin batzuetan Retolaza edo Txiki Benegas bezalako lehen mailako solaskide izandakoak, baina ETAk armak uzteko estrategia diseinatzean, komunikazio eraginkorra pertsona bakar baten esku geratu behar zen: Mario Onaindia⁴⁶.

Izan ere, Esozi Leturiondo EIAko militante nabarmenaren eta alderdiko idazkari nagusiaren alargunaren arabera, hasieran alde biko harremana baino ez zen, bakarka eta berei bizkarra emanek jarduten ari ziren bi politikariren arteko «konfiantza pertsonalean» oinarritua. Denbora luzez ezinezkoa izan zen «ezer ukigarrik» egotea: ez Rosónek ez Onaindiak ezin zioten beste aldeari «bermerik eskaini». Lehenengoak ezin zuten Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen lana geldiarazi, eta bigarrenak ezin zituen polimiliak kontrolatu. EIAko idazkari nagusiaren hitzetan, «berunezko oinekin ibili behar nuela sentitzen nuen». Zorionez, eman zuten urratsak alderdiko buruzagi ospetsuenetako batzuen oniritzia jaso zuten, eta horrek aurrera egiteko ezinbesteko estaldura ziurtatu zion. Gauza bera gertatu zitzaion Rosóni. Adolfo Suárez presidentearen baimena eskatu zuen, baita haren ondorengoarena ere, baina ez zien ministroen kontseiluko gainerako kideei jakinarazi. Rodolfo Martín Villak ez

zuen jakin zer gertatzen ari zen, harik eta, 1981eko otsailean Leopoldo Calvo-Soteloren gobernuaren eratu ondoren, presidente berriak eta Rosónek ministro berrietako hiruzpalau jakinaren gainean jarri zituzten arte, tartean bera. Inork ez zion kontra egin, eta ez zuen esku hartu nahi izan. Martín Villaren hitzetan, «horrelako gauzak eskudunaren esku utzi behar dira»; hau da, Rosónek esku. Denborarekin, adostasuna lortu ondoren, Madrilgo bilerak formalagoak eta koralagoak izan ziren, eta Juan Mari Bandres eta Barne Ministerioko goi-kargudunak gonbidatu zituzten⁴⁷.

Hala ere, ETApM-ren aurreko elkarrizketak legitimatzeko, Onaindiak bere alderdiak babesa ematea behar zuen. Hori dela eta, EIAko Batzorde Betearazleak ezohiko batzar bat deitu zuen 1980ko abendurako, eta bertan oso txosten gogorra aurkeztu zen terrorismoarekin oro har, eta ETApM-k UCDren aurka bereziki egindako kanpainarekin. Indarkeria, «demokrazian sakontzen eta langile-klaseko erakundeak indartzen lagundu beharrean, Estatuaren tresna errepresiboak indartzen eta langileen erakundeei ekimen politikoa kentzen laguntzen duen elementua da». Testuan ETAREN adar guztiei «aldi baterako su-etena» deklaratzeko eskatu zitzaion, «negoziazioa» ahalbidetzeko. Ultimatuma zirudien arren, egia esan, dokumentuak ETApM-ko goi-karguen oniritzia zuen. Hala ere, Ezker Berriaren ustekabeko oztupoarekin topo egin zuen, eta korronte kritiko horrek eztabaida luzeagoa eskatu zuen EIAren zuzendaritzarekin. Batzarrak bere «izaera erabakitzailea» bertan behera utzi zuen aldeko 226 botorekin eta aurkako 196ekin, eta 34 abstentziorekin. Onaindiaren esanetan, «nire bizitzako egunik etsigarriena izan zen politikoki»⁴⁸.

EIAko Batzorde Betearazleak Ezker Berriarekin elkar ulertzea bilatu behar izan zuen. Berrito idatzi zuten ponentzia, terminoak leunduta, nahiz eta funtsezkoena mantendu: «su-eten bat eskatzea, ahalik eta azkarren, euskal indar politiko ordezkatzailen arteko negoziazioa errazteko urrats gisa», «egiteke dauden problematikei» buruz jarduteko. 1981eko otsailaren 15ean, EIAren ezohiko beste batzar batek onartu zuen⁴⁹.

Guztiarekin, ETApM-ren bilakaeran izan zuen eraginari begira, kaltea jada egina zegoen. Formazioak erakutsi zuen banatuta zegoela indarkeriarekin zuen harremana bezalako gai erabakigarri baten aurrean. Neurri bateraino, EIAN gauzatu ziren bi korronteen, Ezker Berria eta Onaindiaren aldekoen, arteko liskarrak ETApM barruan gertatzen ari ziren liskarren ispilu ziren. Nahiz eta automatikoki paralelismo bat ezartzea edo bataren eta bestearen arteko lotura auresuposatzea gehiegi sinplifikatzea izango litzatekeen, argi dago sintonia bat zegoela EIAren zuzendaritzaren eta ETApM-ko pragmatikoen artean, eta, gutxienez, bandaren gogorrek Ezker Berria ikusten zuten bere interesen ordezkari politikotzat.

VII. DISUASIOA ETA O-23^a

Barruko oztopoei berehala gehitu zitzaizkien kanpokoak. 1980an, Espainiako demokrazia gazteak krisi orokor bati aurre egin behar izan zion: zailtasun ekonomiko handiak zeuden, milioi bat langabeko zifra errekorra heldu zen, terrorismoak gora egin zuen (132 hilketa, 100 zauritu eta 20 bahiketa), delinkuentzia eta droga-kontsumoa hazten hasi ziren, Gobernu eta UCD deskonposatzen ari ziren, Adolfo Suárez presidentea ezbaian zegoen eta «sablehotsa» gero eta entzungarriagoa zen. Gizartearen zati handi bat ezkortasunean eta «desengainuan» murgildu zen. Urte hartan pilatutako tentsioak 1981. urtearen hasieran lehertu ziren. Lehen bi hilabeteetan Onaindiaren ibilbide-orriak oso agertoki politiko kaskarra aurkitu zuen, eta EIAk, bigarren mailako aktore izateari utzi gabe, ikusle soilaren zeregina hartu zuen. 1981eko urtarrilaren 29an Adolfo Suárezek dimisioa eman zuen: «Nik ez dut nahi bizikidetzarako sistema demokratikoa, beste behin ere, parentesi bat izatea Espainiaren Historian». Gobernuko presidentea Onaindiak eta Rosónek izandako elkarrizketen oniritzia eman zuten, baina bietako inork ez zekien Leopoldo Calvo-Sotelo haren ondorengoak zer jarrera hartuko zuen⁵⁰.

1981eko urtarrilaren 29an bertan bahitu zuen ETAm-k José María Ryan, Lemoizko ingeniari-burua. Bandak astebeteko epea eman zuen obrak geldiarazteko eta zentral nuklearra eraisteko, eta prozesu hori «herri-erakundeek» gainbegiratu behar zuten. Gobernuak uko egin zion ultimatumaren aurrean amore emateari. Indar demokratikoen mobilizazioak deitu zituzten, eta bahitua- ren emaztea eta bost seme-alaba telebistan agertu ziren terroristek aska zezaten eskatzeko. Alferrik izan zen. Ryanen gorpua, eskuak lotuta, begiak estalita eta kotoia ahoan, otsailaren 6an agertu zen. Alderdi eta sindikatu demokratikoen, baita EEk ere, greba orokorra deitu zuten hilaren 9rako. Euskal gizartearen sektore esanguratsu batek atentatua gaitzetsi zuen. Bilboko martxa, deitzaileen arabera, 150.000 lagunera iritsi zen, eta Gobernu zibilak 200.000 lagunera igo zuen kopurua. EIAko zuzendaritzak jarrera argia hartu zuen krimenaren aurrean: «Aski da odolaz, aski da bortizkeria absurdoaz!». Aldarrikapen bakezale hark eskandalizatu egin zituen HB eta ezker muturra, eta dozenaka zauritu eragin zituzten kontramanifestazio bortitzak antolatu zituzten. *Euskadikoek* jokabide «benetan probokatzaila eta faxista» izan zela aurpegiratu zieten intrantsigenteei⁵¹.

Otsailaren hasieran, Juan Carlos I.a erregeak bisita ofiziala egin zuen Euskal Herrira, eta EIAko Batzorde Betearazleak desegokitzen jo zuen. Otsailaren 4an, Ryan hil baino bi egun lehenago, Gernikako Juntetxean egindako ekitaldi ofizial batean, HBko eta LAIAko batzarkide eta parlamentariak erregeari txistu egin, eta, ondoren, *Eusko Gudariak* ereserki nazionalista ozen abestu zuten ukabila altxatuta. Gainerako alderdi politikoetako ordezkariak txalo egin zioten erregeari eta menderakaitzak handik ateratzeari. Salbuespena EEkoak izan ziren, isiltasun neutralean egon baitziren. «Trantsizio betean harrapatu gintuzten»,

gogoratzen zuten Onaindiak. Hala ere, *euskadikoak* bat etorri ziren HBren jokabide «probokaziotzat» jotzearekin⁵².

Hala zen, zalantzarik gabe, baina EIAko «lehengusuek» zerbait okerragoa zuten prestatuta. Disuasio-estrategiaren barruan, ETApM-ko goi-karguek komando bat bidali zuten Madrilera, eta milioi erdi pezeta eman zituzten hiru operazio egiteko: Moncloako jauregiaren kontra granada bat jaurtitzea, José Luis Álvarez Álvarez, Garraio eta Komunikazio ministroa, bahitzea eta Landelino Lavilla, Diputatuen Kongresuko presidentea, hiltzea. Haietako baten testigantza arabera, terroristek «behin baino gehiagotan» zaindu zuten Lavilla, eta «nahiko zehatz ezarri zuten etxetik irteteko ordutegia eta egiten zuten ibilbidea». Aukeratua zuten magnizidioa egiteko tokia, «ibilgailu baten barruan bi karga huts jarritz, urrutitik irratiz leherraraziko zituztenak, Kongresuko lehendakariaren autoa haren paretik igarotzen zenean». Ekintza 1981eko otsailaren hasierarako zegoen prestatuta, baina ezin izan zen egin Lavilla hiriburutik kanpo zegoelako, hil horren 6tik 9ra Palma Mallorcakoan egiten ari zen UCDren II. Kongresura joana baitzen. Gainera, komandoak jaso beharreko lehegailuen bidalketa atzeratu egin zen arrazoi ezezagunengatik. Hala ere, aldi baterako atzerapena baino ez zen. Lavillaren hilketa-planak azken minutura arte iraun zuen⁵³.

Otsailaren 13an, Joseba Arregi ETAm-ko kidea hil zen ospitale batean, DGSeko polizia-agenteen eskutik jasandako torturen ondorioz. EIAk publikoki salatu zuen kasua. Beste greba orokor bat eta hainbat manifestazio izan ziren: bat indar demokratikoen deitu zuten, eta beste bat HBk eta ezker muturrak. Diputatuen Kongresuan Bandresen Calvo-Sotelori esan zion: «Une honetan Ganbera bitan banatuko bagenu, lerro bat marraztuz eta torturatuak eta torturatuak alde batera eta bestera jarritz, ni lehenengoan artean egongo nintzateke, eta zu bigarrenen artean. Eta torturatuok ezin izango dugu inoiz torturatuak alde bozkatu». Hala ere, HBk eta bere sateliteek sinatutako komunikatu batek Arregiren heriotzaren errua «EAJ, PSOE, PCE, EE alderdi politikoei eta Eusko Jaurlaritzari» egotzi zien⁵⁴.

Otsailaren 19ko gauean ETApM-ko kideak Austria eta Uruguaiako kontsulak bahitu zituzten Bilbon, eta El Salvadorkoa Iruñean. «Disuasio-aldiaren» bigarren ekintza lehenengo bezain alferrikakoa izan zen. Handik egun gutxira, otsailaren 23ko estatu-kolpea gertatu zen: Antonio Tejero teniente koronela buru zuen guardia zibil talde bat Kongresuan oldarka sartu zen, diputatuak, tartean Bandres, Leopoldo Calvo-Sotelo Gobernuko presidentea izendatzeko bilduta zeudenean. Valentzian, III. Eskualde Militarreko kapitain jenerala zen Jaime Milans del Boschek salbuespen egoera aldarrikatu eta tankeak kalera atera zituen. ETApM-ko liderretako baten esanetan, «hori bai zela benetako disuasioa»⁵⁵.

Amaiera izan zitekeen. Ordu batzuetan, demokrazia hari batetik zintzilik egon zen. Ez zen hautsi, egun hartan Juan Carlos I.a erregeak bere autoritatea baliarazi zuelako, eta geroago Espainiako herritarren manifestazioek eta botoak argi utzi zutelako ez zegoela iraganera itzultzeko prest. Polimili eta *euskadiko* askorentzat O-23 errealitate bainu bat izan zen. Askatu eta hurrengo

hilabeteen, Bandresek honako hau adierazi zuen: «jakina, zerbait aldatu da, ni aldatu egin naiz. Konturatu gara lehenik eta behin demokrazia finkatu behar dela, eta, gero, gainerako guztia (...). Ez zaie funtsezko printzipioei uko egin behar, baina aurreko jarrera politiko batzuk adimenez berrikusi behar dira». Alderdiko Batzorde Betearazleak Juan Carlos I.a erregeak estatu-kolpea bertan behera uzteko izan zuen zeregin erabakigarria aitortu zuen. Lavillak, Kongresuko presidenteak, hurrengo saioan erregeari aipamena egin zionean, Bandresek gorespen orokorrarekin bat egin zuen: «maitasun adierazpen bat izan zen (...). Erregeak txalo zaparrada merezi zuen. Eskerrak emateko ageriko arrazoiak daudela iruditzen zait»⁵⁶.

Tejero teniente koronelaren saiakerak zentzua kendu zion ETApM-ren «disuasio-aldiari». Otsailaren 24an, Lavilla hiltzeko Madrilgo komandoaren ardura-dunak taldearen Batzorde Betearazlearen telefono-dei bat jaso zuen, «aurreko egunean izandako gertaeren ondorioz jarduerak erabat gelditze» aginduz. EIAk eskatuta, ETApM-k bahitu zituen kontsulak askatu zituen. Otsailaren 27an erakundeak «su-etena» iragarri zuen, «Euskadik dituen premiazko arazoei» buruz «indar politikoen arteko akordioa» errazteko. ETArekin historiako lehen su-eten ofiziala zen. Hala ere, polimilien komunikatuak ohartarazten zuenez, «horrek ez du inola ere esan nahi borroka armatua desagertu denik»⁵⁷.

VIII. SU-ETENA

ETApM-k su-etenerarekin bat egitera gonbidatu zituenean, ETAm eta KAAek ezezko borobila eman zioten. Polimilien buletin baten arabera, miliek «ez zutela ezer jakin nahi, ez zeudela inolako eztabaidarako prest» erantzun zuten. Bere diskurtsoaren eta errealitatearen arteko kontraesanetan harrapatuta, ETAm-k «auto-kolpe» gisa interpretatu zuen otsailaren 23a, sortzen ari zen «ezker abertzalea» desagerrarazteko helburuarekin, eta ez zuen onartu eurek egindako militarren, guardia zibilen eta polizien hilketa-kanpaina justifikazio nagusizat erabili zutela konspiratzaileek. Ikuspegi distorsionatu hori kontuan hartuta, ez da harriztekoa miliek uniformeko funtzionarioak berriro hiltzeko presa izatea: martxoaren 5ean José Luis Raimundo komisarioa, martxoaren 19an Ramón Romeo Rotaache teniente koronela, martxoaren 21ean José Luis Prieto teniente koronel erretiratu... Hilketek EIArekin gaitzespena eragin zuten: «Armada zirikatuta nahi al duzue eta kolpisten arrazoiak justifikatu? (...) Akaso, proposatzen diguzue ez al da odola, izerdia eta malkoak baino?». Beste ohar batean *euskadikoek* «bakearen hiltzaileek bakean utz gaitzate» eskatzen zuten. Jakina, miliek ez zieten jaramonik egin. Gainera, HBk Onaindiaren eta Gobernuaren arteko elkarrizketaren aurka egin zuen. Jon Idigorasek EERI «Euskadin elementu arriskutsua eta nahasmenduzkoa» izatea leporatu zion; Txomin Ziloagarentzat, berriz, Onaindiaren alderdia «aldapa erreformistatik erortzen ari da, eta desertziora darama». *Punto y Horak* «likidazio» gisa aurkeztu zuen polimilien su-etena, «armak baldintzarik gabe uzten zituztelako»⁵⁸.

Zalantzarik gabe, horrelako mezuek nolabaiteko presioa eragiten zioten ETApM-ko militantziari. Era berean, komunikabide batzuek eta EAJko sektore batek zalantzak agertu zituzten taldearen asmoen inguruan. Beren arrazoiak zituzten: ETApM-k Luis Suñer industrialari valentziarra bahitu zuen 1981eko urtarrilean, eta, su-etena egon arren, apirilaren 14ra arte ez zuen askatu, familiarak erreskate handi bat ordaindu ondoren. Egun horretan bertan atxilotu zuten Frantziako muga Perico Ruiz Balerdi, abokatu eta Donostiako alkateordea EErengatik, polimilien eta Suñer familiaren arteko bitartekari gisa jardun zuena. Diruaren zati bat zeraman gainean. Izan ere, Espainiako Segurtasun Indar eta Kidegoek ez zuten inoiz beren lana eten: ETApM-ko ustezko kide eta laguntzaileak atxilotzen jarraitu zuten. Hala eta guztiz ere, Onaindiaren alderdia batzuen eta besteen erresistentzietan aurre egiten saiatu zen, «Eman aukera bakeari» kanpainaren bidez. Kanpaina horren barruan, indarkeria terroristari ikuspegi etiko batetik egindako lehen kritika agertu zen: «Ez ditugu independentzia eta sozialismoa nahi edozein preziotan, ez terrorrean eta hilketan oinarrituta. Ezkerrak bere argudioen, bere arrazoiaren indarrean sinesten du. Argudio-rik gabeko indarra erreakzioa da». Era berean, apirilean, EIAk Aberri Eguna ospatu zuen, «Euskadi eraikitzea tolerantzia, errespetu eta elkarrizketa giroan bizitzea da» lelopean. Ekainean, Onaindiak azaldu zuen «ETArekin ez gaituela ezerk lotzen», eta hurrengo hilabeteen honako hau argudiatu zuen: «Eztabaidagarria baino zerbait gehiago da demokrazia-egoera batean borroka armatua ikuspuntu moral batetik justifikatzen saiatzea. Baina justifikagarria balitz ere, politikoki negatiboa dela uste dut».⁵⁹

Onaindiak eta Bandresek (ETApM-k haiengan delegatu zuen bere ordezkaritza) Calvo-Sotelo presidentearen gobernu berriarekin hitz egiten jarraitu zuten, zeinak Rosón berretsi zuen Barne ministro gisa. EEko buruzagiek erakunde terroristak desegingo zen ziurtasunik ez zuten arren, amaiera hura saihestezina zela ziurtzat joko balute bezala jokatu zuten. Horrela, Onaindiaren hitzetan, negoziazioak «zelestinaje modu bat izan ziren. Eta zelestinaje on guztietan bezala, engainatu egiten dituzu batzuk eta besteak, gauzak benetan zirenak baino errazagoak zirela sinestarazi nahian». Bandresen ondorengo irizpenaren arabera, Rosón «solaskide oso baliotsua izan zen, eta ETApM-ko militanteei alferrikako umiliaziorik eragingo ez zien konponbide transakzionalera iritsi nahi zuten». «Erbesteratuen» eta espetxeratuen zerrendak idatzi ziren. «Bilera horietan adosten zena mezatarak joaten zen, Calvo-Soteloren oniritziarekin ere»⁶⁰.

ETApM-ren zuzendaritzak, non pragmatikoak gehiengoak ziren, iragarri zuenez, «boterearekin harremanetan gaude (...) Aurreikuspen oso onak daude presoen irteerari eta kartzelako egoerari dagokienez». Hala ere, aurrerapenak diskretuak eta oso motelak izan ziren. Azken finean, Onaindiaren promesetatik haratago, Rosónek zuen frogak sendo bakarra su-etenaren adierazpen bat zen, non taldeak espresuki ukatzen baitzuen bere «desagerpena». Gobernuak lehen preso polimilia indultatu zuenerako, erakunde bitan zatitua zen⁶¹.

Bestalde, ETApM-k nahi zuen Euskadiren «premiazko arazoei» buruzko ituna ez zen inoiz egin. EIA-EEK eta Espainiako Gobernuak ez zuten konpentsazio

politikorik negoziatu banda desegitearen truke, polimilien birgizarteratzeari buruzko gai teknikoak baizik. *Euskadikoek* uste zuten beren aldarrikapenei buruzko eztabaida erakunde demokratikoetan garatu behar zela, baina erakunde horietan presentzia txikia zuten. Onaindiaren esanetan, *euskadikoen*, sozialisten eta jeltzaleen arteko bilera batzuk izan ziren, eta «ez zuten inolako fruiturik eman. Aitortu beharra dago, egiaren ohoretan, akordiorik lortu ez bazen, ez zela PSOEren jarreragatik izan, EAJren jarrera ez irekiagatik eta ez negoziatzaileagatik baizik». Haren ustez, jeltzaleak berean tematu ziren EEk «ordainik eskaintzen ez zuelako»⁶².

Ezker Berriak Onaindiaren autoritatea andeatzeko erabili zuen porrot hori. Biltzar Ttipian Bixente Serrano Izko kritikoak «negoziatutako konponbidearen» balantzea «erabat negatiboa» izan zela onartzeko eskatu zuen. Gainera, EIAk ETApM-ren balizko disoluzioan parterik ez hartzea espero zuen. Martin Auzmendik polimiliei «su-etenaren haustura eskatzea» leporatu zion. Egia ez bazen ere, hitz horiek nahiko ondo islatzen dute EIAko sektore nagusiaren ikuspuntua Ezker Berriaren asmoei dagokienez; izan ere, BTko 26 kide baino ez zituen, eta 43k Onaindiaren kudeaketa babesten zuten. Organo hark onartu egin zuen EIAk ETApM-ri mezu «isilpekoa eta ez publikoa» helaraztea: «behar-beharrezkoa zen su-etenari eustea», horrek «politika oso positiboa ahalbidetu baitzuen, bai EErentzat, bai langile-klase osoarentzat eta euskal herritarrentzat»⁶³.

1982ko martxoan, EIAk, PCE-EPKren sektore nagusiak, ESEI kolektiboak eta pertsona independente batzuek bat egin zuten Euskadiko Ezkerra-Izquierda por el Socialismo alderdi berria sortzeko. Sorrerako Kongresuak Mario Onaindia hautatu zuen idazkari nagusi, eta Juan Astigarrabia, Gerra Zibileko Eusko Jaurlaritzako kontseilari izandako buruzagi komunista ohia, lehendakari. Sozialismoa eta nazionalismoa bateratuz, eta bide legal hutsetatik, EEren etorkizuna Konstituzioaren erreforma bat zen, Espainia Estatu federal bihurtzeko. Epe laburrean, premiazkoa zen autonomia estatutuaren garapen aurrerakoi eta demokratikoa defendatzea, bai eta ideologia nazionalista berritzea eta arrazionalizatzea ere, haren «ezaugarri baztertzaleak» ezabatuz. Bigarren Errepublikako EAE-ANVren bideari jarraituz, Euskadiko Ezkerrak nazionalismo heterodoxo mota bat besarkatu zuen: ez aranista, autonomista, aurrerakoia eta integratzailea⁶⁴.

IX. ETAPM-REN HAUSTURA

1981ean zehar, erakundeko bi korronteez eztabaida bizia izan zuten euren etorkizunari buruz, eta EIAko lider batzuek ere parte hartu zuten. Prozedura horren azken arrazoia, bandaren goi-karguek adierazi zuten, «inork bereziaren errepikatzen saiatzea eragozte» zen⁶⁵. ETApM-ren fakzio gogorrek armetara itzultzeko eskatu zuen, Ezker Berria taldeak egin bezala, kontrapartida politikorik ez zegoela argudiatuz. Gobernuarekiko errezeloa ez ezik, Onaindiaren taldearekikoa ere bazen. Era berean, EIAren eta PCE-EPKren arteko konbergentzia susmo handiz ikusten zen. Gogorrek ulertzen zuten Ezker Berria «EEren

pm aukera» zela. Edo haren zubi-burua ere bai alderdian; izan ere, ikuspegi pretoriar batetik, gogorrek Ezker Berria erabiltzea proposatu zuten ETApM-k EIAren esku-kolpe bat emateko eta Onaindiarena baino otzanagoa zen beste zuzendaritza batengatik ordezkatzeko. Aitzitik, pragmatikoen uko egiten zioten su-etena hausteari, eta alderdiaren nagusitasuna defendatzen zuten, haren zuzendaritzarekin bat baitzetozen erabat. Polimili posibilstetako batek honako hau utzi zuen erortzen: «orain arte garatu diren borroka armatuek gailurrak izan dituzte, une positiboak, baina, oro har, porrotera joan dira (...). Politika egiteko modu egonkor bat inposatuko da». Otsailaren 23aren ondoren, gainera, onartu beharra zegoen atentatuen ondorio bakarra kolpistak bultzatzea zela. Laburbilduz, hauxe zen eztabaidaren funtsa, erabaki beharrekoa: ETApM-k indarkeria terroristari berriro ekiten zion eta, ondorioz, Onaindiaren EIAren aurka matxinatzen zen edo desaktibatzen joatea onartzen zuen⁶⁶.

Barne desadostasunei arazo logistikoak gehitu zitzaizkien. 1981eko abenduaren amaieran, su-etenaren ondorioz diru-sarrerarik ez zegoenez, ETApM-k «bere burua hornitu» nahi izan zuen, eta Julio Iglesias doktorea, izen bereko abeslariaren aita, bahitu zuen. Operazioa desastre hutsa izan zen: 1982ko urtarriean Estatu Segurtasun Indar eta Kidegoek bahitua askatu zuten. Banda operazioa justifikatzen saiatu zen, «su-etenaren erabakia ez duela aldatzen» esanez, baina EIAk irmo gaitzetsi zuen. Gainera, hilabete horretan bertan, Estatu Segurtasun Indar eta Kidegoek 356 su-armaz eta 50 kilo lehergaiz osatutako armategi bat aurkitu zuten Erandioko baserri batean. Bi istilu horietako edozeinek eten zitzakeen Madrilgo elkarrizketak, baina, Rosónen arabera, «EEk eragin handia izan zuen ETApM-rengan indarkeriazko gertakariak saihesteko; eta, baten bat gertatuz gero, guk, Barne Ministerioak, arindu egiten genuen oihartzuna iritzi publikoan. Elkarlan tematu eta zintzo horrek elkarrenganako konfiantzan txertatu gintuen leialtasun handiz. Eta arrakastatsua izan zen»⁶⁷.

Hala ere, Onaindiaren eta Rosónen arteko sintoniak ezin zuten eragotzi polimilien arteko harreman pertsonalak gaiztotzea. Beterano batek honela deskribatzen zuen 1982ko hasierako giroa: «Denak desbideratu gara txutxu-mutxu lotsagarrienera, eta mesfidantzak gure baitan hondoratu ditu bere sustraiak. Hau ez da orain gutxi arte ezagutu uste nuen erakundea. Hau nazkagarria da. Minbizi usaina du». «ETAren doktrina-garbitasunaren Torquemadak» agertzen ziren, «eta pastela banatzeko prest daude. Taldexkak eta klub pribatuak sortzen dira». Era berean, testuak honela jarraitzen zuten: «Egoera hainbesteraino iritsi da, non askori bandoen arteko definizioa besterik ez zaio interesatzen. Hirugarren pertsona bati militante jakin baten jarrerari buruz galdetzen zaio, ez berak zer pentsatzen duen edo zer esan behar duen. Izenen zerrendak egiten dira, ez ideienak». Aurreko aldietan ETAn gertatu zen bezala, egiten ari ziren hausnarketa teorikoak kontuan hartu baino gehiago, erakundeko aktibistek korrante baten edo bestearen alde egiten zuten beste bulkada mota batzuetan oinarrituta: ETAm-ren adibidea, «borroka armatuaren» bideragarritasuna frogatzen zuela zirudiena, iragan indibidual eta kolektiboaren autokritika egiteak dakarren zailtasun psikologikoa, emozioetara jotzen zuten argudioak (hala nola

«traizio» eta «likidazio» akusazioak), eta norberaren filia eta fobia partikularrak». Adiskidetasuna (edo etsaitasuna) eta leialtasun pertsonalak askoz gehiago kotizatzen ziren desadostasun estrategiko edo doktrinalak baino. Adibide argigarri bat jartzearen, kartzela bakoitzeko polimili komunak ildo batekin edo bestearekin kokatzen ziren, tokiko buruzagiari jarraituz⁶⁸.

ETApm-ren zisman pisu handiena izan zuen kanpoko elementuetako bat Xabier Arzalluzen hitzaldia izan zen, EAJko beste ordezkari batzuekin batera hiru bilera egin baitzituen taldeko buruzagitzarekin. Lehenengoan, 1981eko martxokoa, Arzalluz ezkor agertu zen prozesu autonomikoaren perspektiben inguruan, Autonomia Prozesua Harmonizatzeko Lege Organikoari (LOAPA) egotzen zion mehatxuagatik. Agurraren orduan Arzalluzek honako esaldi hau esan zuen, iritsi zaizkigun bertsio desberdinen arabera: «Guk LOAParen aurkako kanpaina egingo dugu; badakizue zer dagokizuen zuei», «zuei gero tokatzen zaizue» edo «zuek jakingo duzue zer egin behar duzuen». Nolanahi ere, mota guztietako interpretazioak bideratzeko moduko mezu anbigua zen. Juan Miguel Goiburuk gogoratzen duenez, igogailura iritsi orduko, ETApm-ko ordezkariak eztabaidan hasi ziren jeltzalearen hitzen esanahiari buruz. Gogorrek zioten «borroka armatua» berriz hastea iradoki zela, eta pragmatikoen berriz, ez zela egia⁶⁹.

1981eko abuztuaren 20an Arzalluzek bigarren topaketa bat izan zuen ETApm-rekin, baina ez taldearen goi-kargu guztiekin, baizik eta alderdi gogorreko buruekin bakarrik. Bileran bi aldiz klandestinoak izan zen, eta ez dakigu ez zertaz hitz egin zen, ez zergatik jarri zitzairen betoa polimili pragmatikoei, ez baitzuten bileran horren berri izan lau urte gerora arte. Hirugarren bileran, erakundeko bi korrontek parte hartu zuten, eta NATOr buruz eztabaidatu zen⁷⁰.

1981ean zehar, ETApm-ren korronte gogorak Arzalluzek terrorismoari eman ziezaiokeen babesa pragmatikoen aurkako *azken ratio* gisa erabili zuen. Taldearen barne-dokumentazioan gai horri buruzko aipamen ugari daude, eta hala dela baieztatzen dute: «Garaikoetxeak eta Arzalluzek iradoki egin dute, esku-hartze armatua, zalantzan jarri dute erakunde hori geldirik egotea». *Teo Uriartek* bere oroitzapenetan dioenez, Ipar Euskal Herrira askotan bidaiatu ondoren, polimiliak demokrazia parlamentarioaren onuraz konbentzitzera, egun batean «irmoago egin zioten aurre». Pozik ez zeuden ETApm-ko ekintzaileek buruzagi jeltzaleak indarkeriaren alde egindako ustezko akuilatzea aipatu zuten. «Argi zegoen Arzalluzen hitzek nireek baino askoz autoritate handiagoa zutela». Laburbilduz, EAJren buruzagiaren benetako asmoa edozein zela ere, egia esan, gogorrek haren ustezko babesa erabili zuten barne-balantza bere alde egiteko. Fernando López Castilloren (*Peke*) iritziz, argudio hori «erabakigarria izan zen erabat»⁷¹.

ETApm-ko bi fakzioek txosten bana aurkeztu zuten VIII. Batzarrean. Oso kritikoa *Perturren* tesiekin, EIAren bilakaerarekin, PCE-EPKrekin bateratzearekin, Trantsizioan eta su-etenean izandako estrategia polimiliarekin; gogorren testuak ETApm-k mili erdua kopiatzea proposatzen zuen: alderdia talde terroristaren aginduetara jarri behar zen. Bestalde, lehenbailehen hautsi behar zen

su-etena. Pragmatikoen proposatzen zutenaren kontrakoak zen; izan ere, Euskadik Gernikako Estatutuaren «jauzi kualitatiboa» eta instituzionalizazio autonomikoa lortu ondoren, «beharrezkoa zen masei protagonismoa ematea». Eta azken horiek «borroka armatua» gero eta gutxiago gustatzen zitzaizela erakutsi zuten. Ondorioz, ETApm-k, su-etinari eusteaz gain, «birmoldaketa» egin behar zuten ezkutuko erakunde gisa, «O-23 edo antzeko ezaugarriak dituen kolpe bat» edo «Estatuaren aparatuetatik ezkerren nagusitasuna erasotzen denean» bakarrik aktibatzeke. «Birmoldaketaren» ondorioz, ikuspegi berriak zabalduko ziren ETApm-rentzat, eta horietako bat «desegite ofiziala ere planteatzea» zen⁷².

1982ko otsailean Landetan (Frantzia) egin zen VIII. Batzarrean, gogorren txostenak botoen % 70-75 inguru bildu zituen, eta pragmatikoenak, berriz, % 25-30. Lehenengoan garaipena izugarria izan bazen ere, esperientzia zuten koadro eta buruzagi gehienek bigarrenen aldeko apustua egin zuten. Gainera, logikoaenez, batzarrean ezin izan zuten beren iritzia eman taldeko presoen, eta gehienek gizarteratzeari heldu zioten gero. Denborarekin, testu irabazleari botoa eman zioten askok ere halaxe egingo zuten. Nolanahi ere, VIII. Batzarrean bandaren behin betiko banaketa antzeztu zen. Fakzioak banandu egin ziren, eta erakunde independenteak eratu zituzten: bi ETApm berri. Pragmatikoak ETApm VII Batzarra edo *zazpikoak* bezala ezagutu zituzten. Gogorrek ETApm VIII Batzarra edo *zortzikoak* izena hartu zuten⁷³.

X. ZORTZIKOAK ETA MILIKIAK ARMETARA ITZULTZEA

VIII Batzarra egin aurretik ere, taldeko bi sektoreak ETApm-ko armak eskuratzen saiatu ziren. Posibilistek aurrea hartu zieten aurkariei, eta ezkutalekuak (zuloak) hustu zituzten. Ondoren, bi taldeek material-trukea negoziatu zuten: zortzikoak armamentuarekin geratu ziren; zazpikoek, aldiz, nahiago izan zituzten autoak, pisuak eta dirua, Fernando López Castilloren esanetan, «etxera itzuli arteko urteei eutsi ahal izateko»⁷⁴.

Dirurik ez zegoenez, ETApm VIII Batzarrek, Josu Abrisketa (*Txutxo*) eta Arnaldo Otegi buru zituela, dozena erdi bat enpresari bahitu zituen, eta 302 milioi pezeta eskuratu zituzten. 1982ko udan, zortzikoek hiru pertsona bahitu zituzten jarraian. Lehenik, Luis Allende Porrúa odontologoa. Gatibutzaren estresa izan zen gerora pankreako minbizia eragin zion arrazoietakoa bat, eta 1983ko otsailaren 20an hil zen. Bigarrenik, Miren Elósegui, Tolosako *Boinas Elósegui*ren jabearen alaba eta enpresa horretako gerentearen emaztea. ETAK bere historia osoan bahitu duen emakume bakarra da. Hirugarrenik, Rafael Abaitua industrialaria⁷⁵.

1982ko azaroaren 14an, ETApm VIII Batzarrek Saturnino Orbegozo atzeman zuen, siderurgia enpresa bateko arduraduna, eta bere bizitzaren truke 600 milioi pezeta eskatu zituen. Abenduaren 30ean Guardia Zibilak bahitua erreskatatu zuen. Ezbehar hura, seguraski, estortsioa berriz hasteko erabakiaren atzean egon zen. 1983ko hasieran, zortzikoek iragarri zuten «isun iraultzaileak oso modu

selektiboan erreklamatu» zituztela berriro. «Eta garrantzitsua da guretzat burgesiak langileriari kentzen dion gainbalioaren zati bat berreskuratzea»⁷⁶.

Bahiketen eta estortsioaren bidez lortutako diruari esker, ETAp VIII.ak (eta haren zatiketek) 79 atentatu egin zituen 1982 eta 1984 bitartean. Lehenengo ekintza Suministros Eléctricos enpresaren aurkako bonba bat izan zen, 1982ko martxoan. Atentatu horrek EEren jarraibideekin talka egiten bazuen ere, erakunde terroristak «babes kritikoa» mantendu zion alderdiari denbora batez. Hala ere, euren benetako helburua Ezker Berria EEren kontrola hartzeko erabiltzea zen. Kongresu eratzailan, zortzikoek Onaindiaren aurkako propaganda kritikoz bete zuten aretoa, eta ETAko zenbait presok «damutuen» eta «suetena Erakunde politiko-militarra likidatzeko baliatu nahi izan zutenen» aurka idatzitako gutun bat irakurtzea ere lortu zuten. Baina bandaren taktikak ezin izan zuen eragotzi Ezker Berria EEko Kongresuan garaituta irtetea. Kongresu horretan, besteak beste, bide baketsuen eta su-etenari eustearen alde egin zen⁷⁷.

1982ko uztailan ETAp VIII.ak 27 atentatu egin zituen. Urrian, dozena erdi gehiago. Horietako bat sarraskia izan zitekeen. 26an, granada-jaurtigailu batekin, M16 batekin eta subfusil batekin armatutako komando batek segada bat prestatu zion Polizia Nazionalaren bi tanketa zeramatzan konboi bati, Bilboko San Adrian auzoaren alderrietatik igaro behar zuena. Terroristetako batek, «tankeak ikusita, granada-jaurtigailuarekin tiro egin zuen, baina jaurtigaiak bere helburua huts egin, eta polizia-konboiaren aurreko kamioi bati eman zion, eta, bitartean, adierazpen-egileak, fusil metrailadorearekin armaturik, tanketetako baten aurka tiro egin zuen». Ez zen hildakorik izan. Hilabete horretan bertan, taldeak EErekin mozten zuela iragarri zuen, baina alderdia bere etengabeke diatriben xede egiten jarraitu zuen. Onaindiak zera erantzungo zien: «ez dugu epailerik onartzen, ezta pistola batekin armatutako ezein gaztek bere ildo politiko eta ideologikoa inposatzen saiatzerik ere. Bestalde, argi dago euskal gizartea haietaz potroetaraino dagoela». Ezin zenez EE izan, zortzikoak beste adar politiko bat eskuratzen saiatu ziren. Hala, begi onez ikusi zuten Ezker Berria zatitzea, eta HBko talde bananduekin eta ezker muturreko hondakinekin bat egitera animatu zuten, «ezker abertzalearen bloke historiko berri bat» osatzeko⁷⁸.

Izan ere, Ezker Berriak era horretako zeharkako aliantza baten alde egin zuen, eta koalizio iragankor bat sortu zuen, Auzolan izeneko (1983-1985). Hala ere, EEtik banandutako kolektiboko bozeramaileek uko egin zioten ETAp VIII Batzarraren transmisio-uhale gisa jokatzeari. Zortzikoek nahigaberako, Iñaki Albistur eta Iñaki Mujika Arregi «borroka armatuaren, bahiketen, zerga iraultzaileen eta abarren aurka» agertu ziren. «Politikoki borrokatzeko apustua egin dugu»⁷⁹.

Estaldura politiko eta elektoralik gabe, euskal nazionalismo erradikalak gaitzetsiak, sozialki isolatuak, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek presionatuak eta kide ohien birgizarteratzeak desmoralizatuak, zortzikoek etorkizuna oso esperantzagarria izatetik urrun zegoen. Beraz, aurreraka ihes egiten hasi ziren. Txutxo Abrisketaren hitzetan, «errepresioak gogor jo gintuen, aliatu

politikoak ikaratuta zeuden, eta, hala eta guztiz ere, erasoaldi gogor bat jo genuen etsi-etsian 1983an»⁸⁰.

Euren helburua «damu-politikaren ospea belztea, hura desmuntatzea eta deuseztatzea» zen. Sekulako porrota izan zen. Zortzikoek atentatuek ez zuten zarpikoen birgizarteratzea eragozteko lortu, eta haietako askok prozesu horri heldu zioten, edo ondoren Joseba Azkarraga EAJko senatariak bultzatu zuenari. Ondorioz, kartzelak preso polimiliz husten joan ziren: 1983ko erdialdean 75 zeuden, eta 1985ean 15 menderaezin baino ez ziren geratzen. Desertzioak, atxiloketak eta deportazioak zirela eta, ETAp VIII Batzarra azukre kokor bat bezala desegiten ari zen⁸¹.

Bandaren barruan desadostasunak agertu ziren berriro. Sektore batek uste zuen biziraupen organikoa ezinezkoa zela, eta bere aukera bakarra ETAm-n integratzea zela. Beste batek nahiago zuen ETAp VIII Batzar gisa jarraitu. Talde arerioan sartzeko eskaerak, miliei «arrazoia ematea» suposatzeaz gain, haietako batek gogoratzen zuen bezala, esan nahi zuen «nire borroka guztiak, nire historia osoak, ez duela ezertarako balio izan». Arnaldo Otegiren arabera, «askok esaten zuten planteamendu politikoarekin bat zetozela, baina miliekin joatea ezinezkoa egiten zitzaizela. Hurbilegi zegoen, batez ere Iparraldean, liskar fisikoen eta hitzekoen egoera (...) Batzuek esaten ziguten «nola da posible orain ni eraso didanarekin egotea, puta semea, damutua edo traidorea deitzen zidanarekin?». Beren desadostasun estrategiko gaindiezinen ondorioz, bi korrontek 1983. urtearen hasieran banandu ziren. Erakunde autonomo gisa mantentzearen aldekoek izen berari eutsi zioten, ETAp VIII Batzarra, baina ETAm-era hurbiltzeko apustua egiten zutenak, hogeitatu bat gutxi gorabehera, ETAp VIII KASen aldeko Batzarra edo *milikiak* bezala ezagutuak izatera pasa ziren⁸².

Miliekiek ETAn sartzea eskatu zuten, baina lehenago atentatuak egiteko gaitasuna zutela frogatzea, ETAp-ren historiari uko egitea eta onarpen-eskaera banaka egitea eskatu zitzaizkien. Eskakizun horiek jarraituz, ETAp VIII KASen aldeko Batzarrak zazpi atentatu egin zituen, eta horietako batek, Laredoko (Kantabria) Guardia Zibilaren kuartel-etxearen aurka zuzenduta, bost zauritu eragin zituen, horien artean bi neskatu. 1984ko otsailan miliekiek, «8 urteko historia-zen zapora mingotsarekin», beren desegitea iragarri, eta «ETAren [...] esanetara» jarri ziren «banaka, horrek dakartzen ondorio guztiak onartuz». Zentzu hertsian, milikiak izan ziren damututako polimili ohi bakarrak: publikoki egin zuten «gure ibilbide politiko okerraren autokritika eta praktika zintzo eta hausnartua, eta, azkenean, horrek KASen alternatiba taktiko-estrategikoa onartzera eta euskal prozesu iraultzailearen barruan berriz bideratzera eraman gaitu». Horietako pare batek protagonismo nabarmena izango zuten euskal nazionalismo erradikalaren barruan: Arnaldo Otegik eta Francisco Javier López Peñak (*Thierry*)⁸³.

1983ko urriaren 5ean, Bergako kuartelaren aurkako erasoaren epaiketa hasi zenean, ETAp VIII Batzarrak Alberto Martín Barrios Farmaziako kapitaina bahitu zuen. Handik bi aste hil zuten. Ordutik aurrera, zortzikoak etengabe atxilotu zituzten. 1984. urtearen amaieran, Ángeles Escrivaren arabera, taldeak

18 kide baino ez zituen. Aipagarrienak, *Txutxo* Abrisketa kasu, Frantziatik kanpo deportatu zituzten. ETAp VIII Batzarreko azken komandoa 1985eko martxoan erori zen. Urte hartako udan zortzikoek zazpikoak eta EEko Batzorde Betearazlea mehatxatu zituztenean, Kepa Aulestia idazkari nagusiak erantzun zien ezin zitzaiola beldurrik izan «komunikatuak baino tiro egiten ez dituen» erakunde bati. Laurogeita hamarreko hamarkadan, ETAm-k eta bere inguru-neak ETAp VIII Batzarraren hondakinak fagozitu zituzten⁸⁴.

XI. ZAZPIKOEN BIRGIZARTERATZEA

ETAp VII Batzarrak VII. Batzarraren bigarren zatia ospatu zuen, eta bertan gerrilla latinoamerikarretara boluntarioak bidaltzea erabaki zen, esperientzia belikoa metatzeko helburuarekin. Horrela, zazpikoak koherenteak izaten ari ziren erakundearen historian bereizgarri izan zen elkartasun internazionalistaren erretorikarekin. Neurri horrek, gainera, erakusten zuen ez zutela fedea galdu «borroka armatuan», baizik eta soilik Euskadiko egoera zehatzetan aplikatzean. Ez da harritzekoa, beraz, Atlantikoa zeharkatu zuten zortziko batzuk han geratu izana borrokan⁸⁵.

Hala ere, ETAp VII Batzarreko kide gehienek Frantzian jarraitu zuten. Han denbora luzea izan zuten beren etorkizunaz hausnartzeko. Zazpikoek ondorioztatu zuten beren «gerra» amaitu zela. Irailean, ETAp VII Batzarreko buruek prentsaurrekoa eman zuten, eta lehen aldiz agertu ziren kaputxarrik gabe. Bonba abisu baten berri ematen zuen dei anonimo bat ekitaldia zapuzten saiatu zen, baina inor ez zen mugitu bere lekutik. Joseba Aulestiak (*Zotza*) «hitz egitera etorri gara, eta ez gara hemendik mugituko» esan zuen irmotasunez. Mezua sinplea baina garrantzitsua zen: ETAp VII Batzarraren autodesegitea. Agurra Biarritzen (Ipar Euskal Herria) egindako afari batekin ospatu zen, eta bertan parte hartu zuten bai *euskadikoek* bai polimili ohiek⁸⁶.

Frantzian zazpiko «erbesteratuek» bizitza zibila berreskuratu zuten. Etxerako itzuleraren zain, ikasteari ekin zioten, kirola egiten zuten, lana bilatzen zuten, baita zaintza-negozio bat antolatu ere (legez kanpokoa): Frantziako patruilariak itsasora ateratzen zirenean, polimili ohiek Bizkaiko arrantza-portu bateko kofradiari deitzen zioten telefonoz, eta kofradiak alarma ematen zien Frantziako uretan legez kanpo arrantzan ari ziren itsasontziei. Baina birgizarteratzeak luze jo zuen, eta itxaronaldia betierekoa zela zirudien. ETAp VII Batzarrarekin lerrotatutako presoak 1982. urtearen erdialdera arte ez zituzten Euskal Herriko kartzeletara eramane. Urriaren horietako lau baino ez zituzten behin-behineko askatasunean utzi. Data horretarako Gobernuak hamar «erbesteratu» Espainiara itzultzeko baimena eman zuen. Polimili ohiek, Bandresen gogora ekartzen zuten, hura «apur bat txanpon txikia» zela pentsatu zuten. Atzerapenak zenbait mesfidantza eragin zituen, baina Gobernuak aintzat hartu zuen EEren eskaera batek uxatu zituen: zigor luzeena zuen presoari kondena kommutatu zitzaion. 1982ko hauteskunde orokorren eta Felipe Gonzálezen gobernu

sozialista osatu ondoren, *euskadikoek* nahikoa izan zuten José Barrionuevo Barne ministro berriarekin bilera pare bat egitea, bere aurrekoarekin egindako akordioak mantenduko zirela ziurtatzeko. Trantsizioa erraza izan zen, Barrionuevok ia egunero hitz egiten baitzuen Rosónekkin, gai horri eta beste batzuei buruz aholku eman ziezaion. Lehen legegintzaldian, PSOEn Gobernuak 44 etakide ohi indultatu zituen. Guztira, «erbesteratuak», epaiketaren zain zeuden atxilotuak eta presoak kontuan hartuta, ETAko 250-300 kide ohi birgizarteratu ziren, horien artean zazpikoak eta erakundeko beste adar batzuetako kideak⁸⁷.

Juan Mari Bandresen artxibo pertsonalean 1982tik 1985era bitartean idatzitako preso eta «erbesteratuen» zerrendak gordetzen dira. Zerrenda horiek aldatzen joan ziren kasu batzuk ebatzi eta beste atxikimendu batzuk gehitu zirenean. Adibidez, datarik gabeko batean 87 polimili ohi, zazpi mili eta KAAko kide bat agertzen ziren. 1983ko abuztuko beste batean, «Rosónekkin itzuli» ziren 23 zazpiko zenbatu ziren, eta Barrionuevorenkin 21. Horiei oraindik itzuli ez ziren baina egin zezaketen sei, itzul ezin zitezkeen 30 eta espetxetik ateratako 32 gehitu behar zitzaizkien. 1984ko maiatzaren 15eko nominan, artean itzuli gabe zeuden eta Auzitegi Nazionalean irekitako auziak zituzten lau polimili zeuden, justizia militarrek auzipetutako lau pertsona, indultuaren zain zeuden beste lau eta prozesuan izena eman zuten 15 etakide ohi⁸⁸. Birgizarteratzearen ildo nagusiak Gobernuarekin negoziatu zituztenak Onaindia eta Bandres izan ziren, baina aplikazio praktikoaz EEn afiliatutako bi abokatu arduratu ziren: EIAtik etorritako Arantza Leturiondo eta PCE-EPKtik etorritako Juan Infante. Merezi du euren lanari buruzko ohar labur batzuk ematea. Alde batetik, agintarien laguntza izan zuten, mugitzeko eta kartzeletara sartzeko askatasun osoa eman baitzieten. Gobernuaren laguntzarik gabe, bai eta Estatuko Segurtasun Indarren eta Botere Judizialaren laguntzarik gabe ere, prozesua hondoratu egingo zen. Bestalde, Leturiondok eta Infante *gratis et amore* garatu zituzten beren funtzioak: eskuzabaltasunez eta aisialdian. Azkenik, heriotza-mehatxuak jasan zituzten zortzikoek aldetik⁸⁹.

EEko abokatuek konponbide espezifiko bat bilatu zuten zazpikoak sailka zitezkeen hiru kategorietako bakoitzerako. Atxilotuta zeuden polimili ohiei (epaiketaren zain) behin-behineko askatasuna eman zitzaion, fidantzapean. Geroago, absolbitu egin zituzten, edo haien kausa artxibatu egin zuten. Zigorra kartzelan betetzen zutenak Gobernuak indultatu zituen. «Erbesteratuak» Leturiondo eta Infanteren auto partikularretan eramane zituzten Frantziatik Madrilera. Behin Auzitegi Nazionaleko epailearen aurrean, egozten zizkieten kargu guztien aurrean errugabetzat jotzen zuten bere burua zazpikoek, eta auzi judizialak artxibatzen ziren⁹⁰.

Berezadi ustekabeko biktima izan zen ondorio guztietarako. Mehatxuak jaso eta, beste industrialari batzuei bezala, ETARI hamar milioi pezeta ordaintzeko eskatu zituen arren, berak ere garrantzia kendu zion mehatxu terroristari. «Aita zen lasaitzen gintuena, ez zitzaioela inoiz ezer gertatuko esaten zigun. Oso nazionalista zen, eta, tira», dio Cristina Berazadik, bere sei seme-alabekotako batek. Enpresaria, aitagarrebak sortutako Estarta y Ecnarro (Sigma) enpresako zuzendari gerentea, EAJren jarraitzailea zen. Zarautzen jaioa zen, euskaraz hitz egiten zuen eta euskal kulturaren bultzatzailetzat jotzen zuten: Elgoibar, Zarautz eta Donostian ikastolak martxan jartzea babestu zuen, eta CD Zarautz futbol taldeko lehendakaria izan zen. Bahiketa 20 egunez luzatu zen, martxoaren 18tik apirilaren 8ra bitartean. ETAPm-k berrehun milioi pezeta eskatu zizkion familiari askatzeko. Negoziazioetan, EAJko kideek ordezkatu zituzten Berazaditarrak, eta Xabier Arzalluzek ere esku hartu zuen. Polimilien aldetik, Berezien fakzioirik erradikalena nagusitu zen, barne desadostasunak gorabehera. Bahitzaileetako batek urte batzuk geroago adierazi zuenez, Itziarko (Gipuzkoa) erdigunean zegoen baserri abandonatu bateko ganbaran atxiki zuten enpresaburua, eta herriko zenbait bizilagunek deskubritu egin zituzten. Halaber, bahituarekin harreman adeitsua izan zutela kontatu zuen, bahitzaileentzat janaria prestatu zuela eta Frantziako hegoaldean oturuntza batekin bere askatzea ospatzea adostu zutela. «Okerrena da azkenean adiskidetasuna egiten duzula, eta, orduan...», onartu zuen³⁵.

Bahiketa 20 egunez luzatu zen, martxoaren 18tik apirilaren 8ra, enpresariaren gorpua Elgoibar eta Azpeitia lotzen zituen eskualdeko errepedeko areka batean agertu zenean. Tiro bat zeukan buruan. EAJk lehenengo aldiz gaitzetsi zuen ETAREN hilketa bat, eta Berazadiren krimena «arruntzat» jo, eta adierazi zuen «hor euskalduntasunak ez zuela zerikusirik»³⁶. Hil-kapera Sigmaren lan-tegian jarri zuten, eta hamar mila eta hamabost mila lagun artean joan ziren hiletara³⁷. Egun horretan bertan, Berazadi familiak, María del Carmen Estarta alarguna buru zuela, Euskal Herriatik alde egin zuen. «Maletak ere ez nituen egin. Egun berean aireportura joan ginen, denok batera uda igarotzen genuen lekura, hegoaldera, eta ahal genuen gehien egon ginen bat eginda», azaldu zuen Cristina Berazadik urte batzuk geroago. Ama ez zen inoiz Donostiara itzuli, eta familia, elkartuta egonda ere, «sakabanatu» egin zen. «Nire amak bizitzeari utzi zion», azaldu zuen. Aitaren oroitzapena familiako elkarrizketetan presente

egon zen, baina ez haren heriotzaren inguruabarrak. Izan ere, alabak hogeita hamar urte behar izan zituen non zegoen lurperatua amari galdetzeko³⁸.

Cristina Berazadik elkarrizketa batean kontatu zuenez, aitaren bahiketak iraun zuen egunetatik, bere etxean egondako «polizia sekretu» baten oroitzapen garbia gordetzen zuen: «Egun horietan, lankide bat hil zutela gogoratzen dut, eta haietako bat etxean Biblia irakurtzen gogoratzen dut»³⁹. Baliteke eszena ETAPm-k egun haietan protagonizatu zuen ekintza berri bati buruzkoa izatea. Apirilaren 3an, Donostian lanpostua zuten bi polizia-ikuskatzailek, Jesús María González Ituerok (25 urte) eta José Luis Martínez Martínezek (31 urte), muga zeharkatu zuten Hendaiako Varietés zinemara joateko. Establezimendua- ren inguruan galdu zen haien arrastoa. Pentsaren arabera, agenteen bahiketa ETAREN maniobra bat izan zitekeen, Gobernua Ángel Berazadiren erreskatearen ordainketa ahalbidetzera behartzeko, eta hasiera-hasieratik ETAPm jo zuen erantzuleat⁴⁰. Handik egun gutxira, Frantziako etxebizitza batean aurkitu zuten agenteen dokumentazioa, polimiliek maiz erabiltzen zuten etxe batean. Kasuak 1973an desagertu ziren hiru gazte galiziarren (José Humberto Fouz Escobedo, José Antonio Quiroga Veira eta Jorge Juan García Carneiro) desagertzearekin paralelismoak zituen. Antza denez, poliziekin nahastu eta hil arte torturatu zituzten, eta haien gorpuak ez dira inoiz aurkitu⁴¹. Poliziak desagertu eta urtebetera, 1977ko apirilean, haur batzuek bi gorpu topatu zituzten Angeluko hondartza batean, Biarritzetik gertu. González eta Martínezek ziren bi gorpu horiek, eskuak lotuta zituzten, hatz batzuk moztuta, eta bala zuloak⁴².

2. KOMANDO BEREZIEK BERE KASA EGINDAKO HILKETAK

1977ko maiatzerako, Komando Bereziak bananduta zeuden jada. 1976ko uztailan *Pertur*, ETAPm-ko ideologoa, berezietako liderrekin batera ikusi zuten azkenekoz. Antolaketaren kontrola hartzeko gaitasunik ez zuenez, sektore erradikalena bereizi egin zen, polimilien egituratik independentea zen taldexka bat sortzeko. Bere oinarri politiko eta sozialik ezak bizirik irauteko aukera urruneko bihurtzen zuen, baina kideek, ekintzaile eskarmentudun eta erradikalak izaki, bi atentatu hilgarri egin zituzten: Manuel Orcera de la Cruz poliziaren hilketa eta Javier de Ybarra industrialariaren bahiketa eta ondorengo hilketa. Gainera, bi eguneko tartean egin zuten. 1977ko irailean ETAM-n sartu ziren.

Maiatzaren 18an, Manuel Orcera agentea metrailatu zuten Amarako tren-geltokiaren barruan, Donostian, zerbitzua betetzen ari zela. Ubedakoa (Jaen) zen polizia, eta urtebete zeraman Euskal Herrian. 24 urte bete gabe zituen oraindik, eta 19 urteko neska batekin, Clara Campos Moyarekin, ezkondua zegoen. Urte eta erdiko alaba bat zuten, eta, une horretan oraindik ez zekiten arren, bigarren semearen zain zeuden⁴³. Herreran bizi ziren, alokairua ordaintzeko aukera ematen zien Donostiako eremu bakarrean. Manuelek Clara edozein beldur edo mehatxutatik kanpo mantentzen bazuen ere, Clarak gogoratzen du zein isolatuta bizi ziren: auzokide batekin bakarrik zuen harremana, eta auzoko denda batzuetan uko egiten zioten arreta emateari:

Oso gutxi ateratzen ginen, behin edo bitan joan ginen Donostiara. [...] Egia esan, adibidez, ni arrandegira joaten nintzen, eta Jaenekoa nintzela sumatzen, ez zidaten zerbitzatu nahi. «Legatza nahi dut». «Ez, ez dugu legatzik». «Baina hor ikusten ari naiz», «Ez, baztertuta daukagu». «Orduan emadazu mihi-arrain bat, neskatxarentzat zerbait»... Kuarteleko ekonomatura joan behar izaten genuen gauzak erostera, hura izugarria zen⁴⁴.

Hasieran zauritua izan zela esan bazioten ere, Clarak senarra hil zutela jakin zuen, hainbat lagunek kuartelera bidean polizia-ibilgailu batean eraman zutenean:

Atzeko eserlekuan eserita nindoan, eta irratitik esan zuten: «Aurkitu duzue kidearen alarguna?». Alarguna neu nintzen... Haragia irekitzen zaizu. Kuartelera iritsi nintzenean, hil-kapera aurkitu nuen, eta nire senarra kutxan sartuta. Etsipen batean nengoen... Hura ez zen jada negar egitea, erotzea baizik. Eta ni erabat bakarrik nengoen⁴⁵.

Manuel Orceraren bi hiletak, Donostian egin zenak eta Ubedan egin zenak, hurrengo urteetan iraunkor bihurtuko zen distantzia bat jarri zuten mahai gainean. Euskal Herrian eta Nafarroan ETAREN biktimen hiletak, Trantsizio garaian, urte nahasi haietan bizi ziren tentsio politikoaren eszenifikazio leku bihurtu ziren. Denborak aurrera egin ahala, diskurtso nazionalista erradikalak espazio publikoa konkistatu ahala, gero eta ekintza iragankorragoak eta minoritarioagoak izatera igaro ziren, baita biktimizekiko hoztasun-ariketak eta enpatia sozialik gabekoak ere⁴⁶. Kasu batzuetan, agenteak ofizialki zaurituta helden ziren komandantziatara, horrekin gorpua altxatzeko izapidea eta ondorengo autopsia saihesteko, eta horrek hiletak atzeratzen zituen.

Tramite ia mekanikoa zen: ospitalera eramaten zuten guardia zibilaren gorpua, haren heriotza ziurtatzen zuten, hila janzen zuten, eta, ia konturatu gabe, familia bere lurraldera itzultzen ari zen, bere pertsona maitea hilkutxa batean sartuta zuela, berehala lurperatzeko⁴⁷.

Hori guztia ez zetozen bat biktimen jaioterrietan egiten ziren hiletekin: eraildakoak omentzeko eta familiak babesteko elkarretaratze jendetsuak ziren⁴⁸. Hala gertatu zen Manuel Orceraren kasuan. Bere alargunaren oroitzapenak lauso agertzen dira doluaren lehen ordu haietan mina arindu zuten lasaigarriengatik, nahiz eta jakin Artzain Onaren katedralean, Donostian, «jende asko» eta «polizia asko» zeudela⁴⁹. Kazetaritza kroniken arabera, hiru mila pertsona bertaratu ziren. Eskuin muturreko talde erradikalek liskarrak eragin zituzten irteeran, eta kalez jantzitako polizia batek ere airera tiro egin zuen bere burua inguratuta ikusi zuenean, haurdun zegoen emaztearekin eta semearekin batera, ETAREN aurkako oihuak egiteagatik eraso zioten emakume bat defendatu ondoren. Ustezko erasotzaileek arma kendu zioten eta ihes egin zuten⁵⁰. Kontraste gisa, 20.000 pertsona inguru joan ziren hiletara Ubedan. Aurreko goizaldean, milaka lagunek desfilatu zuten udaletxeko hil-kaperan, nahiz eta hilkutxa goizko ordu biak pasata iritsi. Hurrengo egunean, denda gehienak itxita egon ziren Udalak hala eskatuta. Hileta-segizioa Santa María de los Reales Alcázares elizara iritsi zenean, biktimaren amak nerbio-erasoa jasan zuen, eta ospitalera

eraman behar izan zuten. Udalak hiriko urrezko domina eman zion Manuel Orcerari hil ondoren, eta familiari horma-hobi bat utzi zion betiko udal hilerriari⁵¹. Haren alargunak, ordea, hainbat urtetako atsekabeei egin behar izan zien aurre: hiru urte baino gehiago behar izan zituen zegokion pentsioa jasotzen hasteko, eta, denbora horretan, aitaren langabezia eskasetik bizi izan zen, eta Ubedako Poliziaren kuartel estreinatu berria garbitzeagatik ematen zioten soldatatzat batetik: «Nik ez nuen Gizarte Segurantzarik ere, erabat ezer gabe geratu nintzen. Nire haurrak medikuarenera eraman ahal izateko, nire neska beti egoten baitzen eztarria minduta, eramaten nuen bakoitzean aitari eskatu behar izaten nion, diruagatik»⁵².

Garaiko ohiturek, gainera, seme-alabak eskolara eramatera eta jasotzera eta erosketak egitera mugatu zuten Clararen gaztaroa.

Nire aitarekin borroka bat zen, alargunek etxean egon behar zutela uste zuten gizon itxi horietako bat zelako. Ez naiz inolaz ere kalera irten. Nire ahizpa zen umeak hartu eta Aste Santua ikustera eramaten zituena. [...] Nik 28 urte egin ditut irten gabe. 28 urte! Nire semea ezkondu arte, ez dut kalea zapaldu⁵³.

Manuel Orcera Ubedan lurperatu zuten egunean, komando Bereziek Javier de Ybarra y Bergé industrialaria bahitu zuten Neguriko (Getxo) bere etxean. Bereziek kolpe mediatiko bat bilatzen zuten: esanahi politiko, sozial eta ekonomikoa zuen norbait⁵⁴. Ybarrak ezaugarri guztiak biltzen zituen: frankismo garaian Bilboko alkate eta Bizkaiko Diputazio Probintzialeko presidente izan zen; aitaren arrastoari jarraituz, Espainiako Adingabeen Babeserako Kontseilu Goreneko presidente eta Bizkaiko Adingabeen Tutoretza Auzitegiko presidente zen; eta Babcock-Wildux enpresako presidente izan zen Bilbon, Banco de Vizcayako, Iberdueroko eta *El Correo* egunkariko kontseilari⁵⁵. Neguriko erregimen eta oligarkiarekin zuen loturak etsai perfektu moduko bat bihurtzen zuten. «Ez kezkatu nigatik. Hauek egin dezaketen gauzarik handiena niri tiro bat ematea da, eta, kasu horretan, zuen amarekin zeruan elkartzera joango naiz», esan zien etxean zeuden lau seme-alabei. Egia esan, sei anai-arreba ziren, eta bi urte lehenago ama, Teresa Ybarra y Villabaso, galdu zuten minbizi baten ondorioz. Bereziek mila milioi pezeta (egungo 45 milioi euro inguru) eskatu zizkieten familiari askapenaren truke. Hala ere, ehun eta berrogeita hamar milioi biltzea baino ez zuten lortu.

Ekainaren 21ean Barazar gainean agertu zen Javier de Ybarraren gorpua, jasan zituen torturen froga ukalezina bihurtu zen. Gorpua plastikozko poltsa baten barruan zegoen iltze batekin kakotua. Besoak bizkarrean lotuta zeuzkan, begiak estalita eta tiro bat buruan. 20 kilo galdu zituen, eta autopsiaren arabera, urdaileko hormak ia itsatsita zituen, eta horrek agerian uzten zuen ez zutela elikatu. Auzitegiko medikuek belar arrastoak aurkitu zituzten, bizirauteko irentsi omen zituenak. Gorpua zauri ugari zituen, mugitu gabe egunak igaro zituen seinale⁵⁶.

Ybarra familiako belaunaldi ezberdinetako kideek bahiketaren eta hilketaren ondorioak kontatu dituzte. *Nosotros, los Ybarra* liburuan, Javier de Ybarra

e Ybarra minduta agertzen da bere familiako kide batzuek eta Neguriko oligarkiako beste batzuek izan zuten erreakzioarekin, seme-alabek laguntza eskatu zietenean aitaren bizitzaren mende zegoen erreskatea ordaintzeko: «Senide batzuk lurrundu egin ziren, eta ez genituen berriro ikusi. Beste batzuek, berriz, aurpegia eman eta laguntzeko duintasuna izan zuten. Baina oso gutxi izan ziren. Esku bateko hatzekin konta zitezkeen»⁵⁷. Familia-unitatea ez ezik, Neguriko enpresa-klasearen buru ziren klanen artean sortutako enpresa-unitatea ere hautsi zen, beste semeetako batek, Juan Antoniok, kontatu zuen bezala: «Ordutik aurrera, diaspora bat egon zen, fisikoa, jendeak alde egin zuelako, eta intelektuala, bakoitzak jada arriskurik gabe probetxua ateratzea besterik ez zuelako buruan»⁵⁸. Plano pertsonalagoan, senideek hilketaren ondorio ikaragarriari aurre egin behar izan zieten. Cosme, Javier de Ybarraren semerik txikiena, erietxe psikiatriko batean sartu zuten, eta handik ihes egin zuen. Egundak batzuk geroago, bere burua bonzo erara erre, eta handik bi egunetara hil zen⁵⁹. Hirugarren belaunaldiak ere, aitona ezagutu ez zutenek ere, ondorioei aurre egin zieten. Gabriela Ybarrak, *El comensal* eleberrian gertaeren erretratua egin zuenak, azaldu du bere aitonari gertatutakoaren berri izan zuela «bizilagun batek nahigabe zerbait esan zuelako». Gurasoek, ordura arte, ez zuten horretaz hitz egin.

Baina ez dut uste oso kontziente zirenik aitonaren hilketak gudan izan zezakeen eraginaz. Bilobak ginenez, uste zuten ez zuela zertan eragin handirik izan, urruti harrapatzen gintuenez, ez zela shock handia izango. Baina gertatzen dena da gure kasuan traumak oso presente jarraitzen zuela, aitzak zuzeneko ondorioak heredatu zituen, mehatxuekin eta abarrekin, Madrilera joan behar izan genuen nik 12 urte nituenean, terrorismoa ez zen amaitu 2011ra arte, eta ordura arte oraindik horren ondorioak jasaten jarraitu genuen⁶⁰.

3. 1979, ETAPM-REN SARRASKIAREN URTEA

1979. urtea ETAPm-ren historiako odoltsuena izan zen: zazpi pertsona erail zituzten. Ordura arte, eta Javier de Ybarra bahitu eta hil zutenetik, erakundeak behin bakarrik jardun zuen, eta mendeku gisa egin zuen. Juan José Etxabe ETako buruzagi ohiari atentatu bat egin zioten 1978ko uztailaren 2an, Frantziako hegoaldean. Bere emaztea eta bere bi semeen ama Agurtzane Arregi hil zen, 38 urtekoa⁶¹. Eraso eskuin muturrari egotzi zitzaion, orduan sigla-amalgama bat, eta BVE eta A hirukoitza seinalatu zituzten egiletzat. Mendekua, erakundeak berak gerora aitortuko zuenez, abuztuaren 28an iritsi zen. Hainbat terrorista Alfonso Estevas-Gilmain 41 urteko polizia-inspektorearen zain egon ziren Hondarribiko bere etxetik gertu. Haren emaztea eta hiru seme-alabetatik zaharrena —12, 11 eta sei urte zituzten— agentearen hilketaren lekuko izan ziren. Hemeretzi tiroekin metrailatu zuten, eta horietatik bostek jo zuten. «Nire senarra hil dute!», oihukatzen zuen Pilar Ruizek, Álvarez-Quintero ostatuko arduradunak. Madrilen jaioa zen polizia euskal gizartean integratuta zegoela

frogatzen zuten kredentzialen berri eman zuten prentsak: «oso ezaguna» zen, eta «euskarazko lezioak» jasotzen zituen. Hizkuntza hori «lardaskatzen zuten, eta erabiltzea gustatzen zitzaion»⁶².

Erantzukizunaren inbertsioaren estrategia aplikatuta, ETAPm-k ohar bat argitaratu zuen, biktimak bere hilketa merezi zuela adierazteko. Testuan, Alfonso Estevas-Gilmain Irungo polizia-etxeko Informazio arduradunari BVErekin lotuta egotea leporatzen zion. Haren alargunak gutun publiko bat idatzi zuen, akusazioak «faltsutzat» jotzen zituen eta «erakunde hori irainengatik eta hilketagatik» salatuko zuela mehatxatzen zuena. Hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, poliziaren hilketa ez zen inoiz epaitu.

ETAPm-k krimena aldarrikatzearekin batera, Segurtasun Indarren aurkako kanpaina terrorista bat iragarri zuen, «modu iraunkorren eta haiek erabat desegin arte». Lehenengo biktima José María Maderal Oleaga izan zen, militar erretiratua, Iberdueroko langilea eta Bizkaiko Legionarioen Ermandadeko presidentea, probintziako bostehun legionario ohi inguru biltzen zituen. ETAPm-ko hiru kide kaputxadunek tiroz hil zuten Maderal 1979ko martxoaren 16an Bilbon. 48 urte zituen, ezkondata zegoen eta bi seme-alabaren aita zen. Bere ehorzketa, berriz ere, protesta eta jarrera nostalgiko edo erreazionarioenak gorestekoa eszenatokia izan zen. Bi mila pertsona inguru joan ziren San Antón elizara, horietako asko militar ohiak. Zeremonia amaitzean, «Gora Kristo Errege» eta «Gora Espainia» oihuak bota zituzten, eta, kalean, Legioaren ereserkia eta *Cara al sol* abestu zituzten. *El Correo* egunkariak argitaratu zuenez, 15-20 urteko hirurehun bat gaztek hilkutxa eskoltatu zuten legionarioaren ereserkia abesten zuten bitartean, eta istiluak izan ziren Erriberako merkatuan. Maderal familiak seme bat lurperatzen zuen bigarren aldia izan zen egun hura: 1958an, Juan Maderal Oleaga, hildakoaren anaia, legioko heroi gisa hil zen Mendebaldeko Saharan. Udalak monumentu bat eskaini zion 1968an, eta Erandioko plaza bati jarri zion haren izena. Garai hartan, udalerrria Bilboren barruan zegoen, eta alkatea Javier de Ybarra zen⁶³.

Uda hartan, Gernikako Estatutuaren aldeko negoziazio betean, ETAPm-ko komando batek erakundearen gehiengoaren ildo hautsi, eta bere gain eta galorde, eta presoen askatasuna banderatzat hartuta, pultsua areagotu zion Estatuari. Uztailaren 29an gertatu zen dena, hamalau minutuko tartean, hiru bonba lehertu zirenean Barajasko aireportuko eta Chamartingo geltokiko kontsignetan eta Atochako geltokiko ohe-autoak fakturatzeko bulegoan. Barajasen, leherketak José Manuel Amaya 32 urteko urpekaria hil zuen, lehiaketa baten ondoren Tenerifera itzultzen ari zena. Ezkondata zegoen eta bi seme-alaba zituen. Familiak telebistaz ezagutu zuen haren heriotza. Chamartinen, hedapen-uhinak 20 urteko Dorothea Fertig ikasle alemaniarra hil zuen, eta atleta ibilbide oparoa zuen 18 urteko José Manuel Juan Boix ikaslea heriotza eragiteraino zauritu. Atochan, bonbek lau pertsona hil zituzten: Jesús Emilio Pérez Palma 19 urteko gaztea, Juan Luna Azol 53 urteko guardia zibil erretiratua, Dionisio Rey Amez 64 urteko polizia nazional erretiratua eta Guadalupe Redondo Vián 59 urteko etxekoandrea. Azkeneko biak bikote ezkondua ziren, eta haien

hiru semeetako bat, María del Carmen, larri zauritu zen. Sumarioak jasotzen duenez, 114 pertsona artatu zituzten zauriengatik hainbat ospitaletan⁶⁴, baina Administrazioak hamar zauritu baino ez ditu aitortu ofizialki terrorismoaren biktimatzat, eta horietako bik ezintasun iraunkor osoa dute⁶⁵.

Urte batzuk geroago argitaratu zen biktimei buruzko informazioa oso urria izan zen; are urriagoa izan zen, halaber, haien pertsona maiteek atentatua eta ondorengo dolua nola bizi izan zuten azaltzen zuen informazioa. Juan Luna Azolen alabetako batek, Asunción Luna Gilak, aitortzen du urteetan zehar aitaren memoria «desagerrarazi» zuela. Biktima atentatua baino bost hilabete lehenago erretiratu zen Guardia Zibiletik. «Errekonozimendu ekonomikoak» hamalau urte behar izan zituen, eta, hasiera batean, alargunak eta lau alabek «aurre-erretiratu baten pentsioarekin» iraun behar izan zuten, eta «ezertarako iristen ez zela» onartzen du. Ama, ordura arte etxekoandrea, Carabanchelgo ospitale militarreko garbitegian hasi zen lanean. Asunciónek 20 urte baino gehiago behar izan zituen gertatu zena gainditzen hasteko, eta bere ahanztura onartzeko: «Ez dakit oso ondo zein egoera sozial edo kulturalak, edo nire psikologia intimoak berak, eraman ote ninduen injustizia ikaragarri eta hain lazarri hura besteen begietara isilaraztera»⁶⁶.

Pedro Jesús Juan Boixek anaiak aurretik zuen etorkizun bikaina gogoratzen du; izan ere, eliteko kirolaria izateaz gain, Zuzenbideko bigarren maila egina zuen, artean 19 urte bete gabe bazituen ere. 20 egun eman zituen La Pazeko ospitalean eta, une batez, aurreikuspenak baikorrak bihurtu ziren arren, azkenean ebakuntza baten ondorioz hil zen. 2021ean egindako elkarrizketa batean aitortu zuenez, egun hartan «mundua gainera etorri zitzaigun»:

Nire gurasoak itzaltzen, hiltzen hasi ziren abuztuaren 18an bertan. Nik 20 urte nituen eta aurrera begiratu nuen, oihal moduko bat sortu nuen, nire bizitza banatzeko aukera eman zidana: hogeitau urte bete arte eta hogeitau urte nituenetik aurrera, nire anaiarekin eta hura gabe. Nire gurasoak urte batzuk geroago hil ziren minbiziak jota. Ez zegoen familia-aurrekaririk, eta uste dut *shock* izugarri horrek gaixotasun ikaragarri horrekin zerikusia izan zuela. Bizitzak aurrera egin zuen niretzat. Oso ondo joan zait, eta nire anaiak eta nire gurasoek izan ez zuten zortea eduki dut alde⁶⁷.

José Manuel Amaya urpekariaren familiak telebistaz ezagutu zuen albisteak, bere arreba Clotildek kontatuko zuen bezala:

Uztailko igande bero bat zen, udako egun tipikoa. Arratsaldeko zortziak aldera telebista ikusten ari ginen. Nire etxean nengoen, eta amak bisitatu gintuen. Bat-batean, Telediarion, nire anaiaren izena esan zuten ETArekin hainbat atentaturi buruzko informazioetan. Paralizatuta geratu ginen. Pentsatu genuen agian bazegoela beste pertsona bat izen berekoa. Baina aurkezleak emandako datuak bat zetozen nire anaiarekin: izen osoa, adina, Asturiasko urpekaritza txapelketa batetik zetorrela... Histeria uneak izan ziren⁶⁸.

Jesús Emilio Pérez Palmaren familiako kide batek bere testigantza emateko elkarrizketa bat eman zuen lehen aldia liburu honen argitalpena izan zen. María Luisa Pérez Palmak dioenez, bere anaia bost seme-alabako familia

bateko bosgarrena eta gizon bakarra zen, jatorria Burgosko Oña herri txikian zuena. Han, aitak nekazaritzari ekin zion, bat-batean hil zen arte. Alarguna eta bost seme-alabak hirurogeiko hamarkadan joan ziren Arrasatera, eta han erraz integratu, eta laster hasi ziren denak lanean.

1979an, Jesús Emiliok bi urte zeramatzen ebanista ikastun gisa lanean. Neska-laguna zuen, espeleologiazalea zen, eta uztaile hartan lagun batekin zetorren Sevillatik, lehen bisitan izugarri gustatu zitzaion hiri hartatik. Madrilgo udako beroak hasierako asmoak aldarazi zizkien: hiriburuan zehar paseo bat eman ordez, trenaren zain geratu ziren Atochan, eta terroristek bomba utzi zuten lekutik gertu eseri ziren. Leherketak bete-betean eragin zien: lagunak erre-dura larriak izan zituen, eta ondorio iraunkorrak utzi zizkieten. Jesús Emiliok hamar ordu baino ez zituen iraun Urriak 12 ospitalean, hain zuzen ere amak, bi suhirekin batera, agur esan ahal izateko behar izan zuen denbora.

Jesús Emilioren ama hiru hamarkada iraun zuen depresio batean erori zen, laurogeita hamar urterekin hil zen arte. Denbora horretan María Luisarekin, senarrarekin eta seme-alabekin bizi izan zen. «Ia ez genuen telebista pizten, atentatu bat zegoenean berriro gaizki jartzen zelako. Askok eragiten zion. Bera-entzat ikaragarria zen semea hil ziotela barneratzea». Bere egunen amaierara arte eraikitaren ulertezintasuna eraman behar izan zuen: «Amak esaten zuen bezala, oso erraz onartuko nuke gaixotasun bat, baina ez dut hau onartzen. Ezin da gauza baten eta bestearen mina alderatu. Gaixotasun bat bizi-legea da, baina hau ez da bizi-legea». Bere bizitzako azken bizpahiru urteetan alzheimerria izan zuen, baina, hala ere, gaitzak ez zituen semearen oroitzapenak ezabatu: «Nire anaiaren argazkiari musu emateaz ez zen inoiz ahazten».

ETApm-k Jesús Emilio bere harrera-herrian, Arrasaten, hil zuen urtean, euskal nazionalismo erradikalaren epizentroetako bat zela suma zitekeen. ETApm-k berak bi guardia zibil hil zituen han 1974an, Luis Santos eta Argimiro García, eta ETA militarrek gauza bera egin zuen beste guardia zibil batekin, Constantino Gómez Barciarekin, 1977an. Madrilgo atentatu hirukoitza gertatu eta gutxira, terroristek berriro ekin zitoten udalerrian, eta 1979an Juan Luis Aguirreurreta hil zuten. Giroa, azken batean, gero eta aurkakoagoa bihurtu zen. Jesús Emilioren hiletara «jende asko» joan zen arren, ahizparen oroitzapenen arabera, «ezer gertatu ez balitz bezala» jokatu zuten bizilagunak ere izan zirela aitortu du. Kanean egin zuten, baita María Luisak eta bere ahizpa batek erretiroa hartu arte gobernatu zuten ile-apaindegi ezagun batean ere.

Bezero oso onak genituen, zurekin malkoak lehertu arte barrezka aritzen zirenak, baina beste bezero batzuen kasuan, bagenekien nola pentsatzen zuten, eta ezer gertatu ez balitz bezala jokatzeko zuten. Gero, batzuek esaten zuten: «Hemen asko sufritu da, begira Andaluziara seme-alabak bisitatzera joan behar duten horiek». Bai, baina ni Estatu Batuetara edo Australiara joango nintzateke... Isilik geratzen ginen. Inoiz edo ezin zenuen erabat isildu, baina ezin zinen gehiegi pasatu, beldur asko zegoelako. Beldur izugarria. (...) Guk, ile-apaindegian, beren enpresatan estortsioa jasaten ari ziren bezeroak genituen. Haiak gorroto zituzten, baina mezetan bezala hitz egiten genuen. Zalantzarik bazenuen, hobe isiltzea, presoan senideek autobusean joan behar zutelako esanez justifikatzen zutelako⁶⁹.

Bere buruari ezarritako isiltasuna garratzagoa egiten zen auzokideek indarkeria terrorista justifikatzen zuten iruzkinak botatzen zituztenean: «Kanean lotsagabekeriak entzuten zenituen. Maiz entzuten zen: «Gaur bat hil dute, baina guardia zibila zen. Jesus! Zer zen? Untxi bat? Horrek min ematen zizun». Arrasateko erdigunean negozio bat zutenez, ETAko kideen omenaldiak ikustera behartuta zeuden —«Txomin Iturberi omenaldia egin ziotenean, hau bete egin zen. Horrek min handia ematen zizun»—, baita manifestazioak ere —«Manifestazioekin amorrua ematen zizun. Zenbatetan behartu gintuzten ateak ixtera baten bati espetxean zerbait gertatu zitzaioelako edo gose-greba baten ondorioz!»—. Une jakin batean, erradikalen presioaren aurrean amore emateaz nekatuta, planto egitea erabaki zuten. Dendak ixteko eskatu zuten greba egun batean, Pérez Palma ahizpek beren langileekin hitz egin zuten eta hurrengo egunean irekiko zutela iragarri zieten.

Egun hartan ez ziguten ezer esan, baina hurrengo greban silikonaz bete zizkiguten sarrailak. Norbaitek hasi behar zuen eskatzen zizuten guztiari men ez egiten. Egia esan, ez genuen berriro egin. Gabonetan presoan gabonsaria jasotzeko gutun-azala bidaltzen zidaten, eta zer gertatu zitzaigun zekien jendeak ematen zidan. Gutun-azalean euskarazko idazki bat bidaltzen zuten, eta nik gutun-azala ixten nuen, hutsik, eta itzuli egiten nien. Urtero. Haietako batek galdetzen zidan gainera: «Zer moduz dago zure ama? Hobetzen ari da?». Geratzen zinen... Eta isildu egiten zinen. Askok isildu behar genuen⁷⁰.

María Luisak Bakearen Aldeko Koordinakundearen elkarretaratze isiletan parte hartu zuen, eta «arrautzak, harriak eta abar» erabiliz jasan zituzten erasoak gogoratzen ditu: «Harri batekin emango zizuten beldurrez gindoazen. Izugarria. Baina eutsi egiten genion». Arrasate utzi eta familiarekin Burgosera joatea pentsatu zuen, baina azkenean aurre egitea erabaki zuen.

4. 1980 ETA JAZARPEN-INDARKERIA

1980an ETAREN adar ezberdinek 95 pertsona hil zituzten. Erakunde terroristaren historiako urterik odoltsuena izan zen⁷¹. Biktima guztietatik, bost ETApm-ri egozten zaizkio. Madrilgo atentatu hirukoitzean gertatu ez bezala, haietako bakoitza kontu handiz aukeratu zuen erakundeak, eta krimen bakoitza behar bezala justifikatu zuten, terroristen erretorikari jarraiki. Heriotza bakoitzarekin, ETApm-k euskal gatazkaren narratibaren barruan kokatzen zen kausa bat gidatu zuen: langileen defentsak Michelineko zuzendari Luis Hergueta Guinearen hilketa justifikatu zuen; Jesús María Zubikarai EIAko militantaren heriotzaren mendekuak Mario González Blasco soldatzailearen erailketa ekarri zuen, BVEko kide izatea leporatu baitzioten; mendeku moduko bat egon zen, era berean, Gasteizko martxoaren 3an, Polizia Armatuak tiroz egindako bost langileren sarraskiaren harira, eta Basilio Altuna Polizia Armatuko kapitainaren hilketa babestu zuen; eta Euskal Herriko eskuineko eta zentro-eskuineko ordezkarien jazarpena UCDko bi militanten hilketarentzat palanka gisa erabili

zuten: Arabako exekutibako kide zen José Ignacio Ustarán eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle zen Juan de Dios Doval.

Luis Hergueta Guinearena, 52 urtekoa, ezkondua eta bi seme-alabaren aita, iragarritako heriotza izan zen. Lehen gertatu zen bezala, ETApM-k lan-gatazka bat baliatu zuen bere onurarako erabiltzeko. Herguetak mehatxuak jaso zituen, kalean pintadak egin zizkioten eta langileen manifestazioak bere etxetik gertu igaro ziren. Arrisku larria sumatu zuenez, aldi baterako baimena eskatu zion enpresari Gasteiztik lau hilabetez joateko, eta konpainiak onartu berria zuen eskaera hori. Hala ere, Herguetak Euskal Herria ez uzteko nahia adierazi zuen: «Ni euskalduna naiz, eta ez noa hemendik». Gasteizko erdigunean tiroz hil ondoren, prentsak bere sustraitzea frogatuko zuten egiaztagiri bereziak nabarmendu zituen: emaztea euskara irakaslea zen, bera Arabako Pilota Federazioko presidenteordea izana zen, eta «bere lagun minenetako batzuk Eusko Alderdi Jeltzaleko militanteak ziren»⁷².

Mario González Blasco soldatzailearen hilketa, aitzitik, guztiz ustekabekoa izan zen. «Nire aita oso bizitza sinplea zuen langile gizajo bat zen: lana, gaudua, baratzeak, familia... Ez zuela hiltzeko astirik izango, esaten zuen», dio Blanca Gonzálezek, bere bi seme-alabetako batek⁷³. Hilotza Eibarko bidezidor batean agertu zen tirokatuta, eta bularraren parean, zinta isolatzailearekin itsatsita, Jesús Maria Zubikaraireren argazki bat. Ez kasualitatez, soldatzailearen gorpua zortzi bala-zulo zituen, Zubikaraireren gorpuan agertu zirenen kopuru bera⁷⁴. ETApM-k aldarrikatu zuen hilketa, eta biktima «galdekatu eta exekutatatu» zuela azaldu zuen, zeina Comisiones Obrerasen afiliatua baitzegoen⁷⁵. BVEko ustezko kide izatearen salaketek bere alargunaren, Purificación Pérezek, eta bere seme-alaben adorea urritu zuten. Azken hauek komunikatu bat igorri zuten, *El Correo*ko eskelen atalean argitaratu zena. Hartan baiesten zuten *Egin* egunkarira jo zutela «biktimari leporatu dizkioten salaketak» gezurtatzeko.

González jaunaren familiak adierazi du biktima ez zela ezein alderdi edo erakunde politikotako kidea, eta adierazi du otsailaren 2an, ETAK (PM) beste pertsona baten bahiketaren eta heriotzaren parte hartu izana leporatzen zion egunean, lanean ari zela. Komunikatuaren bidez, familiak ETARI (PM) eskatzen dio ikertzeko Mario González nor zen, eta biktimaren errugabetasunaren nahikoa frogatzea izango ditu⁷⁶.

Azkenean, familiak bere ardurapean zegoen denda itxi zuen. «Ez ginen jada zoriontsu han. Batzuetan entzun besterik ez zenuen egin behar, entzuten ez zenuela uste zuten, eta bai, entzuten zenuen... », gogoratzen du Blancak. Akusazioen estigmak familiaren gain jarraitzen zuten, krimena gertatu eta berrogei urtera: «Nire seme-alabei egia kontatu diet: aitona erail egin zutela, eta eurek burua goian eduki behar dutela beti aitona gatik. Idatzi zutenaz, asmatu zuten horretaz, jaramonik ez».

Akusazioek Basilio Altunaren familiari ere eragin zioten okerrera. Erenxungo jaietan erail zuten, terrorista batek lokian tiro bat jo ostean, ETApM-k martxoaren 3ko Gasteizko gertakarietan parte hartu izana leporatu zion. Prentsak argitaratu zuenez, egun horren ostean kapitaina Madrilerako lekualdatu

zuten eta, ondoren, Burgosera. Bere hilketaren egunean baimen bat zeukan. Urte batzuk geroago, bere semeetako bat, Fernando, krimenaren piezak egokitzen saiatzen ari zen:

Inork gutxi zekien Basilio gaua ehun biztanle baino ez zituen herri batean igaroko zuenik. Nik hamar urte nituen, eta egun hartatik ezer ez zen gauza bera izan. Aita, hil zintuztenetik hogeita sei urte igaro direnean, ez dut zure ahotsa gogoratzen, ez ditut zure adierazpenak, zure keinuak gogoratzen. Gogoan dut Lakuara, Arriagako parkera, Mirandara, Paduretara jolastera eramaten ninduzunean... Bitxiki, gutxitan gogoratzen zaitut Gasteizko erdigunean; orain zergatia sumatzen dut: ez zenuen zure burua zentroan ikusten utzi nahi⁷⁷.

Altuna familiak, batez ere Ángel eta Fernando anaiek, urteetan aitaren hilketaren zigorgabetasuna salatu zuten. Fernandok, bereziki, erailketaren ondorioak jasan zituen, 2017an bere burua hil zuen arte.

1980ko ETApM-ren azken hilketak, 1976tik ETAK Euskal Herrian zentro-eskuineko eta eskuineko kargu publikoen aurka praktikan jarri zuen jazarpen-indarkeriaren estrategiaren barruan kokatzen dira. 1984ra arte iraun zuen. Ehizaldi selektibo moduko bat izan zen, bere ideologoentzat emaitza bikainak izan zituena: UCD eta AP desagertu egin ziren azkenean, edo euskal mapa politikoan hutsalak bihurtu ziren. Polimiliek strategiari ekarpen berezia egiteko erabili zituzten bi hilketek eragin berezia izan zuten. Lehenengo biktima José Ignacio Ustarán Ramírez izan zen, 41 urteko peritua eta UCDko exekutibako kidea. «Erratu egin dira, neu naiz politikaria, eraman nazazue ni», bota zion Charo Muela emazteak etxeko atean agertu ziren terroristei; izan ere, Gasteizko Udalean alderdi beragatik zinegotzia zen bera. Ordu batzuk geroago, Ustaránek gorpua bere autoan aurkitu zuten, alderdiaren egoitzaren ondoan, bi tiroekin. Eszenak Aldo Moro buruzagi demokristauaren hilketa gogorarazten zuen, Brigada Gorriek burutua. Handik aste batzuetara, alarguna eta lau seme-alabak Sevillara joan ziren bizitzera. Alabetako batek, Rociok, urte batzuk geroago kontatu zituen lehen hilabete haietako oroitzapenak:

Amarentzat oso gogorra izan zen Euskal Herria uztea, aitarekin lan egiten zuelako eta bertan 17 urte eman zituera. Estherrentzat, aita eraman eta bost minutura iritsi zena, zaila izan zen, nerabezaroan harrapatu baitzuen. Joserentzat zaila izan zen, mutil bakarra zelako, eta pixka bat gizon babeslearen zeregina hartu nahi izan zuelako. Mariolak zehatz-mehatz oroitzen du egun hura. Niretzat? Gogoan dut beldurrez bizi nintzela. Jendeak beldurra ematen zidan, dena arraroa iruditzen zitzaidan, lo egiteko zailtasunak nituen. Sevillako ikastetxean ez nuen esaten aita hil zitzaidanik. Era horretan. Nola azaltzen duzu hori⁷⁸.

Handik hilabetera erail zuten Juan de Dios Doval, Gipuzkoako UCDko zuzendaritza probintzialeko kidea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea. Krimenaren aurreko gauean, Doval Jaime Arrese alderdiko beste kide baten omenezko meza batean izan zen, duela astebete eraila. Egund hartan bere idazkariari otoi egiteko eskatu zion. Hurrengo goizean, 37 urteko irakaslea, zazpi eta bost urteko bi seme-alabaren aita, Donostiako Lorea

auzoan tirokatu zuten. Unibertsitateko komunitatea berehala mobilizatu zen: fakultateak bertan behera utzi zituen eskolak eta bostehun ikasle, irakasle eta langile inguruk manifestazioa egin zuten oinez Gobernuaren Ordezkaritzaraino. Gainera, zabaldu zuten ohar batean, «gure irakaslearen erailketak dakarren basakeria erabat gaitzesten eta mespretxatzen» zutela esan zuten, baina, era berean, «kezka» agertu zuten «herrialdean dagoen indarkeria-egoera larriagatik, fakultate honetako ikasleei zuzenean eragiten dieten eta bizikidetzak baketsua ezinezko egiten duten etengabeko hilketa eta atxiloketa bereizi gabeak direla eta», era horretan hilketak eta atxiloketak maila berean jarri⁷⁹.

Loreako dendak itxi egin zituzten protesta gisa. Irakaslearen hil-kapera bere fakultatean kokatu zen, eta handik Ezcarayko hilerria eraman zuten hilkutxa. Alargunak, Emma Inclánek, bere seme-alabak, Juan de Dios eta Ruth, lagun baten ardurapean utzi zituen. Hileta-elizkizunak amaitu zirenean jaso zituen, eta gertatutakoa kontatu zien: «Ama adoretsua izan zen, eta gaiak naturaltasunez hitz egin zigun beti. Inoiz ez zen tabu bat izan nire aitaren hilketaz, minaz edo beste sentimendu batzuek hitz egitea», esan zuen seme zaharrenak hilketaren berrogeigarren urteurrenaren harira⁸⁰.

5. MARTÍN BARRIOS, POLIMILIEN BELTXARGAREN KANTA

ETApm-ren indarkeriazko estrategiarekiko azken leialak zortzikoen izenaren barruan sartu ziren, izena zor zioten VIII. Batzarrari erreferentzia eginez. Egin zituzten atentatuen artean, Juan Mari Bandresen euren «suizidio politiko» gisa definituko zuen bat izan zen: Alberto Martín Barrios farmaziako kapitainaren bahiketa eta hilketa. Gertaerak Estatuaren eta ETApm-ren arteko pultsu baten erdian gertatu ziren. Alde batetik, jurisdikzio militarrek hainbat polimili epaitu behar zituen Bergako Mendi Ehiztarien kuartela erasotzeagatik. Estatuari presio egiteko eta prozesua bide zibiletik egin zedin lortzeko, militar bat bahitzea erabaki zuten, eta Martín Barrios aukeratu zuten zerbitzu sekretu militarrekin ustezko harremana izateagatik, inoiz frogatu ez bazen ere. Bahiketa egin ondoren, 1983ko urriaren 5ean, pultsua komunikabideen eremura zabaldu zen: zortzikoez Televisión Española (TVE) Bergaren epaiketari buruzko komunikatu bat ematea nahi zuten, eta erakunde publikoak horri partzialki aurka egin, eta zati batzuk baino ez zituen erreproduzitu. Bien bitartean, elementu parapolizialak agertu ziren Frantzia, eta ETA militarreko bi kide, José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabala, bahitu zituzten. Martín Barriosen gorpua urriaren 18an agertu zen, ahoa estalita eta buruan tiro bat zuela⁸¹.

Militarraren familiak larritasunez bizi izan zuen gatibualdia. Gurasoak, adinean sartuak, presaka itzuli ziren Bilbora Benidormetik, non atsedean egun batzuk igarotzen ari baitziren. «Iritsi bezain laster, Albertoren gurasoak negarrez hasi dira. Ez dute ulertzen nola gertatu den hori, Alberto ez baitzegoen mehatxatuta, eta Gudarostearen barruan ez du soldaduen gaineko aginterik, dokumentuak sinatzera baino ez da joaten Gobernu militarra», azaldu zuen

senide batek⁸². «Nik nire bizitza ematen dut berearen truke. Harrapa nazatela, baina aska dezatela. Mesedez eskatzen dizut, ezin dut gehiago», adierazi zuen militarren emazteak eta haren hiru seme-alaben amak, María Ángeles Alonsok⁸³. Gatibualdian bere osasun egoera delikatuak okerrera egin zuen. Urte batzuk geroago, *Olvidados* liburuan, honako hau idatzi zuen:

Izugarri gustatzen zitzaion zesta-punta. Nire azken semeaz haurdun nengoela, Duran-gora eraman ninduen zesta-punta partidak ikustera. Athleticen jarraitzaile nekaezina zen, ez zuen partidarik galtzen. Jokalariak zaintzen zituen botikaria zen. Txetxu Rojo eta garaiko beste jokalaririk asko ezagutzen zituen. Hain pozik zegoen bere lurraldean, bere farmaziarekin, familiarekin... Nola pentsatuko zuen berak etakide batek hil zezakeela?⁸⁴

Martín Barriosen hilketari gizarteak emandako erantzuna, José María Ryan Lemonizko zentral nuklearreko ingeniari buruaren hilketaren ondoren iratzarritakoarekin bakarrik konpara daiteke. Begoñako basilikako hiletara eta Derioko hilerriko ehorzketara milaka pertsona joan ziren. Ehun mila inguruk manifestazioa egin zuten Bilbon, baita Espainiako beste hiri batzuetan ere. Bizkaiko hiriburuan «ETA, ez jarraitu gure herriaren historia zikintzen» zioten esku-paperak agertu ziren. Modu espontaneoan, eta Deustuko Unibertsitateko Irakasle Eskolako ikasleen ekimenez, eta Teologia eta Soziologiako ikasleekin batera, elkarretaratze isil bat egin zen, «ETA EZ. Terrorismoaren aurka mobilizazioa» lelopean. Bertaratu zirenetako batzuek Bakearen Aldeko Koordinakundearen ernamun gisa identifikatuko zuten ekitaldi hura⁸⁵.

IV. EMANDAKO BIDE GABEKERIA

Kapitulu honetan zehar, ETApm-ko kideen izen batzuk aipatu dira, eta hainbat iturriren bidez, erakunde terrorista horren zigilua duten hilketen ideologoak edo egile materialak izatea leporatzen zaie. Beste batzuk ere atal honetan aipatu dira. Badira sartu ez diren beste izen batzuk ere: prentsako informazioetan agertu ziren, errudunak identifikatu zituztela ziurtatzen zuten polizia-deklarazioen berri emanez. Gero, ordea, informazio-pista galdu egiten da. Datuen arabera, arrasto judiziala ere bai.

ETApm-ren 28 hilketetatik bi bakarrik epaitu dira, eta prozesua epai banarekin amaitu da; kasu batean kondena-epaia izan zen, eta bestean, absoluzio-epaia. Amnistiaren ondorengo legeek 1974tik 1977ko ekainera bitartean egindako hilketa guztiak babestu zituzten, 12 guztira. Praktikan, amnistiaren arabera, espetxe-zigorra betetzen ari zirenak aske geratu ziren; aske zeudenak ez zituzten inoiz epaitu; eta, bi kasuetan, aurrekari penalak eta kontrako oharrak ezabatu ziren espediente pertsonaletan, jada hilda zeudenenak barne⁸⁶. Amnistiaren haratago, ETApm-ren beste lau hilketari buruzko behin-behineko auzi-uztea deklaratu zen, hau da, auzia aldi baterako artxibatzea: teoriarik, ikerketa-fasean ez zen nahikoa frogatik lortu, eta, beraz, ezin izan zen ahozko epaiketarik egin. Bederatzi hilketa behin betiko artxibatu zituzten, hau da, ikerketa *de facto* ixtea

erabaki zen, frogarik ez zegoelako. Azkenik, kasu bat garbituta dago, eta horrek esan nahi du espedientea suntsitu egin zela epailearen erabakiz, ez zegoelako hura ikertzeko aukerarik⁸⁷.

ETApm-k egindako hilketen egoera prozesala

Egoera prozesala	Hilketa kopurua
Amnistiatura	12
Artxibatuta	9
Garbiketa	1
Behin-behineko auzi-uztea	4
Kondena-epaia	1
Absoluzio-epaia	1

ITURRIA: Fonseca (2014).

ETApm VII Batzarraren kasuan, aurreko paragrafoaren definizio juridikoak bahetu egin behar dira gertatu zenaren errealitateagatik: erakundea 1982an desegin zenean, kideak espetxetik atera ziren, IV. atalean esaten den bezala. Birgizarteratzeko neurriak, espetxe-eskuzabaltasunekoak, indultuak ezarri ziren, eta, kasu batzuetan, justiziak beste alde batera begiratu zuen⁸⁸. «Bakea preso-en truke» kontsignaren pean, hiru irtenbide adostu ziren: epaiketaren zain zeuden akusatuei behin-behineko askatasuna eman zitzaizen fidantzapean, eta gero absoluzioa edo auzi-uztea; espetxeratuei, banakako eskaera egin ondoren, Gobernuak indultua eman zien; eta iheslariei dagokienez, Auzitegi Nazionalan aurkeztu behar ziren, abokatuek Frantziatik Madrilerara eramaten zituzten beren auto partikularretan, errugabeak zirela deklaratu, eta alde aurreko kausak artxibatzen ziren⁸⁹. Gobernuaren (Juan José Rosón Barne ministro zela), eta ETApm-ren (Mario Onaindia eta Juan Mari Bandres ordezkari zirela) arteko negoziazioen helburua erakundea desegitea, armak uztea eta bide politikoaren aldeko apustua egitea izan bazen, arrakastatsua izan zela esan daiteke⁹⁰. Hala ere, negoziatorik eta kontrapartida politikorik ez egon arren, bai izan zirela esparru juridikoan. Eta, neurri handi batean, kontrapartida horiek izen-abi-zenak izan zituzten: biktimek. Nolanahi ere, amnistiek eta salbuespenezko neurriek, gutxi gorabehera ezkutuek, ez dute esan nahi ikerketa historikoen, polizialek, kazetaritzakoek edo biktimek berek sustatutakoek inoiz argirik ekarri ez dutenik gertatu zenari buruz. Horiek guztiek aukera ematen dute gaur egun osatu gabe dagoen kontakizun bati datu batzuk emateko.

Lehenik eta behin, kasu batzuetan ustezko hiltzaileak egoera desberdinetan hil ziren, epaituak izan gabe. Jerónimo Vera guardia zibilaren hilketan inplikatu eta bat Ignacio Iparragirre Aseginolaza (*Iporra*) izan zen, agentearen hilketaren ondoren izandako tiroketaren ondorioz hil zena. Juan Paredes Manotek, *Txikik*, José Díez Linares polizia nazionalaren hilketan parte hartu zuela aitortu zuen, baina beste hilketa batengatik exekutatu zuten, poliziaren

kaboa zen Ovidio Díazenarengatik, eta horrek eragotzi zuen lehen hilketagatik epaitua izatea⁹¹.

COVITEn Terrorrearen Mapak, kolektiboak bultzatutako ikerketa judizialen datuak biltzen dituenak, José Ramón Morán González polizia inspektorearen hiltzaileen izenak biltzen ditu: Félix Egia Intxaurrea, *Papi ezizenez ezaguna*, eta Mariano Ibarburen Azúe⁹². Guardia Zibilaren ikerketa baten arabera, Francisco Mujika Garmendia Luis Santos eta Argimiro García agenteen hilketan bikoitzean inplikatu eta egon zen⁹³. Manuel López Treviño guardia zibilaren hilketaren ondoren, Poliziak ETApm-ko bi kide atxilotu zituen. Deklarazioen arabera, José Agustín Atxeaga Agirre (*Fiti*), Ignacio Gabirondo Agote (*Donibane*) eta Ángel Aramendi Albizu (*Aitor*) izan ziren hilketan parte hartu zutenak. Gainera, aditu-entxosten baten arabera, agentea hiltzeko erabili zen arma Ángel Berazadi enpresaburua hiltzeko ere erabili zen⁹⁴. Bi krimenak amnistiatu egin zituzten. Urte batzuk geroago, industrialariaren bahiketan inplikatu eta batek gutun bat bidali zion Berazadi familiari, alabetako batek, Cristinak, azalduko zuen bezala:

Uste dut 17, 18 urteko mutiko batek hil zuela. Hiru ziren, horietako bat polizia-kontrol batean hil zen, eta beste biek barkamen-gutun bat helarazi ziguten iaz, eta hori gauza garrantzitsua da bake prozesuan⁹⁵.

Frantziar eraildako bi polizien kasuan, José Luis Martínez eta Jesús María González, nahiz eta Frantziako Poliziak berrogei pertsona ere atxilotu, hilketa bikoitza ez zen argitu. Bestalde, komando Bereziei Manuel Orcera poliziararen eta Javier de Ybarra industrialaren hilketak egozten zaizkie. Lehen hilketa legeak amnistia ezartzeko ezarritako epeen barruan sartzen zen. «Niri beti esan didate ez dagoela jakiterik eta ez dagoela jakiterik. Galdetu dut ea nor izan zen nire senarra hil zuena, eta "ez dago jakiterik, ez dago jakiterik". Gurea argitu gabe daudela dioten hirurehun eta piko horietako bat da», deitoratu du alargunak lau hamarkada baino gehiago geroago⁹⁶. Ybarraren kasua, teoriarik, ez zen amnistiaz baliatu behar. Arauaren arabera, amnistiaturako delituak 1977ko ekainaren 15a baino lehen egindakoak izango lirateke. Bahiketa maiatzaren 20an izan bazen ere, gorpua ez zen ekainaren 21era arte agertu, hilketa gertatu eta oso gutxira. Hala eta guztiz ere, Auzitegi Nazionalak kontuan hartu beharreko data bahiketarena izan behar zela erabaki zuen, eta kasua ere amnistiaturatzen jo zuen. Miguel Ángel Apalategi, Frantziar atxilotua eta Espainiara estraditatu izateko zain zegoena, amnistiatu egin zuten⁹⁷.

Juanfer Calderín kazetariaren ikerketak, *Agujeros del sistema* liburuan argitaratuak, ETApm-ren krimen batzuk argitzea eragotzi zuten akats polizial eta judizialtzat har zitezkeen gertaeren interpretazio onbera baten berri ematen du. Kontakizun zehatzenetako bat 1979ko Barajasko, Atochako eta Chamartingo atentatu hirukoitza da. Izaskun Arrazola Mallona etakidearen deklarazio polizialak (1979ko urriaren 11n atxilotu zuten) berak eta aipatzen ez duen beste terrorista batek eraso katea nola egin zuten kontatzen du era zehatzean. Bere deklarazioan hiru komandokide izendatzen ditu: Miguel Ángel Amilibia

Urcelay eta Miguel Antonio Machinea Sainz, baita Juan María Alkorta Oyarbide buruzagia ere, zeinari hiriburuan emandako pauso bakoitzaren berri telefonoz eman zioten. Izaskun Arrazola Martuteneko espetxetik ihes egindakoetako bat izan zen, eta haren arrastoa galdu egin zen. Juan María Alkorta Oyarbide auzipetu egin zuten, eta 1982an auzi-iheslari deklaratu zuten. Hiru urte geroago Auzitegi Nazionalan agertu zen, eta behin-behinean aske utzi zuten. Ez zuten inor epaitu, eta kasua artxibatu egin zen⁹⁸.

Jesús Emilio Pérez Palmaren ama hogeita hamar urtez bizi izan zen, semearen hiltzaileak nortzuk izan ote ziren bere buruari mingoski galdetuz. María Luisa arrebak, berrogei urte baino gehiago geroago, atentatuaren arduradunekin hitz egingo zuela esan zuen: «Bai, bonbak jarri zituztenen aurrean eseriko nintzateke. Beti galdetu izan diot neure buruari zergatik, zergatik, zergatik. Jakin nahi nuke». Familiak ez zuen inoiz ikerketen berririk izan. Kalte-ordain bat jaso zuen, eta apenas izan zuen harremanik Barne Ministerioarekin, are gutxiago Eusko Jaurlaritzarekin. María Luisak dioenez, atentatua gertatu eta gutxira, amarekin joan zen laguntza bila Juan Mari Bandres abokatuarengana, garai hartan Euskadiko Ezkerreko parlamentaria zenarengana.

Amak negarrari ekin zion, eta ez zuen itzuli nahi izan. Bandresek esan zuen: «Egin dezakedan gauza bakarra hangoekin hitz egitea da; izan ere, hanka sartzen dutenean...». «Nik ez dut horien dirua hartuko, ezta erotuta ere», esan zuen amak. Atsekabetuta etorri zen... «Baina zer uste zuen horrek?». Asko mindu zuen. Eman zioten diru apurrarekin lau egun eman zituen negarrez. «Zure semea hiltzeagatik ematen dizuten dirua hartzea... Har dezakezue», esaten zigun⁹⁹.

María Luisak 2022an izan zuen kasuaren polizia-bilakaeraren berri, liburu honi ekarpena egiteko eskaini zuen elkarrizketan. Beste biktima baten anaiak, Pedro Jesús Juan Boixek, 2014an egin zuen, Calderínek *Agujeros del sisteman* egindako ikerketaren harira. Bertan, prozesu judizialaren garapenagatik haserre zegoela adierazi zuen:

Familiak ez zuen inolako informaziorik izan prozesurik edo ikerketarik hasi zela jakiteko. Gogoan dut atxiloketaren bat izan zela. Justizia zerbait egiten ari zelakoan bizi gara. Ez zigutenean informaziorik ematen, pentsatu genuen ezin izan zituztela errudunak harripatu. 2013an begiak ireki zitzaizkigun: gauza batzuk egin ziren, batzuk zoritxarrekoak, eta beste batzuk balio moral eztabaidagarrikoak. [...] Biktima bikoitza zara: zuzenean nire anaiarengatik, eta gero berriro zara biktima, negoziazio testuinguru baten parte zarelako¹⁰⁰.

Luis Hergueta Michelineko zuzendariaren hilketagatik enpresako bi langile zigortu zituzten konplize gisa, Modesto García Marañón eta Miren Edurne García Artal senar-emazteak. Polizia-deklarazioetan biek identifikatu zituzten ETako buruzagiak, haiei eman baitzieten biktima agertzen zen Micheline aldizkari bat. Buruzagi horiek honako hauek ziren: José Antonio Urrutikoetxea Bengoetxea (*Josu Ternera*) eta Juan Lorenzo Lasa Mitxelena (*Txikiardi*). Inor ez zuten auzipetu.

Herri mailako kultur produktuak, fikziozkoak izan ala ez, jende askoren bitarteko gogokoena dira historiara hurbiltzeko, eta zeregin garrantzitsua dute memoria kolektiboaren edo komunitate batek partekatutako irudikapenen eraketan⁴. Neurri handi batean, arreta erakartzeko eta emozioak eragiteko gai direlako: zineman aditua den Tony Shaw historialariak adierazi duen bezala, ekintza terrorista bati buruzko film batek ikuslea bidaiariaren eserlekuan esertzera eraman dezake, istorioa protagonisten ondoan bizitzera⁵. Horregatik merezi du produktu horietan gelditzea eta gertakari historiko interesgarriak nola jasotzen edo irudikatzen dituzten ikustea.

Gaur, ETAPM VII Batzarrak bere burua desegin zuenetik berrogei urte igaro direnean, ikus-entzunezko hedabide herrikoiek —zinemak eta telebistak— ETAREN adar horren amaiera eta kideen gizarteratzea zein neurritan eta nola jaso duten aztertuko dugu.

I. ARMEI AGUR. POLIMILIEI AMAIERA ZINEMA DOKUMENTALEAN

Dokumentala, zalantzarik gabe, ikus-entzunezko generorik emankorrena da ETAREN historiaren une ezberdinak errepasatzen dituzten lanen sorkuntzan,

eta horietako bostek, gutxienez, ETAPM VII Batzarraren, zazpikoen (1982), desegitearen unea, arrazoiak eta ondorioak kontatu dituzte. Bost horietatik, bakar batek baino ez du arreta jartzen talde terroristaren fakzio horretan eta haren amaieraren zergatietan. 2007ko irailean estreinatu zuten *Los polimilis lo dejaron* filma, TVE *Crónicasen* ekoizpen propioko programaren barruan. Programa hori 2000. urtean sortu zen 24 horas kanalaren zati gisa —2009tik aurrera La 2 katean ere ematen da—, eta gure inguruko gaiak jorratzen ditu, «patrioko leihoa ireki, eta besteen istorioak eta bizitzak gertatzen diren eremu zoragarri hori esploratzeko» helburuarekin⁶. Desegitearen 25. urteurrena zela eta, programak leihoa ireki zuen eta ahotsa eman zien ETAREN adar horren sorreran, garapenean eta amaieran zeregin garrantzitsua izan zutenei.

Hogeita hemeretzi minutuz, *Los polimilis lo dejaron*ek artxiboko irudiak —horietako batzuk eksklusiboak eta RTVEko artxibotik lortuak— eta protagonista batzuei egindako elkarrizketei dagozkien lehen planoak eta plano ertainak tartekatzen ditu. Beren lekukotza ematen dute, esaterako, ETAKO kide ohi eta ondoren EEKO buruzagi izandako *Teo* Uriartek, Iñaki Álava eta Xabier Maiza ETAPM-ko kide ohiak, Gorka Knör kantautoreak, Xabier Markiegi EEKO buruzagi ohiak, Jaime Mayor Oreja PPko Barne ministro ohiak eta Ángel Ugartek, trantsizioaren lehen urteetan SECEDEKO Euskadiko buruak.

Dokumentala amaieratik hasten da: Biarritzen (Frantzia) 1982ko irailaren 30ean ETAPM VII Batzarrak bere desegitea iragarri zuen prentsaurreko batean grabatutako irudiekin. Bertan, komunikatuaren zati bat entzuten da, eta, haren bidez, erakundeko zenbait ordezkari albistea eman zuten jakitera:

Gure herriaren historian funtsezko zeregina bete dugula uste dugu, gure herriaren kontzientzia nazionala garatzen eta mantentzen lagundu dugun heinean; autogobernu-kota garrantzitsuak lortu ditugu, eta horien alde borrokan jarraitu nahi dugu indarke-riarik gabeko metodoen bidez; eta ezker nazionalako alderdi bat finkatu dugu, Euskadiren arazoei ikuspegi iraultzaile batetik erantzuten dakiena. Borroka armatuak eta ETAK bete dute dagoeneko beren zeregina.

Artxiboko irudien eta gatazkatik elkarbizitzarako trantsizioa posible egiten duten «traidoreen» defentsan *Teo* Uriartek egindako alegatuaren ondoren, dokumentalak denboran atzera egiten du 1970era arte. Burgosko prozesuarekin batera, ETAPM-ren prestakuntzan eta garapenean funtsezkoak izan ziren une batzuen errepaso historikoa hasten da, hala nola Carrero Blancoren hilketa 1973an, Madrilgo Rolando kafetegian 1974an egindako atentatua, erakundearen zati handi baten desegitea Otso Operazioa delakoarekin edo Juan Paredes eta Ángel Otaegi polimilien fusilamenduak 1975ean. Gainera, arreta berezia eskaintzen dio Eduardo Moreno Bergaretxeren irudiari eta honen desagerpe-nari, 1976ko azaroaren 23an.

Pertur polimilien buruzagia eta Bulego Politikoaren arduraduna izan zen Javier Garayalderekin (*Erreka*) batera. Desagertu aurreko hilabeteetan, *Pertur*rek eta *Errekak* Otsagabia txostena idatzi zuten; Franco hil ondoren, abangoardia agintaria hartuko zuen alderdi politiko bat sortzearen aldeko apustua egin

zuen (EIA izango zen), ETApM haren atzeguardia bezala geratzen zen bitartean. Polimilien zati batek ez zuen proposamena ondo onartu, batez ere Miguel Ángel Apalategi, Francisco Mujika Garmendia eta Eugenio Etxebeste (*Antxon*) buru zituzten komando Bereziek, erakunde terroristaren nagusitasunaren alde baitzeuden. Barne desadostasunak areagotu egin ziren Ángel Berazadi industrialaria 1976ko martxoaren 18an bahitu eta hil ondoren. Sei hilabete geroago *Pertur* desagertu zen, eta *Apala* eta *Pakitorekin* batera ikusi zuten azkenekoz. Handik egun gutxira, Moreno Bergaretxe familiak desagertuena salatu ondoren, ultraeskuineko hiru taldek *Perturren* heriotza egotzi zioten beren buruari. Gaur egun kasuak argitu gabe jarraitzen du⁷.

Dokumentalean, desagertzearen erantzukizuna ETAko komando Bereziei egotzen zaie. Hala ere, De Pablo, Mota Zurdo eta López de Maturanak adierazten duten bezala⁸, filmak ere aitortzen du, Ángel Ugarteren ahotsaren bidez, ez dagoela horri buruzko frogaririk. *Perturren* irudia berriro agertuko da, protagonismo handiagoarekin edo txikiagoarekin, ETApM-ren gaia ukitu duten eta orrialde hauetan jorratzen diren ikus-entzunezko lan guztietan — dokumentalak eta fikziozkoak—.

EIA alderdiaren bilakaeran barrena ibilbide bat egin ondoren (ETApM-ren bikoizketatik jaiotako alderdia, adar militar batean eta adar politiko batean banatua, 1977ko hauteskundeetara Euskadiko Ezkerra hautagaitzaren barruan aurkeztu zen), *Los polimilis lo dejaron* ETApM-ren azken urteetako kontakizunean barneratzen da azkenik. Erakundea politikaren eta indarkeriaren artean eztabaidan zebilen urte horietan, erakundea markatuko zuten zenbait gertaera izan ziren: 1979an Barajasko, Chamartingo eta Atochako atentatuak, eta 1980an Juan de Dios Doval eta José Ignacio Ustarán UCDko buruzagien hilketak. Urte horretan 132 pertsona erail zituzten atentatu terroristetan: heriotza bat 2,7 egunean behin⁹. Xabier Markiegiren testigantzen arabera, indarkeria bolada horren ondorioz, EEK ultimatumak eman zion ETApM-ri: ez zegoen jada indarkeriarako aitzakiarik.

Uste horretatik abiatuta, Uriartek eta alderdiko beste kide batzuek erromesaldia ekin zioten, eta Frantzia errefuxiatuta zeuden etakideak demokrazian lortutako aurrerapenez konbentzitzen saiatu ziren.

Egoera horretan, Uriatek dioenez, Xabier Arzalluz EAJko buruzagiak armekin jarraitzea bultzatu omen zuen ETApM; Arzalluzek behin eta berriz gezurtatu ditu akusazio horiek. Dokumentalak Uriarteren baieztapena jasotzen du, baina ez du Arzalluzen ahotsik gertatutakoaren bertsioa emateko (ikus IV. atala)¹⁰.

Ondoren, ikus-entzunezko lanak armak utzi nahi zituzten polimilien gizarteratzea negoziatzeko Mario Onaindiak eta Juan José Rosónek (UCD) modu ustekabekoan izan zituzten elkarrizketak nola jazo ziren kontatzen du. Adolfo Suárezek dimisioa eman eta otsailaren 23an huts egindako estatu-kolpearen ondoren, 1981eko otsailaren 28an ETApM-k su-etena iragarri zuen. Erakundearen barruko desadostasunengatik apurtzeko zorian egon zen su-eten horrek, 1982ko ekainean, bilera bat eragin zuen Parisko Westminster hotelean, ETApM VII Batzarreko buruzagitzaren eta Barne Ministerioiko goi-kargudunen artean.

Hilabete batzuk lehenago, ETApM-ren VIII. Batzarrean, otsailean, ETApM-ko bi fakzioen arteko banaketa antzeztu zen. Horren ondorioz, behin betiko hautsi ziren zazpikoak, bide politikoaren alde eta jardun armatua estatu-kolpe bat bezalako salbuespenezko kasuetara mugatzearen alde egiten zutenak, eta zortzikoak, indarkeriari protagonismo handiagoa emateko beharra defendatzen zuten sektore gogorra¹¹.

1982ko irailaren 30ean, dokumentalak bere lehen eszenan aurreratu bezala, ETApM VII Batzarreko buruzagi nagusiek agerraldia egin zuten Biarritzen, desagitea iragartzeko: «Gaur hemen egotearen funtsezko arrazoietakoa bat da gure erakunde armatua desagiteko erabaki politikoa publiko egingo dugula».

Lehen birgizarteratuak Madrilerira iristen ziren bitartean, *Txutxo* Abrisketa zortzikoaren liderra izatera pasatu zen. Talde horrek gutxi iraun zuen modu independentean, eta bertako kideak —gehienak— birgizarteratzen edo ETAm osatzen amaitu zuten.

ETApM VII Batzarraren amaieran eta dokumental osoan agertzen ez diren biktimei, ikus-entzunezko lanak azken bi minutuak eskaintzen dizkie. Bi minutu horietan Markiegik eta Maizak *mea culpa* onartzen dute. Markiegiren hitzetan:

Biktimekin ez zen traturik izan, ez ziren kontuan hartu, baina, une honetan, nik esango nuke eskertu egin behar zaiela, alde batetik, orduan erakutsi zuten pazientzia, zuhurtzia eta eskuzabaltasuna. Eta gure aldetik, Estatuaren aldetik, gizartearen aldetik, demokraziaren aldetik, uste dut bidezkoa dela barkamena eskatzea haiek kontuan ez hartzeagatik.

II. MADRILDIK BIARRITZERA. ETAPM TALDE TERRORISTARI BURUZKO DOKUMENTALETAN

Los polimilis lo dejaron-ek ez bezala, ETApM-n eta honen desagitearen zergatietan soilik zentratuta, une hori jorratzen duten beste lau dokumentalek (guk identifikatuak) esparru zabalago baten barruan egiten dute: ETAREN historiaren esparruan.

Dokumental horietako bat *Euskadi hors d'État* (1983) goiztiarra da, Arthur Mac Caig estatubatuarrak zuzendutako film luze zinematografikoa, Espainia eta Frantziaren artean ekoitzia. Interesik handiena, beharbada, ekoitzi eta estreinatuta datza: ETApM desagitea eta urtebetera.

Filmak laurogeita hamahiru minutuko iraupena du, eta Gerra Zibiletik laurogeiko hamarkadaren hasierara arte Euskal Herriak bizi zuen egoera deskribatu nahi du. Hala ere, Santiago de Pablo eta Igor Barrenetxeak adierazten duten bezala, Mac Cangek «Euskal auziari buruzko ikuspegi oso partziala» eskaintzen du, non ETA eta Espainiako Estatu «gatazka» baten bi mutur bortitz gisa aurkezten diren, eta Euskal Herria, nazionalismoa eta ETA elkarrekin identifikatzen direla dirudi¹².

Testuinguru horretan, Carrero Blancoren hilketa kontatu ondoren aipatzen da lehen aldiz ETApM. Aurpegia estalita duen ETAko kide batek «Carrerada»

deitzen dio krimen horri, eta ETApM-z hitz egiten du «praktika armatuaren eta masa-praktikaren» arteko osagarritasuna bilatzen duen erakunde gisa; dokumentalaren narratzaileak, berriz, ETApM ETArek fakzio «moderatua» dela dio, ETAm «gogorraren» aurrean. Gogoeta horien ondoren, dokumentalak Madrilgo Rolando kafetegian 1974an izandako atentatua aipatzen du, eta «terrorismo itsuaren lehen ekintzak odolez markatu» zituela dio hartaz: film osoan terrorismo terminoa erabiltzen den aldi bakarra da. 12 zibil eta polizia bat hil eta ETAm eta ETApM-ren arteko behin betiko haustura eragin zuen lehen atentatu bereizi gabeari buruzko aipamen negatiboa ez da harriztekoa kontuan hartzen bada dokumentalaren ekoizle eragilea Ángel Amigo zela —diktaduran ETApM-ko kide izan zen—, eta Mac Caig, aldiz, ETApM eta EEko beste kide batzuegan oinarritu zela dokumentala egiteko¹³.

Nahiz eta filmean ETArek biktima batzuk agertzen diren, eta ahotsa ere ematen zaien, errealtatea da ez dela gehiegi sakontzen terrorismoaren funtsezko alderdi horretan, eta haien presentzia desabantaila argian geratzen dela beste indarkeria batzuegatik kaltetutakoen aurrean —frankismoarena edo polizia-kidegoetako kide batzuek legetik kanpo erabilitakoa—. Dena den, ohiko zen hori garai hartako ekoizpen zinematografikoan¹⁴. Gainera, filmak jasotzen duen «gataska» historikoaren esparru horretan, biktima nagusia «euskal herria» da, oro har. Zentzu horretan, dokumentalean «Frantzia eta Espainiaren artean zarrastatutako» herri bat aipatzen da, Gerra Zibilaren, gerraostearen eta frankismoaren errepresioa jasan duena. Biktimizazio kolektibo horrek armak hartzeko erabakia justifikatzeko balio du, *herriaren* defentsan kanpoko indarkeria horri aurre egiteko modu bakartzat aurkezten baita, nahiz eta gero, behin demokrazian, armen erabilera kaltegarri bezala aurkeztu.

ETArek historiako lehen urteetako gertakari nabarmenenak erreparatu ondoren, filma 1982ko irailera iristen da azkenean, ETApM VII. Batzarrak amaiera iragarri zuen unera. Hilabete gutxi batzuk igarotzeak ematen duen ikuspegiarekin, narratzaileak honako hau azaltzen du:

Testuinguru horretan, ETApM-ren fakzio bat borroka armatutik erretiratu zen, 1982ko irailean Ipar Euskal Herrian eman zuen prentsaurrekoan adierazi zuen bezala. Beste zatiketa bat, horrek sortzen dituen arazo guztiek.

Une horretatik aurrera eta amaierara arte, dokumentalak ETAm eta ETApM-ri buruz hitz egiten jarraitzen du, bigarren hau ETApM VIII Batzar gisa aipatu beharrean.

Euskadi hors d'État eta *Los polimilis lo dejaron* filmen ondoren, 2012an *Historia de ETA* dokumentala estreinatu zen. Ordu bete inguruko lau kapituluko doku-telesail hau Reyes Ramosek zuzendu zuen, Arturo Villacortak azpizuzendu eta Ana Pastorrek ekoitzi. *Los polimilis lo dejaron*-ek bezala, La 2 katean eman zuten, Crónicas programaren barruan. Hala ere, dokumental hau ez da ETApM-ren historian oinarritzen, baizik eta ibilbide orokor bat egiten du ETA erakunde terroristan barrena, 1950eko hamarkadaren amaieran sortu zenetik

2011ko «jarduera armatuaren behin betiko amaiera» iragarri arte. Bigarren atalak, *ETA contra la democracia* izenekoak, polimilien historia jasotzen du, Trantsizioa hasi zenetik desegin ziren arte.

Atala Juan Carlos I.a erregearen izendapenaren irudiekin hasten da, 1975eko azaroan, eta aldi berean, ETAm eta ETApM-ren trantsizioaren lehen urteetako historia eta bilakaera politikoa kontatzen ditu. Antonio Elorza (Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Zientzia Politikoa katedraduna) edo Gurutz Jaurerri (Konstituzio Zuzenbideko katedraduna UPV/EHU) bezalako adituen eta inplikatuetakoz batzuen testigantzak biltzen ditu, hala nola Lourdes Auzmendirera, 1974 eta 1976 artean *Perturren* bikotekide izan zenarena, *Teo* Uriarterena edo Ángel Ugarterena. Adierazpen horiek, batzuk 1998an egindako elkarriketakoak dira, artxiboko irudiekin konbinatzen dira, unean uneko historia politikoa uneri esanguratsuenak erakusten dituztenak. Atalak biktimen adierazpenak ere biltzen ditu, baina guztiak ETAm-k eraildakoen senideak dira, eta ez ETApM-k eraildakoenak.

ETA contra la democracia atalak *Perturren* irudian sakontzen du, batez ere bere bikotekideak, Lourdes Auzmendik, egindako adierazpenen bidez, eta hark «urte haietako ETAn ezohiko figura» gisa deskribatzen du. Dokumentalak desagertzeari buruzko bi hipotesi nagusiak azaltzen ditu. Alde batetik, nabarmentzen du Donibane Lohizunen ikusi zutela azkenekoz bizirik, Francisco Mujika Garmendia eta Miguel Ángel Apalategi bereziekin auto batera igo zenean. Bestetik, gogorarazten du eskuin muturrak bere gain hartu zuela bahiketa. Hala ere, azpimarratzen du bertsio hori ez dela inoiz argitu, eta gogorazten du desagertuaren familiak beti egotzi diela errua berezietan.

Ondoren, kapituluak 1976ko beste gertakari batzuk ditu ardatz: VII. Batzarra, EIAren sorrera eta Ángel Ugarteren eta Javier Garayalde ETApM-ko buruzagiaren arteko elkarriketak Genevan alderdia legezatzeko. Era berean, 1977ko hauteskundeetan parte hartzea eztabaidatzeko hainbat euskal talde abertzalek Chiberta hotelean egindako bileren porrota eta Euskadiko Ezkerrak lortutako emaitza eskasak gogorarazten ditu (Francisco Letamendia diputatua eta Juan Mari Bandres senataria izan ziren Euskadiko Ezkerreko legebiltzarkide bakarrak). Javier de Ybarra enpresariaren bahiketa eta hilketa gogoratzen ditu, berezien esku, hauteskundeak egin eta hiru egunera, eta, azkenik, 1979an, Barajasko, Chamartingo eta Atochako atentatuak eta, 1980an, UCDko kide ziren José Ignacio Ustarán eta Juan de Dios Dovalen hilketak —horiei UCDko beste politikari baten hilketa ere gehitu zitzaizkien, Jaime Arresearena, KAAen eskutik—. Krimen horiek «ETApM-ren eta bere adar politikoa arteko harremanaren amaieraren hasieratzat» hartzen dira.

Adolfo Suárezen dimisioaren eta 1981eko otsailaren 23ko estatu-kolpe saiakeraren ondoren, dokumentalak polimilien su-eten baten iragarpena aipatzen du. Erakunde terroristaren autodesegiterako elkarriketak aipatzen ditu, Mario Onaindiaren —garai hartan EEko buruzagia— eta Juan José Rosón Barne ministroaren artean. Puntu honetara iritsita, eta xehetasun gehiago eman gabe, dokumentalak VIII. Batzarrarekin eta 1982ko irailaren 30ean Biarritzen emandako

prentsaurrekoaren irudiekin ixten du atala, non ETApM VII Batzarreko buruzagiek, aurpegia agerian, desegitea iragarri zuten. *Off*-eko ahotsak honela dio amaieran:

Ez zen armarik entregatu. Eta ez zen negoziazio politikorik egon. Presoak birgizartetzeko eta errefuxiatuak etxertzeko baldintzak adostu ziren. Adostasuna orokorra izan zen. Nazionalista erradikalak eta ETA militarra bakarrik geratu ziren bazterrean. Azken horiek kideren batek etorkizunean birgizartetzearen biderei jarraitzea eragozteko presteuden erailketaren bidez.

Espainiako Telebistak *Historia de ETA* eman eta bi urtera, ETB 2k *ETA: un paso hacia el final* (2014) eman zuen. Juan Carlos Etxeberriak gidatutako doku-erreportajea da, eta erakunde terroristaren bilakaera ikuspuntu historiko-politiko batetik behatzen du. Horretarako, Juan Pablo Fusi, Gaizka Fernández Soldevilla, José Luis Orella, Francisco Letamendia edo Pedro Ibarra historialari eta kazetarien laguntza izan du, eta *Euskadi hors d'État* (1983) dokumentaleko eta BBCren *ETA: coming in from the Cold* (1998) erreportajeko irudiak sartu ditu. Dokumentalak ETAREN historiako gertaera garrantzitsuenen errebaso objektiboa egin nahi badu ere, De Pablo, Mota Zurdo eta López de Maturanak uste dute filmak biktimak eta mugimendu bakezaleak alde batera uzten dituela eta gertakari gehiegi murrizten dituela 60 minututan, Miguel Ángel Blancoren bahiketarik aurrera, narrazioa apur bat arrapaladan eginez¹⁵.

ETApM filmaren 12. minutuan agertzen da lehen aldiz, Carrero Blanco-ren hilketeta eta Rolando kafetegiko atentatua kontatu ondoren. Narratzailearen esanetan, azken atentatu bereizi gabe horri buruzko eztabaidak «lehen zatiketa garrantzitsua eragin zuen erakundean». Hala, 1974ko urrian, ETA milien («herri-matxinadaren aldekoak») eta polimilien («gehiengoa dira eta indarkeria selektiboaren alde egiten dute») artean banatu zen.

Une horretatik aurrera, dokumentalak ETApM-ren historiarako erabakigarriak izan ziren gertaera batzuk jorratzen ditu, hala nola, Otso Operazioa eta *Txiki* eta Otaegiren exekuzioak 1975ean, edo *Perturren* desagerpena 1976an. Azkenik, filma, 21. minutuan, 1982an ETApM VII Batzarra desegin zela iragartzera iristen da. Honela dio narratzaileak: «1974ko zatiketarekin ETAREN baitan irekitako zauria polimiliek armeri egindako ukoarekin burutu zen».

Orduan, dokumentalean une nahasi bat gertatzen da, *off*-eko ahotsak polimilien desegitea «1982ko irailaren 30ean Biarritzen egindako ETApM-ren VII. Batzarrean gauzatu» zela baieztatzen baitu. Berez, batzar hori 1976ko irailean egin zen. 1982an, otsailean, VIII. batzarra izan zen, zazpikoen eta zortzikoen arteko behin betiko haustura ekarri zuena. 1982ko irailaren 30ean Biarritzen egin zena zazpikoen desegitea iragarri zuten prentsaurrekoa izan zen.

Une horri dagokionez, dokumentalak Juan Pablo Fusi, José Luis Orella eta Gaizka Fernández Soldevilla historialarierik ahotza ematen die. Fusik azpimarratzen du polimiliek «borroka armatua» uzteko hartutako erabakia zuzenean lotzen dela O-23 delakoaren inplikazioekin, eta Orellak, berriz, bi arrazoi nagusi aipatzen ditu. Alde batetik, Mikel Lejarzaren (*Lobo*) infiltrazioak eragindako

barne-arazoa hartzen du kontuan, erakundearen zati handi baten desegitea ekarri baitzuen, eta armak «erregulartasun» berarekin erabiltzea eragozti. Bestalde, azaltzen du nola EE demokrazian eratzeak «politikari aritzeko» aukera eman zien, eta horrek indarkeriazko bidetik aldendu zituen. Azkenik, Fernández Soldevillak argitzen du hala nahi izan zuten polimili guztiak gizarteratu zirela «ezkutuko amnistia» moduko batean. Eskaintza hori ETAm-ri luzatu zitzaion ere, baina miliek, armak uzteari ezetz esan zioten polimiliek bezala, uko egin zioten. Fernández Soldevillaren adierazpenen ondoren, ETApM desagertu egiten da agertokitik, eta dokumentalak aurrera egiten du ETAREN historian, 2011n terrorismoaren behin betiko amaiera iragarri arte.

Une horretara arte heltzen da ere 2016ko maiatzean ETB 2n emandako *Las huellas perdidas (Oinatz galduak)* doku-telesaila. Fermin Aiok zuzendu eta Amaia Cayerok aurkeztutako dokumental hau, Filmak Media-k ekoitzia, Iñigo Urkulluren (EAJ) gobernuak hasitako Bake eta Bizikidetzaren Plana lortzeko Eusko Jaurlaritzaren eta EITBren arteko lankidetzaren hitzarmenetik sortu zen. De Pablo, Mota Zurdo eta López de Maturanaren arabera, ekoizpena ikusleria gazte bati zuzentzen zaio, «bizitza osoan zehar terrorismo-testuinguru batean bizi izan denari eta indarkeriak astindutako gizarte batean existitzea nola egokitu zaion ulertzea bilatzen duenari»¹⁶. Eta gehitzen dute:

Aiok hainbat frontetik eragindako indarkeriari eta terrorismoari buruzko kontakizun komun eta autokritiko bat eraikitzea bilatu zuen; alde batetik, zerk egin zuen posible erantzuten eta ulertzen saiatu zen, eta, bestetik, inplikaturako alde guztiekin konponbide erreparatzaile, adiskidetzale eta arretatsua bilatzen saiatu zen¹⁷.

Fermin Aiok berak, dokumentalaren aurkezpenean, Donostiako San Telmo Museoa, adierazi zuenez, giza historia bat izan arren, izugarrikeriarena, «gizar-teak indarkeria eta izua gorabehera aurrera nola jarraitu ahal izan duen erakustean duen istorio bat» ere bada. Ildo beretik jo zuten Jonan Fernándezek, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen idazkari nagusiak, eta Maite Iturbek, 2013tik 2020ra EITBko zuzendari nagusi izan zenak. Lehenengoaren ustez, «memoria parte-hartzailea, eztabaidatua eta partekatua [...] eraikitzearen tresna egokia» da dokumentala; bigarrenak, berriz, «indarkeriaren aurrean gizarte-kontzientzia kritikoa» indartzeko duen balioa nabarmendu zuen, bai eta «giza eskubideekin eta bizikidetzaren demokratikoaren balioekin» konprometitua dagoela ere¹⁸.

Agian horretatik erabaki zen edukiaren zati bat *Herenegun!* hezkuntza-programan sartzea. Eusko Jaurlaritzak 2018an sustatuta, Euskadiren memoria garaikidea (1960-2018) eraman nahi zuen ikasgeletara. DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 2. mailako ikasleei zuzendutako proba pilotu bat sortu zen, Historia irakasgaiaren barruan «bereziki asaldatua eta bortitza izan den aldi bat ulertzeko» gai izan zitezen¹⁹. Proba pilotu horrek dokumentalaren bost kapituluetakoko bakoitzeko 20 minutuko hautaketa bat barne hartzen zuen²⁰.

Hala ere, ETBn emandako emanaldian *Las huellas perdidas*-ek polemika nabarmenik sortu ez bazuen ere, *Herenegun!* saiorako proposatu zenean, orduan bai. EH Bildu koalizioak, Egiari Zor «Estatuaren biktimen» kolektiboak eta ezker

abertzaleak, oro har, uste zuten unitate didaktikoak kritika ETArengan bakarrik oinarritzen zuela, eta Estatuako terrorismoaren erantzukizuna saihesten zuela, azaletik tratatzen baitzuen²¹. Bestalde, Terrorismoaren Biktimen Kolektiboa (Covite), Fernando Buesa Fundazioa edo Terrorismoaren Biktimen Fundazioa (FVT) bezalako elkarteek bideoak kritikatu zituzten, «ETaren historia zuritu eta justifikatu nahi duen ikuspegi partziala» emateagatik²². Kritika horrekin bat egin zuten PPK, PSOEk eta historialari batzuek ere. David Mota Zurdo historialariak esan du kritikak ulergarriak direla, bai doku-telesailaren testuingurua nahikoa ez delako, bai aukeratutako ikuspegia eta lekukotzak kontuan hartuta. Hala ere, gaineratu duenez, «historialariei dagokie, eta ez erakundeei, alderdi politikoei eta komunikazioaren profesionalei», bai Historiaren interpretazio zientifikoa, bai «gizarte-aniztasuna ordezkatzeko duen historia plurala bultzatzea»²³.

Kritika ugari jaso zituenez, Eusko Jaurlaritzak atzeratu egin zuen *Herenegun!* abian jartzea. Lau hilabetez erakundeek egindako ekarpenak aztertzen aritu ondoren, iragarri zuen material didaktikoa aldatu egingo zela «biktimen profilak zabaltzen dituzten testigantzak sartzeko», «zalantzak» eragiten zituzten eszenak aldatu edo ezabatuko zituztela eta «terrorismoa legitimatzeko teoriari» ezein aipamen egitea saihestuko zutela²⁴. Gaur egun, eta adierazitako aldaketan ondoren, *Herenegun!* hainbat ikastetxetan ematen ari da eta euskal sistema osora hedatuko da 2022-2023 ikasturtean²⁵.

Las huellas perdidas dokumentala, beraz, telebistaren pantaila gainditu, eta ikasgeletan sartu da. Ia ordubeteko iraupena duten bost kapitulueta jasotako istorio eta lekukotza batzuek ere beste hainbeste egin dute. Kapitulu bakoitzak ETaren terrorismoaren hamarkada bat du ardatz, eta hirugarrenak, lauogeiko hamarkadakoak, ETApren desagiteari eskaintzen dizkio azken bederatzi minutuak. Hipercorreko atentatua, Lemoizko zentral nuklearraren inguruan gertatutakoa, José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabalaren bahiketa eta hilketa eta Euskalduna ontziolen itxieraren inguruko protestak erreparatu ondoren, polimilien desagitearekin amaitzen da atala, 1974 eta 1976 artean ETApren kide izan zen Martín Auzmendiri egindako elkarriketa baten bidez.

Lehenik eta behin, infografia batek ETaren zatiketa ezberdinak azaltzen ditu pantailan, hasieratik erakunde ETAm eta ETApren artean banatu zen arte. Jarraian, eta polimiliak zortzi urtez jardunean egon zirela eta gutxienez hogeita hamar hilketaren errudun izan zirela jakinarazi ondoren, atalak une erabakigarriak gogorarazten ditu, hala nola Rolando kafetegiko atentatua, *Perturren* desagertzea edo EIak 1977an egindako hauteskundeetan parte hartu izana EE koalizioaren bidez. Urte horietan ETApren k eta ETAm-k izandako indarkeria gorakadari erreferentzia egiten dion arren, ez ditu 1979ko Chamartín, Atocha eta Barajaseko atentatuak aipatzen, ezta UCDko politikarien hilketak ere, horren erabakigarriak izan zirenak 1982ko desagiterako eta beste dokumental eta fikzio batzuetan bai aipatu izan direnak. Dokumentalak, ordea, bai aipatzen du otsailaren 23ko estatu-kolpe saiakera, eta, berehala, PSOE eta EEren arteko ituna, ETApren VII Batzarraren desagitea iragartzeko.

Dokumentalak argitzen du, halaber, polimilien zati batek uko egin ziola armak uzteari, eta ETAm-ra itzuli zela. Auzmendiri preso askapenez eta erbesteratuen itzuleraz galdetzen dio, eta Gobernuak erabaki horiek nola justifikatu zituen. Haren ustez, disoluzioaren ondoren, preso eta erbesteratuen gaia «irizpide onez» konpontzen saiatu ziren. Horretarako, Auzmendik dioenez, banakako eskaeren bidez, kondena betetzen ari ziren preso jada epaituei indultua eman zitzaion, atzerrian zeudenen auziak artxibatu egin ziren eta espetxean egon arren, oraindik epaituak izan ez zirenei behin-behineko askatasuna eman zitzaion, ondoren, euren auziak artxibatze edo absolbitzeko. Azken hori, dio, «erabat imajinaezina» da gaur egun. Halaber, Cayerok Auzmendiri galdetzen dio ea polimiliek armak entregatu ote zizkieten indarkeria utzi nahi izan ez zutenei, baina ETApren kide ohiak ez du horren inguruko jarrera argirik ematen.

III. «GUK EGIN GENUENA». POLIMILI BATEN MEMORIA AMERIKAN

Ez dira dokumentalak bakarrik izan ETApren desagiteari eta haren kideen birgizarteratzeari heldu diotenak. Fikziozko ikus-entzunezko lan batzuk ere, gutxi gorabehera errealitateari lotuak, arduratu dira haietaz.

Hurbileko historiaren une hau fikziotik jorratu duten piezetako bat *Dragoi ehiztaria* film luze zinematografikoa da, jatorriz euskaraz filmatua. ETApren kide baten istorioa kontatzen du, terrorismoaren amaiera eta ETaren adar polimiliaren desagitea erabakitzen ari diren hilabeteetan Latinoamerikara bidaiatzen duena, Nikaraguan eta El Salvadorren gerrillarekin elkarlanean aritzeko. Bertan Maddalen ezagutuko du, bere seme-alaben ama izango den mediku euskalduna.

Euskal zinemaren historian euskaraz filmatutako filmik garestiena da, 2,5 milioi euroko aurrekontuarekin, Zurriola Group Entertainment-en ekoizpen hau, Artearen eta Industria Zinematografikoaren Institutu Kubatarrarekin (ICAIC) lankidetzan, Donostia eta Kuba artean filmatu zen 2009an, eta TVE, Euskal Telebista (ETB) eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan zuen. Zinema aretoetan ikusi zuten 30.442 ikusle urriek 126.328 euroko diru-bilketa utzi zuten, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuen arabera²⁶, ekoizpenaren kostuaren oso azpitik dagoen kopurua.

Filma 2012an estreinatu zen aretoetan, filmaketa amaitu eta bi urte baino gehiagora, Patxi Barco zuzendariak eta Ángel Amigo ekoizleak osatutako taldearen haustura publikoa eragin zuen polemika baten ondoren. «Tamalez, ezin dut onartu ekoizleak *Dragoi ehiztaria* filma estreinatze erabili nahi duen kopia», azaldu zuen Barco komunikabideetara bidalitako ohar batean, filmaren azken muntaketari muzin eginez eta Amigoren eta ekoiztetxearen lanetik aldentuz²⁷.

Zuzendariak azken bertsioarekin duen desadostasun horrek bermatzen du *Dragoi ehiztaria* Ángel Amigoren obra pertsonaltzat har daitekeelako intuizioa. Ekoizlea ETApren kide izan zen, armak utzi zituen 1977ko amnistia

ondoren, eta zinemaren munduan murgildu zen 1981ean, Imanol Uribek zuzendutako *La fuga de Segovia* lanaren ekoizpenarekin²⁸. Amigok kontatu duenez, filmaren jatorrizko ideia 2007an sortu zen, berak zuzendu zuen *El año de los demonios* dokumentaletik abiatuta. *Perturren* 1976ko desagertzearen inguruko dokumentalaren filmaketan, antzinako kide polimiliek topo egin zuten berriro, eta haien elkarrizketetatik sortu zen *Dragoi ehiztariari* bidea eman zion ideia. «Ohartu nintzen azken urteetan borroka armatuari egindako kritikek begi bistakoa eta mingarria zen zerbaitetan jarri zutela arreta, biktimak. Baina borroka armatuaren ondorioak ez dira haietara mugatzen, borroka egiten dutenei ere eragiten baitiete. Esperientzia hartatik inor ez zen kalterik gabe aterata», azaldu zion ekoizleak El Correo egunkariari 2010ean²⁹.

Film honetan, Amigok fikzioaren aldeko apustua egiten du, indarkeria hainbat testuingurutan helburu politikoei erabiltzeari eta justifikatzeari buruzko hausnarketa planteatzeko. Protagonista, Gorka (Asier Hormaza), 2009an hasi zen bere bizipenak gogoratzen eta zalantzan jartzen, bere seme txikiak, Aitorrek, bere iraganari buruz galdetu ondoren ETAk zinegotzi sozialista bat hil, eta Askapen Nazionaleko Farabundo Martí Fronteak (FMLN) —laurogeiko hamarkadan harekin kolaboratu zuen gerrilla, alderdi politiko legal bihurtua 1992ko Bake Akordioaren ondoren— El Salvadorreko hauteskundeak irabazi zituen egun berean.

2009ko Donostiatik, Gorkak bere indarkeria istorioa gogoratzen du —flashbackaren eta protagonistaren *off*-eko ahotsaren teknikekin berreskuratuta—, eta bere buruari galdetzen dio nola azalduko dion semeari «elkartasunez hiltzen zuela», Aitorrek bere istorioa miresmenez entzun gabe, aitak gerrako guduak kontatzen zizkionean berari gertatzen zitzaion bezala. «Ea nola kontatzen dizudan, maite duzun jendea imitatzekeo tentazioa handia baita», planteatzen du.

Gorkaren oroitzapenak galdera batekin hasten dira, eta galdera horrek bere iraganarekiko begirada kritikoa erakusten du: «Noiz hasi zen hura guztia izorratzen?». Bere buruari ematen dion erantzuna bahiketa zapuztu baten eszena da: protagonistak zuzentzen duen ETApM-ko komandoa UCDko diputatu baten etxean sartzen da, baina politikaria Madrilen dago, Kongresuan, eta etxean emaztea baino ez dute aurkitzen. «Agian onena izango da», adierazten du hurrengo eszenan buruzagi polimilietako batek, Larraunek, komandoaren porrotaren berri izatean: «UCDren aurkako kanpaina hau erabateko hondamendia izaten ari da».

Fikzioaren protagonistak ETApM-ren gainbeheraren hasiera markatzen du koalizio zentristaren politikarien aurkako erasoetan. Kanpaina horrek, egiantan, ETAREN adar politiko-militarraren eta EIAREN arteko behin betiko urruntzea ekarri zuen, 1977an ETApM bi zatitan banatu ondoren jaiotako alderdia: «borroka armatuarekin» jarraituko zuen erakunde terroristak batetik, eta ETAREN adar horren ingurune zibila antolatzeaz arduratuko zen sektore politikoa. Urte batzuetan, bi aldeek arteko harremana «ia sinbiotikoa» izan zen³⁰: funtzio desberdinak zituzten bi organo bereizi ziren, baina lotura estuen bidez elkartuta zeuden. Hala ere, denborak lausotu egin zituen lotura horiek. Horretan eragina izan zuten, besteak beste, ETApM-ko kide izan ez ziren militante berriak

alderdian sartu izanak, baina batez ere «joko parlamentarioaren eta terrorismoaren logikak elkarren artean bateraezinak» izateak³¹. Eta hori agerian geratu zen UCDren aurkako kanpaina.

Adolfo Suárez buru zuen alderdiaren aurkako lehen ekintzak bahiketak izan ziren, hala nola Javier Rupérez diputatuarena, 1979an 31 egunez gatibu egon zena. Orduan ere tirabira batzuk izan ziren ETApM eta Euskadiko Ezkerra koalizioeko EIA alderdiaren artean, ekintza terroristak horiekin eta beste batzuekin lotuta, baina behin betiko dibortzioa 1980ko udazkenean etorri zen, UCDko Ustarán eta Doval kideen hilketaren ondoren. Nahiz eta ez dagoen argi EIAk erabakian parte hartu zuen ala ez, egia esan krimen horiek alderdiko militantzia hunkitu zuten, eta polimilien ekintzak publikoki gaitzetsi zituzten, behin betikoa zirudien haustura erakutsiz³².

Filmean ez dira aipatzen hilketa horiek, eta ez dira agertzen ETApM-ren beste atentatu hilgarri batzuk —aipatutako bahiketa horren eta Donostiako Gobernu Zibilaren eraikinari granada-jaurtigailuekin egindako eraso baten eszenak baino ez dira jasotzen—, baina UCDren aurkako kanpaina horrek eramaten du protagonista bere «borrokaren» zilegitasuna eta zentzua planteatzera, beste kide polimili bati aitortzen dion bezala: «Nik uste dut porrot egin dudala. Zuek behintzat Francoren aurka borrokatu zenuten, eta Carrerorena ere hor dago, baina guk okerrera asmatu dugu: politikarien aurkako atentatuak». Testuingurua aldatu egin da, jada ez dago frankismoko «herensugeriak».

Porrot sentimendu horri eruduntasun sentsazioa gehitu behar zaio, berak zuzentzen dituen komandoko kideak atxilotu egiten baitituzte berak ihes egitea lortzen duen bitartean. «Borroka armatua» uztea harrapatutako kideei traizio egitea dela uste duen arren, ETApM-ren su-eten baten alde bozkatzera erabakitzen du, «erabaki zentzudun posible bakarra» delakoan. Ondoren, Erdialdeko Amerikara doa gerrillari boluntario gisa laguntzera, polimili internazionalista batzuek benetan egin zuten bezala: «dragoi» berriak aurkitu behar ditu haien aurka borrokatzeko.

Pelikulako eszena batek 1980ko azaroan ETApM-ren koadroen batzarra irudikatzen du. Pantailan ikusten da hainbat kaputxadunek, mahai luze baten inguruan eserita, botoa eman eta onartu egiten dutela su-etenaren adierazpena eta Gobernuarekin negoziatzeko aukera, eskua altxatuta eta gehiengo zabalarekin —egiatan, aldeko berrogeita lau boto, kontrako bat eta lau absentsio³³—. Su-etena hilabete batzuk geroago sartuko zen indarrean. Erabaki horiek polimilien zati handi batek partekatzen duen porrot sentsazioak eta EIA-EEren eskaerek animatzen dituzte, eta aurreko eszena batean pertsonaie-tako baten ahotan ere islatzen dira: «EE borroka armatua uztearen alde dago».

Filmean, ordea, ez dira aztertzen EIA-EE armen erabilera kritikatzera bultzatzen duten arrazoiak. Aldaketa hori terrorismoari buruzko «hausnarketa etiko» batetik abiatu ote zen ere ez da saihesten, edo, Fernández Soldevillak eta López Romok lekukotasun batzuk oinarri hartuta defendatzen duten bezala, kontu estrategiko baten ondorio izan ote zen: atentatuak ez ziren baliagarriak, eta, izatez, alderdiari kalte egiten zioten (ikus IV. atala)³⁴.

Era berean, ez dira jasotzen EIAko eta Barne Ministerioiko ordezkarien arteko elkarrizketak, alderdiak «konpontzeke dauden arazo eta aldarrikapenei irtenbide negoziatua ematea» bilatzen baitzuen, eta Ministerioa terrorismoaren amaiera lortzen saiatzen baitzen. Negoziatutako irteera haren arrakasta, neurri handi batean, ETApM-k armak uztearen mende zegoen, eta halaxe azaldu zuen EIA-EEk 1981eko otsailaren 19ko ohar batean³⁵.

ETApM-k behin betiko uko egiten dio indarkeriari protagonista Amerikan dagoenean, nahiz eta albistea euskal lurretan gertatzen den eszena baten bidez jasotzen den. Pertsona talde batzuk taberna batean daude kartetan jokatzeko eta edaten, eta, segundo batzuen tartean, beren jardura eteten da, lokaleko telebistan agertzen den informazio baten ondorioz, denek adi entzuten dutena:

ETA politikoko-militarrek buruzagiek erakunde armatu gisa desegin direla iragarri dute gaur. Jakinarazi dutenez, indarkeriari gabeko metodoen bidez beren helburu politikoen alde borrokatzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute. Borroka armatua gaitzesteak aukera emango du Euskadiko Ezkerraren eta Gobernuaren arteko negoziazioak hasteko eta plan-teamendu horiek onartzen dituzten errefuxiatu eta preso guztiak etxeratzeko. Bestalde, ETA militarrek agiri batean esan duenez, borroka armatuaren erabilera berresten du eta ETApM-ko kideei *likidazionistak* eta traidoreak izatea leporatzen die.

Telebistako lokuzio horrek laburbiltzen ditu 1982ko irailaren 30eko prentsaurrekoan ukitu ziren puntu nagusiak, non ETApM VII Batzarreko hamar buruzagik —zortzikoez beren bidea hartua zuten eta 1984ra arte atentatuak egiten jarraitu zuten— desegitea iragarri zuten, aurpegia agerian eta benetako izenekin. Prentsaurreko horretan, hizlarien atzean bi irudi agertzen dira: ETaren anagrama eta *Perturren* argazki bat. 1976an desagertutako buruzagi polimilia behin baino gehiagotan aipatzen da filmean zehar, eta, dirudenez, teoria horren arabera, haren desagertzearen arduradunak erakundearentzat zuen estrategia-rekin ados ez zeuden kide batzuk izan ziren. Bitxia da film honek teoria hori bultzatzea, Amigok *Dragoi ehiztaria* filmatu baino urte batzuk lehenago zuzendu zuen *El año de todos los demonios* (2007) dokumentalean errudunak neofaxista italiarren laguntza izan zuten eskuin muturreko erakundeetako kideak izan zirelako tesiaren alde egin baitzuen.

Filmean agertzen den beste puntu interesgarri bat ETAm eta ETApM-ren norgehiagoka da. Tentsio hori protagonistaren eta erakunde terroristaren kontrako adarreko kide batzuen arteko liskar baten bidez islatzen da amerikar lurraldean, eta traidore eta likidazionista izatea leporatzen diote Gorkari. De Pablok filmaren analisisian adierazi duen bezala, ETAm-ren irudikapena ETApM-rena baino askoz kritikagoa da: lehenaren militanteak «askoz fanatikoagoak» dira³⁶. Hala ere, ez dago polimilien indarkeriaren eta ibilbidearen justifikaziorik. Izan ere, Gorkak ETaren historia kriminalean izandako erantzunkidetasuna aitortzen du. 2009an telebistan bi gizon maskaratuk zinegotzi sozialista bat hil dutela entzuten duenean, damutu egiten da: «Joder, eta tipo hauek ez dute uzten. Egia esan, gertatzen ari dena ez litzateke gertatuko guk egin genuena gabe».

Filmak ETApM-ren desegitea du ardatz, eta ez dio zuzenean heltzen ETaren 2011ko terrorismoaren amaierari; hala ere, ezin da ahaztu 2012an estreinatu zela, «jardura armatuaren behin betiko amaiera» iragarri eta urtebete baino gutxiagora, eta, De Pablok iradokitzen duen bezala, litekeena dela, Gorka eta ETApM-ren istorioaren bidez, Ángel Amigok XXI. mendeko ETA ere aipatzea³⁷. Filmaren eta filmaketaren ideia 2011ko iragarpena baino lehen eman bazen ere, bi milako lehenengo hamarkadaren amaieran ETaren ahultasuna sumatzen zen, eta haren amaiera hurbil egon zitekeela³⁸.

Dragoi ehiztariak su-etenaren eta ETApM-ren desegitearen ondoren irteera minoritario bat aukeratzen duen protagonista bat du ardatz: Amerikan geratzea. «Euskadin nire komandoko jendea kartzelatik atera zen, eta bizitza normala egiten zuen, baina berdin zitzaidan, nik zerbait handia egin nahi nuen, edo zerbait handia egitea zela uste nuen», hausnartuko du Gorkak urte asko geroago bere iragana gogoratzen duenean. Polimili ohien birgizarteratzeari eta eguneroko bizitzara itzultzeari ez zaio luze heltzen filmean, baina badira aurkituko litzuketen zailtasunei buruzko aipamenen bat: «Joder, eta orain lana bilatzera, eta hilaren amaierara soldata batekin iristera», deitoratzen du Larraunek, erakunde desegin ondoren Gorka Amerikan bisitatzera doan buruzagi polimilietako batek. Gorkak hamar urte geroago egin beharko zion aurre bizi-modu normalera berregokitzeari, bere lankide ohiek bera Euskadira itzultzea negoziatu ondoren. Bera izan zen «azkena».

IV. «AMAITU DA». ARMAK ISILARAZTEA LORTU ZUEN GIZONAREN KONTAKIZUNA

Azken aldiko historiaren aldi hau fikziotik eta gertaerei fidelki³⁹ heldu dien beste lanetako bat Ana Murugarren nafarrak zuzendutako *El precio de la libertad* bi kapituluko minitelesaila da. Blogmediak, ETBk eta TVEk ekoitzi zuten, Kultura eta Kirol Ministerioari atxikitako Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Benetako gertaeretan oinarritutako lan honek Mario Onaindiaren bizitza du ardatz, eta, beraz, *biopic*-tzat har daiteke. Onaindia 1966an sartu zen ETAn, EAJn militatu ondoren, eta laster atxilotu zuten. 1970eko Burgosko epaiketan heriotza-zigorra ezarri zioten⁴⁰, eta Francok indultua eman zion. Zigorra, kondenatutako gainerako kideena bezala, biziarteko kartzela-zigorragatik komutatu zuten. ETApM-ren aldeko hautua egin zuen erakundearen bi adarren arteko zatiketa gertatu zenean, eta, zortzi urte giltzapetuta eman ondoren, Belgikara erbesteratu zuten Espainiako lehen hauteskunde demokratikoen aurretik, 1977an. Urte hartako amnistia orokorrak karguetatik aske utzi zuen, eta, Euskal Herrira itzulita, bere ideiak bide politikotik defendatzeari ekin zion, nahiz eta denbora gehiago behar izan zuen indarkeria zorrotz arbuizatzeko. EIAko idazkari nagusi hautatu zuten, eta EEkoa ondoren. Handik, ETApM VII Batzarra desegitea ahalbidetu zuten elkarrizketetan parte hartu zuen 1982an.

Onaindia lider eta gero erreferente moral zela, alderdia moderatzen joan zen, eta 1993an PSErekin bat egin zuen, egungo PSE-EE sortuz. Onaindia alderdi berriaren lehendakariorde izan zen, baita senatari ere⁴¹. Iraganean ETAKoa izan arren, aktiboki inplikatu zen ETAREN aurkako eta bakearen aldeko borrokan. Horrek erakundearen jomugan jarri zuen, eta bizkartzaina eramatera behartu zuen. 2003an hil zen, minbiziak jota.

Minitelesailak hirurogeiko hamarkadaren amaieratik, Onaindia erakundearen sartu zenetik, ETAPm desegin zen urtera arteko aldia du ardatz, nahiz eta protagonistaren haurtzaroko eszena batzuk eta 1982az geroztiko beste batzuk barneratzen dituen. Telesailaren izenburua Onaindiak 2001ean argitaratu zuen *El precio de la libertad (1948-1977)* oroitzapen-liburuarenaren berdina da, eta hil ondoren argitaratutako bigarren ale batekin osatu zuen: *El aventurero cuerdo (1977-1981)*⁴² Hala eta guztiz ere, Joaquín Trincado ekoizleak zehaztu du lana ez dela Onaindiari buruzko *biopic* bat, baizik eta «umore ukiturik faltan ez duen thriller politiko bat, zeinean Marioren pertsonaia azken aldiko historia-ren garai bati buruz hitz egiten duen film baten gidaria den»⁴³.

El precio de la libertad Donostiako Zinemaldian estreinatu zen, eta 2011n eman zen lehen aldiz euskal telebista publikoan, PSE-EE Euskal Herrian boterera iritsi eta bi urtera, Patxi López lehendakari zela. TVEk, bere aldetik, urte batzuk behar izan zituen oraindik minitelesaila zabaltzeko: emisioa 2012rako iragarrita zegoen, 2011ko azaroaren 20ko hauteskunde orokorrak igaro ondoren. Hauteskunde horietatik Alderdi Popularra atera zen garaile, baina 2019ko Gabonetan ikusi ahal izan zen La 2 katean lan hori, eta haren bigarren zatiak katearen batez besteko audientzia bikoiztu zuen, bi milioi ikusle baino gehiagorekin⁴⁴. 2015ean, TVEko bozeramaile batek egunkari bati azaldu zion oraindik ez zela «emisio-irizpideen arabera» programatu, ez zelako «une egokia» aurkitu horretarako. Hala ere, Joaquín Trincado obraren ekoizlea ziur zegoen emisioak blokeatuta jarraitzen zuela, telebista publikoko zuzendari batzuei deserosoa egiten baitzitzaien Onaindiaren irudia telesailaren lehen kapituluaren, ETako militante gisa diktadurari aurre egin behar dion garaian, hain zuzen ere⁴⁵. «Beste herrialde bat zen, beste ETA bat zen, ni beste bat nintzen, baina egin beharrekoa egin nuela uste dut oraindik ere. Orain egiten dudanarekin sinesten dudana bezala», dio Onaindiaren pertsonaiak bigarren kapituluaren, frankismo garaiko erakundeko militantziaz galdetzen diotenean.

Lehen kapituluaren demokraziaren lehen urteetan ere barneratzen da. Onaindiak eta bere kideek kartzelan jasotzen dute Francoren heriotzaren albistea, eta bertan jasotzen dute Adolfo Suárezen Gobernuaren proposamena, 1977ko hauteskundearen aurretik espetxetik ateratzeko: erbesteratzea. Azken minutuek protagonistaren *off*-eko ahotsa jasotzen dute. Belgikatik gurasoei idazten dien gutun bat irakurtzen du, eta bertan ohartarazten die muga zeharkatuko duela Askatasunaren Aldeko Martxara joateko, Euskadirentzako autonomia estatutua eta «preso politikoentzako» amnistia orokorra eskatzen zuena. Eta *off*-eko ahots horrek berak hurrengo urteetan hartuko duen bidea aurreratzen du, EIAko idazkari nagusi izendatua izan ondoren: «Azkenean nire erabakia hartu nuen:

nire herrialdeko bizitzan parte hartzea politika eginez, armarik gabe. Badakit batzuek ez dutela nik bezala pentsatzen, eta ez dituztela utzi nahi. Ikusiko dugu nork duen arrazoa amaieran. Ea hau ondo amaitzen den».

Bide politiko demokratikoaren aldeko eta indarkeriaren aurkako apustu hori da minitelesailaren bigarren kapituluaren abiapuntua. Bertan, ETAPm VII Batzarraren desegiteari eta, neurri txikiagoan, kideen birgizarteratzeari helden zaio zuzenean.

José Ignacio Ustaránen aurkako atentatu hilgarriaren berri izan ondoren, Onaindiak ETAPm-ko bere kide ohiek armak utz zitzaten lortzeko erabakia hartu zuen, eta bide luze, konplexu eta arriskuz bete egin zuen. Lehen urratsa Frantziara Eduardo Teo Uriarterekin batera gurutzatzea da —hura ere ETAKoa izan zen, Burgosen kondenatua eta indultatua izan zen, politikaren alde egin zuen eta EIA-n militaratu zuen—, ETAPm-ko kideak, beren kide ohiak, ohar daitezen indarkeria ez dela bidea, testuingurua aldatu egin dela eta euren bizitza berreskuratzeko aukera dutela:

Erakundearen ni bezala pentsatzen duten asko [daude], nazkatuta daudenak, etxera itzuli nahi dutenak, badakitelako etxean bizi daitekeela. Aurrean ez daukagu militarrik eta faxistarik, orain Gobernu bat dago, eskuinekoa, bai, baina hautetsontzietan aukeratu eta guri entzuten saiatzen dena. Batzuetan ez digu ulertzen, baina azalpenak ematen jarraituko dugu.

Euskadira itzulita, Mario Onaindia eta Juan Mari Bandres abokatua eta Kongresuko EEko diputatua Carlos Garaikoetxea (EAJ) lehendakariarengana doaz laguntza bila: Euskal Estatutuaren inguruko aurrerapenak zein puntutan dauden jakin behar dute ETAPm-ko kideen aurrean argudio gisa erabiltzeko. Eta hala egiten du honek.

Baina Onaindiak beste urrats bat emango du oraindik aukera suertatzen zaionean: Juan José Rosón Barne ministroak berarekin biltzera gonbidatu du, eta EIAko kideak, alderdiaren zuzendaritza kontsultatu ondoren, zalantzarik gabe onartzen du. Topaketa hori, askoren artean lehena, 1980. urtearen amaieran egin zen Los Arándanos jatetxeko gune diskretu batean, Madrilan, eta horrela birsortzen da fikzioan. Telesailaren arabera, ministroa pertsona adeitsua eta zuzena da, entzuteko eta ETAPm-k armak uztea erraztuko duten erabakiak hartzeko prest dagoena. Gobernu beldur da Gudarosteko sektore inboluzionistenen estatu-kolpe bat emango ote duten, eta ETAk hiltzeari uztea behar du. Horregatik, Rosónek ez du zalantzarik Onaindiari ziurtatzeko «kasuz kasu azter daitekeela» eskatzen dion amnistia, eta polimili askok armak utzi eta Euskadira itzultzeko erabakia har dezaten lagunduko duela. Horrela amaitu zen Onaindia eta Rosónen pertsonaien arteko lehen topaketa. Bi aldiz hitz egiten dute berriro telesailan: bata, Suárezek Gobernuko presidente kargua utzi ondoren, eta, bestea, Joseba Arregi Izagirre ETAm-ko kidea komisarian kolpeka hil ondoren.

Kasuz kasuko amnistiaren promesarekin, Onaindiak eta Uriartek polimilietan hitz egiten dute berriro. Entzuten dituzte, baina batzuek aurka egiten dute: ez dute gaituak izan diren sentsazioerik eman nahi. Hori saihesteko, atentatu

gehiago egitea planteatzen dute, terrorismoa bertan behera uzteko erabakia hartu aurretik. Gainera, polimilietako batek «hor behean agintzen dutenekin» izandako elkarrizketa bat aipatzen du, Euskadiko EAJri erreferentzia argia eginez, non armak uzteko unea ez zela esan zioten. Xehetasun horrek islatzen du Bandresen Xabier Arzalluzi, garai hartan EAJko presidente zenari, egindako salaketa, hainbat polimiliren testigantzek sostengatua. Salaketa horren arabera, politikariak iradoki zien ez zela desegiteko unea, Estatutua baitzegoen jokoan. Lehen esan bezala, Arzalluzek beti ukatu ditu akusazio horiek⁴⁶.

Une kritikoak gorabehera, hala nola Arregiren heriotza komisarian, edo Hendaiais tabernan (Hendaia) izandako atentatu terrorista parapoliziala, 1980an bi hildako utzi zituen, Onaindia, Bandres, Uriarte eta prozesuan parte hartu zuten gainerakoen gestioek fruitua eman zuten. 1981eko otsailaren 23an huts egindako estatu-kolpearen ondoren, eta neurri batean hark bizkortuta, ETAPm-k aldebakarreko su-eten mugagabea iragarri zuen, eta ETAm-ri bere ekintzak geldiarazteko dei egin zion. Minitelesailako protagonistek prentsaren bidez ezagutzen dute albisteak.

Hurrengo eszena Biarritzen izango da, urte eta erdi geroago, 1982ko irailaren 30ean, eta bertan hainbat buruzagi polimilik ETAPm VII. Batzarraren desegitea iragarri zuten prentsaurrekoa azaltzen da. Birsortzea, berriz ere, nahiko fidela da benetako gertaerekin: hizlariak mahai laukizuzen batean eserita daude, aurpegia estali gabe dutela; mahai horren atzean ETAREN anagrama bat eta *Pertur*ren irudi bat daude zintzilik, eta txandaka irakurtzen dute euren amaieraren berri ematen duen komunikatua.

Eszena horretan kazetari ugari agertzen dira, eta horrek unearen garrantzia eta sortzen duen ikusmina nabarmentzen ditu, eta nolabaiteko protagonismoa ematen zaio Onaindiaren solaskide polimili gisa behin eta berriz agertzen den pertsona bati. *Txetxu* da, benetako pertsona bati ez dagokion pertsonaia, baina, ezizenak iradokitzen duen bezala, *Txutxo* Abrisketa eta ETAPm-ko sektore benetan gogorra irudikatzen ditu, disoluzioaren ondoren indarkeria erabiltzen jarraitu zuena. *Txetxu* eta Onaindiaren pertsonaiak, fikzioan Burgosko kondena eta epaiketa partekatu zutenak, Biarritzeko prentsaurrekora doaz, eta, komunikatuaren ondoren, begirada bat gurutzatzen dute. Ondoren, *Txetxuk* aretoa utzi eta erabaki batetik urruntzen da, armak utzi eta desegiteko erabakitik, ez baitu partekatzen.

Txetxuk «Onaindiak indarkeria arbuizatzeko eta demokrazia onartzeko izan duen bilakaeraren kontrapuntu»⁴⁷ gisa balio du. Gainera, bi pertsonaien arteko harremanak agerian uzten du «ezker abertzalearen» baitan zeuden tentsioak jasotzeko ahalegina —sorreran, ETAPm, EIA eta EE bertan kokatzen ziren⁴⁸—; batetik, terrorismoaren amaiera eskatzen zutenak zeuden, Onaindia, Uriarte edo Bandres bezala, eta, bestetik, indarkeria beren helburuak lortzeko jarraitu beharreko bidetzat jotzen zutenak.

1981eko su-etenaren iragarpena baino lehen, *Txetxu* Mariorekin hitz egi-tera doa, eta esaten dio berak ez diela armei uko egingo, eta asko prest daudela berari eta Bandresi tiro bat emateko. Baina ez da desio hori transmititzen dion

bakarra: emakume bat, HBren jarraitzailea dela suposatzen dugu erabiltzen duen kontsignagatik, taberna batean Onaindia eta Bandresengana hurbildu, eta esaten die: «Bandres eta Onaindia, zikinkeria bera. Zuei bai jo behar zaizuela tiro bat, traidore izateagatik». Beste batean, EIAren egoitzaren horman, «traidoreak» hitza duen pintada bat agertzen da. Eta urte batzuk lehenago, 1977ko Askatasunaren aldeko Martxan, Mariori erbestearen proposamena onartzeagatik tiro bat merezi duela oiher egiten diote.

Espetxetik irten eta atzerrira lekualdatzeak sektore batzuen artean eragin zuen erreakzio amorratu hori ere islatzen da Mario Onaindiak 1982ko abuztuaren 6an idatzi zuen *Grand Placen aurkituko gara* eleberrian. Bere esperientzian oinarritutako fikziozko liburu honek Belgikara erbesteratu berri duten preso baten ahotsetik eta gutun luze bat idazten dion emaztearenetik (nahiz bera ez den inoiz irakurtzera iritsiko) kontaktatzen ditu ETAKo kide izateak eta kartzelan zortzi urte baino gehiago egoteak eragindako bizipenak, gogoetak eta ondorio pertsonalak eta bikote mailakoak. Bi aldiz, gizonzko protagonistak dio hobe dela erbesteratzea Euskadiko «zartagin irakinera» zuzenean itzuli izana baino, eta kexu da espetxetik irteetan izandako erreakzioengatik: «Batzuek ez dute memoriarik gogoratzeko, haiek aberasten ziren bitartean, beste batzuk klandestinitatean edo kartzelan geundela, eta orain gure bizitzen jabe sentitzen dira amnistiaren aldeko manifestazio batera joateagatik»⁴⁹.

*El precio de la libertad*era itzuliz, minitelesaila zarpikoen desegite-prozesuan zentratzen da, baina apenas jorrotzen duen antzinako polimilien geroko gizarteratzea. 1982ko iragarpena baino lehenagoko uneren batean, bai planteatzen dira itzultzean izan ditzaketan zailtasunak; izan ere, kezka horrek zalantza eragiten du militante askorengan, armak uztea komeni zaien ala ez. Fikziozko *Teo* Uriartek dioen bezala, «beldurra ematen die heroi askatzaile izatek langabeziaren ilaran egotera pasatzeak». Beldur dira, halaber, egindakoak «ezertarako balio izan ez duelako» eta «garaituak» izan direlako sentsazioarekin geratzeko.

Hala ere, minitelesailan —amaierako koda bat izan ezik, 1982an ixten da — ez da kontaktatzen nola egin zen Euskadira itzultzeko prozesua, Juan Infante abokatuak antolatu eta 1985era arte luzatu zena. Itzultitakoek bueltatzerakoan izan zituzten zailtasunak ere ez dira aztertzen. Oztopo ekonomikoak gainditzeko, EIA-EEren laguntza izan zuten, Bandresen arabera⁵⁰, delinkuentzian berriro ez erortzeko. Baina beste mota bateko egoerek ez zuten hain prebentzio erraza: beren erabakiarekin ados ez zeudenen presio soziala edo mehatxuak beste kontu bat ziren. Zailtasun horiek minitelesailan islatzen dira, Onaindiaren irudiaren bitartez. 1984ko azken eszenan, bi bizkartzainekin batera agertzen da.

ETAPm VII Batzarraren desegitearekin eta kideen birgizarteratzearekin zuzenean lotutako gaiez gain, esanguratsua da minitelesailaren bigarren zatiak erakundeko biktima bati, José Ignacio Ustarán UCDko militanteari, eta haren familiari eskaintzea lehen eta azken minutuak. Kapituluak lehen eszenan, itxuraz normala den familia bat bere etxeko egongelan bilduta dago: lau haurrak gaztelu bat eraikitzen ari dira gelako mahaitxoaren gainean, aitzak aldizkari bat irakurtzen duen bitartean. Lasaitasun une hori eten egiten da norbaitek atea

jo eta ama nor den ikustera joaten denean. Txirrina jo duen emakumeak José Ignacio Ustaráni buruz galdetu eta arma bat ateratzen du. Bera eta beste lan-kide bat pistolaz sartzen dira etxebizitzan, aita familiako gainerako kideengandik banatu, eta ez kezkatzeko esaten diete, hitz egin besterik ez dutela egin nahi, eta, azkenean, Ustarán eramaten dute. Eszenak kanpoan jarraitzen du: gazte terroristen ibilgailua ikusten da, biktima autotik ateratzen dute kale baten erdian eta harenganantz zuzentzen dute pistola. Mutikoa zalantzan dago bere jomugari aurpegira begiratu bitartean, ez da tiro egitera ausartzen. Bere kide emakumezkoak ez du zalantzarik: bere arma hartu, eta tiro egiten dio Ustaráni garondoan.

Kapituluko lehen bi minutu eta erdiak hilketa horri eskaintzen zaizkio, eta «amaitu da!» esatera eramaten du protagonista. Hori baieztatzea dator minitelesailaren azken eszena, disoluzioa gertatu eta bi urtera kokatzen dena. Mario Onaindia eskailera batzuk jaisten ari da, bi eskoltarekin, eta Ustaránen alargunarekin topo egiten du. Alargunak agurtu egiten du eta bere burua aurkezten du, eta Onaindiak senarrarekin oso ondo gogoratzen dela esaten dio: «Zure senarra hil zuten eguna ETAk desagertu behar zuela konturatu nintzen eguna izan zen». Emakumeari, ordea, horrek ez dio balio: senarra hil eta seme-alabak aitarik gabe utzi zituztenak Euskadiko ohiko bizimodura itzuli ahal izan dira; berak eta bere seme-alabek, aldiz, «ia ezkutuan» alde egin behar izan dute Euskal Herritik kanpo bizitzera. Onaindiak emakumearen sufrimendua bere gain hartzen badu ere —nahiz eta emakumeak esan berari gertatutakoa bizi izan ez duen inork ezin duela bere mina ulertu—, ez da gai «hilketa» hitza ahoskatzeko: hitz hori ahoskatzen hasten da, baina, atzera egin, eta «senarrari gertatu zitzaiona» esaten du. Eszena hori guztia armak uztea erabaki zuten polimiliei emandako ezkutuko amnistiaren aurkako kritika gisa irakur daiteke, amnistia hartan ez baitziren kontuan hartu ekintza bortitzengatik kaltetutakoak⁵¹. Eta terrorearen biktimei aitortza eta erreparazioa egiteko oraindik ibiltzeko geratzen zen bide luzea gogorarazten digu.

VIII. ATALA

ETA MILITARRA. PORROT BATEN AZTERKETA

LUIS MIGUEL SORDO ESTELLA

*Militarra (erretiratu). Bake eta Nazioarteko Segurtasunean doktorea
(IUGM-UNED)*

SARRERA

1974ko urrian ETA V Batzarraren zatiketa gertatu zen, eta horren ondorioz erakundearen bi adarrak agertu ziren: ETApM eta ETAm. Zortzi urte geroago, 1982ko irailaren 30ean, ETApM VII Batzarrak ofizialki bere desegitea iragarri zuen, eta bere hamar militantek, aurpegia agerian, jendaurrean eszenifikatu zuten Biarritzen (Frantzia) egindako prentsaurreko batean. Erakunde terroristar horretako hirurehun ekintzaile inguruk armak utzi eta birgizarteratzen hasi ziren, baina 1985era arte ez zen desagertu ETApM-ren oinordeko izan zen azken taldea, ETApM VIII. Batzarra izenekoa. ETArek beste adarrak, ETAm-k, hartutako desegitearen biderei muzin egiteaz gain, argi eta garbi kritikatu zuen. Polimiliak ez ziren inoiz ondo ikusiak izan ingurune abertzale erradikalean, eta publikoki gaitzetsi zituzten ere. Espainiako Gobernuak ETApM-rekin izan zituen harreman eta negoziazioaldietan, hura desegin arte, eskaini zituen proposamenek ez zuten inoiz ETArek adar militarra asebate, beti fidagaitz agertu baitzen bere jarduera armatua bertan behera uzteko beharrezko urratsak emateko. Erakunde horrek mesfidantza handia zuen Espainian hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran hasi zen prozesu demokratikoan, baita Estatuko buruzagitzan ere, Juan Carlos I.a erregea buru zela. Era berean, zenbait erakunde, Indar Armatuak kasu, erregimen diktatorialaren ondorengotzat hartzen ziren, eta, ETAm-k zioenez, Espainiako politikan ezin zen ezer aldatu. Egia esan, prozesu demokratikoaren lehen urte haietan herrialdea etengabe inguratzen zuten gertakari politiko, sozial eta ekonomikoek ez zuten etorkizun lasaigarri iragartzeko, baina Adolfo Suárez Gobernuak presidentearen erreforma politikoak aurrera jarraitzen zuten eta sinesgarria izan nahi zuten, frankismoaren nostalgikoek planteatutako zailtasunak gorabehera. Geroago aztertuko dugun bezala, ETAm-k ez zuen serio eta formalki planteatu ETApM-k bere garaian hartu zuen

indarkeriarekin hausteko urratsak jarraitzea. 1977ko ekainaren 15ean berrogei urteko diktaduraren ondoren egindako lehen hauteskunde orokor demokratikoak, 1978ko urriaren 31n Gorteek Espainiako Konstituzioa onartu izana, 1979ko martxoko hurrengo hauteskunde orokorrak edo 1979ko abenduaren 18an Lege Organikoaren bidez onartutako Gernikako Autonomia Estatutua ez ziren nahikoa berme izan ETAm-k «borroka armatua» eteteko. Espainiaren demokratizazioa, Espainiako herriak hautetsontzietan bermatua, ETaren adar militarrentzat ez zuen inflexio-punturik ekarri indarkeriaren bidez bere helburu politiko-estrategikoak lortzeko; aitzitik, demokraziarekin terrorismoa areagotu egin zen. Nolanahi ere, Espainiako trantsizioaren garaian zegoen giro politiko eta sozialak mesede egin zion ETAm-k estatuaren aurrean zuen jarrera bortitzari. José M. Portillok nabarmentzen duen bezala, «eztabaida konstituzionala hasi zenetik ETak 17 pertsona erail zituen (...) ETaren atentatu eta hilketa horiek ezohiko tentsio sozial baten erdian gertatu ziren Euskadin eta Nafarroan»¹. Halaber, Portillok zehaztu duenez, «Trantsizioko indarkeria ez da gertakari historiko bakar gisa aztertu behar, hainbat arrazoi eta ondorio izan baitziren garai hartan, une hartan bateratu zirenak. Hala ere, ez dago zalantzarik indarkeria epealdi horretako osagai ukaezina dela»².

Prozesu demokratikoaren garapenarekin, gobernuarekin izandako elkarri-zketa-une desberdinetan bere buruzagi enblematikoenen estremismoak ere ez zuen lagundu ETAm erakundeak hausnarketa sakon bat gara zezan, egungo legearen barruan gehien eskatzen zituzten helburu politikoak lortzeko moduari buruz. Indarkeriaren bidean kokatua, eta agintean zegoen euskal nazionalismoak hori saihesten lagundu gabe, ETA militarrek Gobernuarekin izandako negoziatioak batez ere printzipio edo postulatu politiko irmo batzuen defentsa hertsuari buruzkoak izan ziren, Gobernuak bere gain hartu ezin zituenak eta 2018an erakunde terrorista desegin arte indarrean jarraitu zutenak. 1982tik aurrera, ETApren hondar presentziarekin, ETAm-k euskaldunen eskubideen babesle bakar aldarrikatu zuen bere burua, «metrailetaren doktrinaren» pean. Planteatutako testuinguru horren barruan, ez dago arrazoi objektiborik pentsatzeko ETAm-k ezin izango zituela lortu ETAp VII Batzarrak 1982an lortu zituen onura politiko berberak, «borroka armatua» behin betiko uzten zuela adierazi zuenean. Are gehiago, ETaren adar politikoa desegin ondoren, Espainiako Gobernuak are onberagoa izateko prest zegoen adar militarrek jarduera terrorista uzten bazuen eta bere helburu politikoak hautetsontzien bidez aldarrikatzen baziren. ETAm-k uko egin zion aukera horri, eta, ordutik aurrera, gero eta zailagoa izan zen Espainian indarkeria terroristaren amaiera lortzea. Erakundeak zentzurik eta arrazoirik gabe hiltzen jarraitu zuen.

Azken finean, bere aldarrikapen politiko sendo eta mugiezinak, Trantsizio demokratikoaren lehen urteetan hitzaren bidez eta legea errespetatuz eztabaidatzeko gai izan ez zirenak, ez zituzten lortu pistolen erabilerarekin ere. Hildakoak, zaurituak, erbesteratuak, sufrimendua eta mina areagotu egin ziren Espainiako gizartearen denboraren poderioz, guztiok ezagutzen dugun indarkeriaren amaierara iritsi arte. Baina, egia esan, zergatik ez zion utzi ETAm-k

«borroka armatuari» 1981ean edo 1982an, ETAp-k egin zuen bezala? Zerk bultzatu zuen hori ez egitera? Galdera eztabaidagarri horiei erantzun batzuk emango dizkiegu jarraian, baina horretarako garrantzitsua da gogoraraztea, labor-labor bada ere, ETaren beste adarrak, ETA politiko-militarrak, jarduera terrorista bertan behera utzi baino lehenagoko aldia; izan ere, tarte horretan, bi adarrek bide paralelo bat egin zuten, antzekoa ez bazen ere, eta horrek aurreko galderaren erantzun batzuk uzten dizkigu.

I. ETAM. OKERREKO BIDEAREN AUKERA (1974-1982)

1974ko irailaren 13an ETA V Batzarrak Madrilgo Rolando kafetegian egindako atentatuaren ondoren, ETak berrogeita lau urte geroago bere azken *Zutabe* buletinean (2018ko apirila) ofizialki aldarrikatu zuena³, non 13 pertsona hil eta 70 baino gehiago zauritu ziren, desadostasun handiak sortu ziren aparatu militarren eta erakundeko gainerako batzorde exekutiboaren artean atentatu hori aldarrikatzeko edo ez aldarrikatzeko⁴. Ekintza terrorista higuin-garriak, lokalera zihoan Espainiako Polizia helburu zuena, ondorio kaltegarriak izan zituen ETarentzat. Erakunde terroristan sortu zen krisiaren ondorioz, aparatu militarrek atentatua defendatu zuen, haren benetako erantzulea izan baitzen Batzorde Betearazleko gainerako kideen oposizioaren aurrean. «Atal militarra» banandu egin zen José Miguel Beñaran buru zuela, eta une horretatik aurrera ETAm izena hartu zuen, masa-borrokari uko eginez eta «borroka armatuaren» bidetara jarraituz⁵. Gainerako kide gehienek erakundean jarraitu zuten, ETAp izena hartuta, eta masa-borrokaren eta «borroka armatua»ren arteko koexistentzia lortzen saiatu ziren. Eduardo Uriartek honako hau adierazi zuen Rolando kafetegiaren atentatuari buruz⁶: «Paradoxikoki, milien presioaren aurrean atentatua autokritika gisa bere gain hartu zuen sektoreak, polimiliek, denborarekin “borroka armatua” utzi zuten. Ekintza haren basakeria kritikatu zuten zenak, berriz, atentatu latzak egin zituen etorkizunean». Atentatu larri hori une garrantzitsua izan zen ETaren ekintza-estrategian, eta horrek, epe labur eta ertainean, printzipio ideologiko eta helburu politiko batzuen defentsa zorrotza egitea ekarri zuen, Espainiako Gobernuarekin negoziatzeko zailak izango zirenak borroka armatua bertan behera uzteko. Franco hil baino bi hilabete lehenago, 1975eko irailaren 27an, erregimenak ETAp kolpatu zuen bi kideren fusilamenduari, Juan Paredes Manot (*Txiki*) eta Ángel Otaegi Etxebarria, nahiz eta erregimenaren aurkako oposizio politikoak eta kolektibo sozialek presio handia egin hori eragozteko. Salbuespen egoera deklaratu zuten Bizkaian eta Gipuzkoan, eta hiru eguneko greba orokorra egin zuten Euskal Herri osoan, milaka langilek jarraituta. Espainiako egoera politikoa oso azkar korapilatzen ari zen, Franco azaroan hil zen, eta ETaren bi adarrek 16 pertsona hil zituzten urte horretan: ETAm-k 12 eta ETAp-k 4. Zein bide jarraituko zuten erakunde horiek handik aurrera?

ETAm-ren zuzendaritzak esan zuen orduan, erakundearen eredu politiko-militarra elitista eta arriskutsua zela, erorketak eta ETaren gaineko errepresioa erraztuko zituelako. Erakunde horrek uste zuen Franco hil ondoren «eraldaketa demokratiko liberala» gertatuko zela, eta aldaketa horretan beharrezkoa izango zela langile eta herri talde independentisten existentzia eta parte-hartzea, poli-ziaren ekintzatik salbu geratu behar zirenak⁷. ETAm abangoardia iraultzailea izango zen, politikatik bere burua autobaztertu behar zuen «ezker abertzaleko» alderdi eta erakundeak babesteko, baita «hietetatik eta haien balizko kutsadura erreformistatik babesteko» ere.

Adolfo Suárez 1976ko uztailaren 3an Gobernuako presidente izendatu zute-nean, urte horretako azaroan onartu zen erreforma politiko planifikatzen hasi zen. Suárezek gidatzen zuen aldaketa politiko desafiatailearen aurrean, ETApM-k borroka politikoaren aldeko jarrera hartu zuen, bere helburuak lortzeko beharrezko bitarteko gisa. Talde horrentzat «borroka armatua» ez zen prozedura baliagarria soilik. Ondorioz, Espainiako Gobernuarekin «Euskal gatazka politiko» delakoaren konponbide baketsua negoziatzeko beharrezko urratsak eman zituen, iraupen luzekoa aurreikusten zena. Suárezek Ángel Ugarte (Gobernua ordezkatuz) eta Francisco Javier Garayalde Velaz eta Jesús María Muñoa Galarraga (Txafilis) ETApM-ko bi buruzagiren arteko isilpeko harremanak baimendu zituen, Genevako (Suitza) D'Allevés hotelean, 1976ko azaroaren 30ean⁸. Bilera garrantzitsu horretan ez zen ETAm-ko ordezkaririk egon, baina polimiliek presio egin zieten elkarrizketekin bat egin zezaten, eta planteamendu komunekin joatea eskaini zieten. Ángel Ugarte SECEDeko euskal militar burua zen Euskal Herrian, eta etengabe jasotzen zuen informazioa Madrildik⁹. Polimiliek, sakonean negoziatzeko lehentasunezko gai gisa, honako hauek proposatu zizkieten Ugarteri: presoentzako amnistia orokorra, alderdi abertzale eta ezkertiar guztien jarduna eta Gobernuak FOPen (Ordena Publikoko Indarrak) jarduna kontrolatzea. Ugartek buruzagi polimiliei azaldu zizkien gaiak dagokienez, honako hauek zeuden: jarduera terroristaren kontrola, su-eten bat aldarrikatzeko aukera eta, funtsezko lehentasun gisa, «borroka armatua- ren» amaierara eramango zuen alderdi politiko bat sortzea eta legeztatzea¹⁰.

ETA militarra bigarren bilera batera gonbidatu zuten (polimiliek prestatua) 1976ko abenduaren 20an, aurrekoaren leku berean, eta bertan izan ziren erakunde horretako kideak, José Manuel Pagoaga Gallastegi (*Peixoto*) eta José Luis Ansola Larrañaga (*Caballero*) (*Peio el Viejo*). Oraingoan, ETAm bertaratu zen, «baina gogo txarrez eta, gero ikusiko zen bezala, parte hartzeko baino gehiago boikotatzeko asmo argiarekin»¹¹. ETApM-ren aldetik *Erreka*, *Txafilis* eta José Luis Echegaray Gastearena (*Mark*) bertaratu ziren. Espainiako Gobernuaren izenean, Ángel Ugarte, Juan Jaúdenes (*Jerez*) eta José Luis Esteban, azken biak Madrilgo SECEDi lotutako militarrek. Bigarren bilera horretan izandako hartu-emanen, ETAm-k elkarrizketetan presentzia handia izan zuen horretan, Gobernuak, Ángel Ugarteren bitartez, ETApM-k eta ETAm-k hasiera batean hiru hilabeteko su-etena deklaratzeko proposatu zuen, eta 1977ko ekaineko hauteskunde orokorretara arte luzatzeko aukera ere pentsatu zuen,

Suárez presidenteak horixe nahi baitzuen, funtsean. Gobernuak, hori gertatzen bazen, konpromisoa hartzen zuen Ordena Publikoko Auzitegia desagerraraziko zuen lege bat aldarrikatzeko eta terrorismoarekin lotutako auzi guztiak jurisdikzio militarretik jurisdikzio zibilera pasatzeko. Garai hartan, eta zegoen egoera politikoarekin, Gobernuaren eskaintza horrek benetako garrantzia zuen. Hala ere, proposamenak ez zuen ETAm konbentzitu, eta adierazpen askatasunik eza, alderdi politikoak legez kanpo uztea eta sortzen ari zen prozesu demokratiko berrian konfiantzarik ez izatea aipatu zituen. ETAm-ren zuzendaritzak, *Peixotoren* bitartez, zalantza handiak zituen aurreko erregimen politikoaren ideologia desagertuko ote zen, eta, ondorioz, ez zuen inolako konfiantzarik erakusten Suárezen gobernuak martxan jarri nahi zuen egitura politiko demokratiko berrian. Erakunde horrek ez zuen sinesten Franco hil ondoren sortutako egoera politiko berrian eta espainiar gehienek indarkeriarik gabe eraiki nahi zuten demokrazia itxaropentsuan. Era berean, erregearen figurak, Estatuko eta Indar Armatuetako buru gisa, eta erakunde militarrek berak ez zioten ETAm-ri behar besteko konfiantza eragiten urte haietan hasten ari zen sistema politiko berrian. Beraz, ETAm ez zen fidatzen Gobernuak eskaintzen zituen proposamen politiko guztiak betetzeaz, eta uste zuen indarkeriazko bidea zela Gobernuari proposamen horiek betearazteko presioa egiteko irtenbidea. ETaren estrategia hainbat borroka —eta negoziatio-fronte etengabe irekitzea zen, Gobernua prozesuetan higitzeko eta modu jarraituan porrot eginarazteko helburu bakar- rarekin. «Zehaztugabetasunaren taktikatzat» jotzen zen, hau da, eskaintzan, preso eta iheslari buruzko elkarrizketan, amnistian edo hizkuntza kontuetan gauzak ez zehaztea¹². Ugartek Genevan abenduan izandako bileran esan zuenez, *Peixotok* «eragozpen sorta amaigabea baino ez zuen azaldu».

ETApM-k, aldiz, elkarrizketarako jarrera argia adierazi zuen, eta konpromisoa hartu zuen hurrengo hauteskunde-prozesuan aldebakarreko su-etena ezartzeko, baldin eta Gobernuak ETako presoak pixkanaka kartzelatik ateratzen bazituen, askatasun demokratiko guztiak ezartzen bazituen, FOPak gehiago kontrolatzen bazituen eta alderdi abertzaleak legeztatzen bazituen¹³. Erakunde terrorista horrek, hala ere, ekinza armatuekin jarraitzeko mehatxua egin zuen, planteatutako baldintza horiek betetzen ez baziren. ETApM-k interes handia zuen hurrengo hauteskunde orokorretara EIA izenarekin aurkeztu ahal izango zen alderdi politiko bat sortzeko, eta, aldi berean, talde armatu bat mantentzeko, iraultza-zerga eskuratzeko, bahiketak egiteko, polizia-ekintzei erantzuteko eta beren aldarrikapenetan presioa egiteko. SECEDen arabera (ETArekin izandako harreman horien berri eman zion Gobernuari), ezin izan zen su-etenerako akordiorik lortu, ETaren bi adarrek adierazi baitzuten «akordio zehatzak baino ezin zituztela onartu, eta ez promesak eta konponbide anekdotikoak»¹⁴. Informazio horien arabera, ETakoek, batez ere ETAm-k, Gobernuaren akordioa bermatuko zuen mekanika KASEkin ere negoziatzea nahi zuten. Era berean, ETako zuzendaritzak amnistia, euskal estatutua eta autogobernua lortzeko epe zehatzak ezartzeko eskatu zuen behin eta berriz, eta elkarrizketa gehiago egiteko asmoa azaldu zuen, baina akordiorik hartu gabe. ETAm-ren

jarrera nahikoa argigarria zen horri dagokionez, eta 1978an publikoki adierazi zuen Gobernuarekin edozein negoziazio mota egiteko KAS Alternatiba onartu beharko zuela.

1981 urte bereziki garrantzitsua izan zen Espainiako Gobernuaren eta ETApM-ren (solaskide nagusia) arteko ondorengo negoziatioetarako. Urte hartan Calvo-Soteloren Gobernuko Barne ministro izendatu zuten (Suárezek dimisioa eman zuen urtarrilean Gobernuko presidente gisa) Juan José Rosón. Azken honek «borroka armatua» bertan behera uzteko negoziatioak berpiztu zituen polimiliek, eta orduan EEko buruzagi ziren Mario Onaindia eta Juan Mari Bandres bitartekari gisa aritu ziren, kontaktuek fruitua eman zezaten. Negoziazio horien arrakastaren gakoa Birgizarteratze Plana abian jartzea izan zen. Rosón ministroak onartu egin zuen plan hori ezartzea odol-deliturik ez zuten etakideei eta erbestera guztiei. Negoziazioaren helburua bete egin zen, 1982ko irailaren 30ean ETApM VII Batzarrak «borroka armatuari» agur esan eta bide politikoa aukeratu zuelako (ikus IV. atala).

Baina ETApM-k, «borroka armatuari» agur esan arte, hainbat ekintza terrorista egin zituen 1979an eta 1980an. Garai hartan agintean zegoen UCD alderdiko buruzagi politikoa garrantzitsu batzuk bahitu edo erail zituen ETAREN adar politikoa, eta Atocha eta Chamartingo geltokietan eta Barajasko aireportuko terminalean izandako hiru atentatu basatik zazpi pertsona hil eta 100 zauritu baino gehiago utzi zituzten¹⁵. Hori ez zen biderik onena ideia politikoa demokratikoki eta gorrotorik, izurik eta indarkeriarik gabe eztabaidatu ahal izango ziren herrialde bat eraikitzeko. EEk hala ulertu zuen, sortzen ari zen indarkeria-egoera zela eta, ETApM-ri su-eten bat eskatu baitzion, eta erakundeak onartu, eta 1981eko otsailetik 1982ko irailean desegin zen arte eman zuen. Izan ere, 1981eko otsailaren 28an, ETApM-k baldintzarik gabeko su-etena iragarri zuen, eta Uruguai, Austria eta El Salvadorreko kontsulak askatu zituen, hilabete horren 20tik bahituta baitzeuzkan Gobernuari bere aldarrikapen politikoa xantaia egiteko. Maiatzaren 28an ETApM-k «borroka armatua» geldiaraziko zuela iragarri zuen¹⁶. Hala ere, 1982ko otsailaren 22an, ETApM VII Batzarreko talde bat, zortzikoak deituak, banandu eta su-etena hautsi zuten. 1982ko irailaren 30ean, ETApM VII Batzarra desegin egin zen, Biarritzen (Frantzia) egindako komunikatu batean erabaki hori eszenifikatuz. Ikurrina, ETAREN anagrama eta Eduardo Moreno Bergaretxe etakidearen argazkia (*Pertur*) zuen mahai batean hamar polimili eseri, eta komunikatu bat irakurri zuten, alderdi politikoa baten esparruan bere helburu politikoen alde indarkeriarik gabe borrokatzen jarraitzeko konpromisoa hartuz. ETAm, ETApM VII Batzarra eta KAAko 120 militante inguruk indarkeria utzi eta Gobernuak eskaini zion askatasun osoa aukeratu zuten. Luis Rodríguez Aizpeoleak adierazi zuenez, berrehun eta berrogeita hamar etakide ere birgizarteratu ziren Rosón eta Onaindiaren «bakea presoentzako» itunaren ondorioz, eta inork ez zituen berriro armak hartu, ezta bizitza politikoa jardun ere¹⁷. Prozesuak lau urte iraun zuen, 1981eko otsailaren 28tik 1985eko urtarrilaren 14ra arte, hau da, Joseba Aulestia (*Zotza*) Frantziara ihes egindako azkena itzuli zen arte. ETAm-k uko egin zion bake-prozesu horri

«atxikitzeko» aukera orori, eta indarkeriazko jarduerarekin jarraitu zuen, nahiz eta orduan indarrean izan Konstituzio demokratikoa, euskal gizartearen gehien-goak berretsitako euskal Estatutua eta ideia eta helburu politikoa ezberdinak eztabaidatzeko Legebiltzarra eta erakundeak. ETApM erakundeak, ETAm-k indarkeria uztea ez lortzeaz gain, desprestigio-kanpaina gogor bat jasan behar izan zuen, bere kideei erakunde terroristaren barruan traidoreak izatea leporatzen baitzitzaien. Damututako kide edo kide ohien desertzioei edo barne-diziplinari ezari ETAm-k egindako abisu bat izan ziren honako hilketa hauek: Ignacio Olaiz eta Joaquín Azaolarenak 1978an, Tomas Sulibarria eta José Luis Olivarenak 1980an, Mikel Solaunena 1984ko otsailaren 4an eta, ondoren, Dolores Catarain (*Yoyes*) buruzagi ohiarena 1986ko irailaren 10ean, zeinak uko egin baitzion ETAm-ren agindua betetzeari (ez birgizarteratzea alegia). Zer espero zitekeen indarkeriarik ezaren bidea bilatzeagatik bere militanteak ere hiltzen zituen erakunde horrengandik?

1982ko urriko hauteskunde orokorretan Felipe González sozialistak irabazi baino hilabete lehenago desegin zen ETApM, eta José Barrionuevo Barne ministroari, Rosón ministroaren ordezkari, egokitu zitzaion UCDren eta EEren artean aurretik hitzartutako akordioak kudeatzeko zeregin zaila. ETApM-ren konpromisoa sinplea eta zailtasunez bete zen aldi berean: presoak askatzearen eta ihes egindako erakundeko kideak itzultzearen truke indarkeria gaitzesten zuela adierazten zuen dokumentu bat. Proposamen hori behar bezala kudeatzen jakin behar zen, azken helburua lortzeko. Bandres eta Onaindia buruzagiek Juan Infante PCE-EPK-ko kidea eta Arantza Leturiondo EEko kidea izendatu zituzten ETApM-ren desegite prozesu osoa kudeatzeko¹⁸. Abokatuek eta Gobernuak hiru irteera mota adostu zituzten indarkeria arbuatzen zuten preso eta iheslarientzat: 1) epailetaren zain zeuden presoak fidantzepean aske utziko zituzten, eta, ondoren, absoltzioa edo auziaren artxibatzea emango zitzaizkien; 2) banakako indultuak, alde aurretik hala eskatuta, lehendik epaituak izan eta espetxeratuta zeuden presoentzat; 3) iheslariei buruz, berriz, beren borondatez aurkeztu behar ziren alde aurretik epaitu zituen Audientzia Nazionaleko epailearen aurrean, eta, ondoren, aske utziko zituzten. Itzultzea erabakitzen zuten iheslariei lehen aipatutako abokatuek lagunduko zieten Frantziatik Espainiara. Desegite-prozesu konplexuak bi urte baino gehiago iraun zuen, 1982ko irailetik (ETApM-ren desegitearen adierazpena) 1985eko urtarrilera arte, erakundearen azken iheslaria itzuli zen arte. Prozesu horretan erabakigarria izan zen botere judizial eta politikoen arteko lankidetzeta, Fernando Ledesma Justizia ministroaren eta José Barrionuevo Barne ministroaren esku-hartzearen bidez. Halaber, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak ere, Melitiano García Carrero buru zuela, funtsezko zeregina bete zuen. ETAm-k bere esku izan zuen Rosónek eskainitako birgizarteratze proposamenak ere onartzea, baina ez zeukan bide egokira eramango zuen buruzagi politikorik.

Felipe Gonzálezen gobernuak, ETApM VII Batzarraren kasuan «bakea presoentzako» izan zuen arrakastaren ondoren, ETAm aurrean bitartekari lana eskaini zion HBri, baina koalizio abertzaleak uko egin zion, solaskide onargarri

bakarra erakunde terrorista zela argudiatuta. Ondoren, Gobernu sozialistak armak uzten zituzten etakideen «banakako birgizarteratzearen» bidea probatu zuen, baina horrek ezinegona eta kezka sortu zuen MLNVn, iritzi publikoan zegoen neurri horren aldeko joeraren arabera egon zitekeen ahultze ideologiko, etiko eta sozialagatik¹⁹. Gobernuaren proposamenak ondorio imajinaezikoko desertzioak eragin zitzaizkeen. Fernández Soldevillak dioen bezala, ETApM VII Batzarraren desegitea ez zen jarraitu beharreko eredu, saihestu beharreko tranpa baizik²⁰. Erraz ondoriozta daiteke miliei ez zitzaizela batere interesatzen negozioaz ere.

ETApM-ren desegitearen ikusle pasiboa izan zen ETAm-k «borroka armatua» uzteko aukera berri bat izan zuen, Gobernu sozialistak 1984an eskaini zion proposamenarekin. Espainiako agintariek Pierre Joxe Frantziako Barne ministroari, terrorismoaren aurkako lankidetzaren esparruan, Madrilén aurkeztu zioten «nahierara» birgizarteratzeko plan berri bat, hiru fase aurreikusten zituen²¹. Hasiera batean, ETAm, KAA eta ETApM VIII Batzarreko 800 eta 900 kide artean Espainiara itzultzea ahalbidetzen zuen. Batzuk jada jarduera armatu orotatik aske zeuden eta Frantzian bizi ziren. Beste kopuru bat, 50 kide ingurukoa, legezkoa zen, Poliziak fitxatu gabea, eta Espainian bizi zen. Gainera, ehun bat gehitu behar ziren, munduko hainbat lekutan banatuta zeudenak, eta Latinoamerikako herrialdeetara deportatuta zeuden 25. Espainiako kartzeletan ETAm-ko 500 preso inguru zeuden garai hartan.

Birgizarteratzearen lehen faseak 200 etakideri eragiten zien, eta horien gainean ez zegoen inolako errekesitoria judizial edo polizialik, eta lurralde nazionaletik kanpo zeuden euren borondatez. Barne Ministerioak berak harremanetarako telefono bat jarri zien eskura, bai eta Madrilgo posta kutxa bat ere. Bertan, edozein informazio lor zezaketen, itzuli nahi zutenen nortasunei buruzko erabateko diskrezioa bermatuz.

Bigarren fasean, odol-delituetan parte hartu ez zuten terroristen kasuak jaso ziren, justiziak eta poliziak bilatzen zituenak. Kalkuluen arabera, une hartan Espainiatik kanpo zeuden ETAm-ko 1.000 kide ingurutik erdiek, gutxi gorabehera, fase horri heldu ahal zioten, justiziaren edo Barne Ministerioaren aurrean zituzten arazoak konponduz, ETApM VII Batzarreko kide gehienek desegin zirenean egin zuten bezala.

Hirugarren faseak odol-delituetan inplikaturako 200 etakideri eragiten zien, eta haiek ziren Gobernu sozialistak Barne Ministerioaren bitartez (garai hartan José Barrionuevo zen horren arduraduna) birgizarteratze-planaren onuradun izan zitezkeenak. Erbesteratzearen bidea ETAm-ko edozein kideri eskaini zitzaion birgizarteratzeko bideetako bat zen, salbuespenik gabe. ETAm-k ez zuen plan horrekiko inolako erakarpenik erakutsi, «bakea presoen truke» besterik ez zen, eta autodeterminazioarekin eta lurraldetasunarekin lotutako bere helburu politiko nagusiak, etengabe aldarrikatuak, ez zeuden plan horretan eta ez zituen Gobernuak aintzat hartzen. ETAm-entzat bere estrategia terrorista eraginkorragoa zen Gobernuari presioa egiteko eta harekin «parez pare» negoziatzera esertzeko. Inoiz utziko ez zuen okerreko bide bat aukeratu zuen.

II. ETAM-K «BORROKA ARMATUA» UZTEARI UKO EGIN IZANA ULERTZEKO ARRAZOI BATZUK (1981-1982)

Lehen esan bezala, 1976ko abenduan Espainiako Gobernuak lehen hartu-emanak izan zituen Genevan ETAm-aren bi adarrekin, ETApM eta ETAm-rekin. Hartu-eman horiei dagokienez, SECEDen iritziaren arabera, bazirudien ETAm «atzerapen-maniobra argia» zuela, baina «inolako unetan hausturara iritsi nahi izan gabe», eta aipatu Informazio Zerbitzu horrek hartu-eman horretatik ateratako ondorioak honako hauek izan ziren: a) helburua lortu ez arren, hartu-eman berrietarako bidea irekita zegoen; b) inplizituki, ETApM-k su-etena onartu zuen. Miliek, ordea, KASen menpe jartzen zuten beren jarduna, baina zehaztasunak eskatzen zituzten; d) ETAm garrantzia ematen zien kontaktuei, eta hori agerian geratzen zen bileran izan zituen buruzagi nabarmenen ospeagatik. Ángel Ugartek egile honi esan zionez, «ETApM-k bilera hartan eman beharreko urrats garrantzitsuari (alderdi politiko bat sortzea) heltzeko karisma handia duten pertsonatza» hartzen zituen *Erreka* eta *Txaflis*. «Nik Gobernuaren konfiantza osoa nuen. Ez nuen ezer negoziatuko, ETAm-aren desegitea bilatu besterik ez»²². Hala ere, *Peixoto* ETAm-ko buruzagiari dagokionez, Ugartek uste zuen «gizon bortitza zela bere adierazpen eta keinuetan, borroka armatua uztearen eta ETApM-ko bidetara jarraitzearen aurkakoa». Ugarteren iritzi horrek ETAm-k elkarriketetan merezi zuen konfiantza eskasa adierazten zuen. Era berean, ez dugu ahaztu behar erakunde hori ETApM-ren maniobra politikoaren aurkakoa zela, eta Ugarte etsaitzat hartzen zela polimiliei bide berri bat errazteagatik. Egile honek 2016an Ángel Ugarteri galdetu zionean zergatik ez zuen ETAm-k Suárezen Gobernuarekin negoziatu nahi, honako hau erantzun zuen une bakar batez ere zalantzarik egin gabe: «ETAm bere estatusa mantendu nahi zuen, ez zuen desagertu nahi eta, beraz, indarkeriarekin jarraitu nahi zuen»²³. Handik denbora batera, SECEDek Gobernuaren Presidentetzari jakinarazi zionez, 1977ko urtarrilaren hasieran KAS kolektiboko kideekin elkarriketa bat izan zuen Bilbon. Elkarriketa horretan, koalizio horrek programa bat bidaltzeko konpromisoa hartu zuen, azter zezaten, baina ez zuen inoiz bidali. Behin eta berriz saiatu ondoren, ultimatum bat barne, aipatu erakundeak uste zuen ETAm ez zuela negoziatu nahi. Aipaturako Informazio Zerbitzuek 1977. eta 1978. urteetan Gobernuaren Presidentetzari bidalitako hainbat informazio-oharrei esker (urte horiek oso garrantzitsuak izan ziren Suárezen Gobernuarentzat), Gobernuaren negoziatio-proposamenen aurrean ETAm-aren jarrera zein zen jakin zuen Suárezek:

- a) Amnistia prozesu oso eta berehalakoa.
- b) Presoak aske eta erbesteratuen itzulera askea.
- d) Alderdi politiko guztiak legezkatzea.
- e) Eskuin-muturreko talde armatuak desegitea.
- f) Ordena publikoko indarren kontrola.
- g) Etorkezuneko euskal estatu bateratu batera (Euzkadi) eramango zuen ondorengo autogobernu-sistema bat eratuko zuen Estatutu bat lortzea.

- h) Eskualdean nazionalismo sozialista antioligarkikoa ezartzea.
- i) ETAREN eta Gobernuaren arteko elkarrizketak bi indar berdinen artean eta pisu bereko konpromisoekin egin behar ziren.

ETAk negoziazio-mahaiaren gainean jartzen zituen eskakizun horiek erakunde terroristaren baldintza ukaezinak ziren, eta Gobernuak onartu eta epe laburrean gauzatu behar zituen, Suárezi hauteskunde orokorrei nolabaiteko patxada politikoz eta indarkeriarik gabe aurre egiteko aukera emango zion su-etena deklaratu ahal izateko. Arazoa zen Gobernuak ezin zuela bermatu eskaera horiek osorik bete zitezkeenik, une politiko horretan onartezinak zirelako. ETAm-k, funtsean, akordio politiko zehatzak eta epe laburrekoak nahi zituen aipatutako proposamenen bati dagokionez, hala nola amnistia, presoak, alderdi abertzaleen legeztatzea edo FOPen ekintzen kontrola. Gai horiek oso garrantzitsuak eta delikatuak ziren Gobernuarentzat, eta ezin zuen bere konpromisoa eman alde aurretik ondorio politikoak zehatz-mehatz ebaluatu gabe.

1977ko martxoan, lehen hauteskunde demokratikoetarako hiru hilabete eskas geratzen zirenean, ETAm prest zegoen hiru hilabeteko su-etena aldarrikatzeko, erakunde desegin arte luza zitekeena, apirilaren amaieran amnistia osoa emateko baldintzarekin²⁴. ETAm-k ETApM-ri erabaki horren berri emango zion bere lankidetzaren lortzeko, bere egituraren barruan zeuden talde deskontrolatuaren gainean jarduteaz gain. Era berean, KAS, EIA, etab. bezalako euskal alderdiak legeztatze eskatu zuen. Erakunde terroristak osoa eta berehalakoa izango zen amnistia batean zentratzen zuen bere ahalegin handiena, eta, bigarren mailan, FOPen jardueran. Ordena publikoaren politikaren birplanteamendu orokorra ere eskatzen zuen, bereziki Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. ETAREN arabera, negoziazio bat eginez gero, interesgarria litzateke Gobernuak amnistiari, erbesteratuei, koofizialtasunari eta elkarrizketarako beste gai batzuei buruz dituen asmoak, etapak, epeak eta abar ezagutzea. Balizko negoziazio horretan honako gai garrantzitsuak hauek jorratu beharko lirateke: 1) ETA modu kontrolatuan desagertzea, berme osoz. 2) Erbesteratu itzulera. 3) Propaganda eta argitalpenak moldatzea. 4) Hauteskunde-prozesuan ETAREN indarkeriaren mehatxurik ez egotea, ezta ondorengo erasorik ere.

ETAk amnistia osoa eta berehalakoaren gaian zentratu nahi zuen ahalegin guztia, eta preso ohiei eta erbesteratu ohiei segurtasuna bermatzea nahi zuen, lurralde nazionalaren barruan eta kanpoan askatasunez zirkulatzeko eta era guztietako jarduerak egin ahal izateko. ETAk eta KAS kolektiboak ere berresten zuten «kidego errepresiboen» desagetea, hau da, FOPak kentzea eta euskal Kidego armatuek ordezkatzea. SECEDEK Gobernuko Presidentetzari proposatu zion ETAREkin negoziatzeko erabakia ministroen kontseiluaren mailakoa izatea, hartu beharreko neurriak koordinatzeko, hainbat ministeriotan eragina izan baitzezaketen, hala nola Gobernazioan, Justizian edo Kanpo Arazoetan. Negoziazioan euskal pertsona ospetsuen ordezkaritza bat egon zitekeen: alderdi politiko garrantzitsuak buruak, ospe handiko alkateren bat edo politikoki inplikaturik ez dagoen euskal pertsona ospetsuen bat. Negoziazioan honako

planteamendu hau egin beharko litzateke: a) Gobernuaren ildoaren azalpena, zer mugetara heldu nahi duen argi eta garbi adieraziz; b) beste alderdi negoziatzaileari lankidetzaren eskatzea, Euskal Herriaren baketzea lortzeko; d) Gobernuak negoziazioan ordezkatuta dauden liderrek gauzatzen dituzten ekintzak babesteko duen prestutasuna. Negoziatioari ekiteko oinarriak hauek lirateke²⁵: a) ETAREN arazoak eragin zuzena du Euskal Herrian eta, zeharka, Espainiako nazionaren gainerakoan; b) konponbidea nagusiki politikoa zen; d) Gobernuak ez zuen zuzenean talde terrorista batekin negoziatu behar; d) Euskadin terrorismoa desagerrarazteak, batez ere, euskal herriari eragiten zion, eta, ondorioz, hura inplikatu behar zen arazoaren konponbidean; e) Gobernuak programatutako ildoak «koltxoi indargetzaile» batek bere egingo balu eta ETA baldintza jakin batzuk onartzera behartuko balu soilik onartuko litzateke negoziatzeko aukera; f) Gobernuak su-etenen baterako ezarritako baldintzak beti urra zitezkeen, talde terrorista baten autoritate moralak baliogabea baitzen.

1977ko maiatzaren 20an, hauteskunde orokorretarako hilabete falta zela, ministroen kontseiluak oraindik kartzelan zeuden ETAREN preso esanguratsueni erbesteratzearen formula aplikatzea onartu zuen, hala nola Mario Onaindiari eta Eduardo Uriarteri. ETApM eta EIA gobernuren keinu horren zain zaramaten denbora batez, eta gertaera horrek eraman zituen anbiguotasun politiko oro alde batera uztera. Mario Onaindiak, Javier Izko de la Iglesia eta Unai Dorronsororekin batera Kordoban espetxeratua zegoen Uriartek honako hau gogoratu zuen gai honi buruz²⁶: «Juan Mari Bandres gugana etorri eta jakinarazi zigun, ETAREN atentatuak gorabehera, Gobernuak prest zegoela hauteskundeak baino lehen gu atzerrira eramateko legezko figura arraro baten bidez, Narváezen garaitik erabili ez zen erbesteratzearen bidez. Argi zegoen Gobernuak neurri politiko onuragarriak aplikatzen ari zela espetxeratutako ETAREN presoentzat (ETApM-koak kasu honetan), ETAREN adar militarrek ez zituela neurri horiek bere handitasun guztian aztertzea nahi izan, bere helburu politikoei begira erakunde horrentzat izan zezakeen garrantzi politiko guztiarekin.

1977ko ekainaren 15erako aurreikusitako hauteskunde orokorrak aukera ezin hobe izan ziren ETAREN bi adarrek (politiko-militarra eta militarra) Espainiako Gobernuarekin harremana eta negoziazioa bila zezaten, elkarren interesetarako. Erakunde terroristarentzat, gai politikoak aldarrikatzea eta ebatzea (amnistia, presoak eta erbesteratuak, FOPen jarduna, eskuin muturraren kontrola, euskal alderdi abertzale guztien legeztatzea, eta abar) ezinbesteko hasiera zen Espainiako Gobernuak bultzatzen zuen eta, ondoren, jarduera armatua uztea ekar zezakeen bide demokratikoa onartu eta baliozkotzeko. Hauteskundeetara ETApM-k bakarrik aurkeztu zuen bere aldarrikapenak jasotzen zituen alternatiba politiko bat. Hauteskundeak UCDEk irabazi zituen (168 diputatu Kongresuan), parte-hartze maila % 78,83koa izan zen eta abstentzio indizea % 21,7koa. Euskal Autonomia Erkidegoan abstentzioa % 22,6koa izan zen. ETAm-k, kanpaina iragarri zuen bezala, uko egin zien hauteskunderi, KASen kokatutako Euskal Herriko Alderdi Sozialistarekin (EHAS) eta LAIAREkin batera abstentzioa sustatuz, baina hauteskundeetako emaitzak porrot handia ekarri

zior, EEko bi parlamentari diputatu aukeratu zituzten (horrela, «ezker abertzale» osoa ordezkatzeko zuten Parlamentuan) eta euskaldunen eta nafarren parte-hartze handia izan zen. Hauteskundeetako emaitzek desengainu handia eragin zuten ETAm-engan, eta EIA eta ETApM-ri egotzi zien porrotaren errua. Ondorioz, biak KASetik kanporatzea lortu zuen EHASEkin eta LAIArekin batera 1977ko abuztuan²⁷. KAS ETaren kontrolpean geratzen zen.

1977ko urriaren 15ean, Gorte Nagusiek Amnistiari buruzko 46/1977 Legea onartu zuten, Espainiako kartzelak preso etakidez hustu ziren, baina horrek ere ez zion balio izan ETAm-ri Espainiako etorkizun politikoa beste ikuspegi batzuen pean ikusteko. ETAm-k atentatuak egiten eta erailtzen jarraitu zuen, Gobernuak armak uzteko eskaintzen zizkion balizko kontzesioei jaramonik egin gabe, eta azken hau KAS Alternatiba onartzera edo estatu-kolpe baten arrisku-pean jartzera behartu zuen. *Egin edo Punto y Hora* bezalako komunikabide abertzaleek oso editorial gogorak argitaratu zituzten ETAm-ren aurka, eta jarduera armatua erabiltzeari uko egitea ere eskatu zioten²⁸. Terrorismoa aparte utzita, Suárezen erreforma politikoa aurrera jarraitzen zuen oraindik, nahiz eta erakunderen baten, Gudarostearen eta eskuin muturreko taldeen, errezeleak izan. 1978ko abenduaren 6an, erreferendumean, Espainiako herriak berretsi egin zuen Espainiako Konstituzioa Gorte Nagusietan onartzea, Kongresuak eta Senatuak urte horretako urriaren 31n egindako osoko bilkuretan. Erregeak abenduaren 27an berretsi zuen Gorteetan. Espainiarentzat garrantzi handikoa izan zen gertaera politiko horrek ere ez zion balio izan ETAm-ri egiaztatzeke espainiarren gehiengoak Karta Magnaren alde egin zuela, non demokrazia parlamentarioak haien arteko bizikidetzak baketsua bermatzen zuen. Urtebete geroago, 1979an, Euskal Herriaren Autonomia Estatutua onartu zen, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera. ETAm-k aldarrikapen nazionalista zahar bat zeukan aurrean, euskal herritar gehienek onespenerekin lege-testu egina. «Euskal Herria, bere naziotasunaren adierazpide gisa, eta bere autogobernua lortzeko, autonomia-erkidego gisa eratzen da Espainiako estatuaren barruan...», zioen Estatutuaren lehen artikulua. ETAm-k ez zuen aintzat hartu ere egin euskal herri langileak berak (zeinari zor zitzaion eta ustez defendatzen zuen) erreferendumean bozkatu zuela testu politiko hori, non euskaldunek elkarbizitza baketsu baterako dituzten oinarritzko eskubide eta betebeharrak adierazten ziren. Estatutua ere ez zen bere gustukoa, eta HBk, mesprexuz, «Madrilgo Estatutua» bezala bataiatu zuen, espainiar etsai mendetakoaren kontzesiotzat hartzen zuelako²⁹. Hori bai, ETaren adar militarrek 65 pertsona erail zituen urte horretan. José M. Portillok horri buruz adierazi duenez, «bereiziki deigarria da ETApM-k» aldi horretan «egindako jarduera terrorista», nahiz eta ETAm izan «jarduera hilgarriena izan zuena (65 hilketa, ETApM-ren 10 hilketen aldean)»³⁰. ETApM-k, ETAm-k ez bezala, «bere jarduera kriminala Autonomia Estatutuaren izenean gauzatu zuen», eta, hasieratik, autonomiaren aldekoa izan zen, independentziaren aurreko urrats gisa, Portillok dioenez³¹. 1980ko martxoaren 9an egin ziren lehen hauteskunde autonomikoak, eta HBk bigarren indar politikoa izatea lortu zuen. ETAm-k, HBren

bitartez, nazionalismo erradikala monopolizatzen zuen, «ezker abertzalea», EEren kaltetan (ikus II. atala).

ETAm-k bere gorakada terroristarekin jarraitu zuen hurrengo urteetan, Gobernuak, ez zailtasunik gabe, egiten jarraitzen zuen irekiera politikoa alde batera utzita, baina ETaren indarkeriaren amaierari ate bat irekita utziz, ETak aintzat hartu ez zuena, eta, beraz, kezka zituena aldarrikapen horien konponbide posible bat bideratuta ikusi nahian. Gobernuari izuaren xantaia etengabea eginez, KAS Alternatiban jasotako printzipio batzuen negoziatioari amore eman ziezaion nahi zuen, oraindik hasiberria zen Gobernu demokratiko batek onartu ezin zituenak. Suárezen Gobernuak eskaintako eta ETApM-k aintzat hartu zituen alternatiba posible guztiak sistematikoki baztertu zituen ETAm-k. Bitartean, erakunde terrorista horrek atentatuak egiten jarraitu zuen.

III. ETAM-K JARRAITUTAKO BIDE DESEGOKIAREN AZTERKETA (1976-1982)

Atal honetan, ETAm Trantsizio Demokratikoaren garaian Espainiako Gobernuak eskaini zion desegitearen bideari ez jarraitzea eraman zuten arrazoien azterketa labur bat egiten saiatuko gara, eta, ondoren, gobernua beste saiakera batzuetan alferrik galdu zituzten aukerak aztertzen saiatuko gara³². Horretarako, bi aldi historiko bereiziko ditugu, 1976tik (erregimen politiko berri baten hasiera) 1982ra (ETApM-ren indarkeriaren amaieraren amaiera), ETA militarrek «borroka armatua» ez uzteko jarraitutako dinamikan duten garrantziagatik.

1. 1976 ETA 1981 ARTEKO ALDIA

Denbora tarte horretan, Espainiak erreforma politiko eztabaidagarri bat hasi zuen, garai hartan Gobernuko presidente zen Adolfo Suárezek babestua, eta sektore politiko eta sozial batzuek kritikatu egin zutena, baita Indar Armatuetako kideek ere, aurreko erregimenaren programa politikoa, ustez erregeak neurri batean kontserbatuko zuena, abiada bizian erabat behera zetorrela ikusten baitzuten. Sistema politikoaren aldaketa monarkiaren erabateko adostasunarekin egin nahi zen ezinbestean, eta horretarako egitura frankista asko eraitsi behar ziren. Aldaketa horrek krisialdi sozial eta ekonomiko batekin topo egin zuen lehen urte horietan. ETaren terrorismoa ere kontuan hartu beharreko arrisku larria zen, eta bai Indar Armatuek bai Ordena Publikoko Indarrek ez zuten ikusten Gobernuak lan handia egiten zuenik ildo horretan; gogoratu besterik ez da egin behar 1976an ETaren bi adarren artean 17 pertsona hil zituztela, eta horietako 16 ETAm-ren ardura izan zirela. 1977, 1978 eta 1979 oso urte nahasiak izan ziren Gobernuaren politikarentzat terrorismoaren ondorioz. Jeneral kualifikatu batzuk hil zituzten, eta horrek ezinegon bizia sortu zuen Indar Armatuetan, eta istilu larriak sortu ziren goi-agintari horien hiletetan.

Haserre maila handia zen jada zenbait gizarte sektoretan. Hala ere, demokraziak behin betiko aurrera egin zuen 1977ko ekainean egin ziren lehen hauteskunde demokratikoekin, urte bereko urriko Amnistiaren Legearekin, 1978ko abenduan Espainiako Konstituzioa onartzearekin, 1979ko martxoko hauteskunde orokorrekin, 1979ko abenduan euskal herritarrek beren Autonomia Estatutuaren Lege Organikoaren onartzearekin eta, azkenik, 1980ko martxoan Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde autonomikoekin. Urte batzuk lehenago pentsaezinak ziren lorpen horiek, eta erakunde terroristen eskura jartzen zuten euren helburu politikoak hautetsontziren eta erakundeen bidez bideratzeko aukera eta borroka armatuari behin betiko uko egitekoa. ETApM-k bakarrik ulertu zuen mezu demokratikoa, eta nahikoa argi ikusi zuen Espainiako etorkizun politikoa, bere beso politikoaren bitartez (EIA) bide politikoaren aldeko apustua eginez argitzen ari zela zirudiena.

Zoritzarrez, ETAm ez zen bide horretatik joan, eta baztertu egin zituen Gobernuak jarduera terrorista geratzeko eta politika aktiboarekin bat egiteko eskaintzen zituen aukera onuragarriak. 1977ko hauteskunde orokorrak bere aukera handia izan ziren hautetsontzietan, baina ETAm-k ez zuen aurkeztu bere interes politikoak defendatzen zituen bere inguru abertzaleko alderdirik, eta, gainera, hauteskunde horiei boikota egin zien. Argi dago, orduko egoera politikoan, Gobernuak ezin zuela ETAk behin eta berriz eskatzen zituen eskakizun asko betetzeko konpromisorik hartu edo ezin zela kontzesioetan hedatu, hala nola amnistia osoa eta berehalakoa, LPFen jarduera eztabaidagarria, alderdi politiko guztien legeztatzea, etab. ETAm erakundeak oso epe laburrak eta akordio oso zehatzak eskatzen zituen bere ideia politikoetako gai asko ebazteko, batez ere autodeterminazioari eta lurraldetasunari buruzkoak, eta kexu zen behin eta berriz Gobernuak ez zituela erakundearentzat garrantzitsuak ziren helburu horiek aztertu eta landu nahi. Amnistiaren eta Euskal Estatutuaren ondoren, eskakizun asko konponduta geratu ziren, eta Espainiako Konstituzioak ere bide politikoak finkatu zituen, erakundeek herritarren eskaera legitimoak entzun zitzaten. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaierako urte zail haietako historia terrorista irakurtzea besterik ez dago: ETAm-k 7 pertsona hil zituen 1977an, 60 pertsona 1978an, 65 1979an eta 79 1980an. Hau da, sistema demokratiko baten oinarriak martxan jarrita, erakunde armatu bat zegoen, indarkeriarekin eta terrorearekin 79 hilketetara iritsi zena, indarkeria bertan behera uzteko edozein negoziazio mota, bere interesekin bat ez zetorrena, arbuiatuz. ETarentzat, KAS Alternatibaren postulatuaren onarpena ukazina zen Espainiako Gobernuarekin edozein elkarrizketa emankor izateko eta «borroka armatuari» uko egiteko³³. «Ezingo da su-etenik egon KAS Alternatiba onartu arte, orduan bakarrik lortuko baitu Euskal Herriak askatasuna benetan», zioen ETAm-k urte haietan. Bortizkeria utzi nahi ez izateko modu sotila zen.

1977ko hauteskunde orokorrak egin ondoren, Espainiako Gobernuak berehala ebatzi zuen ETAm erakundearen aldarrikapen nagusietako bat, amnistia. Amnistia horrek erabatekoa eta epe laburrean gauzatutakoa izan behar zuen, erakunde horretako buruzagiek adierazi zuten bezala. ETaren bi adarretako taldeek

eta kolektiboek amnistiaren alde antolatutako kanpainak handituz joan ziren, eta kaleko aldarria etengabe hazi zen. Amnistiaren Legea 1977ko urriaren 15ean aldarrikatu zen azkenean, baina ez zuen ETAm asebate, presoak kartzeletatik atera ziren arren. Nola zitekeen, preso terroristak jada aske egonda, ETAm-k une horretan ez planteatzea «borroka armatua» bertan behera uztea? Bada, amnistia aitzakia hutsa izan zen ETaren aldeko oinarriak eta KAS kolektiboa ideologikoki pozteko; izan ere, indarkeria ez eteteaz gain, amnistia jaso zuten terrorista batzuk berriro ere komando operatiboetan sartu ziren, eta atentatuak egiten jarraitu zuten³⁴. 1978an Espainiako Konstituzioa edo geroago Euskal Autonomia Estatutua onartu izana ere ez zen ETaren adar militarren gus-tukoa izan bere interes politikoetarako. KAS Alternatibaren postulatu berriak eguneratu ere egin zituen ETAm-k, 1978ko urtarrilaren 30ean «Normalkuntza demokratikorantz eta Subiranotasun Nazional Osorantz»³⁵ izenburupean izandako eztabaida baten ondoren. Ia ezinezkoa zen Gobernuak eguneratutako azken postulatu horietako batzuk onartzea (autodeterminazio-eskubidea, Euskadiren subiranotasun nazionala, estatu propio eta independente bat sortzea, Poliziaren Kidego Orokorra, Polizia Armatua eta guardia Zibila Euskaditik kanporatzea), edo Eusko Jaurlaritzak Euskadin kuarteleratutako Indar Armatuak kontrolatzea). ETAm-k ez zuen horrela ulertzen une politiko hartan, eskaini zitzaizkion beste formula batzuk gorabehera, hala nola presoen kondenak berrikustea eta espetxetik ateratzea, erbesteratuen egoera, FOPen eta muturreko taldeen kontrol handiagoa, Euskal Autonomia Estatutuaren erabateko garapena bultzatzea, Euskal Herriaren aldarrikapen historiko asko bilduz, denbora ematea Espainiako politika demokratikoa bera helduagoa egiten joan zedin, baita ETAm-k aurkeztutako gaien konponbidearen aurrean Espainiako Gobernuak jarrera sinesgarria izatea ere. Erakunde horri indarkeria bertan behera uztea baino ez zitzaion eskatzen, hura kezkatzen zuten gai garrantzitsuei buruz hitz egiteko eta adostutako irtenbideak bilatzeko, betiere indarkeriarik gabe.

Hala ere, ETA militarrek ez zuen gobernuaren diskurtso hori onartzen, eta, gainera, nekagarria eta sinesgaitza iruditzen zitzaion. Suárez presidentearen Gobernuaren eta ETAm alderdiaren jarrerak oso urrun zeuden, nahiz eta 1979. urtearen amaieran dagoeneko Euskal Estatutu berria izan.

1979ko irailean Bilbon eta Donostian lau eguneko tartean hiru militar erail ondoren, EIAk eta ETApM-k agiri gogor bat argitaratu zuten handik egun batzuetara, ETAm-ren eraso lazgarria salatuz:

Euskal Herriaren defentsa helburu izatetik urrun, tentsio giroa sortzen du, eta horrek eragotzi egiten dio Euskal Herriari Estatutuak adierazten duena modu hotz eta lasaian baloratzea. Erasoaldi hori eta Estatutuaren kanpaina bat datozenez, ondoriozta dezakegu eztabaida gaiztotu nahi dela, baita erreferendumen emaitzak ere, herriaren borroka politikoa ekintza armatuaren bidez ordezkatuz...³⁶

Urriaren 31n, EIA eta ETApM-ren komunikatuari erantzun zion ETAm-k, pasarteetako batean honako hau esanez:

borroka armatuaren prozesua zuzena da, eta euskal langileen interes nazionaleri eta klasekoei hobekien laguntzen diena (...) Bere politika zapaltzailearekin gure herriari krisia, nahasmena eta genozidioa ekarri dizkionaren, hau da, Espainiako Estatu burgesaren eta bere Indar Armaturen, buruaren aurka egiten jarraituko du gure ezpatak³⁷.

1979an nazionalisten eta abertzaleen arteko liskarrak areagotu egin ziren. ETAk ekintza-ondorio-ekintza estrategiarekin jarraitzen zuen, baina isolamendurantz, bakardaderantz eta nekerantz zihoan, ekintzen errepikapen monotono eta gero eta kontrolgabeagoaren aurrean. Gobernuak adierazi zuen euskal arazoari irtenbide bakarria eman behar zitzaiola: ETA garaitzea Gudarostearekin eta Poliziarekin. 1980. urtea oso nahasia izan zen Espainian, terrorismoaren mehatxuak oso gora egin zuen, eta trantsizio demokratikoaren garaia bertan behera utz zezakeen ezegonkortasunerako arriskua gero eta posibleagoa zen. Urte horretan, terrorismoak 395 atentatu utzi zituen Espainian, 132 hildako, 100 zauritu eta 32 bahiketa³⁸. ETAm-k 79 hildako eragin zituen, zenbaki guztiz esanguratsua, garai hartan zegoen irekiera demokratikoa kontuan hartuta. Herrialdeko egoera politikoa terrorismoak kolpatutako etengabeko irakinaldian zegoen, eta hura gauzatzen zuten taldeek inoiz baino gehiago desiratzen zuten estatu-kolpe baten aukera. Panorama politiko-sozial horrek ez zion aukerarik ematen Gobernuaren eta ETA erakundearen arteko harreman —eta elkarrizketa-prozesu bati, indarkeria-maila hori murrizteko. 1980ko maiatzean, ETAm-k Euskadin sartzen ari zen droga-trafikoaren eta —kontsumoaren aurkako kanpaina armatu bat abiarazi zuen, eta, besteak beste, Espainiako Gobernuak ordaindutako isil-mandatariei eta mafiei egotzi zien euskal gizartea usteltzeko eta gazteak borroka iraultzailetik desbideratzeko errua. Kanpainak 1980tik 1994ra iraun zuen, 1985etik 1987ra bitarteko geldialdiarekin, eta berrogei pertsona baino gehiago erail zituzten³⁹. ETAm gizartearen epaile bihurtu zen, eta, are larriagoa dena, Espainiako Gobernuak egin zuen erantzule bere jarraitzaileen, drogazaleen senideen eta iritzi publikoaren aurrean. Indarkeria giro horrekin ezinezkoa zen Gobernuaren eta ETArekin artean inolako negoziazio saiorik egitea. Urte horretako abuztuan, Juan José Rosón Barne ministroak honako hau adierazi zuen Bilbon emandako prentsurreko batean, atentatu baten ondorioz Euskal Herrira egindako ustekabeko bisita baten harira: «ETArekin negoziatzea ezinezkoa da. Pertsonen integritatea ezin da negoziatu. Gustatuko litzaidake terrorismoa modu baketsuan desagertzea, baina, zoritxarrez, ez dut uste horrela izango denik. Arazoa bide polizialek planteatu beharko da»⁴⁰.

Hala ere, Gobernuak negoziatzen saiatuko zen berriro, eta 1980ko udatik Rosónek eta Mario Onaindiak, garai hartan EEko idazkari nagusia zenak, elkarriketak hasiko zituzten ETako kideak birgizarteratzeko.

2. 1981 ETA 1984 ARTEKO ALDIA

O-23ko estatu-kolpe saiakeraren ondoren, 1981eko otsailean, ETApM-ren adar politikoa, EIA, ETArekin negoziatzen saiatu zen. Erakundearen bi adarrekin

eta euskal indar politikoekin harremanak ezarri zituen su-etena lortzeko eta, ondoren, «borroka armatua» eteteko. Otsailaren 28an, ETApM-k iragarri zuenez, «aurreikusitako ekintza guztiak geldiaraziko dira, eta egiten ari direnak bertan behera utziko dira». 1981eko martxoaren 3an, ETAm-k atentatuak egiten jarraituko zuela iragarri zuen, eta bi egun geroago, Bilboko polizia-komisario bat erail zuen. Estatu-kolpe saiakerak «borroka armatuarekin» jarraitzea bultzatu zuen ETAm, gertaerek Espainiako politikan eta gobernagarritasunean ezer gutxi aldatu zela frogatu baitzuten. Hala ere, 1982ko maiatzean, ETAm Gobernuarekin beste negoziazio bat behartzen saiatu zen, nahiz eta Rosón ministroak Valentzian egindako adierazpen batzuetan, Gobernuak berak eta Parlamentuak jada adierazi zuten akordio politiko batera heltzea ezinezkoa zela. Ministroak bere adierazpenetan gaineratu zuen euskal probintzietan irtenbide politikoak eskaintzea sakon aztertu zutela, baina «indarkeriazko ekintzen aurka irtenbide judizialak eta polizialak» baino ez zeudela⁴¹. Horri dagokionez, Juan Mari Bandresen EEtik adierazi zuen ezin zela ziur esan ETAk Gobernuarekin negoziatu nahi zuenik, baizik eta Herri Batasuna negoziazio horretan bitartekari lanak egiten saiatzen zela. Negoziazio horiek, ordea, ezinezkoak ziren erakundeak ezarritako baldintza batzuegatik, hala nola, autodeterminazioa, Konstituzioaren erreforma, Nafarroaren atxikimendua eta amnistia orokorra.

Bi hilabete geroago, 1982ko uztailan, ETApM VII Batzarrak behin betiko su-etena deklaratu eta «borroka armatua» bertan behera utzi ondoren, Barne Ministerioaren eta erakunde horren arteko negoziazioak azken fasean sartu ziren. Rosón eta Juan Mari Bandresen arteko zenbait topaketatan, ikuspegi juridiko eta polizialek aztertu zen tratu berezia, bake-bidea aukeratu zuten terrorista damutuei soilik zuzendua. ETAm-ri dagokionez, Rosónek, Bilboko *Tribuna Vasca* egunkariari egindako adierazpen batzuetan, esan zuen «aurrerapen positiboak eta sakonak» egin zirela, «nahiz eta batailaren amaierak urrun dirudien»⁴². Ez zitzaion arrazoirik falta Barne ministroari, ETApM-rik hartu-emanek eta akordioek fruitua eman baitzuten, eta 1982ko irailaren 30ean betiko desegin baitzen. Aitzitik, ETAm-k ez zuen indarkeria utzi, eta, ETApM VIII Batzarrean erabakitakoarekin ados ez zeudenekin batera, ETApM VII Batzarraren aurkako desprestigio-kanpaina abiatu zuen, erakunde terroristari traizioa egitea egotzita. Ángel Ugartek, Gobernuak hainbat unetan negoziatzaile gisa bidalia, jada aipatu den bezala, 2016an uste zuen ETA erakunde terroristak, ETA militarrek, ez zuela «inoiz negoziatu nahi izan, bestela bere diskurtso politikoa amaitzen zitzaiolako»⁴³. ETAm-k bere estatusari eutsi nahi zion, ez zuen desagertu nahi eta indarkeriarekin jarraitu nahi zuen; are gehiago, Ugartek uste zuen ez zela inoiz desegiteko zorian egon. Erakunde terroristak horrek ez zuen inoiz indarkeria alde batera uzterik lortu, eta «borroka armatua» erabiltzea ezinbestekoa zitzaion edozein gobernu demokratikorentzat onartezinak ziren helburu politikoak lortzeko. Cassinellok argi eta garbi adierazi zuen hori Gobernuari igorritako egoera-txosten batean: «ETArekin behin eta berriz hitz egin dugu (...), ETArri erbesteratzeak, amnistiak eta legezkatzeak eman zaizkio, eta ETAk bere hilketekin eta estortsioekin jarraitu du, ezer laga ez balitz bezala...»⁴⁴.

ETAm-k ez zuen Rosónen Birgizarteratze Plana onartu nahi izan, kontuan hartuta «borroka armatua» bitarteko eraginkorra zela bere aldarrikapenak lortzeko, eta, jakina, une politiko hartan oso zaila zela Gobernuak aldarrikapen horiek osotasunean aintzakotzat hartzea. Erakunde horrek uko egin zion Espainiako Konstituzioaren eta Euskal Autonomia Estatutuaren onarpenarekin ireki ziren bide instituzionalista guztiekin bat egiteari eta, ondorioz, bere helburu politikoak legezketasun demokratikoaren bidez lortu ahal izateari. KAS Alternatibaren ezarpena, Gobernuari bere ordezkariekin izandako harremanek jarraitu eta fruitua eman ahal izateko baldintza gisa, onartezina zen azken horientzat. Batzuetan, ETAm-k Gobernuarekin izandako bilerak publikoak izatea planteatzen zuen, eta beste batzuetan, berriz, haren mandatariak hiltzen zituen, 1978ko ekainaren 28an hil zuten José María Portell kazetariarekin gertatu zen bezala, Gobernuaren negoziatzaile lanak egiten ari zela. 1977ko otsailean eta martxoan, Juan José Etxaberen bitartez, Portell ETAm-ko zuzendaritzarekin su-eten erreala eta iraunkorra negoziatzen saiatu zen, amnistia zabal baten truke, baina erakunde terroristak ez zuen nahikotzat jo. ETAm-k presoen askatasuna, erbesteratuen itzulera, alderdien legezkatzea eta KAS Alternatibaren onarpena exijituz erantzun zuen. Gobernuak kontraproposamen bat egin zion erakunde terroristaren eskakizunei, baina, zuzendaritzak aztertu ondoren, *Peixotok* gutun baten bidez erantzun zion Portelli, eta bertan adierazi zion Etxaberen 1977ko martxoko proposamena jaso ondoren, «erakunde politiko horrekin harremanetan jartzeko egin nituen kudeaketa guztiak alferrikakoak izan zirela»⁴⁵.

ETAm-ren estrategia politikoak indarkeria terrorista erabiltzera eraman zuen ESIKak jazartzeko, eta etengabeko segurtasunik eza eta deserosotasuna eragin zion Euskal Herrian egon ziren bitartean, lurralde horretatik irtetera behartzeko. Indar Armatuak dagokionez ere, jazarpena eta atentatuak etengabeak ziren, eta hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran eta laurogeiko hamarkadaren hasieran Madrilen izandako hainbat jeneralen hilketak gogoratzea besterik ez dago, kolektibo militarrean haserrealdi handia eragin zutenak, aipatu den bezala⁴⁶. Hori zen ETaren helburu estrategikoa, Indar Armatuak zirikatzea eta ondorio handiko ezegonkortasun politikoa eragitea. 1981eko otsailaren 23an, porrot egin zuen Antonio Tejero Guardia Zibileko teniente koronelaren eta militar batzuen estatu-kolpeak. Kolpistek argudiatutako arrazoietako bat jarduera terroristaren areagotzea eta egoera horren aurrean erantzun egokirik ez ematea izan zen. Bitxia bada ere, urte batzuk lehenago, ETAm eta KASeko buruzagien baitan, baztertu egin zuten kolpe militarrik egon zitekeenik edo, nolana ere, arrakasta izan zezakeenik. Hain zuzen ere, *Argalak* 1978ko otsaileko *Zutiken* 69. zenbakian Espainiako bilakaera politikoaren aurrerak aztertu zituen, eta baztertu egin zuen diktadura militar berri bat, nazioartek atzera botako baitzuen eta «prozesu iraultzailea bizkortzen» lagunduko baitzuen⁴⁷. ETak, otsailaren 23an huts egindako kolpearen ondoren, erakunde militarri eta, ondorioz, Estatuari eraso egin zion, eta ondorengo *Zutiken* argitalpenetan Espainiako sistema politikoari kritikak egin zizkion, «diktadura

militar»tzat joz, non militarrek «Calvo-Sotelo buru zuen gobernu zibil baten aukera» onartu zuten, militar bat buru zuen gobernu bat eratu aurreko azken saio gisa»⁴⁸. ETak 1981ean bere militante eta jarraitzaileei zuzendutako argitalpenetan, Espainiako erreforma politikoa porrot gisa aurkezten zuen, Euskadiren erreformara ere hedatzen zen porrot gisa, KAS eta HB gora egiten ari ziren bitartean. ETak 1977tik Lemoizko zentral nuklearraren itxieraren aurka egindako atentatu-kanpainen amaiera gisa, José María Ryan ingeniari burua bahitu eta hil zuten 1981eko urtarrilean, eta haren ondorengo Ángel Pascual, 1982ko maiatzaren 5ean. Une horretan, euskal gizartearen gaitzespena hain garrantzitsua izan zen, ezen ETAm-k bere Biltzar Ttipiaren bilera bat deitu eta egoera aztertu behar izan baitzuen. Erakunde terroristak entzungor egin zion Euskal Herriak eskatutakoari, eta bere proposamen terroristarekin jarraitu zuen. Lemoizko kanpaina 1982ko erdialdean amaitu zenean, bankuen aurkako kanpainak jarraitu zion, ia 200 atentaturekin eta 1984ko martxora arte banketxe nagusiek jasan zuten estortsioarekin.

PSOEek 1982ko urrian hauteskundeak irabazi zituenean, ETAm-k, ezker sozialistarekin sumatzen zuen aldaketa politikoaren aurrean, su-etena eskaini zion Gobernuari, KAS Alternatiba onartzeko baldintzapean. Aukera hori berehala aienatu zen, erakunde terroristaren arabera, gobernu sozialistak bere legegintzaldiko lehen urratsetan sortu zituen itxaropen faltsuen aurrean. Orduan, erakunde terroristak bere indarra erakutsi nahi izan zuen, eta urte hartako azaroaren 4an, ETaren *Argala* komandoak Brunete 1 Dibisio Korazatuko jeneralburua hil zuen, indar armatuetan izugarritzko asaldura sortuz. Hilabete geroago, Gobernuko presidentek bisita ofiziala egin zuen Dibisiora. Felipe Gonzálezek gobernu sozialistari egokitu zitzaion Rosón ministroak eta ETAm-k 1982tik ia 1989ra adostutako birgizarteratze-prozesu guztia kudeatzea. Era berean, 1982tik aurrera Frantziak eta Espainiak egindako goi mailako gestio eta harreman diplomatikoen ondorioz, bi herrialde horien arteko terrorismoaren aurkako politikak, ordura arte Espainiari kalte nabarmena egin zionak, norabide aldaketa garrantzitsua eman zuen. 1983ko abenduaren 20an, Frantziako eta Espainiako gobernuen arteko akordio bat sinatu zen ofizialki, eta, horren ondorioz, polizien arteko lankidetzeta sortu zen, ordura arte «santutegi» frantsesa zeritzonetik etakideak hirugarren herrialdeetara kanporatzeko eta Frantziak bere lurraldean kokatutako komando etakideak jazartzeko borondate irmoa. Bestalde, Espainiako Gobernuak konpromisoa hartu zuen «borroka armatua» uzten zuten etakideak gizarteratzeko eta ETArekin indarkeriaren amaiera negoziatzeko, baina eduki politikorik gabe. Akordio hori 1984ko urtarrilaren 10ean gauzatu zen, ETAm VIII Batzarreko lau buruzagi eta ETAm-ko bi kide atxilotu zituztenean, eta guztiak Panamara deportatu zituzten⁴⁹. 1989ra arte iraun zuen deportazio-politika horrek, eta erakunde terroristetako 63 kideri eragin zion. Espainiako Gobernuak hasiera batean nahi ez zuen jarduera politiko horrek, baina berez terrorismoaren aurkako lankidetzari dagokionez Frantziarekiko aurrerapen bat zekarrenak, ETAm-ko zortzikoak edo KAAko kideak behin betiko desgiteko balio izan zuen. Hala ere, ez zen horrela gertatu ETAm-rekin; izan ere,

neurri horiek jarduteko gaitasuna murrizten lagundu bazuten ere, jarduera armatuarekin jarraitu zuen. GALen «gerra zikin» kontraterrorista 1983ko urritik 1986ko otsailera bitartean sortu zen, eta urte horretan bertan burututako José Antonio Lasa eta José Ignacio Zabala ETako kideen bahiketa eta erailketak kritika gogorak eragin zizkion Estatuari ETAm-ren beraren aldetik, baita euskal gizartearen zati handi baten aldetik ere. Gertaera horiek ez zuten batere lagundu erakunde terroristaren eta gobernu sozialistaren artean nolabaiteko elkarrizketa bati eusteko. Gobernuaren terrorismoaren aurkako politikaren narriadura larri horren aurrean, ETAm-k, bere ahalmen terroristar murriztu beharrean, fronte guztietan areagotu zuen. Gobernuarekiko hartu-emanak eta elkarrizketa posiblea desagertu egin ziren berriro.

Aurreko atalak garatu ondoren, egile honen iritziz 1981/1982an behin betiko su-etena ez deklaratzeko eta ondoren «borroka armatua» uzteko ETAm-k hartutako erabakian eragina izan zezaketzen zenbait faktore aipatuko ditugu:

— Suárezen Gobernuaren erreforma politikoan eta monarkian konfiantzarik ez izatea erabateko demokrazia lortzeko.

— Espainiako Konstituzioan (1978) araututako herritarren oinarrizko eskubideei eta askatasun publikoei buruzko errezeloa, uste baitzuten ez zituztela betetzen erakunde terroristaren itxaropenak bere helburu politikoei dagokienez, batez ere autodeterminazioari eta «lurraldetasunari» dagokienez.

— Euskal Autonomia Estatutua (1979), erakunde terroristaren ustez osatuga-bea eta Euskal Herriaren benetako aldarrikapen historikoetatik urrun baitzegoen.

— Gobernuak preso eta iheslariekin garatutako politika ere ez zen erakunde terroristaren gustukoa.

— Ordena Publikoko Indarren eta eskuin muturreko taldeen gaineko Gobernuaren kontrolik eza trantsizioaren lehen urteetan. ETA militarren etengabeko aldarrikapen bat izan zen hori.

— Segurtasun Indarrek terrorismoaren aurkako borrokan esperientziarik ez izatea eta, ondorioz, gero eta handiagoa zen indarkeria terroristari aurre egiteko Segurtasun Indarren prestakuntza falta eta baliabide material egokiak.

— Frantziaren eta Espainiaren terrorismoaren aurkako lankidetzak (erbeste-erbeste politika); horren ondorioz, Frantziako herrialdea terrorista etakideen «santutegi» izateari utzi eta terrorista horiek beste herrialde batzuetara kanporatzea eragin zuen. Frantzia ETaren atentatuaren jomuga ere izan zen, eta ETak Frantziako herrialdearen eta Espainiaren aurkako errepresaliak hartu zituen.

— Gobernu sozialistak onartutako terrorismo parapolizialaren agerpena, GALen «gerra zikina» delakoaren bidez. Espainiako Gobernuak ere eragile terroristatzat jo zuen ETA militarra, eta erakunde armatuarekin gero eta zailagoak eta ezinezkoagoak bihurtu ziren negoziazioak.

— Espainiako Gobernuak uko egin zion ETArekin negoziatzeko hasierako baldintza gisa KAS Alternatibaren printzipioak onartzeari.

— ETAm-ko zuzendaritzaren erradikalotasuna eta intransigentzia negoziatioetan, Gobernuak hurrenez hurrengo harremanetan planteatutako proposamenen aurrean.

— ETAm-ko zuzendaritzako kideen lidergo eta karisma politikorik eza, indarkeriaren behin betiko amaiera bezalako negoziatio-prozesu handi bati ekiteko.

— Negoziatio-prozesuak ordezkari kualifikatuena eta gatazkak negoziatzen esperientzia dutenen esku ez uztea, baita aurrez aurre dauden alderdiek izendatutako bitartekariak parte hartzeko aukera izatea ere.

— Aurreko puntuari dagokionez, alderdien ordezkariak gatazka baten konponbide baketsuan esperientziarik ez izateak tentsio egoerak eragin zituen prozesuan zehar, eta horrek eragotzi egin zuen hurrenez hurrenko helburuak lortzeko beharrezkoa zen elkarrizketa eta adostasuna.

— Negoziatio-prozesuaren kontaktuei edo elkarrizketa-faseari hasiera ematea, alderdiek behar bezala antolatuta, planifikatuta eta adostutako benetako ibilbide-orririk gabe.

— Bi aldeek (Gobernuak eta ETak) erraz onartzeko moduko hasierako helburuak ez planteatzea, horiek adostu eta lortu ondoren eskakizun-mailaren eskala baten barruan goragoko mailako beste helburu batzuk lortzea ahalbidetuko luketenak.

— Aldez aurretik ez negoziatzea Gobernuak eta erakunde terroristak alde bakarreko harremanen hausturak (su-etena) harreman edo elkarrizketa oro bertan behera uztea eragingo lukeela, harik eta beste su-eten bat deklaratu arte, aldez aurreko baldintzarik ezarri gabe eta hasieran adostutakoa zorrotz errespetatuz.

— Euskal herritarren inplikazio handiagoa Espainiako Trantsizioaren epealdian goraka doan terrorismoaren aurrean.

— Funtsean, ETAm-k borronte politikorik ez izatea Gobernuarekin, indarkeriaren mehatxurik gabe, akordioak lortzeko.

Aurreko faktoreak alde batera utzita, garrantzitsua da bi kontu azpimarratzea. Lehenengoak ETAm-k eta Espainiako Gobernuak hurrenez hurrenko harreman edo bileretan izendatutako ordezkariak negoziatzeko zuten gaitasunari egingo lioke erreferentzia. Argi dago, gatazken negoziatioari eta bitartekaritzari buruzko ikerketa akademikoaren ikuspegitik, negoziatzaileek gatazkak konpontzeko beharrezko kualifikaziorik eta esperientziarik ez badute, eskatutako beste baldintza pertsonal batzuek gain, oso zaila dela bi alderdi negoziatzaileek onartutako konponbideetara iristea⁵⁰. Funtsezko premisa hori ez zen aintzat hartu ondorengo ETaren eta hurrenez hurrenko Gobernuen arteko negoziatioetan, eta negoziatio guztien porrota eragin zuen⁵¹.

Bigarren kontua erakunde terrorista baten eta herrialde bateko Gobernuaren (Estatua Estatuaren aurrean) artean «parez pare» negoziatzea onartzea izango litzateke, negoziatio-prozesua hasteko ezinbesteko baldintza gisa. Indarkeriazko gatazketan, hala nola ETaren terrorismoaren kasuan, emozionalki indarkeria negoziatio-mahaian egon ohi denean, inplikaturako alderdien ordezkariak mota horrek ez dio mesederik egiten gatazka modu baketsuan konpontzeari.

Jonathan Powell politikari ingelesak dioen bezala, «negozioa arrakastatsua izan dadin, egitura sendoa behar da, beharrezkoak diren trebetasunak dituzten

negoziatzaileak, betiereko legeen behaketa, estrategia argia baina malgua eta bi aldeen interesak aintzat hartuko dituen abiapuntu on bat»⁵². Powellek gaineratzen duenez, «horrekin guztiarekin ere, bake prozesu bat hainbeste luza daiteke, ezen publikoa agortu egin baitaiteke, eta negoziatzaileek sinesgarritasun guztia galdu. Eta hori gertatzen denean, amaiera batera iristeko modu bat aurkitu behar da». Ingalaterrako negoziatzaile eta gatazka-bitartekariak honela jarraitzen du: «Harrigarria da gobernuak eta banda armatuak zenbatetan murgildu diren negoziazioetan aurretiko prestakuntzarik izan gabe»⁵³. Negoziatzea zaila da, trebetasunak, esperientzia, pazientzia, egitura, prozedura bat izatea, kontrol emozionala eta, batez ere, konponbide positibo batera iristeko nahia behar dira. «Negoziatzea arte bat da, eta bi alderdiek hori ulertzen dutenean baino ezin dute akordio bat lortu (...) bakea ez da gertaera bat, baizik eta gatazkan dauden bi alderdik denboraren poderioz bata bestearengan konfiantza izateko prozesua»⁵⁴.

ONDORIOAK

Adolfo Suárezen legegintzaldia hasi zenean, Gobernuko presidente gisa, ETaren adarretako batek, ETApM-k, indarkeriari uko egiteko eta armak behin betiko uzteko oinarriak jarri ziren, Suárezena ordezkatzeko zuten Gobernu sozialistaren lehen legegintzaldian. Zoritzarrez, ez zen lortu beste adar etakidea, militarra, konbentzitzea «borroka armatuak» ez zuela zentzurik herritarrek Konstituzio bat eta Euskal Autonomia Estatutu bat onartu zuten herrialde batean, bazeuden erakunde guztiz demokratikoak alderdi politikoek beren proposamenak eztabaidatzeko eta urte batzuk lehenago diktadura batetik atera berri zen herrialde baterako lege aski aurrerakoiak. ETA militarrek ez zuen sinetsi hirurogeita hamarrekako hamarkadaren amaieran errealtate bihurtzen hasi zen eta nazioarteko ordenari bidea ireki nahi zion espainiar demokrazia gaztean. Horretarako, ezinbestekoa zen hirurogeiko hamarkadaren amaieratik Espainian zegoen erakunde terrorista baten, ETaren, indarkeriarekin amaitzea.

Dinamika horretan, Adolfo Suárez presidentea eta haren ministroetako batek, Juan José Rosón, egindako lan politiko sendoari esker, 1980ko amaieratik 1981eko otsailera bitartean ETaren zati handi batek hizkera demokratikoa ulertzea eta urtebete geroago armak uztea lortu zen. Ez zen batere erraza izan, herritar askok gogoan dugu oraindik Espainiako Trantsizioaren garaian zegoen panorama politiko eta sozial iluna. ETaren indarkeria terroristarekin batera, Suárezen irekiera demokratikoaren aurreko erregimen politikoaren nostalgikoen oposizioa zegoen, presidentearen alderdikideen (UCD) liskar eta ika-mikak, gizartearen zati baten gaitzespena aldaketa politikoaren gehiegizko bizkortasunaren aurrean eta Indar Armatuaren zati handi baten ageriko haserrea herrialdearen egoera orokorraren eta bere kideak hiltzen zituen astinaldi terroristaren aurrean. Garai hartan zegoen giro politiko eta sozial arraroak mesede egiten zion ETaren indarkeriari, Gobernuaren elkarriketa eraikitzailearen nahiaren aurrean.

1976 eta 1981 urteen artean hainbat harreman sortu ziren Espainiako Gobernuaren eta ETaren bi adarren artean, ETApM-rekin ETAm-rekin baino biziago eta sakonago, Espainian indarkeriaren amaiera lortzeko. Azken erakunde horrek, ez zuen bide politikoa bere helburu politiko garrantzitsuenak betetzeko edo lortzeko bide eskusibotzat jotzen, bide militarrekin batera ere joan behar zuen, eta, kasu batzuetan, bide militarra helburu horiek lortzeko bide posible bakartzat jotzen zuen. 1977ko lehen hauteskunde demokratikoak izan zirenean, ETAm bere ideia politiko eta estrategikoen alde zeuden KASeko alderdi batzuen bidez aurkeztu ahal izan zen hauteskundeetara. Hala ere, ETAm-k ez zuen hautabide hori aintzat hartu, eta aukera paregabe bat alferrik galdu zuen, Euskadirentzat irtenbide gisa behin eta berriz proposatzen zituen helburu politikoak demokratikoki azaldu eta defendatzeko. Gobernuak bide politikoari heltzeko eta «borroka armatua» eteteko eskaintzen zizkion proposamenak ez ziren ETAm-ren gustukoak, eta ez zituzten bere itxaropenak betetzen.


ETaren eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziazioa 1982ra arte, hau da, ETApM VII Batzarra ofizialki desegin zen arte, ez zen erraza izan, 1976ko hasieratik herrialdeak bizi zuen egoera politiko, sozial eta ekonomikoa ikusita. ETApM jarraitu beharreko adibidea izan zen, bere helburuak lortzeko bide politikoa erabiltzea erabaki baitzuen, armak hartu beharrik gabe. Aitzitik, ETAm-k urte luzez lagun izan zuen indarkeria terrorista bide bakar gisa bere ustezko autodeterminazio —eta «lurraldetasun-helburuak» lortzeko. Helburu horiek lortzea berez zaila zen, eta erakunde horrek bazekien Gobernuak ez zituela inoiz onartuko. Ondorioz, «borroka armatuaren» iraupena zen ETAm-k Gobernuaren behin eta berriz makurrarazteko eta bere aldarrikapen politikoak errepikatze erabiltzen zuen estrategia. Arestian aipatu bezala, Konstituzioa, Euskal Estatutua, presoan amnistiak edo herriaren aurrerapen demokratikoa ez zitzaizkion benetan interesatzen ETAm-ri, eta ez zitzaizkion nahikoak iruditzen. Bestalde, ikuspegi akademiko edo tekniko hutsetik, ETAm eta Gobernuaren arteko negoziazio-prozesuen kudeaketa ez zen egokiena izan, baina benetan ere ezin zitekeen ezer hoberik espero. Nolanahi ere, eztabaidaezina da erakunde terroristak indarkeria eteteko borondaterik ez zuela izan, 1976tik 1982ra ETAm-k egindako 256 hilketak gogoratu besterik ez da egin behar. ETaren adar militarrentzat bere presoak eta babesa ematen zion talde abertzalea oztopo handia izan ziren beti, eta ezin izan zuen edo ez zuen jakin haietatik bereizten, bere ustezko programa politikoa Espainiako Gobernuarekin adostea beharrezkoa zen garaian, indarkeriarik gabe eta bere jarraitzaileen begietara gogobetegarria izanik. Era berean, erakunde ustezko liderrek, batere karismarik ez zutenek, ez zuten jakin benetako ibilbide-orri bat sortzen edo garatzen, hasiera batean helburu politiko eskuragarriagoak lortzeko eta etorkizunean helburu problematikoenak eta lortzeko zailenak negoziatzeko. Agintean zegoen euskal nazionalismoak ere ez zuen lagundu ETAm-k jarduera terrorista utz zezan inguruabarrak aldekoak izan zitzaizkionean, ez zuen behar adinako presiorik egin edo ez zuen jakin izan bere gobernagarritasunetik beharrezko giroa eta bideak sortzen, indarkeriaren mezua etakideen eta bere afiliatuen goi-karguetan finka ez zedin. Eta euskal

gizartea? Iñaki Artetak dioen bezala, «ez genuen jakin gure begien aurrean eraso egiten zieten biktimen istorioak ulertzen. Egiatan, ez genuen alde horretara begiratu. Orduan, gure bizitza arruntean, “Herriaren etsaien” patua beste guztionetatik erabat bereizita zegoen»⁵⁵.

Nolanahi ere, ETAm ez zen «borroka armatuan» gelditu Espainiako Trantsizio Demokratikoan, ez zuelako horretarako borondate politiko sendorik izan Gobernuak horretarako aurkeztu zizkion abagune egokietan. 1977ko urrian onartu berri zen amnistia legearekin preso etakideak kartzeletatik atera zirenean, horietako batzuk erakunde terroristan sartu ziren eta indarkeriarekin jarraitu zuten. Demokrazia errealitate bihurtzen hasia zen 1977ko ekaineko hauteskunde orokorrekin, Espainiako herriak hautetsontzietan demokratikoki aukeratu baitzituen bere ordezkari politikoak. Hala ere, ETAm-k beste aldera begiratu zuen, eta ez zuen ezta bere eskaera politikoen kidekoa zen alderdi politikorik aurkeztu ere. Ez zitzaizkion boto demokratikoak interesatzen. Handik hilabete batzuetara, 1978ko abenduan, espainiarrek Espainiako Konstituzioa onartu zuten, politikoki adostutako lege-testu bat, eta hori ere ez zitzaion interesatu ETAm-ri, nahiz eta defendatzen omen zuen herri langileak urte batzuk lehenago imajinaezinak ziren oinarritzko eskubideen eta askatasunen bilduma bat izan testu horretan⁵⁶. Urtebete geroago, euskal herritarrek beren autonomia estatutu propioa izan zuten, ETAk eta euskal indar politikoez asko aldarrikatu zutena, baina ETArri ez zitzaion nahikoa iruditzen, edo ordezkatzeko ez zuela uste zuen, bere burua Euskal Herriaren eskubide eta askatasunen epaile izendatzen zuen, ordezkari politikoen eta demokratikoki bozkatu zuen herriaren beraren gainera. Geroago, 1981eko otsailaren 27an ETApm-ren «borroka armatua» bertan behera uzteak ere ez zuen eragin ETAm-k hausnarketa-aldi bat hasteko, helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzea zalantzan jartzeko. Gertaera garrantzitsu hura gertatu eta astebetara, martxoaren 5ean, ETA militarreko Orbaizeta komandoak polizia-komisario bat erail zuen Bilbon, martxoaren 19an Bizkaia komandoak Gudarosteko teniente koronel bat erail zuen Bilbon ere, eta martxoaren 21ean Nafarroa komandoak Iruñean erretiratutako beste teniente koronel bat. Erakunde terroristak eginga zuen indarkeriaren erabilerari buruzko hausnarketa, eta bere «borroka armatuak» zerbitzari publiko horien heriotzekin jarraitzen zuen. Hurrengo urteetan, hurrenez hurreneko gobernuekin eta indarkeria eteteko negoziazio berriekin, ETAm-k, ETA bakarrik, bere terrore-politikarekin jarraitu zuen.

ERANSKINA

Zutaberen 9. zkia.-ren azala, 1978ko iraila



ITURRIA: Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa

IX. ATALA

JUSTIZIA MAILAK DENBORAREN BEKTOREAN: JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA ETA EGIARAKO ESKUBIDEA ETA POLITIKO-MILITARRAREN IZENEAN EGINDAKO DELITUETAN

GEMA VARONA MARTÍNEZ*

*Kriminologiaren Euskal Institutua/Instituto Vasco
de Criminología (UPV/EHU)*

SARRERA

ETApm-ren jarduera terrorista, 1974an sortu zenetik bere burua desegin zuen arte (1982ko irailean, ETApm VII Batzar gisa), ETAm-rena baino txikia goa izan zen¹. Hala ere, jarduera horrek eragin zituen biktimentzat, inpaktua ezin da soilik guztizko zenbakietan neurtu. Gainera, erakunde horrek desegitean lortu nahi zituen helburu politikoei dagokienez, «prezio politikorik» ez zela egon uste bada ere, baizik eta presoek trukean emandako bake-prozesu bat, ikuspegi biktimologiko batetik, galde daiteke zer ulertu zen bakeaz eta ea ahaztu egin zen biktimek justizian zuten interesa, ondasun politiko gisa, elkarbizitza demokratiko eta justurako balio komun gisa identifikatuta. Izan ere, prezio politikorik eza aipatzen duten egile berberek² ere aitortzen dute, prozesuaren itzal gisa, biktimek «prezio bat ordaindu» zutela eta ez zutela errekonozimendurik jaso edo «jarrera eskuzabala, errebantxismorik gabea» izan zutela, nahiz eta benetan ez zuten inolako protagonismorik izan, ez behintzat gaur egun dutena.

Terrorismoko eta indarkeria politikoko epealdi luzeak jasan dituzten beste testuinguru eta herrialde batzuetan gertatu zen bezala³, benetan bai egon zela kalte edo prezio bat, biktimekin lotutako eskubideak alde batera utzi baitziren, nahiz eta orduan ez ziren bistakoak eta beste elementu asko zeuden jokoan, talde terroristen eta beste indarkeria mota batzuen jarduna barne⁴. Nolanahi ere, zehaztu behar da eskubide horiek, justizia-premiei dagokienez, ez direla justizia klasikoaren aplikazioarekin soilik bete behar, igarotako denbora edo

irekitako auziaren prozesu —edo zigor-egoera edozein dela ere. Ildo horretan, nahiz eta egile batzuek uste duten «biktimak politikoki konpentsatuta daudela, memorian, presentzian eta justizian»⁵, berriro ere, ETApn-ko biktima guztien kasuan benetan hala izan ote zen galdetu behar da (ikus VI. atala).

Kontzeptuak argituz eta beste terrorismo delitu batzuetara eta, oro har, indarkeriazko delituengatik biktimizazioa ere zabal daitekeen proposamen zehatz bat eginez, atal analitiko honekin, betiere ikuspegi biktimologiko kritiko batetik, aurreko galderei erantzun nahi zaie, justizia errestitutiboak Espainiako esparruan eta esparru konparatuan aplikatzean ikasitako ikasgaietatik abiatuta⁶. Horretarako, justizia errestitutiboak zer den argitzea komeni da.

Justizia errestitutiboak, delitu arinetarako eremu anglosaxoian hirurogeita hamarrek hamarkadaren erdialdean sortua, gaur egun mundu osora zabaldu da, delitu larrietan⁷ gero eta interes handiagoarekin eta esku hartzeko dinamika espezifikoekin. Nolanahi ere, justizia errestitutiboaren potentzialtasun handia, era berean, bere muga handia da: prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien borondatezkotasuna prozesu osoan zehar, erreparazio-akordioak betetzea barne, betiere erreparazioa zentzu zabalean eta kasu bakoitzari egokituta ulertuta. Langraiz⁸ bideko presoekin egindako topaketez gain, justizia errestitutiboak printzipioen eta praktiken multzo gisa defini daiteke, justizia penal klasikoaren osagarri edo alternatiba gisa, delitu bat jasateari eta hari eman beharreko erantzunari buruzko beste kontzeptio batean oinarrituta⁹. Delitu bat jasateak ez dakar soilik zigor-arau bat urratzea; esperientzia bakana, anitza eta dinamikoa ere bada, eta kaltetuen bizitza zehaztetan eragiten du. Biktimizazio larria eraso ontologikotzat har daiteke¹⁰, pertsona batek bere bizitzatza eta elkarbizitzatza hartzen duenari dagokionez, nor bere buruarengan, gainerako pertsonengan eta etorkizunean duen konfiantza suntsitzen baitu. Bere inpaktuak hainbat premia biktimal sortzen ditu, hainbat azterlanetan identifikatuta¹¹: segurtasun beharra (informazioa eta babesa); ongizate beharra (erreparazioa, berreskuratzea eta babesa); onarpen sozialaren beharra (aintzatespena eta tratu duina); pertsona eta arauak errespetatzeko beharra (baliozkotzea, justizia eta erantzukizun aktiboa); autonomia beharra (bizitzaren kontrola eta hari eragiten dioten prozesuetan parte hartzea); eta gertatutakoari beste esanahi bat emateko beharra (erreparazioa, egia, memoria eta prebentzioa).

Aurreko guztiari dagokionez, justizia errestitutiboaren hainbat modalitate daude, eta ez dakarte beti biktima eta biktimarioaren arteko topaketa¹², baina, bai, ordea, aurrez aipatutako beharrezanean erantzuteko plataforma bat, bidegabekeriari erantzuteko, terapiaren beharrezanean zerikusirik ez duena¹³. Arreta zigorrean jarri beharrean, justizia errestitutiboak erreparazio prebentiboan jarri nahi du. Beraz, justizia proaktiboagoa da, delituaren erantzunean parte hartze eta indibidualizazio handiagoa ahalbidetu dezakeena, elkarrizketaren bidez. Elkarrizketa hori komunikazio mota horretako adituek ematen dute, erreparazio akordioetan lan egiteko, eta akordio horiek zigorraren edo sortutako erantzukizun zibilaren bidez erreparatzeko kontzeptu tradizionaletik harago doaz.

Oinarri enpirikoko hainbat teoria kriminologikotan oinarrituta, azpimarratzen da, gaur egun, bere muga guztiekin, justizia errestitutiboak aukera ematen duela biktimen eskubide eta beharrei beste edozein justizia motari baino hobeto erantzuteko, biktimarioaren erantzukizun aktibo eta ez estigmatizatzailearen beharra barne. Era berean, zigor-arloko dogmatikaren esparruan, justizia errestitutiboak ere badu estaldura zigorraren teoria mistoen barruan. Azkenik, arau-esparruaren barruan, justizia errestitutiboari buruzko nazioarteko *corpus* juridiko bat dugu, hainbat indar juridiko lotesle dituen¹⁴, baina, zalantzarik gabe, politika kriminal eta biktimal oro orientatzeko balio duena, bai nazioartean, bai Europan eta Espainian. Justizia errestitutiboaren praktika gidatzen duten printzipioen artean, NBEk honako zortzi hauek aipatzen ditu¹⁵:

- 1) Erreparazioa, hau da, delituak eragindako kalte fisiko, emozional eta ekonomikoa ezagutu eta konpontzeko eta kaltetutako pertsonen askotariko eta aldakorren beharrei erantzuteko ikuspegia.
- 2) Errespetua, parte-hartzaile guztiak duintasunez tratatuz.
- 3) Borondatezkoa izatea, biktimen, erasotzaileen eta komunitateko kideen parte-hartzea bermatzen baitu, onespene aske, informatu eta jarraituan oinarrituta.
- 4) Inklusioa, kaltetutako pertsonen parte-hartze esanguratsua sustatzeko eta babesteko, biktimak, erasotzaileak, lagunak, familiak eta beren komunitateak barne.
- 5) Gaikuntza, parte-hartzaileei aukera emanez modu irekian eta zintzoan komunikatzeko eta rol aktiboa izateko beren beharrei nola erantzun zehazteko, haiek ikusten duten bezala.
- 6) Segurtasuna, segurtasun fisiko, emozional, kultural eta espiritualari eta parte-hartzaile guztien ongizateari arreta ematean. Justizia errestitutiboan parte hartzeak ez lioke inolako parte-hartzailei kalte handigorik eragin behar.
- 7) Ardura hartzea (*accountability*), kaltea eragin dutenei laguntzea barne, kaltea dimensio guztietan aitortzeko eta konponketan urratsak emateko.
- 8) Eraldaketa, elkar ulertzeko, erreparatzeko eta aldatzeko aukerak emanez, hurrenez hurren biktimen eta erasotzaileen erreparazioaren eta birgizarte-razaren bidez.

Justizia errestitutiboko programetan parte hartzeak izan ditzakeen onurei dagokionez, Nazio Batuek, besteak beste, honako lau hauek adierazi dituzte¹⁶:

- 1) Biktima eta erasotzaileei justiziarako sarbide zabalagoa eta aldi baterako egokiagoa izatea ahalbidetzen dute.
- 2) Biktimen ahotsa izan dezaten, entzunak izateko aukera izan dezaten eta erasotzaileari entzuteko aukera izan dezaten errazten dute.
- 3) Biktimen eta komunitateei erantzunak ematen dizkiete, jakiteko duten eskubidea eta egitarako duten eskubidea kontuan hartuta.
- 4) Erreparazio material eta sinbolikorako aukera ematen diete biktimen.

Justizia errestituatiboaren kontzeptuaren sarrera honen ondoren, hurrengo orrialdeak, ETApM-ren biktima-ondareari dagokionez, biktimen, biktimarioen eta komunitatearen arteko elkarrizketetan tradizionalki agertu izan diren hiru galderen bidez egituratzen dira, topaketa errestituatiboaren bidez: zer gertatu zen eta zein izan zen kaltea? Nola eragin zuen eta nola eragiten du? eta zer egin dezakegu gaur egun harekin, prebentzioaren eta erreparazioaren ikuspegitik?

I. ZEIN IZAN ZEN KONPONDU BEHARREKO KALETA?

Galdera horri plano biktimologiko batean erantzuteko, honako hauek bereiz ditzakegu: batetik, lehen mailako biktimizazioak eragindako kaltea, hau da, egindako delituek eragindakoa, eta, bestetik, bigarren mailako biktimizazioak eragindako kaltea, biktimak modu desegokian tratatu dituztelako delitua egin ondoren, euren kasuan, amnistia-prozesuetan ahaztuta, espediente judizialak artxibatuta edo delitu horiek egin zituzten pertsonak indultatuta, une horretan delitu horiek estali ahal izan zituen araudia alde batera utzita¹⁷.

Lehen mailako biktimizazioari dagokionez, delitu orok kalte larria eragiten du gizarte osoaren aurka, jokabideak kriminalizatzeko orduan gehiegikeriak egon daitezkeen arren. Zentzu horretan, estatu demokratiko batek ihes egin behar dio etsaiaren zigor-zuzenbideari¹⁸. Gutxieneko esku-hartzearen eta *ultima ratio* printzipioen arabera, Ilustrazioaren konkista handia den aldetik, zigorzuzenbideak pluralista izan behar du, eta gizartearen aurkako jokabide larrietarako bakarrik gorde behar da, bestela prebenitu ezin diren horietarako, eta, euren aplikatzean, zenbait berme errespetatu behar dira, terrorismoaren aurkako politiketan estatuaren *ius puniendi* delakoaren abusuak saihesteko¹⁹.

Terrorismoak, nahiz eta pertsona jakin baten aurkako eraso izan, eta, hedaturaz, haren familia osoan eta maite dituen pertsona, lankide eta lagun guztien gan eragina izan, zeharkako biktimizazioa esaten zaion horretan, gizarte osoari zuzendutako biktimizazio lausoa ere badakar. Terrorismoaren kasuan, Reyes Matek ondo azaltzen duen bezala²⁰, kalte pertsonala, pertsonartekoa eta soziala eragiteaz gain, politikoa ere gertatzen da, sistema demokratiko baten oinarria den aniztasun politikoari eraso egiten zaiolako, hau da, biktimak erabiltzen dira, gizarte osoari beldurtzeko eta Estatu demokratikoari erronka egiteko mezu bat igortzeko bitarteko gisa, ETA politiko militarren jardueraren kasuan hasiberria zena. Eraso terroristaren emaitza kalte politiko sakona da, pluralismoaren aurkako indarkeriaren bakarriketa indartzen duena, gizarteari biktimaren bizitza bakar eta baliotsua kentzen diona, eta biktimario batengan eta haren ingurukoengan ere eragin negatiboa duena, beti suntsitzailea den indarkeria onartzen baitute.

Liburu honen beste atal batzuetarako gordetako testuinguru historikoaren konplexutasunaren barruan (ikus I. ataletik III.era bitartekoak), ETApM-ren indarkeriak erreparazioa eskatzen duen kalte pertsonal, pertsonarteko, sozial eta politiko hori eragin zuen. Kalte pertsonal eta familiar zehatzari dagokionez,

1974ko lehen hilketaz geroztik, arlo horretako espezialistarik handienetako bati jarraituz, goranzko joera aipa daiteke kaltearen gorakadan, bereziki 1979az geroztik, hasierako atentatu sorta askotariko bat aipa daiteke, hildako gutxi-ekin, hala nola X zinema-aretoetako eraso, eraikin ofizialak une batez hartzea, esku-paperak jaurtitzeko hegazkin bat lapurtzea, bankuen lapurreta edo, ETApM-ren espezialitatea, industrialarien edo administrazioko goi-kargudunen bahiketa espresak, ordu gutxiren buruan belaunetan tiro batekin edo gehiagorekin askatzen zituztenak... (ikus IV. atala)²¹.

Horrez gain, bonbak jarri zituzten Barajasko aireportuan eta Chamartin eta Atochako geltokietan (Madril), eta zazpi hildako eta ehun zauritu baino gehiago eragin zituzten. Nahiz eta, kaltearen gorakada horren aurrean, taldeko eta EIAko kideen barne kritikak izan, 1979ko azaroan, Javier Rupérez bahitu zuten, 31 egunen ondoren aske geratu zena. Halaber, 1980ko ekainean, Michelin multinazionalako zuzendari bat eta, hilabete batzuk geroago, langile bat hil zituzten, eskuin muturreko talde terrorista bateko kide izatea egotzita, baita Polizia Nazionaleko kapitain bat eta UCDko bi buruzagi ere²². Bi buruzagi horiek Ignacio Ustarán eta Juan de Dios Doval izan ziren. 1981ean, su-etena aldarrikatu aurretik, ETApM Kataluniako kuartel bati eraso egiten saiatu zen, hiru kontsul bahitu zituen, handik egun gutxira askatu zituenak. 1982an, ordea, ETApM-k Julio Iglesias doktorea bahitu zuen, eta Poliziak askatu egin zuen. Nolanahi ere, 1982an eta 1983an ere egin ziren hilketak.

Guztira, ETApM-ko 24 hildako zenba daitezke, urtero honela banatuta: hiru 1974an; lau 1975ean; hiru 1976an; bi 1977an; bat 1978an; zortzi 1979an; bost 1980an; eta bat 1982an eta 1983an, hurrenez hurren (ikus VI. atala). Bahiketegi (edo zentzu zabalean egindako atxiloketei)²³ dagokienez, 46 zenbatu dira²⁴: lau 1976an, bat 1977an, zazpi 1978an, hamahiru 1979an, 14 1980an eta zazpi 1981ean. Eragin biktimala, zuzena eta zeharkakoa, latza izan arren²⁵, bahiketa gehienak egun batekoak edo gutxiagokoak izan ziren, eta batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan egin ziren. Bahiketaren emaitzari dagokionez, esan daiteke terroristek 26 biktima askatu zituztela kalterik gabe; hamalau hankan tiro bat zutela; bat segurtasun-indarrek askatu zuten; beste batek ihes egin ahal izan zuen; eta zazpi hil egin zituzten. Bahitutako biktima bat gerora sortutako gaixotasunak jota hil zen (ikus VI. atala). Bandak bahiketarako erabili zuen justifikazioa, batez ere, ekonomia —edo lan-arlokoa izan zen. Biktimen profilari dagokionez, batez ere, enpresariak eta bestelako profesionalak izan ziren (ikus VI. atala).

Bizitzaren, askatasunaren edo jabetzaren aurkako eraso lehen mailako biktimizazio horretatik harago, bigarren mailako biktimizazioa ikus daiteke, biktimekiko gizarte —eta erakunde-axolagabekeria handiak eta biktimen ahot-sik gabeko birgizarteratzeak eragindakoa (ikus VI. atala)²⁶. 1982an bere burua desegin zutela iragarri ondoren, Frantziar zeuden ETApM-ko kideek beren bizitzak berregin zituzten, eta Espainiako kartzeletan preso zeudenak Euskal Herrira ekarri zituzten, nahiz eta hilabeteak eta urteak behar izan ziren kasu batzuetan lehenengo gehienak itzultzeko eta bigarrenak kartzelatik ateratzeko²⁷.

Gaizka Fernández Soldevillaren arabera, Euskadiko Ezkerra alderdiaren bultzadarekin eta botere exekutibo eta judizialen babesarekin:

